96
14

POUVREAU

IMITACIONEA.

Lehen Liburua
Jesusen Imitacioneaz
Lehen Capitulua
Munduco vanaloria gucien mesprecioaz

I Nor ere baitarrait eztabilla ilhunbean
aitcitu
bainan içanen du viciaren arguia, 10.8.12. dio gure
Jaunac. Hauc dira gure Salvatçaillearen
hitzac, eta hetaz gombidatcen gaitu bere
viciaren eta vicitceco antcearen imitatcera iarraiquitiara
naibadugu aguiazco arguiaz goçatu, eta
bihotzeco ilhuntasun gucietaric libraturic
ibilli. Biz bada gure arthetaric handiena
Jesusen vicitcea hemendic hara gogoan
erabiltea

II Gure Salvatcaillearen dotrina garaitcen
çaye bertce saindu gucien nahiz diren
dotriney, eta nore ere bailuque haren
endellegua hartan barrena causi leçaque
manna nahida apoc. 2.17
ceruco iaquia gorderic estalliric

Bainan hala guertatcen da, non hainitzec
Evangelioa maiz ençuna gatic ~~desir guti~~
hari iarraiquitceco desir guti eta hala ere
hotzic Sentitcen baitute, ceren ~~es~~ eztuten ezpaitute
Jesusen espiritua ardietsi

Bada nore ere nahi baititu haren hitzac

ossoqui eta goçoqui iaquin, behar du bere
vicitce gucia haren vicitcearen gainean
ahal ~~gucia haren~~ beçambat moldatu
III Cer probetchu duçu gauça ~~gorarie~~ handirie
Trinitate Sainduaren gainean erraiteaz,
humiltasuna ezpaduçu ceina gabe higoinduco
baitçaisco Trinitate Sainduari?

Guertuz gauça gorez minçatceac eztu nihor
eguiten Saindu eta iustu, baina bai vicitce
vertutetsuac hura eguiten du Jaincoaren
gogaraco

Nahiago dut urriquimendua ene baitan
sentitu, ecen ez iaquin cerden urriquimendua

Baceneaqui ere Esquiritura Saindu gucia
gogoz eta endelleguz, bai eta Filosofen
erran, çuhur guciac bacenea quisqui, Cer
probetchu cenduque handic charitatea eta
gracia gabe?

Vanalorien vanaloria, eta guciac vanaloria
lekat Jaincoa maite içaitea, eta hari choilqui
seraitçu eguitea baicen.

Gucien gaineco çuhurcia eta iaquintasuna
da ceruco erresumara gogoz eta obraz
chedatcea mundua mespreçaturic
IV Beraz vanaloria da galcor diren
aberatstasun~~en~~ galcorria ondoan ibiltcea, eta hetan

esperança emaitea

Vanaloria da ohoreen ondoan Kechatcea eta gradu edo cargu handietara alchatcea

Vanaloria da haraguizco guthiciey iarrai quitcea, eta, Caren ere gatic garratzqui Sensatu behar baita nihor, haren desiratcea.

Vanaloria da Vicitce lucearen desiratcea eta prestuqui vicitceaz achola guti icaitea.

Vanaloria da ~~presenteco~~ oraico vicitceari choilqui gogoa emaitea, eta ethorquiçunari aitcinetic ez behatcea.

Vanaloria da lasterca iragaiten diren gaucey ~~en~~ amudio eKartcea, eta Seculaco bozcariva dagoen becura ez behiatcea

V Orhoitçaite maiz ohico erranaz: eztela beguia asetcen iaisteaz, ez eta beharria encuteaz. Eccles 1

Duçun bada arthaçure bihotzaren atheratceaz icusten diren gaucetaric, eta haren eramaiteaz icusten eztirenetara Ecen.

Norere bartarrayo bere ~~haragui durari~~ guticia in oldeari hare bere consciencia liçuntcen du, eta Jaincoaren gracia galtcen.

Bigarren Capitulua

Behar duela nor nahic bere buruaz Sentimendu humil iduqui.

I Badute guciec bere Sorcuraz iaquiteco guthicia, ordea iaquiteac cer dakarque Jaincoaren beldurtasunic ezpada?

Segur Jaincoa Servitçatcenduen languille humilla hobea da, ceruen itçul inguruac en bere burua largaturic, miratcen hari den Filosofo urguillua baino

Nore ere ~~bere burua nor den~~ ongui eçagutcen bernor den baitu, berehala bere burua chipi daduca, eta eztu atseguinic hartcen munduco laudorio ez.

Banea quisqui ere munduan diren gauça guciac, eta ediren banendi charitateaz eta graciaz billusiric, cer probetchu nuque ene obrac gatic ingeatu behar nauen Jaincoaren aitcinean?

II Largaçaçu jaquiteco guthicia soberaniazco hura, ecen hartan hainitz errebelamendu da eta enganamendu hainitz

Jaquinsunec nahi ohi dute munduac icus detçan, eta erran deçan hainitz iaquinac direla.

Hainitz gauça dira ceinen hêquin iaquiti hutzac probetchu guti baitakarqueo arimari edo ez bat ere ~~ez~~ eta erho handia da nore ere bere arimaren Saluamenduco gaucez bertceric buruan baitarabilla.

Hainitz hitz guiteac
~~Hitzguite handiac~~ eztu arima satiatcen
bainan vicitce prestuac bozten du gogoa
eta Consciencia garbiac emaiten du Jaincoa
baitaco fidança handia
III Cembatenaz areago eta hobequi baitaquiçu
hambatenaz garratzquiago ingeaturen çare
Sainduquiago vici ezpaçara.
Etçaitecula beraz urguillu jcasi duçun
officioa edo ardietsi duçun iaquintasuna gatic
aitcitic çarela beldur eman içan çaitçun
eçagutça gatic
Iduri badagotçu hainitz gauçadaquiçula, eta
ongui asqui, halaric ere jaquineçaçu gueyago
dela eztaquiçunic
Ez eguin çure burua iaquin handi, aitcitic
~~aitor~~ cinetan çure iaquingabea
aitorecaçu
Cergatic nahi duçu avantaillahartu bertceen
gainean, icusiric hainitz bertceric edireiten
dela çu baino iaquinsunagoric eta legueetan
frogatuagoric?
Nahi baduçu cerbait icasi eta iaquin çure
probetchutan, duçun atseguin ceren munduac
etçaituen eçagutcen, eta ez deus çadutçan
IV Beregaineco eta probetchu guciz handitaco
Leccionea eta iaquintasuna da, bere ~~ongui~~
burua~~ren~~ ongui eçagutcea eta mespreçatcea.

Bere burua ez deus iduquitcea eta bertceez bethiere ~~ongui~~ iugeamendu on eta Contu handi eguitea çuhurcia eta perfeccione handia da.

Nihor icus baceneça ere agueriz bekatutan erorten, edo cerbait gaizqui handi eguiten etcenduque hargatic, çure burua hobeestimatu behar, ceren ezpaitaquiçu noiz artean prestu=tasunean ahal çaudesquen.

Guciac erorcor, hautscor, eta flaco gare bainan eztaducaçula çu bainò erorcoragoric eta flacoagoric badela.

Hirurgarren Capitulua

Eguiaren Dotrinaz menduaz.

I Doatsua da nor ere eguiac dotrinatcen baitu, berac ordea ez figurez ~~et~~ ez eta iragaiten diren hitzez, baina beraden beçala

Gure iduritceac eta usteac maiz enganatcen gaitu eta guti dacusa.

Cer probetchu dakarque gauça estaliric eta gorderic nauaruenqui iaquin nahiz era=bilteac, ezpaigara acometaturen arquen ingeamenduan ceren eztugun halacoric iaquin.

Gure erhoqueriaren handia! gauça premi=azcoac eta probetchosac utsiric gure gogo gucia etchatcen dugu curiosetara eta galgarrietara: beguiac itugularic eztugu icusten.

II Cer ansia dugu Filosofec bere artean gauça generalen eta berecien gaincan dara=biltçaten solhasez? Nori ere minco baitcayo Jaincoaren hitza eta çuhurcia, hura hainitz opio=netaric libratua da

Gauça guciac heldudira hitz batetaric eta bat hura aippatcen dute guciec, eta hura da gauça gucien ithurburua, guri ere minço Çaicuna.

Hura gabe eztu nihore endellegatten ez eta ongui iugeatcen.

Nore ere gauça guciac baita dutça bat eta guciac batetara baitakasque, eta guciac batetan baitacusqui, hura ahal daite bihotzaz finco eta ~~baque~~ Jaincoa baitan baque iar diteque

O Jainco eguia, eguin naçaçu çurequin bat bethiereco charitatean

Hainitz etan unhatcen naiz hainitz iracur=tceaz. eta encuteaz: çure baitan da nahi eta desiratcen dudan gucia.

Beudez ichilic iaquin sunhandiac, beudez Creatura guciac hitzic gabe, çure aitcinean çu choilqui othoy. minça çaquisquit.

III. Cembatenaz bilduago iuntatuago eta iarriago baita nihor bere buruarequin bertcetara barrayatu gabe, hambatenaz.

gauça gueyago etagoragoac aditcen tu
traburic gabe ceren arguia içaiten baitu gainetic
~~arguia~~ hequin endellegatceco

Espiritu garbia, simplea eta fermua,
lan hainitz içana gatic ezta kechatcen, ez
barrayatcen, ceren gauça guciac eguiten
baititu Jaincoaren ohoretan, eta enseyatcen
baita gueldi egoitera bere baitan, deusic
beretçat bilha ibilli gabe

Cere trauatcen eta tarritatcenaco çaitu
bihotzean daducaçun passione ~~mortificata~~ heldumatu
galzeac baino?

Guiçon prestuac eta deuotac lehen bere
baitan ordenatcentu campoan eguin behar
dituen lanac, eta eguitecoac hura eztara-
mate inclinacione gaixtoaren guthicietara
aitcitic hare erakartcentu arraçoinarez.
neurrira eta chedera.

Nore du gudu gaitzagoric bere buruari
garaitcera lotcen denac baino?

Bizquitartean hura behar liçate gure lan
handiena içan, gure buruari garaitcea
egun oroz gure buruabaino sendoago eta
bortitzago iartcea, eta bethi onean
gueyago aitcinatcea.

IV Ceinere nahi den perfeccioneri
cerbait escas datcheco vicitce hunetan

eta gure behatce gucietan lambrotcen
çaisquiga beguiac eta ilhuntcen.

Çure buruaren eçagutce humilla bide
Segurago da Jaincoa gana heltceco, ecen ez
iaquintasun gucietan barrena Sartcea.

Badaric iaquintasuna edo nahiz diren
gaucen eçagutça simplea ezta gaizqui
erraiteco, bera den beçala consideraturic
ona baita eta Jaincoac ordenatua; bainan
bethiere auantailla eman behar çayo
Consciensçia onari eta Jaincoaren araueraco
vicitceari.

Ceren ordea hainitzac enseyatcenago
baitira iaquitera ecen prestuqui vicitcera
hargatic maiz enganatcen dira eta probet
churic bat ere edo guti baicen eztakarquete
V O! Baldin galde Curiosic eguitera
eta erabiltera ekartcen duten beçambat
neque eta ernetasun harbaleçate ere
bekatuen atheratceco eta vertutcen landatceco,
eliçate hambat gaixtaqueria eta escandolisa
gendartean, ez eta horrembat largotasun
Conuentuetan.

Segur azquen iugeamendu eguna dator=
=renean, etçaiçu galdeguinen cer iracurri-
dugun, baina bai cer eguin dugun, ez
eta Cein ederqui minçatu garen,

baina bai cein vertutizqui vici içan garen.
Erradaça, othoy, non dire orayçuc
oraino viciric eta collegio etan nausi iarriri
eçagutu ditutçun Jaun eta Dotor hec guciac
Bertcea orai dadutçate hequin lecuac
eta eztaquit hetaz orhoit direnz ere.
Vici cireino baciruditen cerbait cirela
eta oraicoan ezta nihor hetaz minçatcen.
VI O Cein laster iragaiten den munduco
loria! Aclitçayo hequin vicitcea ardietsi iarraiqui
Çuten iaquintasunari ~~iarraiqui~~! Orduan
erran liteque ongui estudiatu eta iracurri
Çuquetela.
Cembat galtcen diren munduan vanalori
arco iaquintasuna gatic, Jaincoaren Ser=
=vitçuaz achola gute içanen!
Eta Ceren nahiago duten handi içan
ecen ez humil, hargatic airatcen Çaye
burua bere gogoetetan.
Eguiaz~~qui~~ handi da nore ere charitate
handia baitu
Eguiaz~~qui~~ handi da nor ere bere baitan
chipi baita, eta ohore mucuru guciac
ez deus baitadutça
Eguiaz çuhurra da lurreco gauça
guciac ongarri, estimatcen dituena
Jesusen irauastea gatic
Eguiaz choil iaquinsuna da Jaincoaren

borondatea eguiten duena berea utsiric.

Laugarren Capitulua

Eguitecoez aitcinetic behatceaz eta hetan behar den Çuhurciaz

I Hitz guciac eztira cinetstecoac ez eta gogoratcen diren guciac, bainandena den beçala pisatu behar da beguiratuz eta astiroqui Jaincoaren arauera

Ha dolorea! hainitz etan errazquiago gure lagunaz gaizquia cinetsten dugu onguia baïno, hain flaco baigara ecen

Ordea guiçon çuhurrec eztituzte berehala berri ekarleac cinetsten, baitaquite guiçonaren flacotasuna gaizquira eroria, minça corra eta hitzetan erorcorra dela.

II Çuhurcia handia da eguitecoetan ez zehiatcea, eta bere buruco ustetan ez thematcea.

Çuhurciari ere dagoca elhe berri guciac ez cinetstea, eta adituac edo cinetsiac berehala bertceren beharrietara ez eramaitea

Hareçaçu conseillu guicon çuhur eta Consciencia onetaco baten Conseillua; eta duçun artha gueyago çu baino hobeagoric bilhatceaz haren ganic icasteco ecen ez Cure buruco asmatcen ondoan ibilteaz

iarraiquitceaz.

Vicitçe prestuac eguitendu guiçona
çuhur Jaincoaren aitcinean, eta hainitz
gauçatan iaquinduri.

Cembatenaz humillago baita guiçona eta
Jaincoa gana obedientago hambatenaz
içanen da çuhurrago eta baqueago ibil bide
gucietan.

Bortzgarren Capitulua

Esquiritura Sainduaren iracurtçeaz

I Eguia bilhatu behar da Esquiritura
Sainduan, ez aharantça ederra.

Esquiritura Sainduan datçan gucia iracurri
behar da eguin içan den beçalaco Espiri=
=tuareguin

Esquirituretan lehen bilhatu behar dugu
gure arimaren probetchua ecen ez hitzen
Çotillecia.

Devocionezco liburu apalac iracurri behar
ditugu gauça gorez eta barrenez minço
derenac beçain gogotu.

Ez beha ea liburua eguin duenac hainitz
edo guti daquienz, bainan eguia hutzaren
amudioac gombida çaitçala haren iracurtçen.

Ez tuçula ansiaric nor minço den baina
behaçaçu Cer den errana.

II Badoaz guiçonac, bainan Jaincoaren eguia Seculacotz dago.

Jaincoa hainitz moldez minço caicu nihoren beguitartera behatu gabe

Gure iaquin nahi eguiac maiz pachelatcen gaitu esquiritura Sainduen iracurtcean noiz ere nahi baitugu hetan barrenegui Sartu, eta Simplegui iragan behar liça tequeyena fondatu.

Nahi baduçu probetchuric ardietsi iracureçaçu humilqui, simplequi eta fidelqui eta eztaquiçula Seculan burura ethor iaquinsun çarelaco aippamenaren nahia

Eguitçu Çure galdeac emequi, eta caude ichil çuhurren hitcen ençuten

Ezta quisquitçula higoin, çaharren erranac eta Comparacioneac, ceren eztira alferric eta arraçoinic gabe atheratcen.

Seigarren. Capitulua

Affeccione desordenatuez.

I Noiz ere cerbaitez guthiciatcen baita guiçona behar ezten leguez berehala bere baitan asaldatcenda.

Superbioac eta avariciosac eztute nihoiz ere pausuric: bainan gogoz eta bihotzez pobre eta humil direneac neurrigabeco Soseguaz eta baquear goçatcen dire

Bere baitan ossoqui mortificatua oraino
ezten guiçona laster tentatcen da eta ven-
çutcen gauça appurretan eta ez deusetan.
Espiritu flaco duena eta ~~nolaz pait oraino~~
haraguizco eta munduco gaucetara ~~etcina dena~~
nolaz pait oraino etcina dena, nequez ossoqui
aparta diteque lurreco ~~gut~~ guthicietarie, eta
hargatic maiz tristetcen da hetaric apartatcea
eta erraz qui haserretcen da nihor iartcen
baçayo contra.

II Ordea behin ardietsten badu desiratcen
duena, berehala conscienciaren ausiquiac hura
kechatcen du, eta erançute eguiten dio ceren
iarraiqui çayon bere guthiciadurari, icusiric
etçayola deusetan heltcen bilha cibillan
baquearen ardietsten
~~eraz~~
Bada guthicien contra iarriz aurkitcenda
behotzeco baque eguiazcoa, eta ez hez
iarraiquiz.

Beraz ezta baqueric haraguiara, edo
campoco gaucetara emana denguiçon aren
behotzean, baina bai guiçon espirituala eta
eta Jaincoa gana pitstua baitan.

Çazpigarren Capitulua

Esperança falsoari eta superbiotasunari

Thez eguitear

I. Vanaloriazcoa da bere esperança

guiçonetan edo creaturetan eçarten duena
Etçarela ahalke bertceen Seruitçatcera
Jesusen amorea gatic eta munduhunetan
pobre iduritcera
Etçaitecila fida çure buruaz bainan eçar=
=eçaçu çure esperança Jaincoa bastan choilqui
Eguicu eguin ahala çure aldetic, eta Jaincoa
helduco çayo çure borondate onari
Etçaitecila fida çure iaquinaz edo nihoren
arteziaz, bai ordea Jaincoaren gracia bastan
hare avantaillatcen bastitu humillac eta bere
burua handi daducatenac beheititcen.
II Etçaitecila loria aberatstasunetan
balin baduçu; ez eta adisquidetan ceren handi
diren, bainan Jaincoa bastan, Ceinac den
gucia emaiten bastu eta desiratcen ere
bere buruaren emaitera gauça gucien gainetic.
Etçaitecila arguilla çure gorputzeco
handitasuna edo edertasuna gatic, Ceren
appurbat eritur galtcen da eta itsusten
Etçaitecila loria çure fetchotasunaz edo
espiritu ederraz, beldurrez higoin çaquiscon
Jaincoari, Ceinarena basta cer ere onic
bastuçu çure içaitez
III Ezta ducaçula bertceac baino hobea
çarela, beldurrez gaintoago ediren çaitecin

Jaincoaren aitcinean, ceinac baitaqui Cer den guiçona baitan

Eztuçula buruperic çure obra onac gatic Ceren bertcela jugeatcen du Jaincoac. eta Munduac bertcela, eta hainitz etan Jaincoan itsusi çayo munduari eder çayona.

Cerbait onic baduçu cinetsçaçu bertcac hobeagoric dutela humiltasuna beguira deçaçun gatic.

Eztuqueçu calteric gucien azpian iartceaz bainan bidegabe handi eguiten dioçu çure burua ~~nihor ere~~ bat baino gorago alchatceaz.

Humilla goçatcen da arduraco baqueaz eta superbioaren bihotzean ostatatcen dira jnuidia eta bekaitsteria.

Çortcigarren Capitulua

Beguiratu behar dela Sobera Familier Içaitetic

I Eztieceçula çure bihotza guciey aguer bainan eguiçu çure eguitecoac guiçon cuhur. eta Jaincoaren beldur batequin.

Gasteequin eta Campocoequin etçaitecila maiz ibil

Aberatsac ez lausenga, eta handien aitcinera ez aguer gogotic.

Laquet bequiçu humillequin eta simple equin, deuotequin eta aztura on eta coequin etahequin artean minçacaite gauça Sainduez.

Etçaitecila ~~balsa~~ treua familier naiz den emacumerequin, bainan emazte presta guciac orobat gomenda diotçotçu Jaincoari.

Duçun desira Jaincoarequin chalqui eta haren Anguerueequin familier içaiteco, eta iher equiçu guiçonen eçagutçatic.

II Charitate behar da gucien aldera, bainan guciequin treue içaitea ezta on.

Batçutan guertatcen da norbait ecagutua eztenean onqui aippatcen dela bere omen ona gatic + eta berac gendartean Sarturic lambotcen dituela jcusten dutenen beguiac.

Cembait aldiz iduri dagoca bertceey eguiten derauegula atseguin hequin artean Sartceaz, eta orduan hasten gara hey higointcen gure aztura gaixtoac consideratuz.

Bederatcigarren Capitulua

Obedienciaz eta azpico iartceaz

I Guztiz gauça handia da obediencian egoitea, superior baten azpian vicitcea eta bere burua ez içaitea bere escuco.

Haguitz Segurago da azpico içaitea, ~~esenez~~ Nausi ~~baino~~ eta Cargudum baino

Hainitzac obedienciaren azpian daude
borchazago charitatez baino, eta halacoec
pena dute, aringui darasate, eta bihotzeco
libertatea eztute ardietsico, iartcen ezpadira
gogo guciaz norbaiten meneco Jaincoagatic.

Laster eguiçu huna edo horra çoaz nora
nahi, eztuçu pausuric edirenen Superior
baten ~~a~~ manuaren azpian humilqui iarriric
baicem

Hobequi causitceco
Iduritceac eta lecutic lecura aldatceac
hainitz enganatu dute

II Eguia da batbedera gogotic hari dela
iduri dagocanaren arauera, eta lixturtcenago
dela berac beçalaco Sentimendic dutenen
aldera; baina Jaincoa gure artean badago
premia da batçutan utz deçagun gure
Sentimendua baque içaitea gatic.

Nor da hain çuhar non diren guciac
ahal da quisqueyen?

Beraz etçaitecila Sobera perma çure
Sentimenduaren gainean, baina bertcerena
ere ençuneçaçu gogotic; ecen çure Senti=
=mendua ona ~~ber~~ bada eta hura Jaincoa,
gatic largatcen baduçu bertcearenari iarrai=
quitceco, probetchu gueyago handic
atheraco duçu

III Hainitzetan aditu dut segura dela
ençutea eta conseillu hartcea, emaitea baino.
Guerta diteque ere bataren eta bertcearen
Conseillua on içanen dela; baino bere ez
~~ustea~~ utstea bertceari amor eguitea gatic
arraçoinac hala nahi duenean, superbioaren
eta nauaruenaren seinalea da.

Itamargarren Capitulua

Beguiratu behar dela Soberazco
hitzquetetaric

I Iher eguiçu munduco auarrotz etic ahal
beçambat: ceren lurreco ~~tratu~~ gaucen
tratuac, intencione onez eguiten bada ere
haguitz paxelatcen gaitu: ceren laster
atcemaiten baigaitu vanaloriac eta eramaiten.
Nahi nuque hainitz aldiz ichilegon baninz,
eta compainietan sartu ezpaninz
Cergatic ordea hain gogotic solhastatcen
dugu elkar, jcusiric gutitan behartcen
garela ichil egoitera, non eztugun consciencia
cerbaitez çaurtu?
Hargatic hain gogo idequiz iartcen gare
hitzguiten, ceren elkarrequico solhasez
baigabiltça, alkar ganic, consolacione bilha
eta nahi baiguenduque ~~bidahartaz~~ gure
behotz ~~çapahia~~ nahasia eta hainitz gogoeta suertez
çapatua bide hartaz arindu eta atsequin

ḥandi dugu orhoitceaz eta minçatceaz
ḥaguitz maite edo desiratcen detugun gaucez
bai eta gure ~~dir~~ desgo garacoez arrancu=
=raticeaz.

II Hadolorea ordea! hainitz etan hutsic
eta alferric harigare. Ceren Campoco Conso=
lacione hare eztio calte guti ekartcen -
barreneco eta Jaincoa ganicaco consolacioneari

Hargatic erne egon behar da eta othoitz
eguin arren dembora eztoan alferric.

- Behar bada minçatu Sori bada minçatcea
eta behar bada, minça caite gauça onez
eta arimari ukitcen çaisionez.

Gure Usança gaixtoac eta arimaco aitcipamendec
espiritu alaz dugun ansia appurrac hala
partez eguiten derauçu ahoa largo eta mihialibro.

Badaric ere gauça espiritualez elkarren
artean Solhas eguiteac eztu arimaren
probetchua guti aitcinatcen, noiz ere
behintçat borondatez eta gogoz quide
direnac elkarganatcen baitira Jaincoaren
ohoretan

Hamecagarren Capitulua

Baquearen ardietsteaz eta aitcinamendu espiritualaren desiraz.

I Baque handi batez goça ahal guindosque nahi ezpaguendu sartu bertceren erran etan eta eguitecoetan eguinetan, ceinei ezpaite gaituste ukitcen

Nolatan lucequi ~~ahal~~ dagoque baque bertceren eguitecoetan balsatcen dena? Campoan ~~sartcen~~ bere baitarae ~~dena bere buruaren~~ biltcen dena bere buruaren eçagutceco?

Doatsu dira simpleac, ceren baque handia içanen dute.

II Nondic cergatic saindu batçuc ~~hambat~~ hain bertce perfeccione ardietsi dute, eta hain içan dire arguituac ceruco gaucetan? Ceren ~~lurreco~~ hequin lan gucia içan baita lurreco guthiciac ossoqui hiltcea bere bihotzetic, eta hargatic ~~ben~~ arimaco indar guciez itchequi ahal diote Jainoari, eta egon ahal dira traburic gabe bere barrenaren errecaitatcen.

Gu sobera gatcheste gure passioney, eta waiten diren gaucez sobera ansiatcen gara.

Gutitan ossoqui garaitcen ba gaisco vicio

bati, gutitan pitsten gare egunorozco aitcinamendura espiritualera, halatan guelditcen gara hotz eta epel.

III Gure baitan ossoqui hillacbaguine, eta barrenean corapillatuac ezpaguine, orduan. ~~ceruco~~ Jaincoaren gauçac dasta hahal guenetçaque eta cerbait frogaguininque ceruco eztitasunen Contemplacionetic.

Trabu gucia eta denhandiena da ceren ezgaren passionetaric eta guthicietaric libratuac eta ceren ezgaren enseyatcen Sainduen bidean Sartcera.

Ondicoric gutiena guertatcen çaicunean lasteregui erorten gare eta munduco Consola cionetara itçulten.

IV Baldin guiçon Sendoac beçala enseya baguindez gure ahalaz guduan fermu eta finco egoitera Segur icus gueneçaque Jaincoa Cerutic heldu dela guri laguntcera.

Hura prestic baitago guduan haridireney eta haren baitan esperança duteney heltcera nola berac bilhatcen baiter ausquigu gudu-catceco ocasioneac garaigaquisten gatic.

Jaincotiartasunaren aitcinamendua emaitta badugu choilqui campoco Cerimonietan, Sarri fin hartuco du gure devocioneac

Bainan aizcora eman deçagun errora arren passionetaric garbituric baquezco bihotzaz goça gaitecin

V Urthetic urthera choilqui vicio huts bat athera baqueneça errotic, lasterquiçon perfet eguin guindesque.

Bainan orai contra da eta hainitz etan Sentitcen dugu hobeago eta garbiago guinela Jaincoaren seruitçara lehen bici itçuli guinencan ecen ez hainitz urthez gueroztico votuaren ondoan

Egun oroz behar Guenduque beroquiago devocionean aitcinatu, bainan orai badirudi gauça handia dela nihore guti bat iduqui ahal baleça bere lehen bicico bero hartaric.

Appur bat borcha baqueneça gure burua nahiz den gucia guera baqueneidique errazqui eta allegueraqui.

VI Gaitz da lehenecо ohitçaren utstea, baina gaitzago da bere borondatearen Contra iartcea.

Ordea garaitcen ezpaçaiste gauça appurey eta ariney, noiz garaituco çaiste gaitzeney?

Jarçaite hastetic çure inclinacionearen Contra eta ahants bequiçu çure aztura

gaixtoa, beldurrez appurca çaramatçan gauça gaitragoetara.

O ieus baceneça cein baque handi ardiets ceneçaquen, eta nola bozcario eman ciniecequen laguney çure prestuqui vicitceaz; uste dut anfratsuago cinatequeyela çure probetchu espiritualaz

Hamabigarren Capitulua

Afliccionetaricaco probetchuaz

I On da guretçat cerbait gaitz batçutan guerta daquigun, eta norbait iar dadin gure Contra, Ceren bide hartaz guiçona maiz bihurtcen da bere gana eçagutceco desterruan dela eta eztuela esperançaric eçarri behar-munduco gaucetan.

On da guretçat cembait aldiz Contra erraillеac ditugun eta paira detçagun bai eta gutaz ingeamendu gaixtoric eta makurric eman deçaten, ongui eguiten dugularic eta intencione onarequin

Horrelacoac heltcen çaisquigu humultasunaren ardietsten, eta beguiratcen gauluste vanaloriatic.

Ecen orduan Jaincoa hobequi hartcen dugu gure barrenaren lecuco, munduac

campotic deus gutitçat garabiltcandan, eta cinetsteric etçaicunean emaiten.

II Halacotz behar luque guiçonac Jaincoa baitan ossoqui permatu, mengoaric. ez içaitea gatic hainitz munduco Consolacioneren bilha ibiltico

Noiz ere borondate onezco guiçona tribu=latcen baita, edo tentatcen, edo ~~penso~~ gogoramendu gaixtoz penatcen, orduan eçagutcen du Jaincoaren beharago dela eta icusten dic hura gabe ecin daidi queyela deus ere onic.

Orduan ere tristetcen da, hatsbehera penez nigarrez eta othoitzez iartcen da pairatcen dituen miseriac gatic.

Orduan unhatcen da vicitce luceaz eta desiratcen du herioa datorren haren libratcera eta Jesus gana eramaitera.

Orduan oraino ongui dacusa munduan ecin dite queyela Segurança betheric eta baque ossoric

Hamahirurgarren Capitulua

Tentamenduen Contra iartceaz.

I Munduan vici gareino ecin garatisque tribulamenduric eta tentamenduric gabe

Halatan esquiribatua datça Joben liburuan
querla eta tentationea da guiçonaren vicitcea
lurraren gainean.

Horren gatic beharlaque batbederac ansi
atsu iarri tentamenduen gainean, eta
erneric ego othoitzetan, beldurrez etsayac
aurqui deçan lecuric haren enganatceco;
nola ezpaita nihoiz ere loakartcen, bainan
inguruz inguru baitabilla nor irets deçan
bilha.

Ezta nihor ere hain Compliric eta hain Sain=
=duric, non eztuen noizpait cembait tentacione
eta ecin gaudesque ossoqui gabe

II Guciarequin ere batçutan tentacioneac
haguitz onac dira guiçonarentçat gaitzac
direlaric eta fasticagarriac, ceren hec direla
bide humiltcen baita, garbitcen eta çuhurtcen.

Saindu guciac iragandira tentacioneen
bide pelcarretic, eta probetchu athera
dute hetaric.

Tentacioneac ecin iasan ditustenac Jain=
=coaren umean Contutic erori dira eta galdu

Ezta hain ordena Sainduric ez eta hain
lecu gorderic non ezten han tentagarriric eta
pairatcecoric.

III Ezta guiçona ossoqui Seguratua tentacio-
netaric vici deino, ecen gure baitan barrena
datça nondic tentagaitecin, guthicia duraren
ilhetiarequin Sortu garenetic.

Tentacione edo tribulacione batioaiten denean
berehala heldu da bertcea, eta bethi içanen
dugu cer paira, ceren gure doatsutasunaren
auantailla galdu baitugu.

Hainitz bilha dabiltça nondic ihezeguin
tentacionetaric, eta gaitzagoetan barrena
erortcen dire

Jhesi ioan hutsez ecin garai gaitesque
bainan pacienciaz eta eguiazco humiltasunaz
bortitz ago eguiten gare etsay guciac baino.

IV Campoco ocasioney taric choilqui itçulten
çayenac, eta barreneco erroac atheratcen
eztituenac probetchu guti eguinen du.
aitcitic lasterago bihurtceco, çaisco tentaci-
=oneac, eta gaizquiago içanen da.

Baratcheca pacienciaz eta irautez
Jaincoarequin batean hobequi garaitu, çaiste
buru gogorca iarriz baino.

Hareçaçu maiz conseillu çuhur baten ganic
tentatua çarenean eta nihor tentatua
denean etçaitecila harequin hari gogorqui
bainan hura Consolaçaçu emequi nahi
Cenduqueyen beçala nihore eguin
cinetçan.

V Tentacione gaixto guicen hastea da bihotzaren fermugabetasuna eta Jaincoa baitaco fidança appurra.

Ecen nola uhinec lemagabeco untciahortic eta hemendic baitarrabillate, halaguiçon epela, eta bere lehen gogo ona largatcen duena hainitz maneraz tentaturic dabilla.

Suac frogatcen du burdina, eta tentacioneac guiçon iustua.

Hainitzetan eztaquigu cer daidigun, bainan tentacioneac eracuzten du cer garen

Badaric ere erne egon behar da beregainqui tentamendua alchatcen denean, ceren orduan etsayari garaitcen çayo nihor errazquienic, utsten ezpadu nihola ere bihotzeco athetic sartcera, bainan athalasetic campora ilquiten baçayo, athea bulcatcen duen beçain laster.

Halacotz erran du norbaitec: Hastetic eguiçu guardia beranduric heldu da erremedioa çahartu denean cauria.

Hala ere lehenbiciric heldu çayo gogoar; pensamenda arinbat guero tinkatcen da haren gainean, handic pitsten da atseguina, eta ~~fencan~~ eta higuidura gaixtoa etafincan gogoac emaiten du Consentimendu ossoa.

Hala etsay gaixtoa ~~Sar~~ baratche Sartcen da barrena hastetic eguiten etçay onean contraric: eta cembatenaz naguitcenago baita nihor haren kentcera, hambatenaz bere baitan egun oroz flacatcenago da eta etsaya bortitztenago haren contra.

VI Batçuc tentacione gaitzagoac parratcen tuste Jaincoaren Seroitçura lehenbici itçuli direnean, bertceec azquenean.

Batçuc bere mende gucian, casic gaizqui erabilten dira; bertceac emequi asqui tentatcen dire, edo ez bat ere.

Hori gucia eguiten da Jaincoaren çuhurciac ordenatcen duen arauera, ceinac pisatcen baititu bat bederaren estatua eta mereci-menduac, eta din gucia, aitcinetic ordenatcen baitu bere hautatuen Saluamendura.

VII Hargatic eztugu etsitu behar tentatcen-garenean; aitcitic hambatenaz beroquiago. othoitz eguin behar diogu Jaincoari arren heldaquigu~~n~~la gure tribulacione gucietan eta eguin deçala Jondone Pauloc dioen beçala, probetchu athera deçagun tentacionetic

Humil detcagun bada gure arimac Jaincoaren ~~escuaren~~ ~~azpian~~ ~~botheret~~ escu botheretsu. aren azpian tentacione Suerte gucietan ceren hare bihotz humillac Saluatuco etu eta goitituco.

VIII Tentacionetan eta tribulacionetan frogatcen da guiçona, Cembat probetchu eguin duen eta hetan merecimendu guerayo du eta haren vertutea hobequi da agueri ~~da~~

Ezta gauça handiric guicona devocio=
=nean bero içaiteaz fasticoric eztuenean ordea dembora gaitzean paciencia badu hainitz probetcharen esperança da

Batçu beguiratcen dira tentacione handietaric, eta, maiz erorten dira egunoroz Coetan, mendreac direlaric, arren horrela humilduric, fida eztitecilla bere indarretan, tentacione handiric guerta daquienean, hain appurretan flacatcen direnaz gueroztic.

Hamalaugarren Capitulua

Jugeamendu arinetic beguiratceaz

I Itçul etçatçu beguiac çure gana eta beguira Çaite bertceen eguinez ingeamendu emaitetic

Bertceric iugeatcen duena ~~eta sondatcen~~ alferric travail=
=latcen da maiz enganatcen da eta errar=
=qui eguiten du bekatu. Baina bere burua iugeatcen duena eta sondatcen duena bethi probetchuregui hari da

Nahiz den gauçaz, hainitzetan iugeatcen dugu gure iduriaren arauera: Ceren eguiazco.

errazqui galtcen dugu gure buruari
diaducogun amadioa gatic

Jaincoa baliz bethiere gure desiren
chede hutsa, ezquin dasque horrein
errazqui asalda eta trubla gure guthiciac
gure contra carriac gatic

II Maiz ordea cerbait dugu barrenean
gorderic, bai eta campotic heldu denic
berequin garamatçanic.

Hainitzec bere equitatetan bere oldea
eta auantailla ichilic bilhatcen dute
eta berec eztaquite

Badirudite baque onean daudecila
equitecoac eguiten direnean berenahiaren
arauera. bainan eguiten badira desira
eztuten beçala laster aldaratcen dira
eta triketcen

Bataren eta bertcearen usteac eta ingea
menduac ez içanez guciac bat, maiz asco-
sortcen dira guduac eta charduquitçac
adisquideen eta burgesen, fraideen eta
devoten artean

III Usança çaharra nequez ustenda, eta
nihor ezta errazqui guidatcen uusten
duen baino urrunago.

Permatcenago baçare, çure arraçoinaren
eta antcearen gainean Jesu Christori
Çordioçun obedienciazco vertutearen -

gainean baino, gutitan eta hala ere beraut
içanen çare arguitua.

Ceren Jaincoac nahidu ossoqui iargaitecin
haren azpian, eta ~~iragar~~ amudio iracequi
batez iragan gaitecin arraçoin Suerte
gucien gainetic

Hamabortzgarren Capitulua

Obra Charitatez eguinez

I Munduan den gauça gatic eta nihoren
amudioa gatic ezta eguin behar gaizquiric
bat ere: bainan norbaiten beharra gatic
obra on bat batçutan alhegui qui uts diteque
edo hobeago batetara gambia daite

Ceren ~~hat~~ horrela eguinic, obra ona ezta
galtcen, bainan hobeagora gambiatcen

Charitatea gabe obra onac eztakarque
probetchuric: baina cerere eguiten bauta
charitatez, cembat ere appurra ~~bauta~~ eta
ez deusa bauta, gucia eguiten da probetchu garri.

Ceren Jaincoac behatcenago du cer gogoz
hari den nihor, ecen ez cembat eguiten duen
Hainitz eguiten du haguitz maite duenac

II ~~Ongui~~ Hainitz eguiten, obra ongui eguiten
duenac. Ongui eguiten du comuna servitçat=
=cenago duenac bere borondatea baino.

Hainitz etan badirudi charitatez ~~dela~~ hari garela, eta
aitcitic sensuen oldez hari gare; ceren

Sorcura=

Sorcuraren inclinacioneac, bere buruco borondateac, ordainaren esperançac, eta beretçat nahizco desirac gutitan nahi dute elkar ganic apartatu

III Nore ere eguiazco charitatea baitu eztabilla deusetan ere beretacoric bilha bainan desiratcen du choilqui Jaincoaren loria gauça gucietan Compli dadin

Eztio nihori ekartcen inuidiaric, ~~baina duen desira da~~ ceren ezpaitu allegriança berecirie beretçat maite: eztu ere nahi bere baitan bozcariotu, baina duen desira da gucien gainetic Jaincoa baitan doatsu içaitea. loriatcea

Eztio nihori onguiaz eta on denaz loria emaiten baina bai Jaincoari, ceina ganic ithurburutic beçala on den gucia heldu baita, eta ceina baitan, ~~ber~~ Saindu guciac, bere azquen chedean beçala goçoqui pausatcen baitute

O Nihore baluequiazco charitatearen inhar bat! Segur eçagut leçaque lurreco gauça, guciac vanaloriaz betheac direla.

Hamaseygarren Capitulua

Bertceren escas~~en~~ac painatceaz

I Cer ere guiconac ecin chachen baite çaque bere edo laguna baitan, hura behardu pacienciarequin utsi, Jaincoac bertcela.

ordena deçan artean

Pensaçaçu hori horrela nazqui hobedela nor. Çaren ~~frogatceco~~ eçagutceco, eta çure pacienciaren ~~ece~~ frogatceco, ceina gabe gure obra onac ~~eztera ez~~ ezpaitire haguitz preçatcecoac.

Ala bainan orthoitz eguin behar dioçu Jaincoan halaco trabuac gatu, arren hel daquiçula eta emequi pairatceco indarrac disquitçula

II Baldin ~~nor~~ cembaite behin edo bietan bere hutsac escasac makurrac eracusiz guerortic hare ençuten ezpaçaitu, çuc ezi harduqui harequin bainan den gucia utsaçu Jaincoaren escuetan, arren bere borondatea Compli, eta bere ohorea eracuz deçala bere seruitçari gucietan ~~berdin~~ ceren hare badaqui gaitzaren ~~itçultera~~ onera itçulten

Ikasacu pacienciatsu ~~içaiten~~ egoiten lagunaren huts eguinac eta nahiz diren escas makurrac pairatu ~~ceco~~ behar direnean: berdin çue erehainitz duçu bertceec pairatu behar dutenic

Çure burua ecin eguin badeçaqueçu nahi Cenduqueyen beçalaco, nolatam bertcea eguinen ahal duçu çure gogoaren arauerac

Placer dugu bertceac diren escasic gabe eta bitartean queuroc eztitugu gure makurrac chuchentcen.

III Nahi dugu bertceac hersiqui chuchen eta sensa ditecin, eta gueuroc eztugu nahi deusic erran daquigun erantçuteric eguin daquigun.

Bertceen ascudancia handia etçaicueder eta halaric ere nahi dugu escatcen ~~ger~~ garen gucia eman daquigun.

Nahi dugu legue hersiac eman daquisten bertcey, eta gueuroc eztugu nahi nihola ere lehen baino hersiquiago ibilli.

Handic bada agueri da Cein gutitan eguiten dugun contu gure lagunaz ~~contu~~ ~~gure~~ Contu gure buruaz beçala.

Guciac escasgabeac balire, cer guenduque guero bertceen ganic pairatceco?

IV Orai bada Jaincoac hala ordenatu du Jkas deçaguntçat batac bertcearen cargaren iasaiten.

Berdin ezta nihor escasic ~~escasic~~ gabe, nihor cargaric gabe, nihor bere buruarentçat asquidun, nihor beretçat asquiçuhur.

~~baina~~ Behar da bada elkar iasan deçagun ~~elkar~~ eta consola, deçagun, elkarri helgaquiz ion, elkarri jrakatz dioçogun, eta batac bertceari avisu eta conseillu demogun

Çori gaitzean agueri da guiçonaren vertutea hobenquienic: ceren ocasioneac ezpaitu

guiçona eguiten hautscor edo flaco, baina nor eta nolaco den eracastendu.

Hamaçaz pigarren Capitulua

I Behar duçu ikasi çure borondatearen hautsten hainitz gauçatan nahi baduçu çurequin eta bertcequin baquea iduqui.

Ezta guti monasteriean edo congregacionean egoitea, eta han arrancuraric gabe vicitcea, eta fidel irautea heriotceraino.

Doatsu da nor ere han prestuqui vici içan eta ongui hil baita

Nahi baduçu çure eguin bidean egon eta probetchuric eguin, contu eguiçu desterratua eta sainduralea beçala çabiltçala lurraren gaunean.

Behar duçu çure burua eguin erho Jesusen amorea gatic, nahi baduçu vicitce saindubat eraman.

II Habituac eta Korvac guti eltcen dute probetchu eguitera, bainan azturen gambiamenduac eta guthicien passionean mortificacione ossoac eguitendute eguiazco fraidea.

Jaincoaz eta bere saluamenduaz bertceric bilha dabillanac eztu aurkituco tribulamenduric eta doloreric baicen

Eta dembora lucez ecin dago qui baquean nor ere ezpaita enseyatcen chipien

Monasterio etaco vicitceaz

içaitera, eta gucien azpico iartcera.

III Etorri çare Seruitçatcera eta ez manatcera Jaquineçaçu deitua çarela pairatcera eta trauaillatcen, ez ordea alferric egoitera edo elhe eta solhas eguitera.

Hemen bada frogatcen dire guiçonac, urrea labe gorrian beçala.

Ecin dagoque nihor hemen, na hi ezpadu bere burua bihotz guciaz ossoz Jaincoa gatic humildu.

Hemeçortcigarren Capitulua

Aitcineco Sainduen exempluez

I Miratçatçu Sainduen exemplu viciac ceinac baitan eguiazco perfeccioneac eta Jaincoti artasunac aeguitu baitute, eta icusico duçu cein guti eta ez deus hurren den guc eguiten dugun gucia.

Helaz! cer da gure vicitcea hequinarequin Comparatcen bada.

Sainduec eta Jesusen maitariec Jaincoa Seruitçatu dute gosez eta egarriz, hotzez eta billusiz, ibilliz vigiletan eta baruretan, othoitz etan eta meditacione Sainduetan egonez munduac hainitzetan gaizqui eta laidozqui cerabiltçala.

II O Cembat tribulacione eta cein garratz pairatu tusten Apostoluec, martyrec, Confessorec

Virginec eta gure Salvatçaillearen urratzey
iarraiqui nahi içan çaisten gaineraco guciec

Ecen bere arimac gaitz etsi tuste mundu
hunetan, guero hequin jabe içaiteco Seculaco
vicitcean.

O Cein vicitce hersi eta pobre beharrez gabetu desertuan
eramen duten lehenagoco Sainduec!

Cein tentacione luce eta garratz pairatu ditusten
Cein gaizqui hainitz etan erabilli dituen etsayac
Cein othoitz uçu eta bero eguin dioten Jaincoari
Cein gogorqui barurtu diren!

Cein beraqui hari içan diren bere probetchu
espiritualaren aitcinatcen!

Cein guerla bortitz eguin duten bere guthicia
gaixtoen herteco eta garaitceco!

Cein bihotz garbi eta chuchen iduqui duten
Jaincoa gana!

Egunaz hari ciren travailluan, eta gauaz
othoitz etan ceudecin eta lanean ere gogoz
~~eta~~ eguiten çuten oracione.

III Dembora gucia ceramaten gauça behar=
retan: Jaincoari eman behar ~~citçay~~ cioten-
orena iduritcen citçayen labur eta Contem=
placionearen ez titasuna cela causa gorputzeco
othurunça premiazcoa ere ahantsten citçayen

Uko eguiten cerauecaten aberatstasun,
ohore, gradu, adisquide eta a haide guciey

etçuten munduco gauçaric iduqui nahi,
nekez vicitceco hartcen çuten damu çuten
gorputzaren seruitçatceaz beharrean ere

Bada lurreco gaucez pobre ceudecin, baina
charitatez eta vertutez betheac ciren

Campotic beharrac ciren, baina barrencan
Jaincoaren graciaz eta Consolacioneaz
goçatcen ciren.

IV Mundutic apartatuac ceudecin, baina
Jaincoaren hurrenac eta adisquide ~~familiarac~~
mamiac ciren.

Derec uste çuten ez deusac ~~cirela~~ eta
munduco arbuyua cirela, baina Jaincoaren
beguietan preçatcecoac ciren eta onetsiac.

Eguiazco humilta sunean ceudecin,
obediencia bethean vici ciren, bacebiltçan
charitaterequin eta pacienciarequin, eta halacotz
egun oroz bere probetchu espirituala aitcinatcen
çuten eta gracia handiago ardietsten
Jaincoaren aitcinean

Miraultçat eman çaiste fraide guciey
eta gueyago atçartu behar gaituste onean
aitcinatcera, ecen ez epelen ozteac guibelatcera

V O ceinbero eta iracequiac ciren freide
guciac bere ordena sainduen lehenbicico
hastean!

Nolaco devocione othoitz etan!

Nolaco pitztura vertutetan!

Nolaco dotrinamendua vicicen!

Nolaco erreuerencia eta obediencia ekartcen cioten nausiari erreguelam enduari gauça gucietan!

Azquendu diren seinaleac eta ondarrac orai ere lecuco dire, hec guiçon compliac eta sainduac cirela, hain agudo qui gudu catuz mundua azpira dutenaz guero.

Oraicoan handi estimatcen da nihor, bere erreglen hautste espada, bessarcatu duen ordenança pacienciarequin beguira ahal badeça.

VI O gure estatuco apeltasuna eta ansiga=betasuna! hain laster itçulten baigare gure lehenecо berota sunetic, eta unhatcen ere vicitceaz, hain nekatu eta apeldu baigara ecen

Jaincoac ailliotsa vertuteen aitcinamendua elicen ossoqui loakartu çure baitan, hain bertce guiçon devoten exempluac icusiz gueroztic!

Hemeretcigarren Capitulua

Fraide prestuaren essercicez

I Fraide prestuaren vicitceac behar du vertute guciez arguitu, arren nolacoa munduac icusten baitu campotic, halacoa ere den barrenean bere baitan barrena.

Eta eguiaz çucenac nahi du gueyago haguitz den barrenean, campotic agueri den baino: Ecen Jaincoa beguira dagocu, eta beregaineco erreuerencia ekarri behar diogu non ere baigara, eta garbiric ibilli behar dugu haren beguien aitcinean anguerua beçala.

Egun guciez berritu behar dugu gure deli=bera mendu gogo ona eta gueuroc atçartu behargare beroquiago haritcera, egun lehenic Jaincoaren servitçura itçuli baguine beçala, bihotzez erraiten diogula: hel=çaquisquit Jainco Jauna ene gogo onean eta çure servitçu Sainduan; orai indaçu egun behar beçalaco perfeccioneregun hasteco gracia eta indarra, ~~ceren~~ berdin huneraino eguin dudana ezta deus ere

II Nolacoa baita gure gogo hartua, halacoa ere da gure aitcinamenduaren corsua; eta nore ere nahi baitu hainitz probetchu eguin ernegui eta agudoqui hari behardu.

Baldin Cinetan deliberatcen duen ongui eguitera maiz flacatcen bada eta erortcen, ceriçanen da gutitan eta ez asko tinkez deliberatcen duenaz?

Bada hainitz moldez guertatcen gare gure gogo onaren largatcen, eta Cembat

ere arinqui utsten baititugu gure esserciçac miracuillu da handic heldu ezpaçaicu calteric.

Justuen deliberamendua permatcenago da Jaincoaren ~~cuhurci~~ graciaren gainean, berec ahal duqueten çuhurciaren gainean baino: eta cer ere equitecori lotcen baitçaisco, bethi haren baitan lehenic fidaturic hari dire.

Ecen deliberatcen du guiçonac eta Jaincoac ordenatcen, eta guiçona ezta bere bidearen nausi

III Baldin charitatezco obra gatic edo lagunaren probetchua gatic batçutan largatcen badugu gure esserciça costumatua, hartara guero errazqui bihurtuco ahal gare.

Ordea ansigabez edo unhatuz utsten badugu gure falta içanen da, eta sarri sentituco dugu caltea

Daguigun equin ahala, oraino hainitz gauçatau errazqui equinen dugu huts.

Badaric ere bethi behar dugu cerbait deliberatu eta beregainqui queyen trauatcen gaitustan escasen eta makurren contra

Gure campoco eta barrenaldia miratu, fondatu eta ordenatu behardira, cerenbata eta bertcea orobat heltcen çaisquigu gure probetchu espiritualaren equiten.

IV Ecin baçaudesque bethi çure buruaren ~~miratcen~~

Bethi çure baitara ecin bil baçaitesque batçutan bedere eguin çaite, eta gutienetan behin egunean, ~~egune~~ goizean edo arratzean goizean ~~harri~~ har eçaçu gogo eguin nahi duçunaren eguiteco, eta arratzean miraçaçu nola ibilli çaren, egun hartan nolacoa içan çaren çure hitzetan, obretan eta pensa=menduetan, ceren maiz nasqui hetan offensatu duçu Jaincoa eta laguna.

Jarçaite guiçon guiça de abruaren gaixta=querien contra: ~~capesti~~ bridaçaçu gor=mandiça, emoçu neurri çure ian-edan nahiari, eta orduan haraguiaren muguidac errazquiago hezico tutçu.

Etçaudecila nihoiz ere alferric, bainan hari çaite iracurtcen edo esquiribatcen, othoitz edo meditacione edo cerbait onic comunarentçat, eguiten.

Badaric gorputzeco travailluac neurriz eta çuhurciarequin ~~hartu~~ eguin behar dire, eta guciec eztituste ~~bet~~ berdin hartu behar.

V Gucientçat on eztiren lanac eztira campoan, eracusi behar, ceren particularac peril gutiagorequin eguiten dira ichilic.

Guciarequin ere beguirauçu naguitcetic comunari ukitcen, çaicon gaucetan,

eta particularetan iarriago içaitetic. bainan
eguin beharrac eta manatuac ossoqui eta fidelqui
eguin ondoan, dembora sobera baduçu, hari
çaite çuretçat cure devocioneac aguintcen
duen arauera.

Lan ber bat ean duquete guciec, bainabata
hobe da humentçat, bertcea horrantçat.

Demborac dakarqueyen beçala bertce eta
bertce esserciçac ederetstentugu, batsu bestetan
eta bertceac aste legunetan maiteago ditugu

Batçuen beharra dugu tentacionearen
demboran, eta bertceac hobe çaisquigu baquean
eta soseguan gaudenean.

Batçuetan laket dugu triste garenean
eta bertcetan Jaincoa baitan alleguera garenean

VI Besta buruac heldu direnean berritu behar
dira asserciça onac, eta beroquiago gomen=
datu bahar gaisco sainduen ararte cotasunari.

Bestatic bestara deliberatu behar dugu orduan
mundutic ilki eta seculaco bestaren eguitera
ioan behar baguine beçala.

Halacotz ~~egun~~ devocionezco egunetan behar
dugu gure consciencia arthatsuquiago preparatu
çuhurquiago ibilli eta ordenançac hersiquiago
beguiratu, sarri gure travailluaren saria
Jaincoa ganic ardietsi behar baguendu beçala

VII Eta gui belatua bada daguigun contu

ezgarela ongui asqui preparatuac, eta
eztugula oraino mereci loria handi haren
ardietstea, ceina eracusico baitçaicu bere
muga iaquinean bizquitartean enseya
gaitecin ahalic hobequiena preparatcera
hemendic ilki behar orduco.

Deatsua da dio San Luc Evangelistac Nausiac
datorrenean, erneric aurkituco duen Seruitçaria.
Eguiaz diotsuet hura ecarrico du ordener
bere ontasun gucien gainean.

Hogoygarren Liburua

Bakarric eta ichilic egoiteco amudioaz

I Bilhaçaçu dembora onic çure buruaren
asteroqui estudiatceco, eta Jaincoaren
ongui eguinac erabiltçatçu maiz gogoan.

Utzquitçu gauça curiosac.

Lehen iracurtçatçu urriqui mendura,
erakarçaitcaten liburuac, ecenez demboraren
iragaitecoac.

Apartatcen baçare solhas eta ioan ethorri
alferretaric eta elheberrietaric demboraric
asqui causituco duçu meditacione onic eguiteco

Saindu handienec jhes eguiten çuten
guiçonen compainietaric ahal beçambat, eta
hautatcen çuten Jaincoarequin vicitcea gorderic.

II Norbaitec erran du: Noiz ere guertatu
bainaiz guiçonequin, gutiago guiçon
bihurtu naiz.

Hori frogatcen dugu maiz enic, dembora lucezgo solhasquerietan.

Errazago da Ichilic egoitea ~~ecen ez~~ hitz sobera ez eguitea baino

Errazago da etchean gorderic egoitea, campoan bere buruaren asqui beguiratcea baino.

Nore ere bada gogoric baitu barrenego eta aspiritualezco gaucetara heltceco. behardu Jesusequin batean munduco ozpetic eta auarrotzetic apartatu.

Ezta nihor segurançarequin camposa atheratcen gogotic gorde dagoena baicen.

Ezta nihor segura goric minçatcen gogotic ichilic dagoena baino

Ezta nihore perillic gabe manatcen, ongui obeditcen icasi duenac baicen.

III Ezta nihor segurançarequin bozten Consciencia ona ezpadu lecuco guciarequin ere sainduen segurança bethi içan da Jaincoaren beldurtasunaz bethea eta eztira gutiago arthatsu eta humil içan hainitz vertute eta gracia bere baitan içana gatic.

Ordea gaixtoen segurança sortcen da urguillu~~queriatic~~ tasunetic eta azkenean enganatcentu.

Eztiçocula çure buruari segurançaric prometa vicitce hunetan iduri dagotçularic fraide prestu edo Ermitau devocionetsu çarela.

IV Hainitzetan munduaren ustez hobe cirenac peril han diagotan Sartu dire Sobera bere baitan fidatuz.

Halacotz hainitzentçat hobe da eztaudecin bethiere tentacione gabe, baina maiz acometaz ditecin, beldurrez Sobera fida ditecin, urguilluqueriac hantdetçan, eta largo equi ibil ditecin Campoco consolacioneen ondoan

O nihor balego ibilli gabe iragaiten den allegriançarie bilha, munduco eguitecoetan balsatu gabe, cain Consciencia on iduqui eta garbi leçaque

O nihore euaqui baletça vanaloriazco ansia guciac Saluagarrizco eta Jaincozco gauçarie baicen gogoan ezpalerabilla, eta bere esperança ossoa Jaincoa baitaneçar baleça cein baque eta Sosegu handiz goça liteque

V Eztu nihore ceruco Consolacionea mereci Cinetan iarten ezpada urriquimendu Sainduaren esserciçan

Nahi baduçu urriquimendua bihotzean frogatu, Sarçaite çure guelan eta egoitz guitçu munduco auarrotzac, esquiribatua denbeçala:

Çuen ohetan iarçaiteste urriquitcen

Guelan aurkituco duçu, Campoan maiz galduco duçuna.

Guela eztitcen da artan arduraqui ogonez ez egonez unhagarri eguiten da goçogarri

Çure oneramenduaren hastetic hartan fincatcen baçara, eta haren beguira baçaude içanen da guero çure adisquide maitea, eta Consolationeric goçoena

VI Ichilic eta gueldiric egoitean aitanatcen du arima devotac eta esquiritu retaco gauça gordeac ikastentu

Hanaurkitcentu nigar chirripac bere buruaren gau gucier chucatceco eta garbitaco berecreatçaillearen hambatenaz hurbillago egoitea gatic, cembatenaz urruntcenago baita munduco auarrotz etaric

Nor ere bada apartaturen baita eçagunetaric eta ahaidetaric, hari hurbilduco çayo Jaincoa bere angueru Saindu equen.

Hobe da gorderic egoitea, eta bere buruaz artha iduquitea ecen ez hura largaturic miracuilluac eguitea

Gauça laudatcecoa da guiçon devocionetsu batentçat gutitan ilkitea Campora guiçonen beguietaric ihez eguitea eta egoitea guiçonac icusi ere nahi galle.

VII Cergatic nahi duçu icusi, içaitera cilhegui etçarena?

Iragaiten da mundua eta haren guthicia

Sensuen desirec baçaramatçate ~~ibiltera~~ huna horra ibiltera, baina mugo edo orena ioan denean, cer bihurtcen duçu etchera ~~ioan~~ çure ioan etorrietaric Conscienciaren pisutaz tasunaz eta bihotzeco barrayamenduaz bertceric

Ilkite allegueraс hainitzetan bihurtce tristea dakarque eta arratzeco vespera arrayac biharamuneco goiça ilhun eguitendu

Halaber haraguizco placer gucia eztiqui sarteen da, bainan azquenean ausiquiteen du eta herioa emaiten

Cer icusdeçaqueçu bertcetan, hemen ezta=cusanic? Huna lurra, cerua eta elementac hetaz gauça guciac eguinac dire

VIII Cer dacasqueçu nihon ere, dembora lucez ahal dagoqueyenic Iguquiaren azpian?

Aguian uste duçu ase caitesqueyela, bainan ecin eguinen çare

Munduan den gucia beguien aitcinean bacendu ere, cer licate icuste alferric baicen eta vanaloriazcoric baicen?

Alcha gora beguiac Jaincoa gana eta othoitz eguiçu çure bekatuac eta ansigabatasunac gatic utsquitçu vanaloriac vanaloria salcentçat; çuc behaçaçu Jaincoac manatuetora

Ferraçaçu athea çure gainean eta deiçaçu çure gana çure Jesus maitea

Çaude harequin çure guelan, ceren eztuçu nihon ere halaco baqueric edirenen.

Ilki ezpacina, eta ençun ezpacendu munduco elhaberriric, hobequi egonen cinen baque onean

Ordea ~~noiz~~ atsequin duçunaz guero noiz pait berriac ençuteaz, hec gatic beharduçu bihotzeco asaldua pairatu.

Hogoy eta batgarren Capitulua

Bihotzeco urriquimenduaz

I Nahi baduçu vertutaaren bidean aitcinatu çaude Jaincoaren beldurtasunean eta etçarelo largoegui; bainan iduquitçaçu, çure sensu guciac governuaren azpian, eta etçaitecila erguelqui alleguera.

Bilhaçaçu bihotzeco urriquimendua eta devocionea edirenenduçu.

Urriquimenduac hainitz ontasun aguertcentu eta eracusten, ceinac laste galtcen ohi baitetu bihotzeco largotasunac.

Miretstecoa da, nolatan guicona viatce ~~hu~~ hunetan behin ere ossoqui boz ahal daiten bere desterrua eta arimaco peril uçuac consideratcen eta condatcen dituenean.

II Gure bihotzeco arintasuna dela causa eta gure escasiez acholaric ez içanez, eztitugu gure arimaren doloreac sentitcen, baina maiz, vana loriazco irri aguitendugu ~~premia gaba~~ cinetan nigar eguin behar guenduqueyenean.

Ezta eguiazco libertateric ez eta ellegriança onic Jaincoaren beldurtasunean eta consciencia onean baicen

Doatsua da nore ere barrayamenduco pachelu guciac iraits baitetçaque eta bere arimaco indar bil baitatçaque urriquimendu saindu batetara

Doatsua nori ere bera ganic kentcen baitu consciencia licun eta carga deçaquen gucia.

Guducaçaçu guiçon guiça, ohitza ohitzari garaitcen çayo.

Baldin badaquiçu guiçonen largatcen, hecere utsico çaituste çure eguitecoen eguitesa.

III ~~Etcaitecita~~ Ez sar bertcoen eguitecoetan, eta ~~el~~ etçaitecila corapilla çu baino handiagoen gaucetan.

Duçun bethi beguia erne çure gainean lehenic, eta auisaçaçu bereciqui çure burua çure adisquide maiteac eguin detçatçun baino lehen.

Guiçonac ezpaditutçu çure aldé, ez trista hargatic baina duçun damu ceren etçaz biltçan ongui eta beguiratuqui asqui, Jaincoaren seruitçari eta devocionetsu batec ibilli behar luqueyen beçala.

Hainitz etan guiçonarentçat hobe da eta segurago vicitce hunetan hainitz consolacione eziçaitea, haraguizcoric behintçat.

Ordea Jaincoaren Consolacioneez goçatcen ezpagara, edo bakanago sentitcen baditugu, gurea da falta, ceren eztugun bihotzeco urriquimendua bilhatcen, eta Campoco ~~vanalo~~ Consolacione vanaloriazcoac eztitugun ossoqui bortitzqui egoitsten

IV Eçagut eçaçue ertuçula Jaincoaren Conso=
lacionerii mereci, aitcitu hainitz tribula=
cione mereu duçula.

Guiçon perfequi urriquituari mundugucia
pisu çayo eta Kiratz.

Guiçon prestuac bethi ere causitcen duasqui
Cergatic damu har eta nigar eguin.

Ecen consideratcen badu bere burua edo
laguna, badaqui esteba nihor hemen vici
tribulacione gabe: eta cembatenaz ernequiago
iarten baita bere buruaren miratcen, hamba=
tenaz tristetcen eta doloratcenago da.

Çucenazco dolorea~~zen~~ eta barreneco damu
haren erroac dira gure bekatuac, Ceinez
hala baigauntça amarraturic, non gutitan
beguiac goiti baitetçaquegu ceruco gaucen
icusteco.

V Maizago, Çure heriotcea gogoan bacenera=
billa vicitcearen lucetasuna baino, dudagaberic
beroquiago onera Cindesque.

Piza bacenetça ere Ifernuco edo Purgatorioco=
penac çure bihotzean, badut cinetste gogotu
paira ceneçaqueyela travaillua eta dolorea
eta etcinatiqueyela beldur nahiz den gaitza
gatic

Ordea nola ezpaitçaicu halacoric Sartcen
bihotzean, eta balacuac maite baititugu.

oraino, hargatic guelditcen gare hotz eta
nagui gure eguinbidetan.

VI Hainitzetan adimendu escasez garputz
ondicozcoa hain arinqui arrancuratcenda.

Eguioçu bada humilqui othoitz Jaincoari arren
diçula corriquimenduzco espiritua, eta erroçu
Profetarequin batean: Bascanaçaçu, Jauna
~~eta indaçu nigar edatera neurr~~. nigarrezco
oguiz, eta neurriz indaçu nigar edatera

Hogoy eta bigarren Capitulua.

Guiçonaren miserien Consideracioneaz

I Miseriazcoa çare, non ere baitçaude eta
nora ere itçulten baitçare, Jaincoa gana
bihurtcen ezpaçara

Cergatic asaldatcen çara ceren eztoatçun
nahi eta desira duçun beçala?

Nor da gauça guciac dituenic bere boron=
datearen arauera?

Ez ni, ez çu, ez nihor ere lurraren gainean
Ezta nihor ~~ere~~ munduan cembait tribulacione
edo herstura gabe, Erreque edo aita Saindu
bada ere

Nor dago hobequienic? Guertuz cerbait Segur Jaincoa gatu
cerbait pairadeçaqueyena.

II Badiote hainitz flacoc: Horra cein vicitce
doatsu daraman guiçonhare, cein aberatz
cein handi den, nolaco bothere duen, nolaco.

gradu daducan!

Ordea behaçaçu ceruco ontasunetara, eta icusico duçu oraico handiresunac eztirela deus ere, bainan choil direla segur gabeac, carga eta unhagarriac, ceren ezpaita nihoretaz goça grina eta beldurtasun gabe

Guiçonaren doatsutasuna ezta munduco ontasunac içaitea gaindiraino, bainan asqui du doïa.

Guertuz miseriaric baicen ezta lurraren gainean vicitcea.

Cembaten az espiritualago eguinen baita guiçona hambatenaz presenteco vicitcea causituco du kiratzago, ceren icusten eta frogatcenago baititu guiçonaren naturaleça gaintatuaren escasac.

Ecen iatea, edatea, iratçarri ibiltea lo etçatea, pausatcea, travaillatcea, eta naturaleçaren bertce gaineraco beharren az pian egoitea, segur miseria eta afliccione handia guiçon devotarentçat; nahi bailuque hetaric eta bekatu gucietaric libratua baliz.

III Ceren barreneco guicona haguitz çapatcen da eta unhatcen gorputzeco beharquiez mundu hunetan.

Hargatic Profetac devocione handirequin othoitzez dagoca Jaincoari hura hetaric libra deçala, erraiten dioela: Jauna

atheranaçaçu ene beharretarii

Baina çori gaitza bere miseria eçagutcen eztutenentçat, eta ere gaitzago vicitce ondicozco eta erorco hau maite dutenentçat

Ceren batcuec hain tinketz hura bessarcatcen dute, non hemen bethi vici ahal balitez ezpailuquete Jaincoaren erresumaz acholaric nequez bere vicitcecoa dutelaric travailt latuz edo esque ibilliz

IV O erhoac eta bihotzez fedegabeac hain barrena lurrean sartu direnac, non gusturic eztuten haraguizco gaucetan baicen

Bainan ondicozcoac oraino, ceren azquenean ~~icus~~ açagutuco eta frogatuco baitute, cein guti eta ez deus cen maite içan duten gucia.

Contrara Jaincoaren seruitçariec eta Jesusen adisquide, maiteac eztute behatu haraguiaren eder ~~eta lont~~ ~~citcoisonetara~~, eta lore çaisconetara, bainabere esperança eta gogo a ~~gucia~~ çuten seculaco ontasunetara eramana.

Hequin desir gucia goiticen eramana bethi dirauten eta ecin icusditesqueyen gaucetara beldurrez icusten direnen amorez erakar citecin beherecoetara.

Beraz, anaya, esteçaçula galespiritualetan aitcinatceco esperança, baduçu oraino dembora eta ordu

V Cergatic nahi duçu hartu duçun gogo ona

bihar arteraino luçatu?

Jaiqui çaite, eta has orai berean erra in orai da ordua eguiteco, orai da dembora guducatceco, orai da muga fetchoa oneratceco.

Gaitzqui causitcen eta et penetan çarenean orduan dembora da merecimenduen biltceco.

Iragan behar çare sutic eta uretic fresca eta pausa lacura hel çaitecen baino lehen

Borcha eguiten ez padioçu çure buruari, etçaisco garaituco vicioari.

Gorputz hautscor hori darabilla guino, ecin gaudesque bekatu gabe, eta ecin vici gaitesque grina eta dolore gabe.

Gogotic nahi guenduque libratuac baguine miseria gucetiaric: baina ceren hobengabetasuna galdu baitugu bekatuaz, eguiasco doatsutasuna ere galdu dugu

Halacotz paciencia behar dugu eta Jaincoaren misericordiari jguriki behar gaisco bekatutasun hau iragan dadin eta viciac hilquiçuntasuna irets deçan artean

VI O Guiconaren eror lortasunaren handiac bethi bekatutara lixturtua eta makurtua baita!

Egun confessatcen tutçu çure becatuac eta bihar berriz eguitentutçu confessatuac.

Orai deliberatcen duçu hetaric confessatcera

eta oren baten buruan eguiten duçu deusic deliberatu ezpacendu beçala

Mereci onez bada humil gaitesque, semlan gure burua handi iduqui gabe hain flaco arin eta mudacor garenaz guerostic

Laster ere, bekatuaz gal deçaquegu bekatuaz hainitz travailluz nekez finean noizpait ardietsi duguna gracia lagundaric.

VII Cer içanen da gutaz azquenean, horrein goiz eta laster epeltcen garenaz guero?

Çori gaitça guretçat, ibilli nahi badugu sosegu bilha, iadanic baquea eta segurança baguendu beçala, icusiric eztela gure ioan etorrietan eguiazco saindutasunaren urratsic agueri

Behar handia liçate norbaitec oraino berriz vertutearen bidea eta prestuqui viatceco antcea irakats liaçagun haurrey eta ikastun berriey beçala, icustcio ea baliçatequeyenz guero ere onera guindesquelaco eta probetchu espiritual gueyago guencidiquelaco esperançaric.

Hogoy eta hirurgarren Capitulua

Herioaren Meditacioneaz

I Hemengoaz laster eguinen duçu, miraçaçu bada nola çaudean: Egun da guiçona eta bihar ezta agueri

Eta munduaren beguietaric ioan denean, laster ere ioaiten da haren orhoitçapena gogotic

O guiçonaren bihotz tontoa eta gogorra, oraico gauçac choilqui baitarabiltça gogoan eta ethorqui çunecoey ezpaiteraue gueyago. aitcinetic behaltcen!

Çure obra eta gogoeta guicietan behar cinatesque governatu eg~~o~~un edo berehela hil behar baçine beçala

Consciencia ona bacendu etcinateque herioaren ~~ihez eguitea baino~~ hainitz beldur

Hobe liçate bekatuetaric beguiratcea herioari ihez eguitea baino

Egun preparatua ezpaçare, nolatan içanen çare behar?

Biharco eguna ezta segura, eta nondic daquiçu ea biharamunic içanen ducunz?

II Cer probetchu lucequi vicitceaz, hain guti ontcen garenaz guero?

Ah! vicitce luceac ezgaitu bethi ontcen aitcitic gure faltac hainitzetan emendatcentu

Aiguine mundu hunetan egun batez bedere prestuqui ibilli!

Hainitzeco condatcentuste Jaincoa gana itçuli diren gueroztico urtheac, hainitzetan ordea hequin oneramenduaren probetchua appurra da

Icigarria bada hiltcea, nasqui pirillosago içanen da lucequi vicitcea.

Doatsu da bere heriotceco orena bethi beguien aitcinean daducana, eta egun oroz preparateen dena adelateen dena hiltcera.

Noizpait icusi baduçu nihor iltcen, orhoit çaite bide beretic iraganen çarela

III Goiça denean pensaçaçu eztuçula arratza ardietsico, eta arratsa denean eztioçoçula biharamuna çure buruari prometa.

Çaude bada bethi prestic, eta halavia çaite non herioac etçaitçan ediren preparatu gaberic

Hainitz hiltcen dire berehala eta ustegabean, ceren nihore uste eztuen orenean ethorrico da Jaincoaren Semea.

Azken oren hura datorrenean hasico çare guciz bertce sentimendu içaiten çure vicitce iragan guciaz, eta choil damu içanen duçu ceren hain nagui eta alferiçan çaren

IV Ceindoatsu eta çuhur den nor ere orai enseyatcen baita ~~orai~~ vicitce hunetan halacoa içaitera nolacoa desirateen baitu causi dadin heriotcean.

Ceren doatsuqui ongui hiltceco esperança handi emanendu munduaren mes precio ossoac vertutetan aitanatceco desir beroac, vicitce espiritualaren amudioac, penitenciaren travailluac, obedenciaren agudotasunac

bere burua ez deus iduquitceac, eta na hiz den atsecaberen Jesus gatic pairatceac.

Hainitz obra on daidiqueçu ossasuna duçcuino, bainan erituz guero, eztaquit cer eguinen ahal duçun.

Guti oneratcen eta hobetcen dira erituz hala ere errumerian maiz dabiltçanac gutitan saindutcen dire

V Ez fida adisquideen eta urkoen gainean eta ez luça çure saluamendua ethorquiçunera ceren lasterago ahantsico çaiste guiconey uste duçun baino

Hobe da ~~orai~~ orai muga denean bere egui tecoey behatcea, eta cerbait onic aitcinetic igortcea, ecen ez bertcen helçaquitçaren gainean esperança emaitea.

Ceronec orai çutaz artharic ez paduçu noreiçanen du guero çure orde?

Orai dembora ~~pre~~ handiro preçatcecoa da orai dira saluamenduco egunac. orai da ongui ethorria içaiteco ordua

Ah dolorea ordea! Eztuçu consideratcen cer den hoberenic, certan merecimendu gueyago duqueçun, ez eta nondic seculaco vicia ardiets deçaqueçun

Etorrico da dembora non egonen bautçare

egun baten edo nasqui oren baten esque
oneratceco eta eztaquit hura ardietsico duçunz
VI Ea maiteena miraçaçu cein peril handitic
cein beldurtasun harrigarritic atheraco eta
libratuco ahal çaren, orai vici baçara bethi
beldur, eta eguiten badioçu heriovari guardia
Orai enseya caite halaco moldez vicitcera
non heriotceco oreneanboscario gueyago
duçun beldurtasun baino
Ikasaçu orai heltcen munducotz, orduan
hasçaitecintçat Jesusequin vicitcen
Ikas orai gauça gucien mespreçatcen, orduan
Jesus gana libroqui ahal çoasquentçat.
Sensaçaçu orai çure gorputza penitenciaz
orduan fidança Seguric ahal duqueçuntçat
VII Ah erhoa! Cergatic uste duçu vicico.
çarela lucequi icusiric eztucula hemen
egun Seguric?
Cembat enganatu dira eta gorputzetic
athera dire gutien uste çutenean?
Cembatetan ençunduçu erraiten: hura
hil da espataz, hura itho da, hari lepoa
hautsi çayo gainetic eroriz:
Bata hil da iaten cegoela, bertcea iocotan
hari cela: bata suz, bertcea burdinaz; bata
içurritez, bertcea ohoinec Colpaturic picaturic

manera hortan gucin azken fina da
herioa, eta vicia laster iragaiten da itçala
beçala.

VIII Nor orhoituco da çutaz çu hillez guero.
nore eguiten du çuretçat othoitzic.

Eguiçu orai, eguiçu maitea ahaldaquiçun
gucia, ceren eztaquiçu noiz hillen çaren
ez eta cer iarraiquico çaitçun hil ondoan.

Dembora duçunean biltçatçuecin hillezco
aberatstasunac.

Ez erabil gogoan çure saluamenduaz berteeric
idukaçu artha Jaincoari ~~dag~~ ukitcen çaiscon
gaucez choilqui

Eguitçu orai Jaincoaren sainduac adisquide
ohoratçatçu eta çarraiste hequin obrey
arren vicitce hunetaric ilki çaitecinean
seculaco egoitz etara har çaitçatentçat.

IX Eguiçu contu saindurale eta arrots
beçala çarela lurraren gainean eta eztela
munduco eguite coetan dagotçun gauçaric

Idukaçu bihotza libro eta Jaincoa gana
goitituric; berdin eztuçu hemen diranen
heriric.

Igortçatçu hara cerura egun oroz çure othoitzec
hatsbeherapenac, eta nigarrac, cure arima
ioanez guero Jaincoa gana doatsuqui
iragan dadintçat

Hogoy eta laugarren Capitulua

Iugeamenduaz eta bekatuen penez.

I Gauça gucictan behaçaçu azquen finera eta nola egonen ahal çaren iuge hersi eta bortitz haren aitcinean

Etçayo deus estaltcen ezta emaitcez amuntcen ematcen, eztu escusaric hartcen; baina nola baita çucena, hala iugeatuco du.

O bekatore ondiozcoa eta erhoa! Cer ihardetsico dioçu çure gaixtaqueria guciac daquisquien Jaincoari, batçutan guiçon haserre baten becoquiaren beldur çarenaz gueroztic?

Cergatic eztioçu çure eguitecoari aitcinetic behatcen azquen iugeamendu egura datorrenecotz non batac bertcea ecin escusatuco edo defendatuco baitu, baina bat bederac beretçat asqui içanen baitu cer eguin?

Orai çure travailluac fruitu ~~dakarque~~ tsu da çure nigarrac ongui ethorriac dire, çure hats beherapenac ençutecoac dira, cure dolorea eta urriquimendua da satifa eta purgagarria.

II Purgatorio handi eta sendagarri bat du guiçon pacienciatsuac, ceinac bidegabeztatua denean danu gueyago baitu bertceren maliciaz bere atsecabeaz baino; gogotic othoitz eguiten baitu bere gaizqui eguilleac

gatic, eta bihotz onez barkatcen baitiotça bertceari, bere faltac.

Noiz ere ez paitu berantcen bertceri barkacino escatcera, eta errazquiago equiten baitu misericordia, haserretcen den baino

Noizere bere buruari maiz equiten baitio borcha eta equin a hala equiten baitu haraguiaren ossoqui eçartera espirituaren azpian..

Hobe da orai bekatuac garbitcea eta vicioac euaquitcea, ecen ez hec utstea guerocotz purgatcera

Eguiazqui gueuroc enganatcentugu gure buruac gure haraguiari ekartcen diogun amudio desordenatuaz.

III Cer iretsico du su hare çure bekatuez bertceric?

Cembatenaz gupidogo baitucu çure burua eta iarraiquitcenago baitçaisco cure haraguiari hambatenaz sensaturenago, çare guero, eta erretcecoric gueyago biltcen duçu.

Certan bekatu equin baitu guiconac hartan punituren da garratzquienic.

Han naguiry eraguinen çaye estençorrotzez eta gormantac egarsu eta gose handiz irrituco dira.

Han haraguizco placer likitzen ondoan cebiltçanac bike eraguinaz eta safre urrin

gaixtoa

gaixtoa gantçuturen dira, eta bekaitstiac
oçar errauiatiac beçala, orroz eta Saingaz
egonen dire bere doloreac ecin iasanez.
IV Ezta bakaturic bere penagarri berecia
içanen eztuenic.

Han Superbioac eta hantcurrac ahalke suerte
gucien ~~bethe~~ cargatuco dira, eta avariciosac
guciz pobrecia ondicozcoan hondatuco.

Han gaitzago icanen da oren batetaco penetan
egoitea, ecen ez, ehun urthetaco penitencia
garratzic hemen eguitea.

Han ezta Soseguric ez Consolacionericdanna=
tuentçat.

Hemen bedere badute batçutan doloreac bere
aldia, eta ~~eguitendute~~ lecu eguinic, adisquideen
Consolacioneaz goçatcen da ni hor.

Duçun beraz orai artha eta damu çure
bekatuez, egun handi hartan doatsuequin batean
Segur içaitea gatic

Ceren orduan justuac egonen dire chutic
fermutasun handi batequin, hec mundu
hunetan hertstu eta beheiti egoitsi ditustenen
Contra

Orduan iaiquico da jugeatcera, orai guiçonen
jugeamenduan azpian humilqui iartcen dena

Orduan fidança handi içanen du pobre humillac
eta Superbioa ikaratuco da alde gucietaric

V. Orduan aguerico da mundu hunetan
çuhur içan dela, nore ere ikasi baitu Jesus
gatic erho eta mespreçatua içaiten.

Orduan bozcario emanen du tribulacione
emequi pairatuac, eta nahiz den gainta=
queriac tapatuco du bere ahoa.

Orduan allegueratuco da devocionetsua
eta devocione gabea minduco.

Orduan arraiturenago da corputz seuatua
bethi placeretan hazi içan baliz baino

Orduan piltçarrac eta aldagarri ihetceac
distiatuco du, eta tresna preciosac ilhunduco
dire.

Orduan laudaturenago da deus gutico
chola, iauregui edo palacio urrez tatua baino

Orduan indar gueyago içanen du paciencia
fincoac, munduco bothere guciac baino.

Orduan preçaturenago da obediencia hutsa
munduco ~~fine~~ artezia guciac baino.

VI Orduan Consciencia on ac eta garbiac
boz carioturenago du filosofia iaquinac baino

Orduan gueyago valioco du aberatstasunen
mesprecioac, lur saleen trésor guciac baino

Orduan Consolaturenago Çare oracione
devotaz, othurunça gocoaz baino.

Orduan heureguiago içanen çare çure ichil egonaz, solhas, lucerie eguinaz baino.

Orduan gueyago valioco dute obra sainduec hainitz hitz ederrec baino

Orduan atseguin gueyago emanen du vicitce hersiac eta penitencia gogorrac lurreco atseguintasun guciac baino

Ikazaçu orai cerbait appur pairatcen orduan gaitzagoetarie libra ahal çaitecintçat

Frogaçaçu hemen lehenic, cerahal daidi=queçun guero

Orai hain guti paira badeça queçu nolatan seculaco ponac pairatuco ahal tutçu?

Orai deus gutizco min batec hambat despanciatcen baçaitu, cer eguinen du orduan Ifernuco suac?

Horra, Eguiaz ecin ditusquetçu bi bozcario Ecin boz castesque hemen mundu hunetan eta guero Jesusequin erregue iarri

VII Egun hunetaraino vici içan bacine bethi ohoretan eta placeretan, cer probetchu athera cenduqueyen orai berehala hil behar bacine?

Beraz guciac vanaloria dire, lekat Jaincoa maite içaitea eta ~~bai choelqua~~ servitçatcea bertceac atsirii

Ceren nou ere Jaincoa maite baitu bihotz

bihotz guciaz ~~har~~ ezta herioaren, ez jugeamenduaren ez eta Ifermuaren beldur ceren amudio compliacemasten bastu.

Jaincoa ganaco Sartce Segura

Ordea nore ere laketcen baitçayo oraino bekatu eguitea, ezta miretsteric hura herioaren eta jugeamenduaren beldur bada.

Badaric ere on da çuretçat Jaincoaren amudioac guibelatcen ezpaçastu oraino gaizqui eguitetic, ifernuco penen beldurrac bedere athera çaitçaten bekatuetaric.

Baina nore ere Jaincoaren beldurtasunari uko eguiten baitio, hura ecin dagoque lucoqui vertutearen bidean, aitcitic errorico da Sarri deabruaren Sareetan.

Hogoy eta bortzgarren Capitulua

Gure vicitce guciaren Cinetan oneratceaz

I Caren erne eta agudo Jaincoaren Seruitçuan, eta orhoit çarete maiz certara ethorri Çaren, eta cergatic mundua utsi duçun

Ez othe Jaincoaren ~~Seruiteatcea~~ arauera vicitcea eta guiçon espiritual içaitea gatic?

Hari çaite bada beroqui, çure probet=chuaren eguiten, ceren çure nekeen Saria Sarri hartuco duçu eta orduan

ezta içanen beldurtceric, ez doloratceric
çure azquen appectan.

Orai guti bat travaillaturen, çare eta guero
~~secul~~ Sosegu handia, bai eta bethiereco
allegriança edirenen duçu

Cure obra onetan fidel eta bero bacaude
Jaincoa du dagabe içanen da fidel eta aberatz
çure saristatceco

~~Fidança~~ Esperança behar duçu garaita
ardietsico duçula, bainan eztuça segurançaric
hartu behar beldurrez nagui edo urguillu
çaitecen.

II Norbaitec, maiz gogoetat su guertaruric
beldurraren eta esperançaren artean, eta
behin tristeciaz betheric, aldare baten aitcinean
belhaunico iarriric othoitz etan cegoela, hunela
minço cen bere buruarequin

O Banenqui ea obra onetan oraino iraunen
dudanz! eta berehala bere baitan ençunçuen
Jaincozco errepuesta, ciotsala

Cer? hori baceneaqui, cer nahi cenduque eguin?
Orai eguiçu orduan eguin nahi cenduqueyena
eta segur içanen çare

Orduan berean consolaturic eta valiastaturic
indarstaturic, iarri cen Jaincoaren borrondatearen
azpian eta gogoeta du datsua ichil du cen.

Etçuen ere sondatu eta iaquin nahi içan
cer guertatuco ceican handic hara: bainan

nahiacen Jaincoac
agudo qui bilha ibilli cen cercen Jaincoaren
gogarenic eta Complienic, Cerbait obra onic
hasteco eta Complitceco.

III Duçun esperança Jaincoa baitan, dio
prosetu Çaude lurrean, eta goçaturen Çare
haren aberatstasunez.

Gauça bat da hainitz qui belatcen dituena
vertutean aitcinatcetic eta beroqui oneratectic
cein baita pacheluen beldurcendea eta hequin
Contra gudugatceco trauailua.

A hala baino bertce guciec baino vertutetan
haguitz aitcinatcenago dute, Cecnac guiçon guiçago
enseyatcen baitira garaitcera cer ere gaitzenic
eta contra coenic Suertatcen baitcaye

Ecen certan ere guiconac bere burua
vençutcen eta espintuan mortificatcenago baitu
hartan probetchu guerayo eguitendu, eta
gracia handiago meraci du

IV Bainan eztute batac becambat bertceac
lan eta ocasione bere baitan hiltceco.

Badaric ere agudoqui norhobequi hari
dena sendoqui ago aitcinaturen da, hainitz
escas-ma Kur duclaric, bertce ongui Costumatua
baina vertutetura epelagoa baino

Bi gauça beregainqui heltcen çaisqui gu
handiro oneratcen; bata da gure buruari
borcha eguinic, naturale çac gueyenic
bilhatcen dituen gauça gaixtoetaric apartatcen

bertcea da gueyen escasdugun vertuteari
beroqui jarraiquitcea.

Duçun halaber artha cinez ago beguiratceaz
bertceac baitan mairenic higointcen, çaisquitçun
gaucetaric, eta hequin ithotcear çure baitan.

V. Eguiçu çure probetchua alac gucietaric
erran nahi da, icusten edo aditcen baduçu
exemplu onezco gauçaric, pite çaite haren
imitatcen.

Gaizqui erraitecoric eçagutcen (icusten) baduçu
beguiraçaite halacoric eguitetic edo noizpait
eguin baduçu, duçun artha ahalic lasterrena
hobequi eguiteaz.

Çure beguiec bertceac consideratcen duten
beçala, bertceac ere ordainez behatcen
derautçute.

Cein gauça ~~alleg~~ eder eta allegueragarri den
icusteaz anaya devotac eta beroac bere
eguin bidetan ongui daudecila bere ordenancen
dotrinamenduaren beguiratcen!

Cein damu eta unhagarri den icusteaz
desordenatuqui dabiltçala, eta certara deituac
diren eztutela eguiten!

Cein caltegarri den Jaincoac eman cerauen
gogo onaz ex ansiatceaz, eta manatuac
eztirenetara itçultceaz.

VI Orhoïtçaite hartu duçun borondate onaz
eta guratcefiaren imagina idukaçu beguien

aitcinean.

Mereci onez ahalka çaiteste Jesusen vicitcea miraturic, ceren etçaren oraino enseyatu Çurearen mol datcera harenaren gainetan, hainitz duelaric ~~haren~~ Jaincoaren bidean Caudela.

Gure Saluatçaillearen vicitce Jarten den Guiristineac gure sainduaren eta passione ~~sa~~ Sacratuaren ~~eta~~ ernequi eta cinezco devocionerequin consideratcen, han gucia, eta ezta mengoaric cerbait hobeagoric bilha deçan Jesus ganic campoan.

O balethor Jesus gurutçatua gure bihotz=etara, cein laster eta asequi guinatesque dotrinatuac!

VII Cinezco guiristinoac onqui hartcentu eta eKartcen tu m lasaiten eta ehartcentu manatcen çaiscon guciac.

Naguiac eta epelac içaiten du tribulacione tribulacioneren gainean eta aldeguciетaric pairatcen du herstura: ceren ezpaitu Consola=cioneric, eta ezpaita cilhequi campocoric bilhatcera

Guiristino leguez vici eztena ~~gai~~ gaizqui erorteco peril aguerian da.

Norc ere bilhatcen baitu çaualagoric eta vicitce largoagoric, hura bethi herstu=retan egonen da, ceren bethiere gauça bat edo bertcea higoin duco baitçayo.

VIII nola eguiten dute hain bertce Fraideçan ceinac baitaude hersiqui Serraturic calaustretaco governuaren azpian?

Gutitan Ilkiten dire, vici dira bertcearic apartaturic, choil pobrequi iaten dute, Lodiz vestituac dire, hainitz lan eta travaillu daramate, guti minço dira, veilla luceac eguitentuste, eta bere burua ordenança gucien azpian daducate.

Miratçatçu chartrusac, Citeauzcoac eta bertce ordenetaco Fraideac eta Serorac, nola gau guciez iaiquiten diren Jaincoaren laudorioen cantatcera.

Hargatic laidoa licate cu hain obra Saindu bateanaquitcea, horrein bertce fraide hasten direnean Jaincoaren copletan bozcariotcen.

IX O Ezpaguendu bertce eguitecoric gure Jainco Jaunaren bihotz guciaz eta aho bethez laudatce baicen!

O ezpacendu Seculan mengoaric iateco edateco edo lo eguiteco, eta bethi Jaincoa lauda ahal baceneça eta arimaco probetchuari choilqui itchequi ahal bacinioço! Orduan doatsuago cinatesque orai çaren baino non gorputza hain bertce beharquitan Seruitçatcen baituçu

Aïlu Jaincoac nahi halaco beharric ezpaliz
bainan arimaco orthuruntçatceric choilqui baliz
nolacoric, helaz! gutitan asqui dastatcen
baitugu.

X Noiz ere guiçona ethorri baita halaco
puntura, non ezpaitabilla bere consolacione=
aren bilha creaturetan, orduan hasten da
Jaincoaren goçoqui dastatcen: orduan contentic
dago guertatcen çayon guciaz.

Ezta allegueratcen franquiaz, ez eta tris=
tetcen escasiaz, baina permatcen da ossoqui
eta fidançarequin Jaincoaren gainean, eta
Jaincoa du bere gucia gauça gucietan daquiela.
Jaincoac ~~baitan~~ eztuela deus ere utsten galtcera
ez hiltcera, gauça guci~~ac~~en vicia emaiten dera=
uela, eta guciac lehenbicico Keinura prestic
daudela laster haren seruitçatcera

XI Orhoitçaite bethi azquen finaz eta dembora
galdua eztela bihurtcen.

Seculan eztutçu vertuteac ardietsico arthatsu
erne eta agudo ezpaçare.

Hasten baçara epeltcen, hasico çare gaizqui
causitcen baina beroqui hari baçara baque
handi bat aurKituco duçu, eta sentituco duçu
travaillua arin ago dela Jaincoaren gracia gatic
eta vertuteari eKarrico dioçun amorioa gatic

Guiçon beroa eta agudoa gauça gucietara da preparatua eta adelatua.

Travaillu handiago da vicioey etaguthicia gaixtoey buru eguitea. gorputzeco nakaduretan icertcea baino

Escas chipietarie beguiratcen eztena, baratche erortcen da handienetan

Bethi alleguera içanen çare arratsean, eguna iragaiten baduçu obra onetan.

Eaude erne çure gainean iratçarçaite cerori çaren ceroni çure avisu eta conseillu emaille eta cer ere bauta bertceez, etçaudecila çure çutaz buruaz artha iduqui gabe

Hambatenaz aitcinat~~cen~~uren çare vertutetan Cembatenaz eguinen baitioçu çure buruari bortcha. Bizhala

Bigarren Liburua
Lehen Capitulua
Barreneco

I Jaincoaren erresuma cuen baita da dio gure Jaunac. Itçulçaite bihotz guciaz. Jaincoa gana, eta largaçaçu miindu ondicozco hori, eta çure arimac edirenen du Sosegua

Ikaraçaçu campoco gaucen mespreçatcen eta barrenecoetan gogoa emaiten, eta icusico duçu Jaincoaren erresuma çure ganaco dela

Ecen Jaincoaren erresuma da Espiritu Saindua baitaco baquea eta bozcarioa, gaixtoey emaiten etçayena.

Jesus etorrico da çure gana, eta eracusico derautçu bere consolacionea, behar beçalaco egoitza preparatcen badioçu cure baitan.

Haren loria eta edergaillu edertasun gucia barrenetic da, eta han laketcen çayo.

Maiz ~~vintu dabilla~~ dabilco barreneco. guiconari solhas amolsu eguiten, hura maiz arraitcen du bere consolacioneaz, baqui handi batez berretcendu, eta miragarrizco ~~beg~~ beguitarteac eguiten diotça.

II Ea bada, arima fidela prepara dioçoçu espos hari çure bihotza, çure gana ~~datorrea~~ etortceco, eta çure baitan egoiteco gracia eguin diaçaçun gatic.

Ecen hunela dio: ni hore maste banau, begui=
ratuço du ene hitza, eta etorrico gare haren
gana eta gure egoitza eguinen dugu haren baitan
Emoçu beraz Jesuse lecu, eta herts dieceçu
bertce guciey athea
Baldin Jesus, baduçu, aberatz çare eta asqui
duçu.
Hura içanen da çure beharren bilhatçaille
eta ekarle fedela gauça gucietan, hala non
ezpaituçu esperançaric eman behar guiconetan
Ceren guiçonac sarri gambiatcen dira, eta
laster huts eguiten dute: baina Jesus bethi ere
fidel dago, eta tinketz laguntcen hari da azquen
fineraino.
III Ezta fidança handiric eçarri behar guiçon
erorcorra eta hilcorra baitan, haren beharra
çarelaric eta hura maste duçularic: eztuçu
ere hainitz tristecia hartu behar, batçutan
iartcen bada çure Contra.
Egun çure alde direnac behar eguin diaça=
queçute Contra; eta ~~contrara~~ egun çure Contra
direnac behar iardetsque çure alde, ceren
maiz itçulten baitira dire haicea beçala
Eçareçaçu çure fidança ossoa Jaincoa baitan
eta biz hura çure beldurtasuna eta amudiva
Berac ihardetsico du çuretçat, eta eguinen du
hobeguien den beçala
Eztuçu hemen bethi dirauen hiriric edo
egon lecu egoitza Segurric, eta non ere baitçaude Campoco

çare eta ärots, eta eztuçu ni hoiz ere
pausuric içanen non etçanen Jesusequin
ossoqui bat eguina çure barrenean.
IV Ceri çagotça hemen norra huna beha
icusiric eztela hau çure pausalecua?
Cure egoitza behar da içan ceruan gora
eta iragaitzaz beçala lurreco gauça guciac
behatcecoac dire.
Guciac iragaiten dira, eta çu ere orobac
Beguira hey lotcetic eta itchequitcetic
beldurrez atceman eta galçaitecin.
Biz çure gogoeta gucia Gorena baitan
eta çure othoitza guelditu gabe bioa
chuchen Jesus gana
Ecin hari baçaitesque gaineco eta ceruco
gaucen consideratcen miratcen pausa çaite
Jesusen Passionean, eta egon çaite gogotic
haren çauri Sacratuetan.
Ceren devocionerequin eguiten baduçu
laster Jesusen çauri eta Seinale préciosetara
Consolacione handi bat Sentituco duçu
tribulacionetan, eta eztuçu hainitz achola
içanen munduco mesprecioac gatic bainan
errazqui pairatuco tutçu gaizqui errail=
leen hitzac
V Jesus bera mespreçatu içan da mundu
hunetan cebillanean, eta hura bere behar

handian eçagunec eta adisquideec utsi
dute laidoztaturic.

Jesusec nahi içan du pairatu, eta mespre=
=çaturic ibilli, eta çu atecbitcen çare deusez
ere arrancuratcesa?

Jesusec içantu contracoac eguinez eta
erranez; eta çuc guciac nahi tutçu
adisquide ongui eguille

Nondic Koroaturen da çure paciencia
guerta ezpadaquiçu contracoric.?
Nahi ezpaduçu atsecaberic pairatu,
nolatan içanen çara Jesusen adisquide?

Pairaçaçu Jesusequin eta Jesus gatic,
nahi baduçu Jesusequin erregue iarri.

VI Behin ~~Sartu~~ cinetan Sartu bacine
Jesusen bihotzean barrena, eta gute bat
dastatu bacen du haren amudiotic, orduan
etcenduque guero ansiaric çure ongui edo
gaizqui içanaz: aitcitic boz cindesque
laidoez eta atsecabeez, ceren Jesusen
amudioac mespreça arasten baitio guiçonari
bere burua

Nori ere Jesus eta eguia maite baitu
eta bere baitan ~~bilotu~~ eguiazqui bilduric
baitago afeccione desordenatuetaric
libraturic, hura errazqui itçul diteque
Jaincoa gana, bihotzez altcha eraman daite
bera baino gorago, eta goçoqui pausa
diteque deçaque

VII Nori ere eçagutcen ~~bit~~ baititu gauçac diren beçala, ez ordea aippatcen edo diruditen arauera, hura da eguiaz qui çuhur eta Jaincoac irakasiago guiçonec baino.

Nori ere baitaqui bere baitan barrena ibiltcen, eta Campoco gaucez contu guti eguiten, hura eztabilla lecu bilha, eta eztago demboraren beguira devocionezco. eguin bidetan iartceco.

. Barreneco guiçona laster biltcen da bere baitara ciren ez pasta seculan gucia ~~barra~~ barrayatcen Campocoetara

Campoco travailluac edo dembora batetaco lan premiazcoac eztute hura pachelatcen baina iarraiquitcen caye guertatcen diren eradura.

. Nori ere baitago bere baitan ongui ordenaturic, hari eztu acholaric guiçonen erremangu gaixtoez eta miretstecoez.

Hambatenaz guiçona trauatcen da eta barrayatcen, Cembatenaz eguiticoac gauçac bereganatcen baititu

VIII Ongui. bacinunde, eta eguiaz qui garbitua bacine, gauça guciac ongui eta probetchurequin guerta lequi dis quetçu.

Hargatic

Hargatic hainitz gauça higointcen çais=
quitçu eta maiz aldaratcen çaituste, ceren
ezpaitçare oraino ceroni çure baitan hilla
eta lurreco gaucetaric apartatua.

Eztu deusec ere guiconaren bihotza hala
nothatcen eta corapillatcen, nola creatur
amudio liçunac.

Campoco consolacioneac arbuiatcen badituçac
ceruco gauçac miratuco ahal tutçu, eta maiz
bortuco ahalçare çure baitan

Bigarren Capitulua

Azpico humil iartceaz.

I Eztaguiçula contu handiric nor den çure
aldeedo çure contra; baina duçun artha
Jaincoa çurequin dençure obra gucietan

Duçun consciencia ona eta Jaincoa ongui
beguiratuco çaitu.

Ceren nori ere Jaincoa lagundu nahico baitçayo
harinihoren gaixtaqueriac ecin eguinen dio
calteru.

Baldin badaquiçu ichil egoiten eta pairatcen
dudagabe icusico duçu Jaincoa lagunduco çaitçula

Hari badaqui noir eta nola libratuco çaituen
eta hargatic opal iarri beharçare haren
çuhurciaren escuco eta meneco.

Jaincoari dagoca laguntcea, eta ahalketasun
gucietaric libratcea

Hainitzetan on da choil guretçat humiltasun

handiago içaitea gatu bertceec iaquin detçaten
gure hutsac eta escasac eta erran diatçaguten.
II Noiz ere humiltcen baita nihor orduan
errazqui ematcentu bertceac, eta haserretcen
çaisionac arinqui satifatcentu.

Jaincoac humilla beguiratcen du eta libratcen
humilla maite du eta consolatcen humilla
gana makurtcen da, humillari emaiten dio
gracia handia, eta beheititu denean hura
goititcen du loriara.

Humillari bere sequeretuac aguertcen diotça
eta hura eztiqui gombidatcen du eta erakartcen
bere gana

Humilla baque handi bateandago, nihori
laidoric eguin badio ere, ceren Jaincoa
baitan baitago eta ez munduan.

Eztaducaçula probetchuric eguin duçula
cinetsten ez paduçu guciac baino gutiago
çarela.

Hirurgarren Capitulua.

Guiçon prestuaz eta baquetiarraz

I Jarsaite cerori baquean lehenic eta
orduan baquetuco ahal tutçu bertceac.

Guiçon baquetçailleac probetchu gueyago
eguiten du iaquinsunac baino

Guiçon passionatuac on dena ere gaitzera
itçulten du eta gaizquia errazqui cinetsten

Guiçon prestuac eta baquesaleac gauça

gauça guciac onera hartcentu.

Baque onean dagoenac eztu nihortaz ere Suspitcharic hartcen.

Ordea bere gogara eztagoenac eta aldaratua denac hainitz Suspitcha darabilla buruan: berac eztu Soseguric, eta bertceac eztutu utsten Sosegatcera.

Hainitz etan erraiten du erran behar eztu=queyena, eta utstendu hobe litçaiqueona eguin gabe

Consideratcen du cer eguin behar duten bertceac eta eztaduea Conturic berac eguin beharrez

Çaude beraz erneçure gainean lehenic eta guero beguia iduquico ahal duçu çure lagunaren gainean.

II Badaquiçu ~~cur~~ çuc eguinac escusatcen eta verniçatcen, eta bertceen escusac eztutçu hartu nahi

Çucenago liçate çure burua acusa, eta çure anaya escusa baceneça

Nahi baduçu bertceac iasan çaitçan, çuc ere iasan ecaçu bertcea.

Miraçaçu cein urrun çaren oraino eguiazco Charitatetic eta humiltasunetic, Ceinac ezpaitaqui nihori ha Serretcen ez gogortcen bere buruaren Contrabaicen.

Ezta gauça handiric prestuequin eta mansoequin ibiltcea, ceren hori naturaleçatic

on eta eder çaye guciey, eta bat bedera gogotic viciohi da baquean, eta berac boçalaco sentimendu dutenac maiteago itu.

Baunan indarric asqui içaitea gogorrequin eta gaixtoequin, desordenatuequin eta gure contra direnequin baquean vicitceco, gracia handia da, obra guciz laudatcecoa eta guiçon guiçacoa

III Ba da baquean dagoenic, eta bertcequin ere baquea daducanic.

Bada baqueric eztuenic, eta bertcey baqueru emaiten ezterauenic; bertceen unhagarriac dire, baina bere buruaren are unhagarriago

Bada halaber bere burua baquean daducanic, eta bertceen baquetcera enseyatcin denic.

Halaric ere gure baque gucia vicitce ondicozco hunetan gueyago datça, contracoric ez sentitcean baino.

Hobequi da bere buruaren jabe eta nausi munduco iaun Jesusen adisquide, eta cerueco primic

v daquienac pairatcen baque handiago icanen du Hura

Laugarren Capitulua

Gogo garbiaz eta intencione simpleaz

I Bi hagalez atchatcen da guiçona lurreco gaucetaric; simpleciaz eta garbitasunaz.

Simplecia behar da intencionean, eta gar=
bitasuna afeccionean

Simplecia beha dago Jaincoa gana, eta gar=
bitasunac Jaincoa arriestsen du eta goçatcen

Ezta obra onic travatuco çaituenic, Çure
baitan libro baçare afeccione desordenatuetaric.

Jaincoaren borondateaz eta lagunaren
probetchuaz berceric bilhatcen ezpaduçu
goçatuco çare barreneco libertatear.

Çure bihotza chuchena bada, creatura
guciac çuretçat biratcegue vicitcearen
miraillo eta doctrina Sainduaren liburua

Ezta lain Creatura chipirric eta ez deusic
non ezluen Jaincoaren ontasuna errepresen=
tatcen.

II Ona eta garbia bazine çure baitan, gauça
guciac icusi cenetçaque traburic gabe, eta
diren beçala eçagut cenetçaque

Bihotz garbiac iragaiten du cerua eta ifernua.

Nolaco baita nihor bere baitan, hala ingeratcen
du campotic.

Munduan allegriançarric bada, hartaz goçatcen
da bihotz garbia duen guiçonac; eta nihon
eretribulacionerric edo harsturarric bada
hura Sentitcen du Consciencia gaixtoac.
hobeguienic.

Nola burdinac, suan emanic galtcen baitu
herdoilla eta gucia gorritcen bata hala
eta surtatcen

halaber Jaincoa gana ossoque itçulten denguicona
bere toldatosunetic libratcenda, eta guiçon
berri batelara gambiatcenda.

III Noiz ere guiçona hasten baita epeltcen
orduan travaillu appurraren ere belduzda
eta gogotic hartcen du campoco consolacionea

Baina cinetan hasten denean bere buruari
garaitcen, eta guiçon guiça Jaincoaren bidean
ibilten, orduan casu guti eguiten du lehen
corth eta pisu citçaiscon guciez.

Boitzgarren Capitulua

Bere buruaren Consideracionear

I. Cinetste sobera ecin demoqueogu gure
buruari, ceren gracia eta adimendua hainitzetan
escasten baitçaicu

Argui guti ~~duga~~ da gure baitan eta den
appurra ere laster galtcen dugu gure ansicabez

Bai eta hainitzetan eztugu Sentitcen
horrein itsu garela ceren.

Hainitz aldiz gaizqui eguiten dugu eta gure
gaizqui eguinac gaizquiago escusatcen tugu

Batçutan passioneac garamatça, eta uste
dugu borondate ona dela.

Bertcen falta appurrac alehatcen tugu
hitzez
eta gure handiagoac iragaiten tugu ichilic.

Laster Sentitcen eta pisatcen dugu cer
pairatcen dugun bertceac ganic baina Cembat
pairatcen duten gure ganic eztugu gogoatcen

Nihore ongui eta chuchenqui mira eta pisa
baletça bere obrac eluque cer iugeamendu
gaiztoric eman bertceac gatic.
II Barreneco guiçonac lehen bere buruaz
artha daduca, bertceez baino, eta beregainean
beguia cinetan erne daducana, bertceez errazqui
dago ichilic.
Seculan etcara guiçon barreneco espiritual eta deuot
icanen, ichilic ezpaçaude bertcean eguitecoez, eta
beregainqui çure buruari behatcen ezpadioça.
Çure barrenaldia eta Jaincoa gogoan tinketz
bada duçaçu, campotic heldu çaitçun guciac
guti ukituco çaitu.
Non çare çurequin ceronequin etçarenean?
eta diren guciac miratu ditutçunean, çure
buruaz ahantsiric, cer probetchu eguin duçu?
Behar baduçu baqueaz eta eguiazco batasunaz
goçatu, bertce guciac behartutçu largatu,
eta çure burua Choilqui beguien aitcinean iduqui
III Halacotz haguitz aitcinatuco duçu beguiz
ratcen baçare libro munduco artha
gucietaric
Laster escas guertatuco çare munduan
den gauçaric preçatcen baduçu
Eztaducaçula deus ere handiric, goraric
ederric, gogaracoric badela çuretçat Jaincoa
bera eta Jaincoa ganic heldu dena bai cen

Eguiçu contu vanaloria dela Cembait, creaturatic heldu den consola garri gucia.

Jaincoa maite duen arimac mespreçatcen du Jaincoa baino beherago den gucia.

Jainco eternala, ecin neurt ditequeyena gauça guciac bethetcen dituena choilqui da arimaren consolationea eta bihotzaren eguiarco bozcarioa

Seigarren Capitulua

Consciencia onaren bozcarioaz.

I Guiçon prestuaren loriamendua da Consciencia ona beretçat lecuco içaitea

Duçun consciencia ona eta bethi içanen duçu allegriança

Consciencia onac hainitz paira deçaque eta miragarri da alleguera atsecabeen artean

Consciencia gaixtoa bethi da beldurti, eta ekurugaitz, eta eztu behin ere pausuric.

Goçoqui pausatuco duçu cure bihotzac eguiten ezpaderautçu erançuteric.

Etçaitecila alleguera cerbait onic eguin duçunean baicen

Gaixtoec eztute nihoiz ere eguiarco allegriançaric, eta barreneco baqueric eztute Sentitcen, ceren ezpaita baqueric gaixtoentçat, dio gure Jaunac

Erraiten badute baquean gaude ezta gaitzic etorrico gure gainera, Nor.

ausartuco da çaicu guri bidegaberic eguitera?

Ez tetçatçula cinetz, ceren berehala iaiquico da Jaincoaren colera eta hequin hec eguinac ez deustuco dira eta galduco

II Tribulacionetan loriatcea etçayo gaitz Jaincoa maite duen arimari: Ceren horrela loriatcea da gure Saluatcaillearen garatcean loriatcea.

Laburra da guiconec emaiten eta hartcen duten loria

Munduco loriac bethi du tristecia lagun.

Prestuen loria hequin Consciencietan dago eta ez guiçonen ahotan

Justuen allegriança Jaincoa ganic da eta Jaincoa baitan, eta hequin bozcarioa eguiatic Sortcen da

Nore ere eguiazco eta Seculaco loria desiratcen baitu, eztu munducoaz ansiaric

Eta nor ere baitabilla dembora batetaco loriaren bilha, eta hura ez paitu bihotzez mespreçatcen, eracuzten du ceruco a gutiago duela maite

Sosegu handia du bihotzean nore ere ez paitu acholaric ez laudorroez ez acusuez.

III Errazqui Contentatuco da eta baquean iarrico Consciencia garbia duena

Etçara Sainduago laudatua içana gatic ez eta gaixtoago, gaizqui aeppatua içanez gatic

Carena çare eta ecin caratesque Jaincoaren aitcinean caren baino gueyago.

Miratcen baduçu cer çaren baitan çure eztuçu ansiaric içanen cer guiconac, çutaz erraiten duten campoan.

Munduac icusten du becoquian, eta Jaincoac bihotzean

Munduac Consideratcentu obrac, eta Jaincoac Sondatcen du intencionea.

Bethi ongui eguitea bere burua chipi iduquitcea da arima humillaren eguitecoa

Creaturen consolacioneac arbuyatcea da garbitasun handiaren eta barreneco fidançaren Seinalea

IV Nore ere campotic ezpaitu beretçat bibhatcen lecucoric, eracuzten du ossoqui iarri dela Jaincoaren escuetan.

Ceren Jondone Pauloc dioen beçala; bere burua laudatcen duena ezta bethi laudatcecoa, baina bai Jaincoac laudatcen duena

Jaincoarequin ibiltea bere baitan barrena eta campoan libro içaitea affeccione gucietaric, da guiçon barrenecoaren estatua

Çaspigarren Capitulua

Jesus ganaco amudioaz gauça gucien gainetic.

I Doatsu da norc ere baitaqui cerden Jesus maite içaitea maite, eta bere burua mespre=çatcea Jesus gatic.

Maite ~~bat~~ bat utsi behar da bertce maitea gatic, ceren Jesusec nahi du hura choilqui dugun maite gauça gucien gainetic.

Creaturaren amudioa enganiosa da eta bertcetara corra; Jesusen amudioa fidet da finco eta fermu.

Nor ere baitatcheco creaturari erorico da eror corrarequin: baina Jesus bessaratcen duena doatsuqui firmatuco da seculacotz

Duçun hura maite eta idukaçu adisquide guciec utsçaitçatenean, hare etçaitu utsico eta eztu pairatuco azquenean gal çaitecin

Berdin nahi baduçu, nahi espaduçu ere egun batez apartatu behar çare bertce gucietaric

II Çaude Jesusen aldean vician eta hillean, eta ~~fid~~ iar çaitt fidançarequin haren gomendioan, hura choil qui hel daidiqueçu bertceac falta daquisquitçunean.

Çure maitea halacoa da non ez paitu arrotzic pairatu nahi berequin; baina çure bihotza ossoqui nahi du bereo, eta

hartan nahi du erregue carri bere tronuan beçala.

Baceneaqui creatura gucien Kentcen çure ganic, Jesus gogotic legoque çurequin.

Cer ere emanen baituçu guiçonen escuetan Jesuse gomendalu gabe, gucia adirenen duçu harren galduric

Ez fida eta ez perma canabera haicetsuaren gainean, ceren haragui gucia abre belharra da, eta haren loria gucia belharlorea beçala erorico da.

III Laster enganatuco çare guiçonen campoco iduriari choilqui bahatcen badioçu.

Ecen çure consolacionea eta probetchua nihon bertcetan bilhatcen baduçu, calte sentituco duçu maizenic.

Jesus bilhatcen baduçu gaucietan, Jesus aurkituco duçu. baina çure burua bilhatcen baduçu, çure burua ere aurkituco duçu, ordea çure caltetan.

Ceren bere buruari calte gueyago eguitendio guiçonac, Jesus bilhatcen ez padu, mundu ossoac eta ~~haren~~ contraco dituen guciec eguin dioçoqueten baino

Çortcigarren Capitulua

Jesusequico

I Jesus lecuan denean, gucia on da, gucia eta ezta deus ere iduritcen gaitz dela baina

Jesus campoan denean den gucia gogorra da. gogorda gucia

Jesus gure baitan minço eztenean consolacione guti dugu: baina Jesusec hitz huts bat erraiten batu consolacione handia sentitcen dugu.

Ez othe da eguia Maria madalena berehala iaiqui cela nigarrez cegoen lecutic marthac erran cioenean, nausia hemen da eta çure galdea du?

O ordu doatsua, noiz ere Jesusec deitcen baigaitu nigarretaric bihotzeco bozcarioa!

Cein idor eta gogor çaren Jesus gabe!

Cein erho eta vanaloriatsu ~~garen~~ çaren desiratcen baduçu Jesusez bertceric!

Ez othe da hori calte handiagoa, mundu gucia gal baceneça baino?

II Cer eman diaçaqueçu munduac Jesus gabe?

Jesus gabe içaitea Ifernu gorratza da eta Jesusequin egoitea parabisuez tia.

Jesus çurequin bada, etsayac ecin eguinen derautçu calteric.

Jesus aurkitcen duena, tresor ona aurkitcen du, bai eta ontasun gucien gaineco ontasuna.

Jesus galtcen duenac sobera eta sobera galtcen du, eta mundu gucia gal beleça baino gueyago

Guiz pobre da Jesus gabe vici dena
eta guiz aberatz da Jesusequin ongui dagoena
III Jaquintasun handia da iaquitea
Jesusequin ibiltcen, eta iaquitea Jesusen
iduquitcen, çuhurcia handia.

Çaren humil eta baguetçaille, eta Jesus
içanen da çurequin

Çaren devot eta pausatua, eta Jesus
egonen da çurequin

Cassa deçaqueçu Jesus çure ganic, eta
haren gracia gal dezaçu nahi baçare
Campoco gaucetara iteuli?

Eta hura cassatcen eta galtcen baduçu
noren gana iher eguinen duçu? eta orduan
nor bilhatuco duçu adisquide?

Adisquideric gabe eun ongui viui caitesque
eta Jesus ez paduçu guicien gaineco adisquide
guiztriste eta desconsolatua içanen çare

Erhoqui bera, hari çara, ni horen baitan
fidatcen edo borten baçare, hura utsiric.

Lehen hautatu behar duçu mundu gucia
alcha dadin çure contra, Jesus, ~~offensa~~
~~deçaçun baino~~ haserra daquiçun baino.

Biz bada Jesus çure mauteena eta
adisquide minena maite ditutçun guicien
gainetic.

IV Onets biter guciac Jesus gatic, eta Jesus
onets bedi bakoitzqui bera gatic.

Jesus onetsi beharduçu bera ~~eta~~ beregain ceren hura choilqui edireiten baita on eta fidel adisquide gucien gainetic

Behar ditutçu guciac maite içan haren gatic eta haren baitan, bai adisquideac, bai etsayac, eta othoitz eguin behar dioçu guciac gatic, arren hura guciec eçagut eta onets deçaten.

Ezteçaçula behin ere desira bertcec lauda eta maita çaitçaten beregainqui, ceren hori çor çayo Jaincoari choilqui, ceinac ezpaitu bera beçalacoric.

Ezteçaçula halaber desira nihor sobera lot daquiçun bihotcez, eta ceroni ere etçaitecula amarra nihoren ganaco amudioaz: baina bego Jesus çure baitan eta arima prestu gucietan.

V Carela garbi eta ~~libra~~ barrenean libro creaturen corapillamen dicetaric.

Behar duçu billusia içan eta bihotz~~ez~~ garbia ~~içan~~ Jaincoa gana ekarri, nahi baduçu astiric içan eta icusi cein ezti eta goço den gure jauna.

Ordea hori eztuçu eguiazqui ardietsico haren gracia aitcintcen ezpaçaitçu eta erakartcen ezpaçaitu, choilla choillarequin bat eguin çaitecintçat, bertce gauça guciac largaturic eta camporaric

Ceren Jaincoaren gracia heldu çayenean guiçonari, indarsu eta ahaldun eguiten da gauça gucietara baina ioaiten çayonean behar eta flaco gueldituen da, eta açotetara choilqui utsia beçala.

Orduan eztuçu bihotz flacatu ezeta etsitu behar baina pacienciaz itchequi behar dioçu Jaincoaren borondateari, eta guertatuco çaitçun gucia pairatu behar duçu Jesusen laudoriotan.

Ceren neguari darrayo uda gauari eguna eta tormentari dembora ederra

Bederatcigarren Capitulua

Consolacione guciez garbetcear.

I Ezta gaitz munduco consolacionearen mes=preçatcea Jaincoarena dugunean

Gauça handia eta guciz handia da indar asqui içaitea bai munduco bai Jaincozco consolacione gaberu egoiteco, eta borondata onez bihotzeco desterruaren pairatcea Jaincoaren ohoretan, bere biirua deusetan et ere bilhatu, eta bere merecimenduey behatu gabe

Cer da handiric alleguera eta devocionetsu baçare gracia heldu çaitçunean?

Badute guciec oren haren desira

Placer qui asqui dabilla Jaincoaren graciac aKartcen duena.

Eta

Eta cer miracuillu sentitcen ezpadu cargaric, nor ere guciz botheretsuac baitarama eta gucien gaineco guidariac guidatcen baitu?

II Atsequin dugu cembait consolacione içaitaz eta nequez billusten da nihor bere buruaz.

Jondone Laurendi bere apezpicu saindua=requin garaitu çayo munduari, eder eta goço cirudien gucia mespreçatuz.

Emequi pairatcen çuen Jesusen amorea gatic San Sixto aita saindua eraman lequi~~a~~on, hura beregainqui ~~maita~~ maite çuelaric.

Creatçaillearen amudioz bada guiçon baten ganaco amudioari garaitu çayo, eta maiteago içan du Jaincoaren borondatea munduco consolacionea baino.

Hala çuc ere, ikazaçu cerbait beharduçunic eta cembait adisquide minduri utsten Jaincoa gatic.

Eztaquiçula ere gaitsi çure adisquideac utsi çaituenean, berdin badaquiçu gucioc finean behar garela elkar ganic apartatu.

III Haguitz eta luez behar du guiçonac bere buruarequin ihardugui eta guducatu ikas deçan baino lehen garaya ossoric ardietsten, eta bere gogo gucia Jaincoa gana ekartcen.

Bere gainean permatcenden guicona, errazqui erortenda munduco consolacionetara

Ordea Jesusen eguiazco maitaria, eta

cinezco vertute salea eztarraye consolacio=
ney, eta eztabilla halaco gosata sunen ondoan
aitcitic nahiago du borthitz qui erabilli içan
eta traveillu gogorrac pairatu Jesus gatic.
IV Noiz ere bada Jaincoac emaiten baite=
rautçu bihotzeco consolacioneric, hura hareçaçu
esquer dioçula, eta iaquineçaçu Jaincoaren
dohaina dela eta ez çuc mereciric.
Etçaitecila alcha burupe handiz ~~eta~~ ez sobera
alleguera ez ~~sobera~~ fida ~~çure~~ vanoqui guero=
aren gainean; aitcitic çarela humillago eman
çaitçuna gatic çarela ere beguiratuago eta
beldurtiago çure obra gucietan, ceren oren
hura iraganen da, eta etorrico da tentacionea
Consolacionea eraman daquiçunean eztecaçula berehala esperança gal, baina çaude
humilqui eta pacienciarequin ceruco visitaren
beguira. Ceren Jaincoac eman diaçoqueçu
berriz ere Consolacione gueyago.
Etçaye hori gauça berria eta bakana Jainco=
aren bidea frogatu diteney, ceren aldiscatceco
manera hura maiz guertatu çaye saindu
handiey eta profeta çaharrey.
V Halacotz hataric batec, gracia berequin
çuenean erraiten çuen; nic errandut neure
franquian, enaiz seculan aldaratuco.

Ordea gracia ioanez guero, eracuztea gatic cer frogatu çuen, hunela minço da: Itçuli duçu cure beguitartea ene ganic, eta tribulatua eguin naiz.

Bizquitartean eztu esperança galtcen, bainan uçuago dagoca Jaincoari othoyez erraitenduela: Çure gana Jauna eguinen dut oyu eta ene Jaincoari eguinen diot othoitz.

Azquenean bere othoitzaren fruitua ardietstendu, eta eracuzten du ençun ican dela; Ençun nau Jaunac, dio, eta urricaldu Natçayo, iauna iarri çait alde, eta eguin çait lagun.

Certan Ordea? Gambiatutçu ene nigarrac bozcariotara, eta alde gucietaric inguratu nauçu allegriançaz.

Horrela eguin bada Saindu handiequin guc pobre eta flaco horioc eztugu etsitu behar batçutan, bero, batçutan hotz guertatcen bagare ceren espiritu Saindua heldu da eta badoa berac placer eta borondate duen arauera.

Hargatic ciotzan Job Sainduac: Visitatcen duçu guiçona arguiaren beguian, eta hura berehala frogatcen duçu.

VI Certan beraz esperança ahal duquet, eta certan fidatu behar dut Jaincoaren misericordia handian eta ceruco graciaren esperançan bai cen?

Ecen heldu baçaitsquit ere guiçon prestuac fraide devotic, adisquide fidelic, edo ekartcen baçait ere liburu Sainduric, esquiribu ederric, edo canta eta copla arraye, gauça hec guciec probetchu eta goço guti emaiten derautate gracia eztudanean, eta ene pobrecia hutsean utsia nagoenean.

Orduan eztut erremedio hobeagoric paciencia hartcea, eta neure burua Jaincoaren borondatearen azpian eçartcea baino.

VII Eztut egundaino aurkitu hain devocionetsuric, non etçayon batçutan gracia edequi içan, edo non eztuen sentitu cembait aldiz bere devocionea gutitcen cela.

Ezta ican Sainduric hain gora Jaincoa gana eraman, eta hainarguitu içandenic, non lehen edo guero ezten tentatu içan.

Ceren cembait tribulacione Jaincoagatic pairatu eztuenac eztu mereci althatua iça Jaincozco Contemplacionera.

Aitcineco tentacionea gueroco consolacionearen seinale ohi da; eta tentacionetan frogatu direnez aguintcen çaye ceruco consolacionea. ~~Gau~~ Garaituco denari, dio emanen diot viciaren arbolaco fruitutic-iatexa.

VIII Ordea Jaincozco consolacionea emaiten çayo guiçonari borthitzago içaitca gatic gauça gaitzen eta Contracoen pairatceco.

Guero ondoan heldu da tentacionea, beldurrez sobera eraman dadin duen ontasuna gatic.

Deabrua eztatça lo, eta haraguia ezta oraino hil. hargatic etçaudecila preparatu gabe guducatiera, ceren escuin eta esquer dabilzquitçu behin ere pausatcen eztuten etsayac.

Hamargarren Capitulua.

Esquerrac emaiteaz Jaincoaren graciac gatic

I Cergatic çabiltça pausuren bilha, travailliuo sortu Çarenaz gueroztic?

Lehen preparaçaiti pairatcera, ecen ez Consolacione hartcera; eta Soinean gurutcearen erabiltera, ez allegueratcera.

Ecen nori munducoetaric eleçaque gogotic har consolacione eta allegriança espirituala hura bethi ahal balu? ceren Consolacione espiritualec garaya daramatu munduco placer eta atseguintasun gucien gainean.

Munduco placer guciac edo vanaloriazcoac dira edo liçunac: baina placer espiritualac arrayac dira eta ohorezcoac, vertutetaric

sortuac, eta Jaincoac bihotz garbietara isuriac.

Baina nihor ecin goça diteque bethi consolacione Jaincozco hetaz nahi luqueyen beçala ceren tentacionearen aldia laster bihurtcen da. demborac aztu hainitz luçatcen.

II Bada arimaco libertate falsoa, eta bere baitaco fidança handia haguitz dire Jaincoaren visitaren contra iarriac.

Ongui eguiten du Jaincoac consolacionezco graciaren emaiteaz: baina gaizqui eguiten du guiçonac Jaincoari aitorric ez eguiteaz eta esquerric ez bihurtceaz

Hargatic graciaren dohainac ecin isur ditesque gure gainera, ceren esquer gabe garen emaillea gana, eta ~~ceren~~ den gucia eztu gun bihurtcen bere ithurburura.

Ecen nor ere behar beçalaco esquerric emaiten baitu lehenbicico ~~gracia~~ dohaina gatic hariçor çayo gracia berri bat, eta humillari emaiten ohi çayona edequico ~~dio~~ çayo superbioari

III Eztut nahi urriqui mendua eramaiten derautan consolacionea, eta enaiz guthiciatcen hantureriara naraman contemplacionear.

Ecen ~~gora eta~~ handi eta gora den gucia ezta saindu, ezte den gucia ezta on, desir guciac eztira garbi, eta maite den gucia ezta bethi Jaincoaren gogara.

Gogo onez hartcen dut gracia, ceinaren bidez eguiten bainaiz humillago, baldursuago eta preparatuago neure borondateari uko eguitera

Nori ere ~~ikosi~~ ~~baitu~~ ~~cer den~~ graciaren dohainax dotrinatua baita eta irakasia cerden graciaz gabetcea, ezta ausartuco buruperie hartcera cerbait onic bere buruz duelaco, baina libroqui aitortuco du pobre beharra eta billusia dela

Emoçu Jaincoari berea, eta hareçaçu curea erran nahi da, emoitçu Jaincoari esquerrac emaiten derautçun gracia gatic, eta eçagut eçaçu ~~curechoi~~ Çurea choilqui dela bekatua eta bekatuari dagocan beçalaco pena.

IV Jarçaite bethi lecuric beherenean, eta gorena emanen çaitçu: ceren gorena ecin dagoque beherenaren gainean permaturic baicen.

Jaincoaren aitcinean handien diren Sainduac gucietaric chipienac dire bere baiten, eta cembatenaz loriosago, hambatenaz humillago

Eguiaz eta ceruco loriaz bethe direnac ez tute guthiciaric vanaloriaz.

Jaincoa baitan firmaturic eta cimendaturic daudenac ecin ~~aurguillu~~ alcha ditesque nihola ere berac baino gorago.

Aitortcen dutenac bere duten ontasun gucia Jaincoa ganic dutela, ez tabiltça bata bertcea ganicaco loriaren bilha; baina Jaincoa ganic choilqui heldu den loria nahi dute, eta hequin

desir gueia da Jaincoa laudatcea bere baitan
eta Saindu gucietan gauça gucien gainetic
laudatcea, eta hartara bethi daducate gogoa
etchaturic.

V Çarela beraz esquerdun dohain chipiena
gatic, eta merecico duçu handiagoric hartcea
Den emaitçaric mendreena estimaçaçu handi
eta mespreçatcecoena idukaçu beregain ecotçat.
Behatcen baduçu nor den emaillea icusico
duçu ortela dohain chipiric edo deus gutieguiric
Ecen gucien gaineco Jaunac emaiten duena
ezta gauça chipia.
Penac eta açoteac igortcen baderausquigu ere
placer qui hartu behartugu: Ceren bethiere
gure Saluamendua gatic eguiten du cer ere
utsten baitu guri guertatcera
Norc ere baitu desira Jaincoaren graciaren
beguiratceco, bema esquer lehen emançayona
gatic eta harbeça paciencia edequi Cayona ere
gatic.
Bego othoitsez gracia bihur daquion beguira
eta humil bedi beldurez hura berriz gal diçan

Hamecagarren Capitulua

Cein gutic maite duten Jesusen gurutcea
I Orai Jesusec hainitz ditu ceruco erre=
suma maite dutenac baina guti dira
haren gurutcea iasaiten dutenac.

Hainitz du Consolacionea desiratcen duenic eta guti, tribulacionea nahi duenic

Hainitz causitcen du lagun mahainico, baina guti barurtceco

Badute guciec harequin bortzeco desira, baina gutic nahi dute haren gatic edo harequin deusic pairatu.

Hainitz darraisco Jesuse oguia hautsteraino baina guti passionearen calitça edateraino

Hainitzec ohoratcen tuste haren miraculluac eta guti darraisco haren gurutcearen laidoari

Hainitzec dute Jesus maite gaitzic guertatcen etçayen bizquitartean; hura laudatcen eta ohorezqui aippatcen dute Cembait Consolacione haren ganic içaiten duteino.

Ordea Jesus gordetcen baçayo eta utsten baditu appur bateco, edo arrancuratcen dira edo flacoeguiz erortcen.

II Baina Jesus maite dutenec Jesus gatic eta ez bere consolacionea gatic, hura benedicatcen dute hala tribulacionetan eta bihotzeco hersturetan nola Consolacione handietan.

Eta nahi ezpaleraue Seculan consolacioneric eman orobat hura lauda lecaquete eta bethi nahi liotçoquete esquerrac bihurtu.

III O Cembat daidiquen Jesus ganaco amudio garbiac, nahasia eztenean bere buruaren ilderaco amudio az edo probetchu particularaz!

Ez othe dira lucurari icendatu behar
bethi consolacioneen ondoan dabiltçanac?

Er othe da segurtçat iduqui behar bere
irauasia eta probetchua bethi gogoan darabil=
latenec bere burua maiteago dutela Jesus
baino?

Non edirenen da Jaincoa dohainic eta
ururic seruitçatu nahi duenic?

IV Nihor guti causitcen da hain espiritualic
non gauça guciez dagoen billusiric.

Ecen nore aurkituco dueguiazqui bihotzez
pobre eta creatura guciez billusia denic?

Urrun bilhatu behar dahalacoa eta
haren preciosa munduco azquen cantoina=
taric ekarri behar da

Guiconac bere duen gucia pobrey eman
badiece ere, oraino deus guti da ezta deusic

Penitencia garratz eguin baleça balu
ere, oraino deus guti da.

Jaquin ditesqueyen guciac baleaquisqui ere
oraino urrun da perfeccionetic.

Vertute handiric eta devocione guciz iracequia
bat baluere oraino hainitz du escas eta
hainitz hura da gauça bat cenaren ~~behan~~
~~gucia~~ choil behar handia bautu

Cer da hainitz hura? Gauça guciac
utsiric bere buruari uko daguiola, bera

bere ganic ilki dabilla, bere burua ganaco
amudioric iduqui erteçala; eta ieus deçanean
equin duela equin behar çuen gucia cinetz
deçala ez tuela deusic equin.

V Ez taguiela Contu handiric handiro estima
ditequeyenaz bainan equia cinetan den beçala
erran beça Seruitçari ez deusetaco dela
Equiac berac dioenaz guero: equin ditutçuenean
manatuac çareten guciac erraçue Seruitçari
ez deusetacoac gare

Orduan equiarqui icanen ahal da gogoz
pobre eta billusia, eta erranen ahal du
profetarequin, bakoitza naiz ni eta pobre

Badaric ere ez ta nihor aberatzago,
nihor handiago, nihor cilheguiago, ~~ga~~
bere buruaren eta gauça gucien utsten,
eta lecuric beherenean iartcen daqueena baino.

Hamabigarren Capitulua
Gurutce Sainduaren bide Çavalaz

I Hainitzi gogor çaye hitz hau: uko eguioçu
çure buruari, hareçaçu cure gurutcea, eta
Çarraisco Jesuse.

Ordea haguitz gogorraco içanen da azquen
hitz hunen ençutea: çoazqui date maradicatuac
Seculaco Sutara.

Ceren orai bihotz onez gurutceaco aren hitza
ençuten dutenac eta hari gogotic darraisconac
ez tire orduan beldur içanen ençun deçaten
dannacioneco hitza.

Gurutcearen Seinale eta bandera hura ceruan aguerico da gure Jauna datorrenean munduaren iugeatcera.

Orduan gurutceficaren gainean bere vicia moldatu duten gurutcearen Seruitçari guciac fidança handicequin hurbilduco çaisco Jesus bere jugeari.

II Cergatic bada beldurçare erresumara daraman gurutcearen hartceaz?

Gurutcean da Saluamendua, gurutcean da vicia, gurutcean da etsayetaric beguira lecua, gurutcean da ceruco eztitasunen ithurria, gurutcean da arimaren indarra bihotzaren bozcarioa gurutcean da Vertutearen punturic gorena gurutcean da, Saindutasunaren Complimendua da gurutcean.

Hitz batez ezta arimaco Saluamenduric ez eta Seculaco viciaren esperançaric gurutcean baicen.

Hareçacu berazçure gurutcea Soinean eta çarraisco Jesuse eta Seculaco vicia ardietsico duçu.

Hura ioanda çure aitcinean bere gurutcea ceramala, eta hil da gurutcean çure gatic çuc ere gurutcea erabil deçacun eta gurutcean hiltceco desira hardeçaçun gatic

Ceren harequin batean hiltcen baçare harequin ere vicico çare; eta haren lagun

eta partale
baçara penetan içanen çara lorian ere
III Horra non gucia gurutcean eta hiltcean
datçan, eta nola ezten bertce bideric viciaren
eta barreneco baquearen ardietsteco gurutce
Sainduaren eta egunorozco mortificacionearen
bidean baicin.

Çabiltça non nahi, bilha cerere nahi
eztuçu gainean bide goragoric, ez beherean
Seguragoric causituco gurutce Sainduaren
bidea den baino

Prepara eta ordenatçatçu gauça guciac
nahi duçun eta hobequi çaitcun beçala,
icusico duçu bethi cerbait pairatu behar duçula
nahi baduçu, ~~eta~~ nahi ez paduçu ere eta horrela
bethi gurutcea aurkituco duçu.

Ceren edo gorputzean içanen duçu min
eta oinhase, edo gogoan herstura eta atsecabe.
IV Batçutan Jaincoa urrunduco daçure
ganic, batçutan curequi dabiltcanec emanen
derautçute cereguin, eta cein baita gueyago
maiz içanen çare ceroni çure unhagarri
eta guciarequin ere ecin libeatuco eta
ecin arinduco, çare ni holataco erremedioz.
baina pairatu beharco duçu Jaincoac
placer duen artean

Ecen Jaincoac nahi du ikas deçaçun
tribulacionearen pairatcen Consolacioneric
bat ere gabe eta humillago eguin, çaitecin
tribulacionear.

Ezta nihor bihotzean hala ukitcen
Jainco aren passione Sainduaz nola ukitcen
baita guertatu dena hare beçalacoric
pairatcera.

Gurutcea bada bethi preparatua dago, eta
lecu gucietan çure beguira dago.

Laster eguiçu nora nahi, ecin itsul ça=
quidisqueo, ceren non ere baitçabiltça
bethi çure burua darabillaçu eta bethi çure
burua caustituco duçu

Itçul Çaite goiti, itçul beheiti, itcul campori
itçul barrenera, non nahi edirenen duçu
gurutcea, eta non nahi pacienciaren beharra
duçu, nahi baduçu barreneco baquea ardietsi
eta Seculaco Koroa irauasi

V Gurutcea jasaiten baduçu gogotic, hare
iasanen çaita eta eramanen desira duçun
lecura, non ezpaita pairatcecoric içanen;
ezta ordea hemen halaco toquiric.

Hura iasaiten baduçu bortchaz, hartaz
eguiten duçu çuretçat carga, eta çure burua
gueyago galkatcen duçu eta halaric erahura
pairatu beharduçu.

Gurutce bat etchatcen baduçu dudagaberic
edirenen duçu bertce bat eta nasqui pisuago

VI Uste duçu itçulico çaiscola nihor egun=
daino ecin itçuli çayon gauçari

Nore Sainduetaric içan da munduan gurut=
ceric eta tribulacioneric gabe?

Jesus gura jauna bera ezta orembat egon
dolore gaberic vici içan çaino.

Behar cen dioesquiriturac, Christoc paira
leçan gurutcean, eta hilletaric bihur ledin
viciric eta horrela sar ledin bere lorian

Eta çu nolatan çabiltça gurutce Sainovaren
errague bide hunetaz bertceric bilha.?

VII Jesusen vicitce gucia içan da gurutce
eta martyrio arduraco bat, eta çuc errepausua
eta allegriança bilhatcen duçu?

Enganatcen çara, bai enganatcen, bilhatcen
baduçu tribulacioneen pairatceaz bertceric:
Ceren munduco vicitce hau gucia miseriez
bethea da eta gurutceez inguratua.

Eta cembatenaz barrenago Sartu baita nihor
vicitce espiritualean, hambatenaz gurutce
pisuagoac maiz aurkitcen tu, ceren bere
desterruac eguiten emaiten diren pena handitcenago
baita amudioaren podorez.

VIII

Gucia gatic ere horrela hainitz moldez.
penatcen dena eztago cembait consolacione
eta Sosegu gabe, ceren frogatcen baitu hainitz
probetchu heldu, çayola bere gurutcearen
pairatceaz.

Ecen haren azpian gogotic iartcen denean
tribulacionearen carga gucia gambiatcen da
Jaincozco consolationea baitaco fidançara

Eta cembatenaz haraguia sevatcenago baita afflicciòneaz, hambatenaz espiritua bortitenago da barreneco grociaz.

Eta batçutan hambat bortitzen da tribulacionearen eta contraco fortunari ekartcen dioen amudioaz Jesusen araueracoa içaitea gatic, non ez pailuque egon nahi herstura eta dolore gaberic.

Cinetsten baitu hambatenaz Jaincoaren gorgarago dela, cembatenaz gueyagoric eta gaitzagoric pairatuco ahal baitu haren amorioa gatic.

Ezta hori guiconaren idarraren equitecoa baina Jesusen graciaren obra, çein hain gauça handiric eguin baiteçaque eta eguiten baitu haragui hautscorrean, non espirituaren beroz bessarca eta onets deçan cer ere natuleçaz higointcen baitçayo, eta ceri ere baitoaco jhesi.

IX Ezta guiçonaren oldea gurutcearen iasaitea, gurutcearen oneritstea, bere gorputzaren sensatcea gastigatcea eta servitçuaren azpian emaitea, ohorey ihez eguitea, afruntuac gogotic parratcea, beri burua mespreçatcea, et mespreciocz atseguin hartcea, cer ere baita calteric eta contracoenic onera hartcea, eta munduco ontasunic bat ere ez desiratcea

Hari baçare considerateen nor eta cer çaren, çure buruz eztaidiqueçu horrelacoric: baina fidatcen baçare Jainco a baitan, indarra emanen çaitçu cerutic, eta mundua eta hara=içanen lutçu azpico eta çure meneco.

Etçara ere ifernuco etsayaren beldur içanen fedeaz armatua, eta Jesusen gurutceaz seimalatua baçare.

X Jarçaite beraz Jesusen servitçari agudo eta fidel bat beçala, eta lotçaquisco guiçon guiça çure Jaunaren gurutcearen alchatcera, bera çure gatic gurutcean amudio hutzez iosiiçan denaz guero.

Preparaçaite hainitz bidegabe eta calte pairatcera vicitce ondicozco hunatan, ceren horrela eguinic, hura çurequin içanen da çaren lecu gucietan, eta non ere gordeco baitçara hura edirenen duçu alde.

Hala behar da eta ezta bideric gaitz etaric eta doloretaric ihes eguiteco, pairatcea baicen.

Edaneçaçu gogotic Jainco aren caletza, desiric baduçu haren adisquide içaiteco eta harequin parteric ardietsteco.

Utsquitçu consolacioneac Jainco aren escuetan, eguin beça hetaz placerago duen beçala.

Ordea çu iarsaite tribulamenduen pairatcen, eta estimaçaçu Consolacione handi direla çuretçat.

Ecen dembora mende hunetaco penac
eztira basso eta ez asqui etorquiçuneco
loriaren merecitceco, guciat ceronec paira
ahal bacenetça ere.

XI Halaco puntura çaitecinean non tribula=
cionea; ezti eta goço edirèn deçaçun Jesus
gatic, orduan estimaçaçu ongui doatçula,
ceren para bisua aurkitu duçu lurrean.

Noizeraino pisu baitçaitçu pairatcea eta
nahi baituçu ioan ihesi, han arteraino gaizqui
içanen çara eta tribulacionearen beldur=
tasuna non nahi iarraiquico çaitçu.

XII Jarten baçara, eguiten behar duçunaren
eguiten, erran nahi da, pairatcen eta çure
buruari hiltcen, sari hobequi içanen çara
eta baquea edirenen duçu.

Eraman içan bacina ere hirur garren
ceruraino Jondone Paulorequin, etcinateque
halacotz segur eztuçula deusic pairatuco.

Nic, diogure saluatçailleac, eracusico diot
cembat pairatu behar duen ene icena gatic.

Beraz çuri dagotçu pairatcea placer baduça
Jesus onetsi eta bethiere servitçatu.

XIII Aitcendu mereci cerbaiten pairatcea
Jesusen icena gatic! Cein loria handi liçate
çuretçat! Cer bozcario eman cinieceque
saindu guciey! Cein exemplu on eta eder
harleçaque lagunac çure ganic.

Ecen guciec gomendatcen dute paciencia nihore gutic pairatu nahi duelaric.

Mereci onez Cerbait appur behar cenduque Jesus gatic pairatu, icusiric hainitzec handiagoric pairatcen dutela mundua gatic

XIV Idukaçu Segurtçat, vici behar duçula ardura hiltcen den viciaz; Ceren cembatenaz hiltcenago baita nihor bere baitan, hambatenaz hastenago da Jaincoa baitan Vicitcen.

Ezta nihor gay Cerucogaucen iaquiteco iartcen ezpada nahiz dire gaitzen pairatcen Jesus gatic

Ezta deus ere Jaincoaren gogarago eta çuretçat mundu hunetan hobeago, bihotz onez Jesus gatic pairatcea baino.

Eta hautatu behar bacendu, lehen desiratce beharcenduque gaitz gucien pairatcea Jesus gatic ecen ez hainitz Consolacionez gogatcea; Ceren horrela hobequi cenduque Jesusen iduria, eta saindu guciac beçalacoago cinateque.

Gure merecimendua eta aitcinamendua ezta hainitz consolacione eta eztitasun içaitca baina bai gaitz eta hertstura hainitz pairatcea.

XV Berdin içan baliz bide hobeagoric eta Seguracoric guiçonen Saluamenduco pairatcea den baino, hura gure Saluatçailleac eracusico

ceraucun hitzez eta obrez erranez
eta eguinez

Ceren hari berari cerraiscon discipuluac, eta iarraiqui nahi çaiscon guciac agueriz deitcentu cein bere gurutcearen ekartcera diostela: nihori nahi badu ene ondoan storri, uko eguin bioço bere buruari berabilla bere gurutcea eta berrait.

Beraz gauça guciac iracurriric eta eta ~~fond~~ sondaturic, biz hau azquen puntua hainitz tribulacionetic iraganez behar garela - dugula Jaincoaren erresuman sartu Biz hala.

Hirurgarren Liburua
Jesusen Imitacioneaz
Lehen Capitulua
Jesusen barreneco solhasaz arima fidelarequin.

I Ençunen dut cer ene Sainco jauna minço den ene baitan

Doatsu da arima Jaunaren hitzac bere ençuten dituena, eta bere consolacionea hartcen duena haren ahotic.

Doatsu dire beharriac Jaincoaren inspiracioneco aire emea hartcen dutenac emera idequitcen direnac, eta munduco laisenguric bat ere aditcen edo hartcen eztutenac.

Doatsu choil dire beharriac, ez campotic ioiten duen Soinuari, baina barrenean irakazten duen eguiari çaualtcen çaisconac.

Doatsu dire beguiac campoco gaucetara Serraturic eta barrenecoetara idequiric daudecinac

Doatsu dira barreneco gaucetan Sartcen direnac eta egunororco eguin bideez ceruco Sequeretuen gueyago eta gueyago endellegatcera eta hartcera preparatcen direnac. gaitcen.

Doatsu dira Jaincoari gogotic lotcen çaisconac eta munduco traba guciac urrun bere ganic iraitsten tustenac.

II Cagozte horiey beha, ene arima, eta herz ~~eçaçu~~ quitçu çure Sensuetara Sunaren atheac

ençun deçaçun gatic çure Jainco Jauna cer minço den çure baitan.

Huna cer dioen çure masteac: Ni naiz çure Saluamendua çure baquea eta çure vicia çaude ene baitan eta baquea aurkituco duçu utsquitçu iragaiten diren gauçac, bilhatçatçu bethi erecoac

Cer dire munduco gauçac enganamenduac baicen? Cer probetchu duqueçu creaturetaric çure Creatçailleac utsten baçaitu?

Beraz bertce guciac largaturic eguin çaite çure Creatçaillearen gogoraco eta fidel haren aldera, eguiazco doatsutasuna ardiets deçaqueçun gatic.

Bigarren Capitulua

Eguie minço çaicula bihotzean hitz Soinuric gabe

I minça çaite, Jauna, ceren çure seruitçaria dago ençun nahir

Çure seruitçaria naiz, indaçu adimendua çure manuen ikasteco: Erakarçu ene bihotza çure ahoco hitcetara: isur ditecila çure hitzac ene gana ihintça beçala

Israeleco umeec erraiten ohi cioten Moysi çu minçaçaquisquiga, eta ençunen çaitugu eztaguigula Jaincoa minça beldurrez hil gaitecin

Enagotçu, Jauna, enagotcu horrela othoitze

Ezter autçut, Jauna, ezterautçut horrelaco othoitzic eguiten: Aitcitic Samuel profeta beçala humilqui eta desir handiz nagotçu; minça ~~eta~~ çaite Jauna, ceren ençuitendu çure Seruitçariac.

Eztaqui dala minça Moyses ez eta bertce prosetetaric bat ere; çu ene Jainco Jauna profeta gucien inspiratçaillea eta arguitçaillea çarena minçaçaquisquit; ceren çuc choilqui behar den beçambat irakatz diacoquedaçu, hec ordea çu gabe eztute probetchuric eguinen.

II Hitzac athera detçaquete, bainan endellegua eztute emaiten.

Çotilqui choil minço dire, ordea çuc caudenean ichilic, eztuta bihotza iracequitcen

Irakarten dute letreyatcen, baina çuc eracuztenduçu barreneco Sensua

Mysterioac aippatcen tuste, baina çuc aguertcen derausquigutçu hetan daintçan sequeretuac

Manamenduac emaiten derausquigute, baina çu heltcen çaisquigu heguin Complitcen.

Bidea eracuzten deraucute, baina çuc emaiten deraucuçu bidean ibilteco indarra

Campoan choilqui hari dira, baina çuc bihotzac dotrinatcentutçu eta arguitcen

Ureztatcen dute Campotic, baina çuc fruitutcea emaiten duçu.

Oyu eguiten dute bera hitzez baina çuc emaiten deraucuçu aditcera cer erraiten duten.

III Eztaquidala beraz Moysez minça, bainaçu ene Jainco jauna bethiereco eguia çarena, minça çaquisquit, beldurrez hil nadin eta fruituric ezteçadan eKar campotic choilqui auisaturic eta barrenean pitztu gaberic banago; beldurrez hitz aditua eta ez obratuac, eçagutuac eta ez maitatuac cinetsiac eta ez beguiratuac guerta ditecin ene condennacionetan

Minça çaite bada Jauna, ceren ençuten du çure seruitçariac, berdin badituçu seculaco viciari hitzac.

Minça çaquisquit ene arimaren consolacionetan, ene vicitce guciaren oneram endutan eta çure seculaco laudoriotan, lorietan, eta ohoretan.

Hirurgarren Capitulua

Jaincoaren hitzac humilqui ençun behari direla, eta hainitzec eztitustela behar beçala pisatcen

I. Ene semea, ençun etçatçu ene hitzac, hitz guciz goçoac, munduco filosofo eta çuhur gucien iaquintasunari garaitcen çaisconac.

Ene hitzac dira espiritua eta vicia eta eztira pisatu behar munduco jugeamenduaren pisuan.

Eztira vanaloriazco edergaillura hartu behar

baina behar dire ichilic ençun, humilqui eta bihotz onez hartu

Eta erran dut nic ere horren gainean: Doatsu da Jauna nor ere dotrinatcen baituça eta nori ere irakasten baitioçu çure leguea çuc hura egun gaitz etan Consola deçacun eta bere bakarric lurrean utsiric eztagoen gatic.

Nic irakasiac dire Profetac hastean danic dio Jaunac, eta hunerainocoan enaiz ichiltcen guciey minçatcetic, bainan ene hitzetara hainitz dira gor eta gogor.

II Hainitzec gogoticago mundua ençuten dute, Jaincoa baino; eta errazquiago darraisco. bere haraguiaren appetituari, Jaincoaren placer onari baino.

Munduac munduco gauçac eta deus gutitacoac eguitcentu, eta guciec hura seruitçatcendute gogohandiz: nic prometatcentut gauça handiac eta bethierecoac, eta guiconen bihotzac loakartcen dira eta toldetcen.

Nori seruitçatcen eta obeditcen nau gauça gucietan mundua eta munduco jaunac seruitçatcen dituen beçalaco artharequin?

Akalkaçaite, Sidon, dio itsasoac. Eta galdetcen baduçu Cergatic adiçaçu Cergatic

Irauasia appurra gatic hainitz bide lasterca eguiten dute, eta seculaco vicia gatic nekez behin alchatcen dute oina lurretic.

Fitzezco pretio batenondoan dabiltça
batçutan sor bat gatic laidozqui doaz.
haucitara: eztira beldur ez deusetaco
gauça eta aguintça chipia gatic gauaz
eta egunaz nekartcera

III Bainan, ah dolorea! ecin gambiaturco
ontasuna gatic, ecin asqui preçaturco
golardoa gatic, gucien gaineco ohorea eta
fingabeco loria gatic naguitcen dira eta
herabe dute guti bat travaillatcera.

Ahalka çaite bada seruitçari naguia eta
arrancuratia, ceren hec prestago diren
bere buruaren galtcera, çu çaren baino
seculaco viciaren ardietstera.

Hec bozcariotcen ago dira vanaloria
gatic, çu eguia gatic eguiten çaren baino

Guciarequin ere maiz galtcen dute bere
esperança, bainan ene promeçac eztu nihor
engamatcen, eta ene bainan fidatcen dena
ezta hutsic igortcen.

Aguindu dudana emanendut, erran
dudana complicotu dut, nihor ordea egoiten
bada ene ganaco amudioan fidel eta finco
azquen fineraino

Ni naiz prestu gucien saristatçaillea, eta
eta devot gucien frogatçaille bortitza.

IV Esquiribatçatçu ene hitzac çure
bihotzean eta maiz erabil gogoan ceren
hequin behar handia icanen duçu
tentacioneco demboran.

Endellegatcen ezturzuna iracurtcen duçunean, hura endellegatuco duçu visita çaitçadanean.

Ene hautatuac visitatcen ohitut bi maneraz tentacioneaz eta consolacioneaz; eta egun guciez bi leccione iracurtcen deraustet, bata erançuten derauedala bere hutsac gatic eta bertcea, gombidatcen ditu dala vertutetan aitcinatcera.

Norc ere ~~hac~~ aditcen baititu ene hitzac eta ezpaitu hetaz conturic eguiten badu norc hura jugeatuco duen azquen egunean.

Othoitza

Devocioneco graciaren escatceco.

I Ene Jaunco Jauna, çu çare ene ontasun guciac: eta ni nor naiz ausartceco çuri minçatcera?

Ni naiz çure seruitçarietaric gaiçoena eta chichari ez deusa, errumesago eta mespre=çatceco daquidan eta derraquedan baino.

Badaric ere orhoitçaite, Jauna, ez naicela deus ere, eztudala deus ere, eta ertaidi=quedala deus ere.

Çu choilqui çare on, justu eta saindu: den gucia daidiqueçu, den gucia emaiten duçu, den gucia bethetcen duçu, bekatorea choilqui utstenduçu hutsic.

Orhoitçaite, Jauna çure misericordiez eta betheçaçu ene bihotza çure graciaz nahi eztucunaz guero Cure obrac hutsic daudecin

II Nolatan ekar dirot neure burua ondicozco vicitce hunetan çure misericordiac eta graciac emaiten ezpaderaut indar?

Ezteçaçula çure beguitartea itçul ene ganic: ezteçaçula beraut ene visitatcera eztia daçula eraman çure Consolacionea beldurrez ene arima eguin dahin çure aldera uric gabeco urgaberico lurra beçala.

Jauna, irakaz diaçadaçu çure borondatearen eguiten, irakaz diaçadaçu çure aitcinean humilqui eta behar beçala ibilten.

Ceren ene çuhurcia çu çare eguiazqui eçagutcen eta eçagutu nauçuna mundua eguin cedin eta mundura sortu nintcen baino lehen.

Laugarren Capitulua

Jaincoaren aitcinean ibilli behardela eguiarequin eta humiltasunarequin

I Semea çabiltça ene aitcinean eguiarequin, eta bilhanaçaçu bethiere çure bihotzaren simpletasunarequin.

Ene aitcinean eguiarequin dabillana beguiraturen da incontru gaitz etaric, eta eguiac hura libratuco du enganarietaric eta gaixtoen gaizqui erranetaric

Eguiac libratcen baçaitu, eguiazqui libro icanen çare, eta eztuçu Conturic eguinen munduco elhe alferrez

Jauna eguia da; othoy, dioçun beçala eguin beguit

Çure eguiac irakaz biaçat, hare beguira naçala eta Saluamenduco chederaino gui da naçala.

Libra naçala affeccione gainto eta amudio desordenatu gucietaric, eta çurequin ibillico naiz bihotzeco libertate handirequin.

II Nic irakasico derausquitçut (dio eguiac) chuchen eta ene gogara diren guciac.

Orhoitçaite çure bekatu damu eta urriqui handirequin, eta eztaquiçula Seculam iduri cerbait çarela çure obra onac gatic.

Eguiaz bekatore çara eta hainitz passionetara eramana eta corapillatua.

Çure buruz bethi ez deusera makurtcen çara, laster erortcen, laster vençutcen laster asaldatcen, laster flacatcen.

Eztuçu Certaz loria Çaitesquen bainan hainitz duçu Ceren gatic behar baituçu, çure burua chipi iduqui; ecen haguitz flacoago Care cinets deçaqueçun baino

III. Eztaquiçula beraz iduri eguin behar dela Contu handiric eguiten ditutçun gaucez.

Eztaducaçula deusic ere handi, precatceco miretsteco, estimatceco, laudatceco edo desiratceco dela, Seculaco ontasuna baicen.

Gucien gainetic laket beguiçu Seculaco eguia. baitan eta bethi higoin beguiçu Çure ez deustasun handia

Etçarela deusen ere gatic hala beldur, nola

çure faltac eta bekatuac gatic; hetaz choilqui arrancura çaite, ihez eguin hetaric Ceren damu gueyago eguin behar derautçute munduco gaucen Cein ere nahi den caltec baino.

Batçu eztabiltça garbiqui ene aitcinean baina Cembait Superbidatasunec eta Curiostasunec eramanic nahi dituste ene Sequeretuac iaquin eta Jaincoaren gauça gorenetan Sartu, bere buruaz eta Saluamenduaz ansigabeturic.

Horrelacoac maiz erorten diretentacione eta bekatu handietan bere urguilluqueria eta Curiostasuna gatic, ceren ni hequin Contra iarten bai naiz

IV Carela beldur Jaincoaren jugeamenduez ikaraçaite guciz Botheretsuaren coleraz.

Etçaitecila Sar gorenaren gainecoaren obretan hequin Sondatceco: aitcitic miraçaçu Cembat gaixtoqueria eguin duçun eta cembat obra on ~~utsiduçu~~ alferrez eta ansigabez utsi duçun eguin gabe

Batçuec emaiten dute bere devocionea liburuetan, bertceec imaginetan, campoco Seinaletan eta figuretan.

Batçuec maiz ahoan naducate, gutitan ordea bihotzean.

Batçuec finean adimenduaz arguituac eta afeccionataric garbituac icanez gogoa bethi daducate Seculaco gaucetara goitituric,

ṇardatcen dira lurrecoez minçatcen ~~aditceaz~~ aditceaz, damu dute gorputzaren Servitçat=ceaz bere beharquietan; hec Sentitcen dute cer minço den eguiaren espiritua hequin baitan.

Ecen hari irakazten derraue lurrecoen mespreçatcen cerucoen oneritsten, munduaz. Casuric ez eguiten eta ~~gauaz~~ egunaz bai gauaz. ceruaren desiratcen

Bortzgarren Capitulua

Jaincozco amudioaren obra miragarriaz

1 Benedicatcen çaitut aita cerucoa ene Jesus Jaunaren aita ceren nahi içan çaren orhoitu ni pobre beharzorez

O misericordiazco aita eta consolacione etaco gucien Jaincoa, esquerrac derausquitçut ceren batçutan Cure Consolacioneaz arintcen bainauçu bertcenaz Consolacioneric bat ere mereci eztu=dalaric.

Benedicatcen eta lorisicatcen çaitut orai eta bethiere çure Seme bakoitzarequin eta Espiritu Consolatcaille Sainduarequin Secula Secularonecotz.

Ah! Jainco jauna, ene maitatçaille ~~Saindua~~ Saindua, ene bihotzera catocinean, ene barren aldi guciac iausica harico dire bozcarioz.

Çuçare ena ~~esperança~~ loria eta ene bihotzaren ~~esperança~~ allegriança. çu çare ene

esperança eta ihez lecua ene herstura
eta tribulacioneco egunean.

II Baina Ceren oraino flaco bainaiz
amudioan eta escas vertutean: hargatic
beharra dut bortitz eta Consola naçaçun
Visita naçaçu bada maiz eta dotrina
naçaçu çure dotrina Sainduez

Libra naçaçu passione gaixtoetaric eta
Sendaçaçu ene bihotza afeccione desordenatu
gucietaric, arren barrenean Sendaturic eta
ongui garbituric eguin nadin gay eta basso
maitatceco, bortitz pairatceco, finco eta fermu
irauteco

III Gauça handia da amudioa, ontasun
guztiz handia: hari bera dela eguiten du
arin, pisu den gucia, eta berdin ezta gucia
berdin ekartcendu

Ceren carga darama cargaric gabe eta kiratz
den gucia eztitcen du eta goçoeguiten.

Jesusen amudio nobleac erchatcen gaitu
cerbait handiric eguitera eta iratçartcen gaitu
bethiere den gauçaric complienaren desiratcera.

Amudioagoiti nahia da, eta ~~munduco afeccione~~ eztagoque
beherrecoetan loturic batere

Amudioac nahi du libro eta munduco afeccione
gucietaric urrun içan, beldurrez barreneco
beguia traudaquion, eta bera cerbait
ondenezcoz corapilladin, edo cerbait

Caltegarriz.

caltegarriz flaca eta eror dadin.

Ezta amudioa baino deus eztiagoric, borthitzagoric, goragoric, çaualagoric, arraya-goric, betheagoric eta hobeagoric ceruan eta lurrean: ceren amudioa Jaincoa ganic sortu da, eta ecin pausa deçaque Jaincoa baitan baicen munduco gauça gucien gainetic

IV Amudioduna hegaldaca, lasterea eta allegueraqui dabilla: libro da, eta ~~hura~~ deusa ere eztu hura guelditcen.

Den gucia emaiten du gucia gatic eta den guciaren jabe da gauça gucietan, ceren gucien gainecoan pausatcen baitu gucien gainetic daquiela Gucia hartaric sortcen eta heldu dela on den gucia.

Eztu behatcen emaitzetara, bainan emaillea gana itçulten da ontasun gucien gainetic

Amudioac hainitzetan eztaqui neurriric; baina badiraqui neurri gucien gainetic.

Amudioac eztu carga sentitcen, eztu acholaric trauailluez, lan gueyago hartcen du eguin deçaqueyen baino: ezta arrancuratcen ecinaz ceren uste baitu den gucia daidiqueyela. eta cilhegui dela nahiz denaren eguitera.

Ona eta gaya da beraz gaucagucietara eta hainitz gauça complitcen du eta obratcen non flacatcen eta erortcen baita amudiogabea.

V Amudioa erne dago, eta lo datçalaric ezta loakartcen: neKatua ~~tçana~~ gatic ezta

unhatcen, hertstua gatic eztago hertsturic icitua gatic ezta aldaratcen, baina Karvicia eta çuçi iracequia beçala goiti eramaiten da eta Seguraturic iragaiten da.

Nihore maite banau, ceri dagocan oyu hau Jaincoaren beharrietan oyu handia da, arrimaren oldarmendu bero hau, erraiten duenean. Ene Jaincoa, ene amudioa; çu gucia ene, eta ni gucia çure.

VI Hedanaçaçu çure amudioan ene bethear ikaz deçadantçat bihotzean barrena dastatce cein gauça ezti den maitatcea, eta amudioa urtcea eta iguericatcea.

Itchequi biaçat amudioac, neure buruaren gainera noanean beroeguiz eramana.

Cantadeçadala çure amoriozco canta iarraiqui naquitçula goiti, ô ene maitea flaca bedi ene arima çure laudoriotan, amorioz bozcarioturic

Maitacaitçadala neure burua baino gueyago eta ezteçadala neure burua maita çure gatic baicen.

Çure baitan onets detçadala, eguiazqui onetsten çaitustenac, manatcenduen amudioaren leguiac, ceinac baitu bere arguia çure ganic

VII Amudioa da agudoa, lasterra, garbia bihotz bera, arraya, alleguera, bortitza,

patienta, fidela, çuhurra, ~~beguiratua~~ iaquina
~~tin~~ arduratua, eta seculan beretçat deusi
bilha eztabillana.

Cenen noiz ere baitabilla nihor beretaiorie
bilha, hura berehala erorten da amudiotie

Amudioa da alde gucietarie beguiratua
humilla eta chuchena. ezta umua, ez arina
ez vanaloriasalea, sobrea da garbia,
fincoa, pausatua, eta beguiratua bere sensu
gucietan.

Amudioa superioren azpico dago obedi=
encia humillarequin, bere aldera chipi
eta putruzturie.

Jaincoa gana gucia emana eta esquer=
duna da, bethiere fidança eta esperança
du Jaincoa baitan, Jaincoa baitalo gusturie
eztuenean ere; ceren baitaqui eztela
nihor amudioan vici cembait tristecia eta
dolore gabe

VIII Nor ere ez paitago preparatua gauça
gucien pairatcera bere maitea gatie,
eta haren borondatearen azpico iartcera
harc eztu merecie erran dadin maitaria
dela.

Maiti duenac behar ditu ~~gog~~ gauça gogor
eta kiratz guciac gogotic bessarcatu bere
maitea gatie, eta haren ganic eztu apartatu
behar contracozco guertançac gatie.

Seigarren Capitulua

Eguiazco maitariaren frogadunaz

I Semea, et çara oraino maitari bortitza eta çuhurra.

Cergatic ez Jauna? Ceren ~~ceren~~ cerbait estorbu appur gatic eguiten hasi çarena utsten baituçu, eta Kechaegui baitçabiltça consolacione nahiz.

Tinquetzco maitaria çutic dago tentacio=neen contra, eta eztu cinetsteric emaiten et sayaren lausenguetan eta erran artezetan

On eta eder natçayo ~~hala~~ ~~bat~~ ~~çori~~ ~~onean~~ hala çori gaitzean, nola çori onean.

II Maitari çuhurrac eztio hala behatcen maitearen emaitçari, nola emaillearen amudioari

Gogoa preçatcenago du, gauçaren valioa baino, eta contu gueyago daduca bere maiteaz hari eman guciez baino.

Maitari noblea ez pausatcen dohainaren gainean, baina bai ene baitan gaucia gucien gainetic

Batçutan içaiten ezpaduçu nitaz edo ene Sainduez nahi Cenduqueyen beçain Sentimendu onic, eztucula hargatic uste gucia galdu dela.

Noiz pait Sentitcen duçun afeccione on eta amolsu hura presenteco graciaren obra da eta ceruratceco gustu aitcindari bat

ceruco hariaren

guciarequin ere ezta Sobera permatu behar
harin gaincan ceren ioaiten eta heldu baita

Ordea bihotzeco eraguintça eta guthicia
gaintoen contra ihardu quitcea, eta deabruac
gogora igortcen dituen pensamenduen mespre=
çatcea, vertute eta merecimendu handiaren
Seinalea da.

III Etçaitecila beraz asalda Campoco fantasiac
gatic, nondic ere Sartcen baitçaisquitçu.

Itchekocu ~~cure~~ finco hartu duçun gogo onari
eta Jaincoa ganaco intencione chuchenari.

Eztuçula uste enganioric badela batçutan
utegabez devocioneac berehala baçaramatça
goiti, eta handic laster, çure bihotza bihurtcen
bada lehineco erguelquerietara

Ecen halacoac bortchazago pairatcentutçu
eta ez eguiten çure oldez, eta Cembatere
Demboraz higointcen baitçaisquitçu, eta hequin
contra iarten baitçare merecimendua da
eta ezta calteric çuretçat.

IV Jaquineçaçu etsay çaharrac eguin ahala
eguitenduela çure itcularasteco desir on
eta devocioneco eguin bide guciatarc.

Trauatu nahiçaitic Sainduey çor. çayen ohore
ekartcetic, ene Passionearen gogoan erabil=
tetic çure bekatuez bide beçala orhoitcetic,
çure bihotzaren beguiratcetic, eta Vertutean
aitcinatceco borondate fermutic

Hainitz gogoeta gaixto ekartcen derautçu çure unhatceco eta icitceco, çure guibelatceco oracione egutetic, eta liburu saindurie iracurtcetic

Gaitz etstendu confessione humilla, eta ahal balegui, uts aras liaçaqueçu Comunione saindua

Ezteçaçula hura cinetz, eta eztucula hartaz acholaric hainitz etan sareac hedatcen derausquitcularic çure enganatceco.

Gauça gaixtoric eta liçunic gogora ekartcen derautçunean, eguioçu liscar eta erroçu.

Oha espiritu satsua, ahalkadi dohacabea hi haguitz likitza ais, halacoric niri beharrietara ekartceaz

Aparta aquit enganatçaille gaixtoa eztuc içanen ene baitan parteric. Baina Jesus içanen ~~ene baitan parteric~~ dic enoquin capitain bortitz bat, beçala eta hi guelditucо aiz ahalkaturic.

Nihiago diot hil eta pena suerte gucietan sartu, hire gogara deusic eguin baino.

Ago ichilic eta mutuadi, ez aut gueyago ençunen, nahi duan beçambat tarritatcen banauc ere

Ene Jaincoa da ene aguia eta ene saluamendua noren beldur içanen naiz?

Ene contra alchatcen badira ere armadac ene bihotza ezta beldur icanen Jauna dut lagun eta libratçailu

V. Hari çaite guduan Soldadu sendo beçala (azcarera)
eta batçutan erorten baçare flacoz, har=
eçaçu lehen baino indar gueyago, fidaturic
gracia handiago içanen duçula ene gatic.

Gucien gainetic beguira çaite vanaloriatic
eta urguillutcetic: ceren hargatic hainitz
enganatcen dira eta batçutan erortcen ecin
casic sendaturzeo itsutasunean.

Burupe erho eta sobera hartcen duten superbio
hequin erortceac iduqui çaitçala cure
buruaren guardian eta bethi ereco humiltasunean.

Çazpigarren Capitulua.

Gracia estali behar dela humiltasunaren
guardiaren azpian

I Semea, hobe eta segurago daçuretçat
devocioneco gracia estaltcea haren gatic
ez gora alchatcea, hartaz maiz ez minçatcea
eta hainitz preçatcea; baina ceronec çure
burua mespreçatcea eta beldur içaitea
orhosturic huru eztuçula mereci.

Etçaisco afeccione goço hari tinketzegui
lotu behar, iaquinic sarri gambia ditequeyela
contraco batetara

Graciaz goçatcen çarenean orhostçaite
cein gaiço eta errumez çaren graciaric
eztuçunean

Ordea beguira çaite cinetstetic vicitce
espiritualean probetchu eguin duçula

graciaren consolacionea ducunean.

Aitcitic eracusico duçu devocionetsu çarela iarten baçare humil eta apal hura edequiten Çaitçunean; hala non nagui etçaitecin ~~nagui~~ oracionedri ~~orthoitzari iarraiquitera~~ eta bertce costumatu ohi tutçun obra oney iarraiquitera.

Beraz orduançure ahala eguinen duçu eta daquiqueçun manera hoberenarequin, gucien gainetic beguiratuco çare çure buruaren ossoqui flacatcera utstetic ~~bihot~~ gogoan sentituco duçun idortasuna eta herstura gatic.

II Ceren hainitzac despacienciatcen eta naguitcen dire, gaucac heldu eztirenean hequin gogara.

Guiçonaren bideac eztira bethi haren escuco, baina Jaincoari dagoca emaita eta noiz nahi, nahi beçambat; eta nor, nahi Consolatcea placer duen beçala eta ez gueyago.

Batçuec çuhur gabez devocioneco gracia cela Causa, berec galdu dute bere burua,

Gueyago eguin nahi içan dute ahal ceidiqueten baino, eta bere indarren appurtasuna neurtu gabe bihotzeco afeccioneari desirari lehen iarraiquiçaisco ecen ez arracoinaren jugeamenduari

Eta Cerenthematu baitira obra handiagoric eguitera Jaincoac placer çuen

baino, hargatic laster galdu dute gracia.

Bere habia edo ohatcea ceruen eman çutenac probetu dira eta ohoregaberic guelditu arren humilduric eta billusiric ikaz deçaten ez hegaldatcen bere hegalez, baina bai ene hegatzen arpian esperança eçarten.

Oraino berri direnac eta Jaincoaren bidean frogatugabeac governatcen ez padire çuhurren Conseilluz errazqui engana eta gal ditesque.

III Nahiago baçayote bere sentimenduari iarraiqui frogatu ohi direney cinetste ekarri baino ilkitce perillosa içanen dute, nahi ez padute bere buruco iduripena largatu

Bere ustez çuhur direnec gutitan eta nequez pairatuco dute nihoro bertceric gouerna detçan.

Hobe da guti iaquitea humiltasunarequin eta indellegu gutirequin, ecen iaquintasunen tresor handiric içaitea buru peco vanaloriarequin

Hobe da guti duçun hainitz baino, ceren handic urguilla baitecindesque

Eztu cuhurqui asco eguiten nori ere bere burua ossoqui largatcen baitu allegriançara bere pobrecia iraganaz ahantsiric eta orhoitu gabe Jaincoaren beldurtasun garbia bethi beldur dela eman çayon graciaren galtceaz.

Eztu halaber vertuteric asqui norc ere incontru gaitzic edo atsecaberic heldu çayonean esperança gucia galtcen baitu eta ene baitan gutiegui fidaturic hartcen baitu nitaz behar ez beçalaco Sentimenduric.

IV Norc ere baquearen demboran nahibaitu. Segur egui egon, hainitzetan guerla demboran edirenenda Sobera flacaturic eta beldurturic

Baceneaqui bethi çure baitan humil eta chipi egoiten, eta Çure espirituaren neurriz governatcen, etcindesque horreinlaster perilletan eta bekatutan eror.

Conseillu ona da, espiritua bero duçunean gogoetan jartcea cer guertatuco Çaitçun arguia ioanez guero.

Eta hala guerta daqui çunean, pensaçaçu arguia berriz bihur daitequeyela, ceren hura edequiten baiterautçut noiz paiteraino cotz ene loriatan eta çure beguiramendutan

V Hobe da hainitzetan horrela froga çaitecin bethi çori ona çure gogara bacendu baino.

Ceren merecimenduez iugeatcecotçat ezta behatu behar ea Jaincoac hainitz gauça aguerriz eracurten dioen norbaiti eta hainitz Consolacione emaiten dioenz, ea hainitz iaquina den esquiretura Sainduan, edo gradu handitan iarria -

Bainan icusi beharda, ea eguiazco.

humiltasunean cimendatua den, eta Jaincozco
charitatez bethea den, ea bethi garbiqui
eta Cinetan Jaincoaren ohorearen bilha
dabillan, ea bere burua ez deus daducan
eta eguiazqui mespreçatcen duen, eta ea
nahiago duen bertceec hura mespreçà
eta mendre ets deçaten ecen ez ohora deçaten

Cortcigarren Capitulua.

Bere burua guti etsteaz.

Jaincoaren aitcinean

1 Ni hauts eta erhauts naicen hori minçatuco
othenatçayo ene Jaunari?

Uste badut erhauts baino gueyago naicela
huna ene Contra iarria çare Jauna, eta
ene gaintaqueriac eguia hunen becuco dire
eta ecin derraquet Contra deus ere

Ordea neure burua eguiten badut chipi
ez deus, eta den beçala, erhauts, estima on
gucia Kentcen badut ene ganic, orduançure
gracia ene alde içanen da Çure arguia
hurbilduco çayo ene bihotzari, eta nitaz
ahalduquedan estimaric appurena ene
ez deustasunean barrena hondatuco da eta
galduco Seculacotz.

Hortan eracuzten derautaçu neure burua
Cer naicen, Ceriçan naicen, eta Nora
etorri Naicen; ecen enaicela deus ere, eta

hori eneaquien.

Neroni utsten bainaiz neure buruar equin; horra ez deus huts bat, eta gucia miseria naiz.

Ordea behatcen baderautaçu bere hala azcartcen naiz eta borcario berri batez bethetcen

Gauça gauciz miretstecoa daçuc ni ~~huncin~~ horrein laster goititcea eta horrein maitequi bessarcatcea, icusiric ni neure pisuz bethi beheiti eramaiten nai cela.

II Horieguiten duçure amudioac aitcintcen baitçait dohainic, heltcen baitçait hambat beharretan, beguiratcen ere bainau-peril handietaric, eta, eguia erraitera, ecin condatuzco gaitzetaric atheratcen bainau.

Ceren ~~amorio gaiseta~~ neure burua gaizqui maitatuz neroni galdu naiz, eta hutsic çure bilha ibilli naicenean, etaçu choilqui maiteican çaitudanean, causitu çaitut eta neure burua ere eta amorioaren vertutez nerori barrenazo ez deustu naiz

Cerençuc, ô Jaun eztia, eguiten duçu enequin mereci dudan, esperança duquedan eta esca naitequen baino gueyago.

III Benedicatua çarela, ene Jainco Jauna Ceren ontasunic bat ere mereci eztudalaric çure bihotz noblea eta neurrigabeco ontasuna

ezten nihoiz ere guelditcen ongui eguitetic.
bai esquergabey bai Çure ganic urrun ~~apar~~
apartatu direney

Itçulgaitzatçu çure gana arren esquerdun
humil eta devocionetsu guerta gaitecin
çure aldera; Ceren çu çare gure Salua=
mendua, gure vertutea eta indarra.

Bederatcigarren Capitulua

Gauça guciac bihurtu behar ditugula
Jaincoa gana bere azquen
finera Chedera beçala.

I Semea, ni behar naiz çure azquen
fina eta gucien gaineco chedea içan, eguiazqui
doatsu içaiteco desiric baduçu

Intencione hunen bidez garbituco da çure
gogoa, ceina maizenic cerorren gana eta
Creaturetara gaizqui itçulia eta makurtua
baita.

Ceren çure olde hutsa cerbaitetan bilhatcen
baduçu, berehala ~~escasten çara~~ çure baitan
escasten çara eta ihartcen.

Bihurtsquitçu beraz gauça guciacene gana
ceren ni naiz guciac eman ditudana

Consideratçatçu guciac bat banaca eta chehero
eta icusico duçu gucien gaineco ontasunaren
ithurritic ilkiac direla, eta hala guciac ni
gana bere ithurburura beçala behar direla
bihurtu

II Ene gatic chipiac eta handiac, pobreac eta aberatzac, ithur vicitic beçala ur vicia erautstendute, eta bere aldez gogotic seruitçatcen nautenec gracia graciaren gainean içanen dute.

Baina norc ere nahico baitu ene ganic Campoan loriatu edo cembait duen ontasun particularean atsequin artu hare eztu eguiazco bozcarioric, ez eta bihotzeco libertateric içanen; aitcitic hainitz maneraz içanen da travatua eta hertstua

Ezterraçula beraz deus onic duçula eta ~~nihor ere baiten~~ ez nihor lauda vertutea duelacotz; baina den gucia emoçu Jaincoari ceina gabe ez paitu guiconac ez paitu deusic.

Nic emandut gucia, nic gucia berriz nahi dut; eta nahi ere esquerrac hersiqui bihur daquisquidan emanditudan guciac gatic

III Hau da eguia vanaloria cassatcen duena.

Eta ceruco gracia sartcen bada ariman eguiazco charitaterequin, ez ta içanen inuidiaric, ez bihotzeco hersturaric, ez eta bere burua ganaco amudioric hura darabillanic.

Ceren gracia garaitcen çayo gauça guciey eta arimaco indar guciac çaualtcen tu larritcen.

Cuhur baçare, ene baitan choilqui bozca=
riotuco çare, eta ene baitan choilqui espe=
rança hartuco: Ceren eztu nihor onic Jaincoaz
bekora, ceina baita gucien gainetic laudatcecoa
eta gucietan benedicatcecoa.

Hamargarren Capitulua

Ezti dela Jaincoa servitçatcea mundua mespreçaturic

I Orai berriz minçaturen naiz Jauna, Ene
Jaincoaren Gainean dagoen ene Jaincoaren, ene
Jaunaren, eta ene erregueren beharrietan
erranendut.

O Jauna, cein handi, cein larri den çure
beldur direnentçat gorde daducaçun ertitasunen
mulçua!

Cer çare bada maite çaitustenen~~tcat~~ aldera? cer çare
behotz ossoz servitçatcen çaitustenentçat?

Guertur ecin erranezcoa da maite
çaitusteney emaiten deraueçun, çure contem=
placionea eztitasuna.

Hunetan beregainqui eracusi derautaçu
çure charitatearen goçotasuna, ceren enintcela
equin bainauçu, çure ganic urrun errebelaturic
nen billala erakarri bainauçu çure servitcatcera
eta manatu ere bai nic maita çaitçadan.

II O bethiereco amorioaren ithurria
cer erranendut cutaz? Nolatan ahal
çaisquit ahantsico, icusirii nitaz orhoitu.

nahi içan çarela, gucia busteldua, eta galdua nintcelarie?

Esperança guciaren gaineco misericordia eguin dioçu çure Seruitçariari, eta guciz merecigabeari çure gracia eta amudioa eskaini dioçu eta eman?

Cer behurtuco deraut çut gracia hunen ordain?

Ceren etcaye guciey gogoa eman munduari uko eguiteco eta conventutan Sartceco, bertce guciac largaturic.

Gauça handiric othe da nic çu Seruitcatcea Creatura guciac obligatuac direnaz guero çure Seruitcatcera?

Etçait iduritu behar ~~handi~~ hainitz dela nic çuri Seruitçu eguitea: aitcitic handiro miretsteco dut, nola çuc ni hain pobre eta merecigabe hori Seruitçaritçat hartu eta çure Seruitçari mauteen artean iar araci nahi nauçun

III Horra, cer ere baitut, onic eta certaz ere Seruitçatcen baitçaitut, çure da gucia

Bainan aitcitic çuc ni Seruitçatcenago nauçu nic eguiten çaitudan baino

Huna guiconaren Seruitçuco Creatu ditutçun cerua eta lurra prestic daude eta Cer ere manatu baituçu egun oroz eguiten dute

Eta oraino hori gute da, ceren Anguerua c berac ordenatu itçutçu guiconaren Seruitçuco

Ordea ~~cein~~ ~~beta~~ horioc ~~ban~~ guciac
baino gueyago da ~~cuc~~ çuc ceronec nahi
içan baituçu guiçona Seruitçatu, eta prometatu
baitioçu çure burua bera emanen dioçula

IV Ceremanen derautçut nic milla ontasun
horioc guciac gatic?

Aitcinitçat servitça ahal vici naicen
egun guciez! Aininz basso çuri egun bateco
bedere Seruitçuric Curi eguiteco ~~mereci~~
dagotçun beçala!

Guertuz den Seruitçu ~~guciac~~ den ohore
gucia ~~mereci~~ ~~duçu~~ eta seculaco laudorioa
mereci duçu

Guertuz çu çare ene Jauna eta ni naiz
çure Seruitçari gaiçoa, indar obligatua guciez çure
Seruitçatcera obligatua, eta Seculan Çure
laudoriotan unhatu behar ez naicena.

Hala dut nahia, hala dut desira, Cer
ere escas baitut, çuc, othoy, çure onta=
sunaz Complicaçu

V Ohore handia, eta loria handia da çure
Seruitçatcea, eta çure gatic gauça guciac
mespreçatcea

Ecen gracia handia içanen dute borondatez
çure Seruitçu Sainduan iarrico direnec.

Causituco dute Espiritu Sainduaren Conso=
lacioneric goçoena bere ganic haraguizco.
atseguinac Çure amorez iraitsico ditustenec

Bihotzeco libertate handia ardietsico
dute bidehersian Çure icena gatic.

Sartcen direnec munduco arthaguciac egoitstiric

VI O Jaincoaren seruitçutasunaren ederra eta arraya, hartaz eguiten baita guiçona eguiazqui libro eta saindu!

O Fraideen estatu sacratua! hareguiten baitu guiçona Anguerven pare, Jaincoaren gogaraco, deabruen icigarri eta fidel gucien maite!

O Seruitçu bethi desiratcecoa eta bessar=catcecoa ceina dela bide gucien gaineco ontasuna merecitcen baitugu eta seculacotz iraunen duen bozcarioa ardietsten.

Hamecagarren Capitulua

Bihotzeco desirac sondatu behar direla eta neurriz governatu

I Semea, oraino hainitz ikasi behar duçu behin ere onqui ikasi eztuçunic?

Cer da Jauna?

Ikasi behar duçu çure desir gucien ene placer onaren azpian osso qui emaiten eta çure buruari amudiorii ez ekartcen, bainan ene borondateari gogo bero batez iarraiquitcen

Desirec maiz iracequitcen, çaituste, ~~eta~~ eta bortitz qui erchatcen: baina Considera=çacu ea ene ohorea gatic çaramatçaten ala çure munduco auantailla gatic

Ene gatic hari baçare atzeguin hartuco duçu ordenatuco dudan guciaz bainan azpitic baçabiltça cerbait çuretçat bilha,

hori da bihotza nahastecatcen eta cargatcen derautçuna.

II Beguira çaite beraz lehenbici çaitçun desiraren gainean sobera permatcetic, niri Conseillu escatu gabe, beldurrez urriqui daquiçun eta lehen on eta ederetsi duçuna hoberena beçala higoin daquiçun.

Ceren etçayo berehala iarraiqui behar on iduri duen afeccione guciari, ez eta berehala jhesi ioan behar çure gogoaren Contraco guciari

On da batçutan gueldiric egoitea desirac obeditu gabe, onac direlaric.

Beldurrez hec çuri sobera iarraiqui guerta daquiçun bihotzeco barrayamenduric, lagunari escandalic eman dioçocun iaquin eta beguiratu behar direnac eguin faltaz, edo aldara eta faltetan erorçaitecin nihor bertceric çure Contra iar dadinean.

III Batçutan ere bortcha beharda eta sensu-sensuetarasunaren Contra bortitzqui iarri, behatu gabe cer nahi duen haraguiac edo cer ez tuen nahi aitcitic artha handirequin hura erakarri behar da espirituaren azpira nahiez padu ere

Sensatu (uatu) behar da eta bortchatu seruitcatcera ikas deçan artean gauça gucietara prestic egoiten gutiz contentatcen, gauça simpletan laketcen eta Contra Coric, Contracozcoric hil daquionean ez erasten.

Hamabigarren Capitulua.

Paciënciaren ikasteaz eta guthicien Contraco Corrokaz

I Ene Jainco Jauna, dacusadan beçala paci=
enciaren behar handia dut, ceren hainitz
gauça gaitz heldu çait Contra, eta nola ere
ordenatcen baitut ene baqueaz, ene vicia ecin
dirauque guerla gudu eta dolore gabe.

Hala da semea, Eztu ordea nahi bilha
deçaçun tentamendu edo gudu gaberico baqueri
aitcitu eguiçu contu baquea causitu duçula
hainitz ~~tribulamenduc~~ contracoc bilhacatu eta hainitz
tribulamenduc frogatu çaitustenean.

II Erraiten baduçu ecin hainitz pairadiroçula
nolatan pairatuco ahal duçu purgatorioco sua?

Bethi bi gaitzetaric arinema bethi hautatu behar da
Beraz etorquicuneco pena seculaco etaric
itçul ahal caitesquentçat, ikaz açu oraico gaitcen
Jaincoa gatic gogo onez pairatcen

Uste othe duçu mende hunctaco guiconec
eztutela deus ere pairatcen edo guti baicen

Eztuçu hori causituco gurienen eta aberatz=
enen artean sartcen baçara ere

Ordea, dioçu atseguin hainitz dute eta
placer dutena eguitendute, hargatic bere
tribulacionez. Contu guti daducate

Biz hala, bute nahi duten gucia, baina,
Çure ustez, noiz arteraino hec guciac?

III Horiçu, kea beçala ioanen dire munduco

aberatzac, eta allegriança iraganez ezta orhoitçapenic ere icanen.

Bai eta ~~vici dor~~ oraino vici direnean eztute hetan pausuric hartcen, camindura, tristadura eta beldurtasun gabe

Ecen non dic ere hartcen baitute atseguin, hainitz etan handic içaiten dute min eta dolore

Merecionez hala guertatcen çaye, non ecin ~~goça~~ ~~baititesque~~ bere placerez ecin goça baititesque kiratsturaz erdainatu gabe eta hala ere ahalkaturic cergatic desordenatuqui dabiltçan hequin bilha eta hey sobera darraizten

IV. O cein labur, cein gueçurrezco, cein desordenatu ~~placer~~ eta itsusi diren munduco placer guciac.

Ala baina guiconec hetaez hordituric eta itsuturic eztute hori eçagutcen; aitcitic abre mutuac beçala guthicien ~~ondoan dabiltça~~ arauera doaz eta hemengo viciaren atseguin appurra gatic erorten dire arimaco herioan

Çubada, semea ~~etçoacila~~ eçabiltçala çure guthicien ondoan ~~arauera~~, eta itçulçaite çure leheneco boron=datetic

Laket bequiçu Jaincoa baitan, eta hari emanen derautçu cer en ere çure bihotza esque baitago

IV Ecen nahi baduçu eguiazco atseguinic hartu eta consolacione gueyagoric ene ganic ardietsi horra, cure benedicionea içanen da munduco gauça guciac mespreçatcea, behere hunetaco placer guciac euaquitcea ~~eta handi ton~~

horrela eguinez etorrico emanen çaitçu consolacione franco:

Ordea lehenbician eztitutçu ardietsico cembait tristadura eta guducatasun gabe.

Aztura ohituac eguinen derautçu Contra baina hari garaituco çaisco usança hobeago batez.

Haraguiac erasico du baina bridatuco espirituaren berotasunaz.

Sugue çaharrac ertchatule çaitu eta tarritatuco bainan othoitzez hura igorrico duçu jhesi, eta lan on bati lotuz çure bihotzeco athea hersico dioçu gueyen aldetaric.

Eta cembatenaz jtçulirenago baitçare munduco consolacionetaric hambetenaz ~~aduca duçu~~ ene baitan edirenen duçu eztiagoric eta handiagoric

Hamahirurgarren Capitulua

Azpico humillaren obedienciaz

Jesusen exempluaren gainean

I Semea, nor ere enseyatcen baita obedienciatic ikiltera hura bera ilkiten da graciatic.

Nor ere nahi baitu gauça berecirie jcam bere galtcentu gucienac diren ontasunac.

Nor ere ez paita gogo eta borondate onez Superioaren azpico jartcen, seinala da hura bere haraguiac eztuela oraino ossoqui obeditcen, bainan maiz hari çayola osticoca, eta haren Contra darasala

Ikazaçu bada çure Superioaren azpian lastar iartcen, nahi baduçu çure haraguia azpiratu

Ceren campoco etsaya lasterago ventçutcen da
barreneco guiçona galdua eztenean.

Çure arimac eztu etsay gaixtoagoric, çure
haraguia den baino espirituarequin ongui heldu
eztenean.

Guciz behar duçu mesprecia handi bat eguin çure
buruaz, nahi baduçu garaya eraman haraguiaren
eta odolaren contra gainean.

II Ceren ſ çure burua oraino sobera desorde=
natuqui maite baituçu, hargatic jkaraçare bertceren
borondatearen azpian iartceaz.

Ordea cer da handiric, baldin çu, erhautz eta
ez deus baicen etçaren hori, guiçon baten azpico
iarten baçare Jaincoa gatic, icusiric ni guciz
botheretsua eta gucien gainecoa naicena dorex
guciac ez deusetaric atheraditudana, humilqui
eguin naicela guiconaren azpico çure gatic?

Eguin naiz gucietaco beherena eta humillena,
çuc çure urguilluqueria ene humiltasunaz
ken ceneçan gatic

Jkazaçu obeditcen, erhautsa jkazaçu humiltcen
burra eta jstilla, eta gucien oinen azpian
makurtcen.

Jkaz çure borondatearen hautsten eta bertcere=
naren eguiten gauça gucietan.

III Haserra çaite ceronen contra, eta ez teçaçula
paira hantureria çure baitan vici dadin; bainan
eguin çaite hain behera eta chipi non guciac
iragan ahal ditecin çure gainetic eta aurizqui
çaitçaten carriketaco istilla beçala.

Cer duçu arran çuratceco guiçon ez deusa?

Bekatore itsusia, cer derraqueçu urgoïc eguiten derautçutenen contra; çuc hambatetan Jaincoa offensatu eta millatan Jfernua mereci ican duçun horrac?

Bainan ene beguiac barkatu derautçu ceren çure arima preciosa baita ene aitcinean; cuc ekartcen derautçudan amudioa eçagut deçaçun, eguin derausquitçudan ontasunaz esquerrac bihur diatçadatçun, ~~eguerrac~~ cinezco azpicotasunean eta humiltasunean bethiiar çaitecin eta nihore putruztatcen çaituenean gogotic paira deçaçun gatic.

Hamalaugarren Capitulua

Jaincoaren jugeamendu estalian.

Consideratceaz beldurrez urguillu gaitecin gure obra onac gatic

I Jauna, çure jugeamenduec ihurciriac beçala daraunt sate ene gainean, ikaratcentutçu ene heçurrac beldurrez eta icialduraz eta ene arima harrituric dago.

Banago espantaturic consideratceaz ceruac eztirela chahu çure aitcinean.

Baldin causitu baduçu gaixtaqueriaric anguerueta n, eta ezpaiteraueçu barkatu cer eguinen da nitaz.

Içarrac erori dire Cerutic eta nic erhauts horrec certaz dut burupe?

Ceinen ere obrec baitciruditen laudatceco
cirela, hec erori dire beheiti, eta Anguerven
equitic iaten çutenac icusitut urdeen
maguintchetan atsequin harteen
II Beraz, Jauna, ezta Saindutasunic çure
escua hersten baduçu.
Ezta certaco den çuhurciaric, guelditcen
baçare governatcetic
Ezta valio duen indarric, hari heltcen
ezpaicaisco
Ezta castitate Seguraturic hura beguiratcen ezpaduçu
Gueuroc gure buruz ahal daguigun guardiac
eztu deus valio lagun ezpaiçaitugu eta gure
gainean erne ezpaçaude.
Ecen çuc utsiric hondatcen gara eta galtcen
baina visitatcen gaitutçunean iaiquiten eta
vicitcen gara
Berdin gueuroc ecin gaudesque çutic, baina
çuc permatcen gaitutçu: epel gare, baina çuc
iracequitcen gaitutçu.
III O cein Sentimendu humil eta chipi behar
dudan neure buruaz! cein ez deus estimatu
behar dudan, neure iduriz ene baitan den
ontasuna onguia eta vertutea!
O cein barrena Sartu behar naicen, Jauna,
çure ecin Sondatuzco iugeamenduen azpian,
non edereiten baitut enaicela bertceric
ez deus baicen!
O ecin iasanezco carga! o ecin iraganezco
carga, non ez paitut nitaz deus ere aurkitcen

ez deus hutsa baicen!

Non gorde diteque beraz ene urguilluqueria

Non da ene vertutean eçarri nuen fidança?

Vanaloriatce gucia sunsitu da eta hondatu

cuc ene gainean emanditutçun iugeamendu=

etan barrena

IV Cer da haragui guçia çure aitcinean?

Lur tupina urguillaturen othe da bere

eguillearen Contra?

Nolatan hantuco ahal da hitzerguelez

ccinaren bihotza eguiazqui baita Jaincoaren

escuco eta meneco?

Mundu guciac eztu superbio aracico,

eguiac bere azpico eguin duena; eta pensa

detçaqueyen laudorio guciac eztute higuituco

bere esperança Jaincoa baitan eçarri duena.

Ceren gutaz minço direnac bera ere

horra, guciaç ez deus: ioanen dire bere

hitz açançarequin, baina Jaincoaren eguiac

Seculacotz iraunendu.

Hamabortzgarren Capitulua

Nola egon eta minçatu behar den

desiratceco diren gaucetan

I Semea, gauça gucietan erraçu hurrela

Jauna çure placera bada eguin bedi

hori horrela

Jauna, çure ohorea bada, hori eguin bedi

çure icenean.

Jauna, icusten baduçu hori on dela

enetçat, eta eçagutcen baduçu probetchuric
ekar diaçaquedala, orduan indaçu gracia
hartaz Seruitçatceco çure ohoretan.

Ordea eçagut badeçaçu calteric ekarrico
derautala, eta eztioela emanen ene arimaren
saluamenduari aitcinamenduric idequi dia=
çadaçu horrelaco guthicia

Ecen desir gucia ezta bethi Espiritu Saindua
ganic heldu, guiçonari iduri dagolacaric
çucena eta ona dela.

Gaitz da eguiazqui iugeatcea ea Espiritu
onac ala gaixtoac gombidatcen çaituen
gauça hunen edo horren desiratcera, edo
çure espirituac berac eramaiten çaituen

Hainitz guertatu dire azquenean enganaturic
uste baitçuten lehenbician ecen espiritu
onac guidatcen cituela

II Beraz bethi Jaincoaren beldurrarequin
eta bihotzeco humiltasunarequin desiratu behar
duçu eta escatu cer ere gogoac ekartcen
baiterautçu desiratcecoric; eta gucien gainetic
gauça desiratcecoa eta çure gogoa ere bera
ene escuetan utsi behar duçu eta erran:

Jauna, çue daquiçu nola den hobequienic
eguiçu hau edo hori placer duçun beçala.

Indaçu nahi duçuna, ~~eta nahi duçunean~~
nahi duçun beçambat, eta nahi duçunean

Eguiçu enequin daquiçun beçala, hobe
çaitçun beçala, eta çure ohoretan gueyago
den beçala

Eman naçaçu non nahi eta librequi hari çaite enequin gauça gucietan.

Çure escuetan naiz, erabilnaçaçu eta itçul inguruz inguru.

Huna ni çure Seruitçari gucietara prestic berdin eztut vici nahi enetçat, baina çuretçat nahi dut: aïnadilla bada vici eguin mereci eta behar beçala.

Othoitza

Jaincoaren placer onaren complitceco

I Ene Jesu guciz maitea, indaçu Çure gracia: eguiçu enequin dagoen, enequin trauailla hari dadin, eta enequin iraun deçan azquen fineraino

Indaçu gracia bethi desira decadan eta nahi dudan nahi içaiteco cerere baita çure gogarenic eta placerenic.

Çure borondatea biz enea, eta ene borondatea berraiquio çureari, eta harequin ongui hel bedi bethiere.

Dudan nahi eta ez nahi bat çurequin, hala non ecin duquedan nahiric edo ez nahiric çuc nahi duçunaren nahi içaiteco eta nahi eztuçunaren ez nahi icaiteco baicen.

II Indaçu gracia hil naquien munduan diren gauça, guciey eta çure amorioa gatic atseguin har deçadan ene mespreçatu eta munduan hunetan ez eçagutu içanaz.

Indaçu gracia çure, cure baitan pau=
satceco gauça desiratceco gucien gainetic
eta ene bihotz aren çure baitan baquetceco.

Çu çare bihotzaren eguiazco baquea, çu
sosegu bakoitza çare; çure ganic campoan
gogor dira guciac, eta pausuric ezta nihon ere.

Baque hunetan orobat, erran nahi, çu gucien
gaineco eta seculaco ontasuna çarena baitan
pausatuco dut eta lo eguinen. Biz hala.

Hamaseigarren Capitulua

Eguiazco consolacionea behar dela
Jaincoa baitan choilqui bilhatu

I Cer ere desira edo pensa baiteçaquet ene
consolamenduco, eznago haren beguira vicitce
hunetan, baina guerocoan.

Neronec banitu munduco consolacione guciac
eta placer guciez goça ahal banendi, gauça
segura da ecin eraun leçaquetela dembora
lucez

Halatan ene arima ecin bethequi conso=
latuco, ecin ossoqui bozcariotuco, çare Jaincoa
baitan baicen, ceina baita pobreen consolat=
çaillea eta humillen bessarçatçaillea

Igurikaçu appur bat ene arima, caude
Jaincoaren promeçaren beguira eta ceruan
içanen duçu ontasun gucien franquia eta
mucurua

Sobera desordenatuqui guthiciatcen
baçare presentecoez, seculacoac eta

cerucoac galducotutçu

Valia çaite monducoez, eta guthicia ça=
quiscote Seculacoey.

Ecin ase çaitesque dembora batetacoontasunez
ceren ezpaitçara eguina hetaz goçatceco.

II Onhasun creatu guciac bacinitu ere,
ecin cinatesque doatsu: baina hec creatu=
dituena baitandago çure doatsutasuna.

Ez ordea mundusale erhoec uste eta Van=
tatcen duten beçalacoa, baina bai nolacoaren
beguira baitaude Jesus gana fidel direnac
eta nolacoa batçutan vicitce hau unen danic
aitcinetic
dastatcen eta Saporatcen baitute arima
deuotec ~~eta ceruan~~ bihotz garbiec, eta
ceruan gogoz dabiltçanec.

Hemengo consolacione gucia vanoa da eta
laburra: baina ceruticbihotz era heldu çaitçun
consolacionea, hura da doatsua eta eguiazcoa.

Guicon deuotac lecu gucietan berrequin
darabilla bere Jesus consolatçaille maitea, eta
erraiten dio.

Helçaquisquit ene Jesus jauna, lecu eta ordu
gucietan. biz ene Consolacionerie handiena
gogo onez munduco Consolacione guciez gabeturic
egoitea

Eta çure consolacionea faltatcen baçait biz
bego cure borondatea eta nitaz eguiten duçun
frogança ene Consolacionetaric maiteena:

Berdin etçara bethi haserre icanen eta
ezgaitutçu bethi ere mehatchaturen.

Hamaçazpigarren Capitulua
Gure artha gucia Jaincoa baitan eman behar dela

I Semea, utsnaçaçu curequin nahi dudanaren eguitera: badaquit Ceren beharra duçun.

Çure gogoetac guiçonaren gogoetac dire: hainitz gauçaren gainean iugeamendu emaiten duçu munduco afeccioneac gogora ekartcen deraut çun arauera.

Jauna, eguia da çuc dioçuna, eta handiago da nitaz duçun artha, neronec hardeça quedan ~~baino~~ gucia baino.

Jauna, erorteco perillean hurbillegui dago bere buruzco artha gucia çure baitara etchatcen eztuena.

Ene borondatea chuchen eta tinkaturic badago çure baitan, eguiçu nitaz placer duçu gucia

Ecen cer ere nitaz eguinen baituçu eztaiteque onic baicen.

II Nahi baduçu ilhunbetan nagoen, çarela benedicatua: eta nahi baduçu arguitan nabillan çarela berriz benedicatua.

Semea, horrela behar duçu erran eta eguin nahi baduçu enequin ibilli.

Hain prestic egon behar duçu, pairatcera, nola boztera: hain gogotic beharduçu vici pobre eta behar nola aberatz eta onez betheric.

III Jauna, gogo handiz pairatuco dut çure gatic cer ere nahi baituçu dat horren ene gainera.

Orobat bereci menduric gabe hartu nahi dut

ona eta gaitza, eztia eta kiratza, allegri=
ança eta tristecia; eta nahi derausquitçut
esquerrac behurtu guertatuco çaisquidan
guciac gatic.

Beguira naçaçu bekatu gucietaric, eta enaiz
beldur içanen ez herioaren ez ifernuaren.

Çure ganic iraitsten ez panauçu seculacotz
eta hiltcen ez panaucu vicitcearen liburutic
~~eztia~~ ene gainera etor ditesqueyen tribula=
mendu eta herstura guciec ezterautate
Calteric eguinen.

Hemeçortcigarren Capitulua
Demborac dakasquen miseriac
Jesusen exemplus, gogoberdinez
jasan behar derela.

I Semea, ~~iautsi naiz cerutic~~ Çure Saluatcea
gatic iautsi naiz cerutic ez beharturic
baina charitateac erakarriric, çuc paciencia
ikas deçaçun eta haran hunetaco miseriac
Contraco gogoric iabe jasan detçatçun gatic.

Ecen ene iayo ordutic gurutcean hil arte=
raino doloreac eta atsecobeac etçaisquit faltatu.

Eseas handia içan dut munduco ontasunez
Hainitz arrancura maiz ençun dut ene Contra
Eguin Çaisquidan laidoac eta ahalgesunac
mansoqui hartu itut: ene onguinac gatic,
esquer gabetasunac; ene miracuilluac gatic
blasfemiac, eta ene dotrina gatic, gaizqui
erranac eta falsoqueriac, içan ditut ordain

II Jauna, ceren pacienciatsu içan bastçare çure vicitcean, hortan beregainqui Com=plitcen cenduela çure aitaren menamendua; arraçoin da ni bekatore ondicozco hori pacienciaz vici nadin çure borondatearen arauera, eta nahi duçun arteino vicitce galcor hunen carga darabilladen ene salua=mendua gatic saluamenduco.

Ceren oraico vicia penagarri çastalaric badaric ere cure graciaz merecimendu handi=tacoa da, eta flacoentçat errazagoa eta arrayagoa çure exempluaz eta cure sainduen urratzez.

Haguitz ere consolagarriagoa da legue çaharrean cen baino, ceruco athea serraturic cegoenean, eta ceruratceco bidea ilhunago. Cirudien, hain gutiri gogoratcen citçayonaz guero ceruetaco erresumaren bilhatcea.

Bai eta orduco iustuac eta saluatu beharrac ecin sartcitesqueyen ceruco erresuman, çuc çure passionea compli, eta heriotce sacruatuaren çorra paga artean.

III O cembat esquer behar derautçudan eman cereri placer içan deraucuçun niri eta fidel guciey çure seculaco erresumaraco bide ona eta çucena eracusi.

Ceren çure vicia da gure bidea eta çure paciencia sainduan gaindi auiatcen

garaçure gana; ô gure Koroa çarena!

Ibilli ezpaciniz quigu aitcinetic, eta bidea prokasi ez paceneraucu, nori içanen çuen acholaric çuri iarraiquitceaz.

Helaz! cembat leudesque urrun eta guibeletic, beha ez paleçate çure exemplu ederretara.

Huna, epel gaude oraino, hambat dotrinamendu eta miracuillu çure ganic ençunic. ikasuric eta icusiric, cerliçate bada halaco arguiric ez paguendu çuri iarraiquitceco?

Hemeretcigarren Capitulua

Bidegabeac pairatceaz, eta cein den eguiazco paciencia ta dun frogatceaz

I Semea, cer minço care? Ichiltçatçu arrancurac ene passionea eta saindu gucien penac Consideraturic.

Eztuçu oraino ihardugui eta guducatu odol ~~Consideraturic~~ isurteraino.

Guti da pairatcen duçuna, Comparatcen baçare hain bertce pairatu datenequin hain borthitzqui tentatu, hain garratzqui tribulatu, hambat moldez frogatu eta erabil içan direnequin

Beraz behar ditutçu bertceen gaitz handienac gogora erakarri, çure mendreenac arinquiago paira detcatçun gatic pairatcea gatic.

Eta iduri badagotçu çure gaitzac
eztirela chipienac, beguirauçu horrela
guerta eztaquiçun cure paciencia gabez.
Badaric ere direla Chipiac, direla
handiac, çuc eguiçu çure ahala gucien
iasaiteaz pacienciarequin
II Cembatenaz agudotcenago baitçare
pairatcera, hambatenaz çuhurquiago
eguitenduçu, eta mereci guyago duçu:
erraz quiago ere pairatuco duçu, hartara
gogoz eta usançaz ernequi preparatuz
Ezterraçula, hori ecin pairadeçaquet
horrelaco guicona gatic, eta eztul halacoric
pairatu behar: harc bidegabe handi bat
eguin deraut, eta nitaz erraiten du egun=
daino gogora etorri etçaitan gaiz quia
baina bertce baten ganic pairatuco dut, eta
icusico dadan beçala pairatu beharco dudala
Halaco gogo eta erhoa da, ez paitic Conside=
ratcen cer den pacienciazco vertutea, ez
eta norc hura beharco duen Koroatu, baina
beha dagote bidegabey eta bidegabeguilley
III Ezta eguiazco pacienta pairatu nahi
eztuena nahi duen beçambat eta nahi
duena ganic baicen
Eguiazco pacienta eztago beha norc hura
darabillan, ea Superiorac, ala quideac,
ala azpicoac: ea guiçon prestuac, ala gaixtoac:

baina cerere heldu baitçayo gaitzic nor nahirin ganic, nahiz beçambat, noiz nahi gucia orobat onera hartcen du Jaincoaren escutic beçala eta jrauasia handitan daduca.

Ceren baitaqui eztela Jaincoaren aitcinean hain gauça chipiric non eztuen bere saria ardietsico, behintçat Jaincoa gatic pairatcen bada.

IV Çaude bada prestic guducatcera nahi baduçu garaya eraman.

Guduric gabe ecin ardiets deçaqueçu pacienciaren Koroa

Nahi ezpaduçu pairatu etçara nahi Koroatu: baina guthiciaric baduçu Koroatu içaiteco, hariçaite guiçon guiça, eta tinkaçaite pacienciaz.

Nekatu gabe eztuqueçu pausuric, eta guducatu gabe eztiroçu garaitic ardiets.

Othoy, Jauna çure graciaz eguin bequit ahalezcoa, ~~nihi~~ niri naturaleçaz ecinezcoa iduritcen çaitana.

Badaquiçu deus guti paira decaquedala, eta errazqui flacatcen naicela atsegabe arin bat eguiten çaitanean.

Arren eguin bequit tribulamendu suerte gucia eguin bequit çure icenaren amoriva gatic maitatcecoa eta desiratcecoa.

Ceren çure gatic pairatcea eta gaizqui

bilhacatu içaitea ene arimaren probetchu handia da

Hogoygarren Capitulua.

Gure flacotasunaren aitortceaz eta vicitce hunetaco lacerien eçagutceaz.

I Aitortuco dut neure buruaren Contra ene iustu gabetasuna, aitortuco derautçut, Jauna, ene flacotasuna.

Hainitzetan āpurra da lurreratcen eta tristatcen nauena.

Deliberatcen dut cin cinez harico naicela baina tentacione arin bat heldu çutanean herstura handi bat eguitençait.

Batçutan gauça ez deus batec tentacione garratz bat akarten deraut: eta uste dudanean appur bat Seguraturic nagoela, ohartu gabe çembait aldiz ni ohartu gabe aurkitcen naiz haice arin batez hurren etchaturic

II Jcusaçu bada, Jauna, ene appurqueria eta erorcortasuna, çuc alde gucietaric eçagutcen duçuna

Urrical naquiçula, eta atheranaçaçu istilletic beldurrez honda nadin eta ossoqui plaunduric nagoen

Dacusadanean hain erorcor naicela eta hain flaco passioney buru eguiteco, hori da maiz penatcen eta çure aitcinean ahalkatcen nauena

Eta ossoqui eramaiten ez nautelaric Consentitceraino, badaric ere hequin ertchamenduac nakatcen nau, eta choil unhatcen

naiz horrela bethi guduan vicitceaz.

Handic eçagutcen dut ene flacotasuna çeren gogoramendu hastinogarri hec erraz=quiago haguitz sartcen baitira ioaiten diren baino.

III O Israelico Jainco guciz bortitza eta arima fidelen maitatçaille jelozcorra beha dioçoçu çure servitçariaren nekeari eta doloreari, eta lagun çaquiscobere ioan etorri gucietan.

Bortitz naçaçu ceruco indarraz, beldurre nausi daquidan guiçon çaharra eta oraino espiritnaren ossoqui azpicoezten miseriazco haraguia Ceinaren Contra beharco baitut guduca hari guduca vicitce ondicozco hunetan hatzic dudaino.

Helaz! nolacoa da hemengo vicia, non ezpaite laceri eta miseri escasic, non gauça guciac sarez eta etsayz betheac baitira!

Ecen tribulacione edo tentatione bat ioaiten denean, heldu da bertcea, bai eta lehenecо guduac diravela ere, hainitz bertceric haldu da gainera eta ustegabean.

IV ~~Eta~~ Nolatan maitaditeque vicia hain Kiratstasun handiz bethea, halaco ondico=etara eta lacerietara eroria?

Nolatan deituen da vicia icusiric hain bertce heriotic eta isurrite ekartcen duela?

Badaric maitatcen da eta hainitzac bere ahalaz enseyatcen dire hartan laketcera.

Hainitzetan erraiten da mundua falso eta enganatçaille dela, halaric ere nekez. largatcen da ceren haraguiaren guthiciac sobera nausitcen baitçaisquigu.

Gauça batçuec hura maita arasten deraucutt eta bertce batçuec mespreça aracitcen.

Haraguiaren guthiciac, beguien desirac eta viciaren superbiotasunac munduaren amoriora garamatçate; bainan hey hari merei onez darraisten con pen~~ac~~ac eta laceri~~ac~~ac ~~gat~~ gatic hartaz unhatcen gara eta ~~gaitzer~~ gaitzeritstez gagorca nardaturic.

V- Helaz ordea! atseguin gaixtoac erama-itendu arima mundura etcina, eta bitartean uste du badela placer handiric sensuen azpian vicitcea.

Gaiçoac ezpaitu icusi eta ez frogatu Jaincoa baitaco eztitasuna eta vertutearen barreneco edertasuna.

Baina mundua ossoqui putruztatcen dutenec eta Jaincoaren arauera legue saindu baten azpian vicitcera enseyatcen direnec ongui daquite ~~ong~~ cer den Jaincoaren eztitasuna munduari uko eguiten dioteney aguindua, eta clarquiago icusten dute cein erhoqui eta cembat moldez errebelatcen den eta enganatcen

Hogoyeta batgarren Capitulua

Pausatu behardela Jaincoa baitan

Ontasun eta dohain gucien gainetic

I Pausatuco duçu ene arima, Jaincoa baitan gucien gainetic eta gucietan, ecen hura da Sainduen Seculaco pausua

Ene Jesus guciz eztia eta guciz maitea indaçu gracia, çure baitan pausateeco, Creatura gucien gainetic, ossasun eta edertasun gucien gainetic, ohore eta loria gucien gainetic, bothere eta gradu gucien gainetic, iaquintasun (duria) eta Sotillecia gucien gainetic, aberatstasun eta officio gucien gainetic, fama eta laudorico gucien gainetic, eztitasun (goçotasun) eta consolacione gucien gainetic, esperança eta aguintça gucien gainetic, meritu eta desir gucien gainetic, eman eta isur detçaquetçun dohain eta present gucien gainetic, guiçonaren bihotzac har eta froga (goça) detçaquen allegriança eta bozcariomendu gucien gainetic, hitz batez Angueru, Arcangelu eta ceruco Soldatutce gucien gainetic, icusten diren eta eztiren, eta çu, ene Jaincoa, etçaren gucien gainetic

II Ceren çu ene Jainco Jauna çu guciz ona çare gucien gainetic, çu choilqui gorena ~~botheretsuena guciz~~ çu choilqui botheretsuena, çu choilqui asqui dunena, çu choilqui eztiena eta Consolagarri ena,

çu choilqui ederrena eta maitatcecoena,
çu choilqui nobleena eta loriosena gucien
gainetic.

Çure baitan ontasun guciac batetan eta
mucuruqui dira, bethi içan eta içanen.

Hargatic gutiegui da eta ez asqui nihola
ere çutaz lekora emaiten, çure içaitear
eracuzten, çure ontasunaz prometatcen
derautasun gucia gutiegui da eta ez asqui
nihola ere, çu ceroni icusten eta ene
betheric goçatcen ezpaçaitut.

Ceren ene bihotzac ecin eguiazqui pausa
deçaque, eta ecin ase diteque pausatcen
ezpadu çure baitan eta iragaiten ezpada
dohain eta creatura gucien gainera.

III Ene Jesus, ene espos guciz amelsua
maitatçaille guciz garbia, creatura gucien
Jauna, nori emanen derausquit eguiazco
libertatearen hegalac çure gana hegal datceco,
eta çure baitan pausatceco?

O noiz ossoqui libraturic emanen çait
lecu eta escu neure buruarequin iarteco eta
icusteco cein goçe eta ezti çaren ene Jainco
Jauna?

Noiz ô noiz naicen gucia bilduconaiz çure baitara
hala non eznadin orhoit neure buruaz.
Çure ganaco amorioz vertutez podorez:
baina çu choilqui buruan çadutçadan

guciec eçagutcen eztuten Sentimendu eta manera batez?

Orai uçu nago hatz beherapenez eta ene dohacabetasuna dolorez daramat

Ceren hainitz laceria eta ondico guertatcen dira nigarrezco haran hunetan, eta hainitz-etan bihotza nahasten, tristatcen eta ilhuntcen derautate, maiz trauatcen naute eta errebelatcen, bereganatcen eta Corapil latcen; hala non ezpaitut bide idequiric çure gana hurbiltceco eta Sainduey ema-iten deraustetçun bessarca eztiez goçatceco.

Ukiçaitçatela ene hats beherapenec eta lurrean den hainitz manerazco desterramenduac?

IV O Jesus Seculaco loriaren arguia arima Sainduralearen Sosegua, Çure aitcinean ahoa dagot hitzic gabe, eta ene ichil egona minço çaitçu.

Noiz arteraino birantcendu ene Jaunac etortcera? etorri Gabe?

Dator la bere Seruitçari gaizhorren gana eta allequera naçala.

Hedabeça escua, eta athera naçala ni ondicozco hori herstura gucietaric.

Çato, çato: ceren çu gabe eztut içanen ez egun ez oren allequeraric, çu çare ene allegriança, eta çu gabe hutsic dago ene bihotzeco mahaina

Ondizcoa naiz eta nolazpait

presondeguan amarratua burdinez
Cargaturic, çuc çure presenciaren arguiaz
pitz naçaçun libertatean eçar naçaçun, eta
çure begui tarte amolsua eracuz diaçadaçun
artean.

V Bertzec bilha beçate çutaz bertzeric
nahi duten beçambat, niri birquitartean
etçait deus ere on ~~eta~~ edo eder, eta ez.
içanen ere çu baicen, ô ene Jaincoa, ene
esperança ene Seculaco Saluamendua.

Enaiz ichilduco, enaiz guelditu co çure
othoitztetic, çure gracia bihurdaqui dan
eta barrenean minçaçaqui qui dan artean
eta erran diaçadaçun

Huna ni hemen, huna ni çure ganaCeren
deitu bainauçu: çure nigarrez, çure arimaren
desirez çure humiltasunaz eta bihotzeco
urriquimenduaz beheitu eKarri naute çure
gana.

Ordu an erranen dut: Jauna, deitu çaitut,
eta deseratu dut çutaz goçatze prestic
nagoela çure gatic gauça guzien arbuiatzera.
Ceren cu behenic atçartu bainauça çure
bihaltzera

Çarela bada benedicatua, Jauna, halaco
ontasuna eracusi ~~bat~~ eta eguin baitioçu
çure seruitçariari çure beregauneco miseri-
cordearen arauera

VI Cer gueyago derraque çure seruit=
çariac, cer daidique çure aitcinean
handiro humiltceaz bertceric, bethi orhoitcen
dela bere gaixtarasunaz eta deus guti içanaz.

Ecen ez ta çure pareric quideric ceruco
eta lurreco miragarri gucietan.

Çure obrac choil dire onac eta compliac,
eguiac dire çure iugeamenduac, eta çure
çuhurciaz gouernatcen dire gauça guciac.

Çuri beraz laudorio eta loria, ô aitaren
cuhurcia? ene ahoac, ene arimac eta gauça creatu.
guciec lauda eta benedica çaitçatela seculacotz
Bizhala.

Hogoy eta bigarren Capitulua
Jaincoaren ecin condatuzco ongui
eguinez orhoitceaz.

I Idekaçu, Jauna, ene bihotza çure leguean
eta irakaz diaçadaçu çure manamenduetan
ibilten.

Indaçu gracia cure borondatearen eçagutceco
eta erreuerencia handi eta consideracione
finco bategquin Çure ongui eguinez bai gene=
ralez, bai particularez ohoitceco; hequin
gatic bide beçalaco esquerric bihurahal
diaçaqueçudan gatic.

Badaquit ordea eta aithortcen dut
den punturic chipiena gatic ecin demaqueçudala

çor çaitçun laudoriozco esquerric.

Escasegui naiz eguin derausqui datçun ontasunen gucien alde eta iarten naicenean çure nobleciaren Consideratcen ene espiritua flacatcen eta hondatcen da çure handitasunetan.

II Guc ariman eta gorputzean, campoan edo barrenean, naturaleçatic edo naturaleça gainetic ditugun guciac çure ongui eguinac dire, eta erraiten deraucute çu çarela ongui eguille handia, beguitartetsua, urrical=mendutsua, eta çure ganic ontasun guciac heldu çaisquigula.

Eta batac gueyago, bertceac gutiago içan badu çureac dire guciac, eta nihorc eztuque den gauçaric chipiena çure ganic baicen

Ontasun handiagoric içan duena ecin loria diteque bere mereciaz, ecin alcha deçaque burua, bertceec baino gorago, ecin trufa diteque bere baino mendreagoez.

Ceren norc ere bere burua precatcen baitu gutienic, norc ere deuocione eta humiltasun gueyagorequin ~~esquerdunago baita~~ esquerrac emaiten baititu, hura da handiena eta hoberena.

Norc ere bere burua deus gutiago baitaduca eta iugeatcen baitu gutiago ~~mer~~ mereci

duela bertceec baino, hura da gayago gracia gueyagoric ardietsteco.

III Gutiago içan duenac eztu tristeciaric ez damuric hartu behur, etçayo bera baino aberatzagoari bekaitstu behar aitcitic behar du çure gana behatu eta çure ontasuna handiro laudatu, ceren çure dohainac hain biçarqui, hain merke, hain gogotic partitcen tatçun, nihoren ere beguitartera behatu gabe.

Gauça guciac heldu dire, çure ganic, eta hargatic gucietan laudatcecoa çare.

Badaquiçu cer behar çayon batbederari eman, eta cergatic hunec ~~gueyago~~ gutiago horrec gueyago duen, eztagoçu jugeatcea baina bai çuri dagotçu, nolabatbederaren mereciac çure baitan neurtuac eta ordenatuac baitira.

IV Halacotz ene Jainco Jauna, ontasun handitan daducat ez hainitz içaitea campoco laudorio eta loria guiçonen beguietan dakarqueten gaucetaric

Eta nore ere ernequi consideratuco baitu bere pobrecia, nekezia eta deus gutitasuna, ez choilqui ezta ~~tristatuco~~, ~~con~~ hargatic tristatuco, unhatuco edo flacatuco; aitcitic handic hartuco du consolamendu eta allegriança handi bat, ceren cuc, ene Jaincoa, çure

adisquide familiertçat eta etchecotçat hautatu
baitutçu pobreac, humilduac, beherenac eta
munduaz mespreçatuac.

Lecuco dira çure Apostoluac, cuc munduco
Cantoin gucietan Prince ordenatu ditutçunac.

Badaric ere ibilli dira gendartean arran=
cura gabe, hain humil eta simple, maleciaric
eta engonioric gabe, non atseguin baitçuten
çure icena gatic laidoac eta bidegabeac
pairatceaz, eta gogo handiz bessarcatcen
baitcitusten munduari higointcen çaiscon
gauçac.

V Eztu beraz deusec ere hala allegueratu
behar maitc çaituena eta çure ongui eguinac
eçagutcen dituena, nola icusteac çure
borondatea haren baitan Complitcen dela,
eta çure egundainoco placer onaren ordenan=
çari darrayola.

Çure borondate saindu hartaz hala behar
da Consolatu eta Contentatu non bertce batec
handien jcaiteco desira duen beçain gogotic
berac desira deçun gucietaco chipienic egoitera.
eta hain baquez eta Contentic dagoen azquen
lecuan nola lehenean, eta bertceec munduan
ohoratu~~ac~~enac eta handienac jcaiteaz hartcen
duten beçambat atseguin har deçan mespre=
çaturic, arbuïaturic, icenic eta famaric
gabe egoiteaz

Cerençure borondatea eta ohorea ganaco amorioa garaitu behar çaye gauça guciey harc hura gueyago behardu Consolatu, placer gueyago eman behardio, icandutuen eta ahal ditusqueyen ontasun guciec baino

Hogoyeta hirurgarren Capitulua

Baque handia dakarqueten lau gaucez.

I Semea, orai irakasico deraut çut baque are eta eguiazco libertatearen bidea.

Jauna, eguiçu çuc dioçuna, ceren hori ençunen dut gogotic

Maitea, duçun artha lehen berteeren ecen ez çure borondatearen eguiteaz.

Lehen hautaçaçu gutiago içaitea, ecenez gueyago.

Bilhaçaçu bethi azquen lecua eta gucien azpicoa.

Desiraçaçu bethi eta othoitz eguiçu Jaincoaren borondatea çure baitan ossoqui Complidadin.

Huna, nor ere halacoa baita baquearen eta Soseguaren mugarrietan eta tartetan Sartcenda.

II Jauna, Cure erran labur horrec perfeccione handi bat daduca.

Hitz guti du baina Sensuz bethea da, eta hainitz fruitu eta probetchu dakarque.

Ceren hura fidelqui beguira ahal baneça

eliteque horrein errazqui ene baitan
asalduric guertatu behar

Ceren noiz ere sentitcen baitut aldara=
tua eta cargatua naicela, eçagutcen dut
çure dotrina hunetaric apartatua naicela

Baina çuc nola, nahi den gucia baitai=
diqueçu eta arimaren probetchua bethi
maite baituçu indaçu gracia gueyago;
arren çure hitza compli eta ene saluamendua
ardiets deçaquedan gatic

Othoitza

Gogoramendu gaixtoen Contra.

III Ene Jainco Jauna, etçaitecila urrun ene
ganic: Ene Jaincoa helçaquisquit.

Ceren hainitz gogoramendu alchatu dira
ene baitan, eta beldur handiec bilhacatcen
dute ene arima. bilhatçatcen derautate arima

Nolatan jtçulico natçaye çaurtu gaberic?
nola garaituco natçaye?

Ni dio Jaunac ibillico naiz çure aitcin
eta lurreco urguilluac sapatuco itut.

Idequicotut presondeguiaren atheac, eta
eracusico derautçut gauça estalien sequeretua.

Eguiçu, Jauna, dioçun beçala eta gogora=
mendu gaixto guciac bioaz Jhesi çure
beguietaric.

Hau da ene esperança eta Consolacione
bakoitza, çure gana laster eguitea ene
herstura gucietan, çure baitan fidatcea,

çuri bihotz barrenetic oyu eguitea eta
pacienciarequin çure Consolacionearen
beguira egoitea.

Othoitza

Arimaco arguiaren escatzeco

IV Arguinaçaçu, ô Jesus ona, barreneco
arguiaz, eta kenetçatçu ilhunbe guciac
ene bihotzetic.

Ezte katçatçu ene arimaco errebelamenduac
eta porrocatçatçu bortcha eguten derautaten
tentacioneac.

Jar çaite borthitzqui ene alde et cassatçatce
bestia gaixto hec, erran nahi dut, bere
balacuez bereganatcen nauten guthiciac:
orren bagnea eguin dadin çure vertutez
eta çure laudorioen franquia adi dadin
palauio Sainduan, erran nahi da Conscien=
cia garbian.

Manatçatçu haiceac eta tormentac
erroçu itzasoari gueldi dadilla ipparrari
ez taguiela haice; eta orduan içanen da
calma handia.

V Igorçu çure arguia eta eguia lurraren
gainean arguitcera: Cerenni nairlur huts
eta alferra, arguinaçaçun artean.

Isureçaçu çure graci gainetic bustiçaçu
ene bihotza cerueo ihincaz: eguitçu onatçu
devocionezco urac uriteac ene bihotzeco
lurraren pelatceco fruitu onic eta gueiz
onic eKar deçantçat.

Alchaçaçu ene arima bekatuen Cargaz
piçuz Sapatua, eta ene desir gucia irat=
chequi dioceçu ceruco gaucey; arren
gaineco doatsutasunaren eztitasuna dastaturic
higoin daquidan lurreco gaucez orhoitcea.

VI Eraman eta atheranaçaçu creaturen
ecin iraun ezco consolacione gucietaric:
berdin ezta Creaturaric ene desira ossoqui
Sosega eta Consola deçaqueyenic

Iratchequi naçaçu curequin amoriozaren
ecin urratuzco amarraz: Ceren çu choilqui
asqui çare maite Çaituen arimarentçat, eta
çu gabe fitzac dire bertce guciac.

Hogoy eta laugarren Capitulua

Beguiratu behar dela bertceren vicitceaz
Curiosqui galdequitetic.

I Semea, etçarela curios, eztarabillaçula
artha alferric. Cer doatçu çuri hunez edo
horrez? Caraizquit

Cer achola duçu hau hunelaco ezpa horrelaco
içaiteaz, edo hura hunela ezpatiorrela
haritceaz edo minçatceaz?

Eztuçu Mengoaric bertceentçat ihardetsteco
baina Çure buruaz emaiteco duçu Contu.

Certaco beraz nahasten ~~çara~~ eta Corapillatcen?
~~Huna~~ Çara hequin eguitecoetan?

Huna, nic eçagutcentut guciac: Iguzquiaren
azpian den gucia icusten dut eta badaquit
nor nola dabillan, Cer darabillan bihotzean,

cer nahi duen, eta certara hedatcen duen bere gogoa

Guciac beraz utsi behar dira ene escuetan çue çure burua idukaçu baque onean, eta ~~utz çaçu~~ Utzaçu nahastaria nahastera nahi duen beçambat.

Cer ere eguinen edo erranen bastu, gucia bihurtuco da haren gainera; ceren ecin engana naçaque.

II Eztuçula ansiaric icen edo fama handiaren itçalpeaz, hainitzequico familiertasunaz edo guiçonen adisqui detasun particularez.

Ceren gauça hec errebelamenduac dakazquete, eta ilhuntasun handiac emaiten tuste bihotzean

Gogotic minça nenquidiqueçu guardia arthatsuqui eguin baceneça, noiz heldu naicen çure gana, eta çure bihotzeco athea idequi baciniaçat.

Beguira aitcinetic, eta çaude erneric othoitzetan, eta humil çaite gauça gucietan.

Hogoyetabortzgarren Capitulua

Certan datçan bihotzeco baquea eta eguiazco probetchua.

I Semea, nic erran dut; baquea utsten derautçuet, ene baquea emaiten derautçuet; ezterautçuet hura emaiten munduac emaiten duen beçala

Baquea desiratcen dute guciec baina guciec eztute achola eguiazco baqueari ukitcen çaisçon gaucez

Ene baquea humillequin eta bihotzez eme direnequin dago.

Hainitz paciensia baduçu baquea içanen duçu.

Ençuten banauçu eta ene hitzari baçarraisco baque handi baten goçaturen ahal çare çaratesque.

Cer eguinen dut bada?

Gauça gucietan behaçaçu cer hari eta cer minço caren, eta Cure gogo gucia hedaçaçu. niri Choilqui placer eguitera, nitaz bertceric ez desiratcera edo bilhatcera.

Eztemaçula jugeamendu arinic bertceren erranez edo eguinez, eta etçaitecila Sar Çure Carguan eztiren eguite Coetan; eta hala guertatuco ahal da, non ezpaitçare nahasico guti edo gutitan baicen.

II Ordea nahasmenduric behin ere ez Sentitcea, bihotzean edo gorputzean penaric ez pairatcea, hori eztagoca mende hunetaco vicitceari, baina Seculaco pausua errepausua dagoen lecuari

Ezteçaçula bada pensa eguiazco baquea ediren duçula grinatcen, çaituen gauçaric

eta gauça gucietan ongui doatçula ~~Contracoric~~
Contracoric eztuçunean; ez eta perfec=
cionean Caudela guciac, çure nahiaren
arauera eguiten direnean

Ezta ducaçula nor cerbait handi çarela eta
Jaincoac bereciqui çaituela maite baldin
devocione eta eztitasun handi batçu ez
goçatcen baçare.

Ecen ezta handic eçagutcen eguiazco
vertutesalea ezta handic eçagutcen, eta
horrelacoetan eztatça guiconaren aitcina=
mendua eta perfeccionea.

III Certan bada, Jauna?

Çure bihotz guciaz ofrenda caquiscola Jain=
coaren borondateari, deus ere curetçat
bilhatu gabeez gauça Chipietan ez handi=
etan, ez orai, ez nihoiz ere, hala non
beguitarte ber batez bethi esquerrac eman=
diotçatçun Jaincoari, halaçori ~~onean nola~~
gaitzean nola onean, gauça guciac pisu
berdinez pisatcen tutçula.

Esperançan baçaude hain fermu eta finco
iarria, non barreneco Consolacioneaz.
gabetua gatu, çure bihotza prepara deçaçun
gueyagoric ere pairatcera Çure burua
iustu eguiten eztuçula halacoric eta

hain gaitzic pairatu behar ez pacendu
beçala, baina laudatcen banauçu ~~eta~~
erraiten duçula ni maicela iustu eta
Saindu ene ordenança gucietan, orduan
baquearen eguiazco bidean chuchen çabiltça,
eta dudagabeco esperança ahal duqueçu
berriz ~~ene~~ ere ene beguitartea icusico.
duçula bozcarioturic

Baldin hel baçaitesque çure buruaren
ossoqui mespreçatceco puntura, iaquin eçaçu
baquearen franquiaz goçaturen çarela çure
mundu hunetaco egoiteac aguin deçaqueyen
beçambat

Hogoy eta Seigarren Capitulua.

Bihotzeco libertatearen eccellenciaz
eta lehen ardietsten dela oracione
humillaz ecen ez liburuac iracurriz.

I Jauna, hori guiçon compliaren obra
Seculan gogoa ez largatcea ceruco Considera=
cionetaric, eta buruco hainitz eguitecoren artean
iragaitea eguitecoric ez palu beçala ez tonto
edo torpe baten guiça, bainan arima libro eta
idequi baten auantaillaz munduanden gauçari
itchequi gabe leguezco ez ten affeccioneaz.
II Othey, ene Jainco guciz pietatetsua
beguira naçaçu vicitce hunetaco gogoetetaric
Sobera Corapilla ez nadin; gorputzeco behar.

hainitzetaric, beldurrez placerec eraman naçatcen arimaco trabu gucietaric, beldurrez sobera penatuz eta unhatueguiz flaca eta eror nadin.

Eztut erraiten beguira naçacula munduco vanaloria gogo guciaz inguruz inguru bilha dabillan gaucetaric; baina bai ~~hiltcen~~ çure seruitçariaren arima hiltceco legue, generalaz penagarrizqui cargatcen duten mi serietaric; hala bihotza gui belatcen baitute eta capatcen non ecin sar baititeque barreneco libertatean nahi duen beçambat orduz.

III O ene Jaincoa, ecin erranezco eztitasuna itcul diaçadaçu kiratstasunera secula gaucetaric errebelatcen nauen eta presenteco atseguingarri baten jcuste laburraz gaizqui bereganatcen nauen haraguizco consolacione gucia.

Eztaquidala garay, ~~Ene Jaincoa, eztaquidala~~ garay haraguia eta odola: enaçala mundua eta haren loria laburrac engana: enaçala diabruac eta haren arteziac bere azpira egoitz.

Indaçu indarra contraeguiteco, paciencia pairatceco, fermutasuna bethi onean ~~egoiteco~~ iartceco eta irauteco.-

Indaçu çure espirituaren diadura
guciz eztia munduco Consolacione gucien
orde, eta çure icen Sainduaren amorida
isureçaçu ene baitara haraguizco amorioaren
orde

IV Huna, iateac, edateac, vestitceac, eta
gorputzaren mantenuco behar handiec carga
lodi eta pisu emaiten diote beroqui maite
çaituen arimari bihotzari

Eguidaçu gracia premiazcoez neurriz
Seruitçatceco, eta hetan ez amarratceco
desir infiniaz

Ezta Sori guciac etchatcea, ceren matenatu
behar da gorputza; baina legue Sainduac
dibecatcen du gauça soberazco gauçac eta placer-
garrienen ondoan ibilletic, bilhatcetic
ceren bertcela altchaliteque haraguia espi-
-rituaren Contra

Othoy, Jauna, çure escuac guida irakazeta naçala
halaco gaucen artean, deus Soberaric eguin
deçadan beldurrez.

Hogoyeta Çazpigarren Capitulua
Gure burua ganaco amorioac
guibelatcen gaituela gucien
gaineco ontasunetic

I Semea, gucia eman behar duçu gucia
gatic eta eztuçu deus ere iduqui behar çureric

I Jaquin eçaçu buruari ekartcen dioçun amudioac calte gueyago eguiten derautçula munduco gaucetaric batec ere baino

Gauça bat gutiago edo gueyago datchetsu çuc hura maite duçun, eta ederetsten duçun eredura.

Çure amorioa garbia bada, simplea eta ongui ordenatua, etçaitçu deusec ere gathi batuco

Etçaite cila guthicia içaitera cilhegui etçaren gauçaz

Ertaducacula traua çaitçaquen etabarreneco libertatea eraman diaçaqueçun gauçaric

Miretsteco du nola tan ceroni behotz barrenetic etçaren ossoqui iartcen eta desiraz edo obraz ahal ditusquetçun guciac eztitutçun utsten ene gomendioan.

II Cergatic tristecia alferrac iaten çaitu Cergatic nekatcen çare grina eta ansia soberaz?

Çaude ene placer onaren azpian, eta eztutçu calteric bat ere pairatuco.

Hau ezpa edo hori bilhatcen baduçu, eta hemen hala ezpa hor egon nahi baduçu, ~~eta~~ choilque çure probetchua eta aisia gatic, eta placer çaitçunaren hobequi eguitea gatic, seculan eztuqueçu soseguric eta etçare libratuco.

ansietarii eta grinetaric.

Ceren ~~lecu~~ gauca gucietan aurkituco duçu cerbait escas, eta lecu gucietan içanen da contra eguin diaçaçunic

III Eztuçu bada probetchuric hainitz onasun irauasteaz eta campotic mulçuca biltceaz, baina bai guciac mespreçatceaz eta errotic atheratceaz çure bihotzetic.

Eztuçula uste hori ~~aditcen dela diruco errentez~~ ~~choilqui~~ aditcen dela choilqui diruzco errentez eta aberatstasunez, aditcen da ere ohoreen ondoa inguruz inguru ibiltceaz, eta vanaloriozco laudoriomenduric desiratceaz ceren hec guciac iragaiten dira bere munduarequin.

Guti seguratcen çaitu lecuac espirituco berotasuna faltatcen baçaitçu, eta campotic bilhatu duçun baque hari guti irauendu çure bihotzeco estatua permatua ezpada eguiazco cimenduaren gainean, erran nahi da ene baitan egoiten ezpaçaude eta fincatcen ezpaçare

Lecuz alda deçaqueçu, ecin ordea hobe çaitesque hargatic. Ceren ocasionea guertatunic eta hura çuc harturic aurkituco duçu ihesi cindoazcon gucia eta gueyago

---

Quiero dezir que si non estuciendi en mi buen te puedes mudar mas no mejorar porque venida la ocasion hallaras lo que hujas y mas adelante

Othoitza

Bihotzeco garbitasunaren eta ceruco çuhurciaren ardietsteco.

IV Bortitz naçaçu, ene Jaincoa, çure espiritu Sainduaren graciaz: indaçu indarra finca nadin barreneco guicona baitan, eta ene bihotzetic athera deçadan artha alfer eta grina gucia, eta cein ere nahi den gauça edo apurraren edo valiosaren desire enaçaten eraman, baina beha diecedan gauça guciey beha diecedan iragaiten direney beçala, eta neure burua ere mira deçadan guciequin iraganen den gauça beçala

Berdin ezta Iguzquiaren azpian dirauen gauçaric: aitcitic guciac dira vanaloria eta espirituco nekadura. O cein çuhur den nore ere baitu horrelaco consideracioneric!

V Indaçu Jauna, ceruco çuhurcia, arren ikas deçadan çure bilha ibilten eta aurkitcen çure dastatcen eta onetsten gauça gucien gainetic, eta bertce gaineracoen eçagutcen bere baitan diren eta çure çuhurciac ordenatu dituen arauera.

Indaçu gracia çuhurqui itsul naquion lausenguz dagotanari; eta emequi paira deçadan contraric eguiten derautana: ceren hau da çuhurciaric handiena, hitz haice guciac gatic ez higuitcea, eta gaizqui lausengatcen hari

sirenari beharria ez çaualtcea. Ceren horrela
eguinic auiatta garen bidean Seguraturic.
gabiltça.

Hogoy eta çortcigarren Capitulua
Gaizqui erraillean mihien contra.

I Semea, eztaquiçula gaitsi baldin batçuec
çutaz iduri pen gaixtoric badute, eta erraitin
badute gogotic aditcen eztuçunic gauçaric
Ceronec Sentimendu gaixtoago beharduçu
çure buruaz, eta cinetsteco duçu eztelo
batere çu baino flacoagoric.

Baldin baçabiltça çure barrenaldien
miratcen eztuçu Contu handiric,
eguinen airean dabiltçan hitzez
Eta Çuhurcia Chipia ichilic egoitea
ordu gaitzetan, eta bihotz barrenetic
ene gana jtcultcea, eta munduco iugeamen=
=dua gatic ez aldaratcea.

II Eztemaçula çure baquea guiçonen
ahotan: ceren ongui edo gaizqui hartcen
badituste çure eguinac edo erranac, etçare
hargatic çarena baiçen.

Nondago eguiazco baquea eta eguiazco
loria? Ez othe ene baitan?

Nori ere ezpaitu guthiciaric munduari
placer eguiteco, eta ezpaita beldur haren
desgogaraco gauçaric eguina gatic, hura
baque handiaz goçatuco da

Behar ezleguezco amoriotic eta beldurtasun

alferretic heldu da bihotzaren aldaramendu
eta sensuen barrayamenduguçia.

Hogoy eta bederatçigarren Capitulua
Nola gomendatu behar gaizcon jaincoari
eta nolahura benedicatu behar
dugun tribulacioneac acometatcen
gaituenean

I Jauna, Seculacotz benedicatua dela
çure içena, ceren nahi içan duçun
tentacione eta tribulacione hauethor
cegui dan.

Ecin noaqueo jhesu, baina badut beharra
çuregana láster eguiteco, arren hel
çagiuçquidan eta hura onera itçul
diçadaçun gatic.

Jauna, orai tribulacionean nago, eta
ene bihotza eztago ongui, baina presen=
teco passioneac haguitz travallatcen nau.

Aita mantea, cer errarendut orai?
Hersturetan atcemana naiz: Saluanaçaçu
orai bercan

Bainanhargatic etorri naiz oren hune=
tara çuri loria eman daquiçun gatic ni
haguitz humildua eta çure ontasunaz
libratua içaner

Placer nauçula, Jauna libratu, ceren
nic pobrehorrec cer daidiquet, eta çu

gabe noraco naiz?

Indaçu, Jauna, orai ere paciencia. Hel çaquisquit ene Jaincoa, eta enaiz beldur içanen, cembat ere ~~cargua~~ Cargatua içanen bainaiz.

II Orai bitartean Cer erranen dut? Jauna eguin bedi çure borondatea. Eguiaz mereci dut tribulatua eta çapatua içaitea.

Berdin pairatu behar dut, eta ai deçadan emequi paira, eKaitza eta tempesta ioan dadin eta hobequi guerta daquidan artean.

Çure escu guciz botheretsuac tentacione hauere eraman deçaque ene ganic, eta emadeçaque haren oldarçarrea ~~lehen~~ ossoqui eror enadintçat

Ceren çuc, ô ene Jaincoa ene misericordia lehen hainitzetan horrela eguin duçu enequin ene aldera.

Eta Cembatenaz hori gaitzago baita enetçat hambatenaz errazago da Çuretçat guciz Gainecoaren escuco obra jçanez.

Hogoy eta hamargarren Capitulua.

Jaincoari bere laguntçaren escatceaz eta haren gracia bihurturen çaiculeco fidançaz.

I Semea; ni naiz jauna, tribulacioneco tribula egunean jndar emaiten dudana. Çato ni gana gaizqui çarenean.

Ceren berantegui bihurtcen çaren oracione eguitera, hori da ceruco consolacionea gueyen trauatcen duena.

Ecen finqui eta gogotic iarçaitecen baino lehen niti othoitz eguiten iar çaquisqui dan baino lehen othoitz eguiten, baçabiltça bitartean hainitz consolacioneren bilha, eta campoco gaucetan atseguin hartcen.

Handic heldu da probetchu guti atheratcen duçula nahiz diren gaucetaric, eçagut deçaçun artean ni naicela ene baitaco esperança dutenac libratcen ditudana, eta ene ganic campoan eztela valio duen laguntçaric, ez probetchuric dakarqueyen conseilluric, ez eta dirauqueyen erremedioric

Ordea tormentaren ondoan hats berria ~~ene~~ harturic, hareçaçu ere indar berria ene misericordietaco arguian.

Ceren hurbil nago, dio Jaunac, gauça gucien ez choilqui ossoqui, baina bai francoqui, neurri mucuruz eta gaindi berriz complitceco.

II Othe da nekez daidiquedan gaucaric?
Edo içanen othe naiz erraiten duena
eta eguiten eztuena beçalacoa?

Non da çure fedea Cinetstea? Çaude fermu
fermuqui eta tinkaturic ene Seruitçuan

Çarela bihotz dun eta bortitz, consolacionea
etorrico çaitçu bere eppean.

Iguriki diaçadaçu igurik, etorrico naiz
eta Sendatuco Çaitut.

Tentacionea da penatcen çaituena, eta
beldurtasun alferra icitcen çaituena.

Nasquiz etorrico diren gaucez ansiatceac
cer diakarqueçu tristura tristuaren
gainean baicen? Asqui du egunac bere
eguneco gaitza.

Gauça alferra da eta probetchu gabea
etorqui çunecoez atsegabe edo atseguin hartcea
ezpaitira nasqui Seculan guertatuco

III Baina guiçonaren naturaleçari datchecon
cutsua da halaco iduripenez enganaturic
ibiltcea, eta bihotz oraino chumearen
Seinalea da nihor aringui eramaiten denean
etsayac gogora ekartcen diotçan itchurez

Ceren gaixto harc eztu acholaric certaz
liblura eta engana çaitçan, ea eguiac ala
gueçurrac diren gaucez, ez eta Certaz
erorarasico çaituen, ea presentecoen
amorioaz ala etorqui çunecoen beldurraz.

Eztadilla bada çure bihotza nahas eta
eztuela beldurric. Cinetzaçu ene baitan
eta fida çaitcene misericordiaren gainean.
Uste duçunean urrunçaudela ene
ganic hainitz etan hurbillago nauçu: eta
iduri çaitçunean gauça guciac hurren
galduac direla, hainitz etan gueyagoric
irauastecoeta merecitceco ordua da.
Ezta ez gucia galdu cerbait nahi eztuçu
beçalacoric guertatcen çaitçunean.
Eztuçu iugeamendu eman behar, çure
oraico sentimenduaren arauaz.
Atsecaberic heldu baçaitçu nondic ere heldu
baita, hura eztuçu hartu behar eta
buruan sartu, hartaric ilkitceco esperança
gucia ioan balitçaitçu beçala.
IV Eztuçula uste alde guciz utsia çarela
batçutan igortcen baderautçut cembait tribu=
lacione, edo desiratcen duçun consolacionea
edequitan baderautçut; ceren handic da
ceruco erresumara bidea
Eta dudagaberic hobe da çuretçat
eta ene bertce seruitçarientçat, munduco
gaitzec horrela erabilçaitçaten, ecen ez
gauça guciez goça çaitesten çuengogoaren
arauera.
Badaçagusquit gogoeta gordeai eta
badaquit haguitz on dela çure saluamendu

batçutan egon çaitecin barreneco goçoric gabe, beldurrez sobera alcha çaitecin gauçac heldudirenean çure nahiaren eredura, eta çure buruarequin ixfini çaitecin etçaren beçalacoa bacine beçala

Emandudana eraman deçaquet eta bihur ere dirot placer dudanean.

V Nic emaiten derautçudana, enea da; eta hura edequiten derautçudanean eztut çurenic eramaiten: ecen cer ere emaiten baita onic, eta cein ere dohain compliric baita, gucia ene gatic da.

Igorten baderautçut atsecaberic edo contra=racoric, etçaitecila asalda, eta eztaquiçula bihotza flaca: Ceren laster alcha çaitçaquet eta çure tristura alegriançara itçul dirot.

Badaric ere iustua naiz, eta haguitz laudatcecoa hala eguiten dudanean gauça gucietan.

VI Çuhur asqui baçare, eta direnac diren beçala badacusquitu, etçare nihoiz ere hain tontoqui tristatu behar munduco atsecabeac gatic

Aitcitic allegueratu behar çare eta esquerrac eman behar derausqui datçu, bai eta ~~iduqui~~ contutan iduqui çure bozcario bakoitza dela

ceren dolorez cargatcen çaitudan, eta etçaitudan guppida

Erran derauet ene discipulu maitey, Ene aitac maite içan nauen beçala nic ere maite çaitustet.

Badahec igorritut ez segur munduco allegriancetara, baina gudu handietara: ez ohoretara, baina mesprecioetara; ez alferric egoitera baina travaillatcera: ez pausatcera, baina fruitu hainitz ekartcera bere pacienciaz; semea, orhoitçaite hitz horietaz hautaz.

Hogoy eta hamecagarren Capitulua

Mesprecatu behar direla Creatura guciac Creatçaillea aurki ahal dadintçat

I Ene Jauna, guertuz badut oraino gracia handiago baten premia, behar badut ardietsi nihorc eta deusic ere ecin traua naçaqueyen becura.

Ecin cerbaitec naducaino ecin hegalda naite çure gana neure gogara

Libraturic hegaldatceco desira çuen erraiten ohi çuenac: norc emanen deraus=quit usso tortoillaren hegalac beçalacoa eta hegaldatuco naiz, eta pausatuco du

Cer da emeagoric begui simplea baino?
eta cer da cilheguiagoric deusere lurrean
desiratcen eztuen bihotza baino.

Behar dugu beraz iragan Creatura gucien
gainetic, eta gure burua ossoqui utsi
bai eta egon gogoz gainera eramanic
eta icusi çuc gucien creatçaille horrec
eztuçula Creaturac beçalaco den gauçaric

Eta nor ere ezpaitago Creaturietaric
libraturic, ecin iarrico da treuequi Jaincozco
gaucetan.

Hargatic nihor guti edireitenda jarria
denic ceruco gaucen consideratcen, Ceren
gutic baitaquite bere gogoa ossoqui apartatcen
Creatura galcorretaric

II Halacotz gracia handia behar da
arimaren goititceco eta bera baino gorago
eramaiteco.

Eta baldin guiçonac ezpadaduca espiritua
goitituric, libratua ezpada creaturetaric,
Jaincoari ezpadatcheco harequin bateguinic
Cer ere baitaqui, eta cer ere baitu ezta
Contu handitaco.

Norc ere estimatcen baitu badela gauça
handiric, neurri eta fingabeco ontasunaz
baitoitçaz landan, hura dembora lucez egonen da
chume, eta lurrean behera etçanic.

Ecencer ere ez paita Jainco, ez deus da, eta ez deustçat iduqui behar da.

Guiçon arguitaren eta devotaren çuhurciac, eta letratu edo estudiatu baten iaquintasunac diferencia handia dute bere artean.

Haguitz nobleago da gainetic Jaincoa gatic gure baitara isurtcen den dotrina guiçonaren espirituaren neke travailluz ardietsten dena baino.

III Hainitz edireiten da ceruco gaucen consideratceco desira duenic, bainan eztira enseyatcen hartaracotz behar direnen eguitera.

Trabu handia da seinaletan eta sentitcen diren gaucetan tricatcea, eta bere buruari ossoqui ez garaitcea.

Eztaquit cer den, eta cer espirituc gara=matçan ez eta ceren ondoan gabiltçan, gu espiritualac garelaco iduria dugunoc; icusiric hain travailleu handiric, eta are artha gueyago hartcen dugula gauça iragaiten direnac eta ez deusac gatic, eta gure barreneco eguitecoez nekez edo gutitan eguiten dugula gogoeta gure buruco sensuac cinqui eta ossoqui gure baitara bilduric.

IV Ah dolorea! Gure baitara appur bat
bihurtu garenean, berehala ilkiten gare
camporat, eta gure obrac eztitugu pisu
çucenaz pisatcen.

Ertugu behatcen ceri datchescon gure
affeccioneac, eta eztugu nigarric eguiten
ceren gure accione guciac hain diren
nothatuac cutsatuac.

Ecen haraguiz ciren guciac liçundu
eta galdu çuten bere bidea, eta hargatic
uholde handia heguin ondoan etorri cen

Bada gure barreneco afeccionea hain
liçundua denaz guero, behar da hartaric
heldu den accionea, ceiñ baita barreneco
indarraren escasaren seinalea, orobat
den liçundua

Bihotz garbitic sortcen da viciteonaren
fruitua,

V Galdez gaude cembat eguteco erabilli
duen nihork, baina eztugu hain herstiqui
pisatcen nolaco vertutez hari den.

Bilha gabiltça ea sendo, aberatz, eder
agusto den, ea fetcho den esquiribuetan,
cantetan, lanetan, gueyenac ordea ichilic
daude galdeguin gabe ceiñ pobre den
bihotzez, ceiñ pauanciatsu eta manso den
ceiñ devocionetsu eta barreneco

Naturaleça beha dago guiconaren Campoco gaucetara, baina gracia barrenecoetara heldatcen da.

Hainitz etan naturaleça enganatcen da baina gracia Jaincoa baitan esperantçatcen da engana eztadintçat.

Hogoy eta hamabigarren Capitulua

Bere buruari uko eguiteaz, eta guthiciadura gucien arbuÿatceaz

I Semea ecin goça çaitesque libertate compliaz, ceronec uko ossobat eguiten ezpadioçu Çure buruari.

Gathibu estecatuac ohi dira deusic beretçat beregain daducatenac, bere burua maite dutenac, guthiciosac, curiosac hainitz eguitecotan Sartu nahiac, bethi gauça guriac eta malguac bilhatcen ditustenac Jesu Christorenac utsiric: fineen hari direnac iraunen eztuen gauçaric pensatcen, ametsten eta deliberatcen; ceren galduco da Jaincoa ganic heldu ezten gucia.

Itchecoçu hitz labur eta handi huni utzaçu nahiz den gucia, eta den gucia aurkituco duçu largaçaçu guthiciadura eta edirenen duçu Sosegua

Hori maiz erabil eçaçu gogoan eta obrez compli deçaçunean iaquinen duçu cer erran nahi duen eta gauça guciac eçagutuco tutçu.

II Jauna, ezta hori egun batenco lana ez eta haurren iocoa; aitcitic hitz labur hunetan Serratcen da Guiristinoaren perfeccione gucia.

Semea, etçara bertce aldera itçuli behar bihotza etçaitçu berehala erori behar guicon perfetec daducaten darraiscon bidea adituric: Contrara atçartu behar çare gauça gora goetara, edo ezpere arduraco desirez hats beherapenac aurtiki behar tutçu hec beçala Sainduqui vici nahiz

Aitcine halacoa, aitcine etorri Ceronec Çure buruaren ez maitatceco, bainan ene Keinura choilqui behatceco, eta ordenatu derautçudan aita espiritualaren borondatearen eguiteco puntura; orduan cinatesque ene gogaracoa, orduan çure vicitce gucia bozcarioz eta baquez iragan Ceneçaque

Háinitz gauça duçu oraino utsi beharric eta guciac ossoqui emaiten ezpaditutçu ene escuetan, escatcen çarena eztuçu ardietsico.

Conseillu emaiten derautçut urre Suztaturic (iraciquia / Suz iraganicaco) urre gorria erosteaz ene ganic, laster aberatz çaitcintçat

Urre hura daceruco çuhurcia hemen behereco gauça guciac oinen azpian auriz=quitcen eta osticatcen dituena.

Arbuyaçaçu lurreco çuhurcia bai eta mundua eta çure burua ganaco gogalguintasun gucia.

III Erran derautçut munduaren beguietan deus guti diren gauça erosi behar ditutçula hare handiro preçatce dituenac emanez.

Eçen badirudi ceruco egui azco çuhurcia choil appurra eta hurren ahantsia dela; hare ezpaitu bere buruaz Contu handiric eguiten ez eta lurreco handiresunic bilhatcen. hura hainitzec ahoz laudoriatcen baitutt baina bene ganic urrun igortcen bere vicitce tailluaz Badaric ere hurada harri preciatua hainitzentçat estalia.

Hogoy eta hama hirurgarren Capitulua

Gure bihotzaren nihera ecin egon ez, eta gure intencionea Jaincoa gana bere azquen chedera beçala chuchen iduquitea

I Semea ezteçacula çure gogoa Cinets orai duçuna laster gambiatuco da bertce batetara

Vici çaitesqueino mudacorra Care nahi eztuçularic: hela non batean icusico baituçu alleguera bertcean triste batean sosegatua bertcean asaldatua, batean devocionetsu, bertcean devocione gabeco, batçutan ikastera iarria,

bertcetan naguia, batçutan pausatua, eta
bertce batçutan arima çarela

Ordea guiçon çuhurra eta gauça espiritua=
letan ongui ikasia mudança hequin gainean
nausi dago behatu gabe cer sentitcen duen
bere baitan, eta nondic heldu den mudacor=
tasunaren haicea; baina contu daduca
bere arimaco intencione gucia chuchen doan
behar den chede hoberenera.

Ceren horrela eguinez bethi egonen ahal da
bat eta bera, eta inharresi gabea, bere inten=
cionearen begui simplea ni gana chuchenduric
daducala, bat ere aldaratu gabe hain bertce
casuren artean

II Ecen cembatenaz garbiago içanen baita
intencionearen beguia, hambatenaz segurago
iraganen da aldizcatcen duten tempestetaric
guertancetaric

Ordea hainitz gauçatan lilluratcen da
intencione garbiaren beguia, ceren laket=
zarri bat presentatcen denean laster
iarten da haren miratcen, eta gutitau
aurkitcen da nihor ossoqui libraturic bere
munduco probetchuaren ondoan ibilteco.
Cutsutic

Hala Juduac etorri ohi ciren Bethaniara
Martha eta Maria ganic ez Choilqui

Jesus gatic bainan eta Lazaro ere icustea gatic.

Beraz intencionearen beguia garbitu behar da, arren simple eta chuchen dagoela hain bertce suertetaco incontruen artean miri choilqui behadiçadantçat.

Hogoy eta hamalaugarren Capitulua.

Maite duenari goço çayola Jaincoa gauça gucietan eta gucien gainetic.

I. Hun a ene Jaincoa eta gauça guciac Cer nahi dut gueyago, eta cer desira deçaquet doat suagoric?

O hitzaren eztia eta goçoa? bai ordea maite duen arentçat horrelaco hitza, ez mundua ez eta munduan den bertce gauçaric Ene Jaincoa da ene gauça guciac.

Endellegatcen duen arentçatasqui errena da, eta haren maiz erraitea goço çaye maite duenari

Eta eguian çu ene Jaincoa ~~presentean~~ gurequin Çaudenean, aitcinean, çaitugunean allegueraс dire guciac, Campoan çarenean unha eta nardagarriac dira guciac

Çuc bihotza sosegatcen çuc baque handia emaiten, çuc bestaco allegriança. eguitenduçu.

Çure graciaz guiçonac sentimendu ona du guciez. eta laudatcen çaitu gauça gucietan.

Çu gabe eztaiteque iraupe handizco placeric deusetan ere eta Cerbait içaite=cotçat gogoracoric eta saporosoric behar du çure gracia lagun, eta premia da çure çuhurciaren errecaitu goçoaz appain dadin

II Nori ere çu goço baitçaisco, Cer etçayo goço içanen? Eta nori ere ezpaitu çure baitan saporeric edireiten, Certan direnen aurkituco ahal du atseguinic?

Ordea çure çuhurcian escasten dira munduco çuhurrac, eta haragui saleac, ceren batean hainitz vanaloria da eta bertcean heriotcea causitcen da.

Baina nor ere baitarraitçu munduco gauçac mespreçaturic eta haraguia hildu=maturic, eçagun da eguiazqui çuhurra dela, ceren iragaiten baita vanaloriatic eguiara, eta haraguitic espiritura.

Horrelacoey gaço çaye Jaincoa, eta cer ere onic aurkitcen baita creaturetan hura bihurtcen dute bere creatçaillaren laudoriora.

Badaric ere diferencia handia eta choil handia dute bere artean creatçaillearen goçotasunac eta creaturarenac,

eternitatearen Saporeac eta demborarenac
creatugaberico arguiaren arraitasunac eta
argui creatuarenac.

III O egundaenoco arguia argui creatugucia
iragaitentutçuna, aurtikiçaçu gainetic ene
bihotzeco barren aldi guciac jragan detçan
cizmixta bat.

Garbi, alleguera, argui eta pitzaçu ene
arima bere indar guciequin, arren neurri=
gabeco bozcariomenduz itchequi diaçacun arren.

O noiz etorrico da oren doatsu eta ordu
desiratceco hura, non satiatuco bainauçu, çure
beguitarteaz, eta içanen baitçara ene ~~gauça~~
gucia gauça gucietan?

Hori eman diaçadaçun artean ene bozca=
rioa ezta bethea içanen.

Ah dolorea! vici da oraino guiconçaharra
ene baitan, ezta gurutcean ossoqui iratchequia
ezta ossoqui hilla.

Orai ere haraguia haguitz guthiciatcen da
espirituaren contra, barrenean pitztentu
guerlac, eta baqueric eztio utsten arimaren
erresumari

IV Baina çu itsasoaren bothereari bortitz=
turari jauntcen çaiscona, uhinen

higuiçarea eta muthiritasuna ematcen ditutçuna, iaiqui çaite, helçaquisquit.

Barrayatçatçu guerla nahi duten gendeac eta porrocatçatçu çure escuaren idarraz

Eracuzquitçu, othoy çure miragarriac, eta loria eman bequio çure escuineco escuari:

Berdin ezta enetçat esperançaric, ez eta nora jhes eguin lecuric, çure baitan baicen, õ ene Jainco jauna.

Hogoy eta hasnabortzgarren Capitulua

Eztela vicitce hunetan Segurançaric tentamenduen Contra

I Semea, Seculan eztuqueçu Segurançaric vicitce hunetan, baina vici çareino bethi ere arma espiritualen beharra duçu

Etsayen artean çabiltça, eta escuin esquer acometatua çare.

Bada alde gucietaric valiatcen ezpaçare pacienciazco arrondelaz etçara lucequi egonen çaurtugaberic.

Are gueyago çure behotza tinkatcen ezpaduçu ene baitan gauça gucien ene gatic pairatceco borondate hutsez, ecin eguinen dioçu ~~guda~~ hain gudu beroari burun eta ecin ardietsico duçu doatsuen golardoa.

Behar duçu beraz guiçon guiza iragan
contraco ~~gauça~~ gucian gainetic, eta gucien Contra
besso sendo batez guducatu eta peleatu.

Ecen garaya duenari emaitençayo manna
erren nahida Cerico eztitasuna, eta maguitcen
denari ~~gueldtitcen çayo~~ hainitz miseria
gueditcen Çayo.

II Bilhatcen baduçu Sosegurie vicitce
hunetan, nolatan orduan ardietsico duçu
Seculaco Sosegua?

Etçaitecila prepara hainitz descansuz
goçatcera, baina bai paciencia handiaren
ardietstera.

Bilhaçaçu eguiazco baquea, ez lurrean,
baina Ceruan, ez guiçonen artean edo
bertce creaturetan, baina Jaincoa baitan
choilqui

Jaincoaren amorioa gatic behar ditutçu
nahiz diren guciac gogotic pairatu
nolacoac baitira nekeac, travailluac, doloreac
~~eritasunac~~, tentacioneac, bidegabeac,
atsegabeac, ~~grinac~~, ~~narricac~~, hersturac,
beharrac, erbaltasunac, eritasunac, hitz
gaixtoac, aitcin guibeleco gaizqui erranac,
urgoyac, erançuteac, liscarrac, beheramendua
ahalkeac, sensamenduac eta mesprecioac.

Horrelaco gauçac heltcen çaisco guiconari vertutearen ardietsten, frogatcendute Jesusen Soldada berria, ceruco koroa eguiten dute eta arrimatcen.

Nic Seculaco Saria emanendut nekelaburbaten gatic, eta fingabeco loria laster iragaiten den ahalke sun baten orde

III Uste othe duçu içanen ditutçula consolacione espiritualac çure nahiaren arauera?

Ene Sainduec eztute içan çuc nahi duçun beçalacoric, aitcitic hainitz atsecabe, tarritamendu eta descon Solamendu handi iasan dute.

Ordea guciac hartu ituste paciencia, eta gueyago fidatu dira Jaincoa baitan, berac baitan baino; ceaquitela eztela mundu hunetan pairamenduric etorqui çuneco loriaren ardietsteco asqui denic.

Nahi othe duçu berehala eman daquiçun hainitzec hain nigar isuriz eta hainitz trauaillu iraganez guero nekez ardietsi dutena?

Iguriqui dioçocu Jaincoari, hariçaite guiçonguiça eguiçu buru, ezteçaçula esperança gal etçoacila, baina gorputza eta arima paratçatçu fermuqui Jaincoaren loria gatic.

Nic haguitz gueyago bihurtuco derautçut niçurequin içanen naiz çure herstura eta tribulamendu gucietan.

Hogoy eta hamaseigarren Capitulua.

I. Semea, tinkaçaçu çure bihotza Jaincoa baitan eta etçarela, nihoren iugeamenduen beldur consciencia lecuco duçunean eztuçula hobenic borondatz onic baicen.

Gauça ona eta doatsua hörrela pairatcea, eta hori etçayo gaitz içanen bihotzez humil denari eta Jaincoa baitan fidatcenago denari, bere baitan baino

Hainitzec hainitz darasate, eta hargatic cinetste guti eman behar çaye, berdin ecin bat da gucien gogara eguitea

Jondone Pauloc eguin ahala eguin duelaric Jaincoaren arauera guciey amor eguiteco, eta gucientçat bere burua gauça gucietara itculi duelaric, halaric ere contu guti eguindu hartaz munduac emaiten ohi çuen iugeamenduaz.

II Asqui den becambat nekatu da guciey saluamenduco bidearen eracuzteco ber ahalaren eredura; bainan ecin eguin du hala non hura batçutan eztuten iugeatu edo mespreçatu

Halacotz gucia gomendatcen cioen guciac daquisquien Jaincoari, eta bere defendatcen cenpacienciaz eta humiltasunaz mihi gaixtoen contra gueçurrezco gauçaric pensatcen ciotenean, eta hartaz nahi çuten gucia bere gogoaren arauera cerabillaten eta barrayatcen çutenean

Guiçonen iugeamendu alferren contra

Guciarequin ere noizpait ihardetsi du,
beldurrez haren ichil egoiteaz (naz) escandalic
guerta lequien arima flawey.

III Nor çare çu guiçon hilcor baten beldur
içaiteco? Egun vici da, eta behar ezta aguerico
Çarela Jaincoaren beldur, eta etçaraicituren
guiçonen icigarri durez.

Cer eguin diaçaqueçu nihori bere hitzez eta
gaizqui erranez? Calte gueyago eguiten dio bere
buruari, çuri baino; eta nor ere baita ecin
itçulico çayo Jaincoaren iugeamenduari

Duçun Jaincoa beguien aitcinean, eta eztaçaçula
iharduqui liscar hitzez.

Iduri badagotçu azpiratcen çarela, eta mereci
eztuçun ahalqueric edo laidoric pairatcen duçula,
etçaitecila hargatic tarrita, bodurrez çure
Korvaguti Chipi deçaçun çure pacienciagabez.

Aitcitic behadiaçadaçu cerura: badutnic ahala
eta indarra çure libratceco ahalkesun eta
erran gaixto gucietaric, eta bat bederari bihurtceco
bere obren eredura

Hogoyeta hamaçazpigarren Capitulua

Behar dela garbiqui eta ossoqui Jaincoaren
escuetan iarri behotzeco libertatearen
ardietsteco.

Semea

I Utsaçu çure burua, eta edirenen nauça

çaude deus ere çuretçat hautatu, nahi eta iduqui gabe, eta bethiere irauasico duçu.

Ceren çure burua utsi beçain laster hurra berriz hartcen eztuçula, gracia gueyago eta handiago emanen çaitçu

Jauna, cembatetan utsico dut neure burua, eta certaz hutstuco naiz?

Bethiere eta oren guciez, gauça appurrez beçala handiez ere. Eztut deus ere lakatcen baina nahi çaitut causitu gauça guciez billusiric

Bertcela nolatan içanen ahal gara çu ene eta niçure billusia ez paçare çure borondateaz, hala barrenean, nola campoan?

Cembatenaz hori lasterago eguinen baituçu hambatenaz hobequi causituren çare eta cembatenaz. ossoquiago eta garbiqui ago horrela iarrico baitçare, hambatenaz içanen ago cara ene gogoracoa, eta gueyago irauasico duçu.

II Batçuec utsten dute bere burua, baina cerbait lekaturic; eta ceren ez paitira ossoqui Jaincoa baitan fidatcen, hargatic bere buruaz oraino cargua daducate.

Batçuec ere lehen bician bere burua ossoqui ofrendatcen dute, ordea guero cembait tentacionec bulcatcen dituenean, beretara bihurtcen dire, hargatic eztute vertutean aitcina=menduric eguiten.

Halacoec eztute ardietsico behotz garbiaren libertatea, ez eta ene familiertasun arrayaren gracia, bere burua lehen ossoqui utsiric eta egunorozco sacrificiotan emanic baicen. Hori eguin gabe batasun goçogarria eztago eta eta eztagoque.

III Maiz erran derautçut eta berriz ere erraiten: utsaçu çure burua, eta barreneco baque handi batez goçataren çara.

Gucia emaçu gucia gatic, ezteçaçula deus bilha, ez berriz har deus ere; Çaude garbiqui ene baitan dudatan iarri gabe, eta içanen nauçu.

Libro egonen Çara çure behotzean eta ilhunbeec etçaituste estalico.

Çure ahataz, othoitzez, desirez enseya çaite çure ditutçun gauça guciez bellustera, eta Jesus billusiari billusiric iarraiquitera, çure burua=rentçat hillez guero Seculacotz ene baitan vici enetçat vici çaitecintçat

Orduan joanen dira gogoeta ramendu alferrac, icialdura muthiriac, eta soberazco artha eta grina guciac.

Orduan ere neurrigabeco beldurrac utsico çaitu, eta behar ez leguezco amorioa hillen da.

Hogoy eta hemeçortcigarren Capitula.

Campoco gaucetan ongui governatceaz eta perilletan Jaincoa gana lastereguiteaz

I Semea, hau da ceintara chedatu behar duçun churia. Behar duçu lecu, obra eta campoco eguiteco gucietan çure barrenaldian libro egon çure burua, iabe cure escuco içan, gauça guciac çure azpian iduqui, eta hequin azpian ez iarri.

Beharçare çure obra gucien nausi eta chuchentçaille, ez gathibu, ez mutil erosia bainan eguiazco Israeltar beçala, iragaiten çarela Jaincoaren umeen estatura eta libertatera

Hec baitaude presenteco gaucen gainean iarriric daudecila seculacoen miratcen eta miretsten.

Joaiten diren gauçac icusten tuste esquerreco beguiaz, eta cerucoac escuinecoaz.

Ez tira eramaiten munduco gaucetara hey lotceco aitcitic erakartcen tuste seruitçu onic eguitera Jainco gucien gaineco eguilleac ordenatu dituen arauera, ceinec ez paitu deus ere escasic edo makurric utsi bere obretan.

II Gueyago, guertatcen diren gucietan behatcen ez paduçu campoco idurira, eta icusten edo aditcen duçuna consideratcen ez paduçu haraguizco beguiaz, baina beherehala, cer ere ocasionetan nahi den, sartcen baçare Moisez beçala Jaincoaren lecu sainduan sartcen baçare hari

conseillu esque, noizbait ençunen duçu,
Jaincoaren ihardetspena, eta bihurtuco çare
presenteco eta etorquineco gauça hainitzic ikasiric.

Ecen Moysec bethiere laster eguin du
Jaincoaren lecu Saindura ikastea gatic nola
ihardets eguiten ceiscon duden eta galdeen
gainean, eta bethi oracioneaz valiatu da
ere perillen eta guiconen gaintaquerien Contraco
erremedioric aurkitceco

Hala çuc ere lasterca Sartu behar çareçure
bihotzeco guela gordean Jaincoaren helçaquitçaren
ahalic beroquiena escatceco.

Ecen hargatic iracurtcen dugu Gaba onitec
enganatu Citustela Josue propheta eta Israeleco
umeac, ceren Jaincoari Conseillu ezpaitçaiscon
lehen escatu, baina bere etsayen hitz eztcey
cinetste sobera emanez pietate falsoz lilluratu
baitciren.

Hogoy eta hemeretcigarren Capitulua

Eztuela guiçonac eztuela Sobera Kechatu
behar eguitecoetan

I Semea emaçu bethiere çure eguitecoa ene
escuetan, nic ongui errecaitatuco dut bere
demboran

Jgurikoçu ene ordenançari, eta handic Sentituco
duçu probetchu.

Jauna, bihotz onez utsten derausquitçut ene
eguiteco guciac, ceren gogoan dudan antceac

eta arthac guti aitcina deçatque

Ailiotsa çure ontasunac nahi sobera haguitz kecha enendin etorquiçuneco casuac gatic, aitcitic bethi prestic egon nendin çure borondate sainduaren eguitera.

II Semea hainitzetan ~~guicona~~ artha handiz kechu dabilla guiçona desiratcen duen gauçaren ondoan bainan hura ardietsi duenean, hasten da bertce sentimenduric hartcen.

Ecen gauça ber batetaraco afeccioneec eztut iraupe luceric, aitcitic bihotza darabillate batetic bertcera.

Ezta beraz guti, gauça gutienetan ere bere buruari uko eguitea.

III Guiçonaren eguiazco probetchua da bere buruari, uko eguitea, eta puntu hartara etorri denean haguitz da libro eta seguratua

Ordea etsay çaharra, nola prestu gucien contra iarria baita, ezta nihoir ere guelditcen tentatcetic baina gauaz eta egunaz erorgarrizco arteac asmatcen eta hedatcentu ea suertez bere sareetara jraits deçaqueyena bere buruari guardia emaiten eztioena.

Çaudete erne eta othoitz etan, dio gure saluat=çailleac, testamendutan eror çaitesten beldurrez.

Lauhogoy garren Capitulua.

Guiçonac bere buruz eztuela deus onic
eta ecin loria ditequeyela deusez ere.

I Jauna, Cer da guiçona çu hartaz orhoitcecotz?
edo cer da guiçonaren Semea, çuc hura Visitatcecotz?
Cer mereci içan da guiçonac cachari çure gracia
emaitecotz?

Jauna, Certaz arrancura naiteque utsten banauçu?
Cer arraçoin dut çure contra ihardu quitceco
ni escatcen naicena eguiten ezpaduçu?

Segurqui hau pensa deçaquet eta eguiaz erran:
Jauna, ez naiz deus ere, deusic ecin daidet,
eztut neure buruz deus ere onic; baina gucietan
escasten naiz, eta bethi ez deus era eramaiten naiz

Heltcen ezpaçaisquit eta ene barrenean irakasten
ezpaderautaçu, naicen gucia epeltcen naiz eta
flacatcen.

II Ordea çu Jauna, bethi ere orobat çare
Seculacotz çarena çaude, bethi on, iustu eta
Saindu: bethi ongui, iustuqui eta Sainduqui gauça
guciac eguitentutçu, eta çure çuhurciaz ordenatcen.

Baina ni, nola erorcorago bainaiz errazago
bainaiz huts eguiten, aitcinatcen baino, ez nago
bethi estante batean, ceren çarpi dembora
aldatcen dira ene gainean.

Badaric ere placer duçunean, eta çure escu
maitea hedatcen derautaçun beçain Sarri,

hobequi causitcen naiz.

Berdin çu choilqui helçaqui disquet guiçonen arartecotasunic gabe, eta halaco indar eman diaçaquedaçu, non ere becoquia ez paita gueyago hainitz alderataco; eta non ene bihotza çu gana ~~choilqui~~ itculico baita eta çure baitan choilqui pausatuco baitu descansatuco baita.

III Halacotz ongui baneaqui munduco consolacione gucien arbuyatcen, dela devocionearen ardietsteco dela çure bihatceco mengoaz eta beharrez, daquidala eztela nihor consola naçaqueyenic, orduan arraçoinez ahal nuque esperança çure graciaren ardietsteco, eta consolacione berri baten dohainaz bozteco esperança.

IV Esquerrac çuri, Jauna, nola çure ganic heldu baita ongui heldu çaitan gucia

Nitaz beçambatean vanitatea naiz eta ez deusa çure aitcinean, guiçon flacoa eta ecin nagoqueyena naiz.

Nondic bada loria naiteque, eta cergatic guthicia dut estimatua icaiteco? Ene ez deusa gatic othe bainan hau da gauçaric erhoena.

Guertuz loria alferra da, içurri gaixtoa chori burutasunic handiena, apartatcen baigaitu eguiazco loriatic eta ceruco loriaz billusten

Ecen guiconari bere baitan laket çayonean

higointcen çaitçu, hura higoin duçu: eta noiz
ere ahoa çaualduric munduco laudorioen
ondoan baitabilla, eguiazco vertuteez gabetcenda
V Bada eguiazco loria eta bozcariotasun saindua
da çure baitan boztea, ez bere burua baitan
çure icenean atseguin hartcea, ez bere vertutean,
eta creaturetan placeric ez hartcea çure gatic
baicen.

Laudabedi çure icena ez enea laudoriozqui
aippa bedi çure obra, ez enea: benedicabedi
çure icen saindua, eta eztaquidala niri eman
munduco laudorioric bat ere.

Çu çare ene loria, çu ene bihotzeco bozcario=
mendua: çure baitan loriatuco eta bozcariotuco.
naiz egunac diraueino; nitaz beçambatean
eztut atseguinic bilhatuco ene flacotasunetan baicen
VI Juduec bilhabeçate elkarganicaco loria, nic
Jaincoa ganic heldudena choilqui bilhatuco dut
Guiconaren loria gucia, mende hunetaco ohore
guciac, munduco gradu eta estatu handiac çure
seculaco loriarequin comunztaturic eztira
vanaloria eta erhoqueria baicen.

O ene eguia eta ene misericordia. Ene Jaincoa
Trinitate saindua, çuri choilqui laudorio, ohore,
bothere eta loria secula seculoronecotz.

Berrogoy eta batgarren Capitulua.

Demborazco ohore gucien mesprecioaz.

I. Semea, eztaquiçula gaitzi icusten baditutçu berteeac ohoraturic eta goitituric, çu ordea mespreçaturic eta beheitituric

Goitiçaçu bihotza ni gana cerura eta guiçonec çutaz lurrean eguiten duten mesprecioac etçaitçu damutuco

Jauna itsuturic gaude, eta vanitateac laster enganatcen gaitu.

Ongui miratcen badut neure burua, ezta Creaturaric egundaino bidegaberic eguin derautanic eta halatan eztut certaz çure contra arrancurat cerie

II Ordea nola naiz eta handiro ofensatu baitçaitu çucenez creatura guciac armatcen dira ene contra

Hargatic arraçoinez emaiten çait ahalkea eta mesprecioa eguiten, eta çuri dagotçun laudorioa, ohorea, eta loria.

Eta ni hartara iarten ezpanaiz, non gogo onez nahi dudan guciec utsnaçaten mespreçaturic, eta ez deustçat iduqui naçaten, ecin duquet barreneco baqueric eta dagoqueyen bihotzezco fincamenduric ez eta espirituzco arguimenduric ez eta çurequico batasun ossoric.

Berrogoy eta bigarren Capitulua.

Eztela baquea eçarri behar guiconetan

I Semea, çure baquea eçarten baduçu nihor baitan, ustez ceren çure gogaracoa den, edo ceren elkarrequin çabiltçaten, nahasico çare, eta eztuçu Sosegurie içanen

Baldin ordea jhesi baçoaz bethi vici den eta bethi dirauen eguia gana, etçare damutuco çure adisquidea çure ganic apartatua edo hillagatic

Çure adisquideari diaducoçun amorioa ene baitan fincatu behar da, eta nor ere prestu bastaducaçu vicitce hunetan prestu eta haguitz maitatceco bastaduçaçu hura onetsi behar duçu ene gatic

Adisquidetasunac eztu deus valio eta eztu iraunen ni gabe; ezta eguiazco amoriorie ez garbirie, nic hura eguiten ezpadut

Hala behar ducu hilla egon maite ditutçunen afeccionetan, (non çutaz beçambatean) prestic Çaudecun eta desiradeçaçun munduco Compai=niarii gabe vicitcera.

Hambatenaz guicona hurbiltcenago çayo Jaincoari, Cembatenaz, urruntcenago baita lurreco Consolacionetarie

Hambatenaz ere gorago ikaiten da Jaincoa gana Cembatenaz barrenago iautsten baita bere baitara, eta bere burua Chipiago bastaduca.

II Baina norc ere baitio cerbait onic
baduela bere burutaric, trauatcen du Jaincoaren
gracia haren gana ethortcetic, ceren Espiritu
Sainduaren gracia bethi baita bella bihotz
humillaren bilha.

Baldin baceneaqui çure buruaren ossoqui
ez deus eguiten, eta amudio Creatu guciez
hutsten, orduan behar nuque çure baitan
hainitz graciarequin Sartu

Creaturetara behatcen duçunean creatçail=
learan bista eramaiten çaitçu

Ikazaçu gucietan çure buruari garaitcen
Creatçaillearen amorioa gatic, eta orduan
helduco ahal çare Jaincoaren eçagutçara.

Cembat ere chipi baita gauça bat, behar
ez beçala onetsten eta beguiztatcen bada,
guibelatcen du guiçona gucien gaineco ontasunetic
eta arima poçoatcen da

Berrogoy eta hirurgarren Capitulua

Vanaloriazco eta munduco iaquintasunaren
Contra

I Semea, etçaitecila uki guiconenhitz ederrez
eta sotillez, Ceren Jaincoaren erresuma
eztago hitzetan baina vertutean.

Behaçaçu ene hitz etara: iracequitcen dute
bihotza eta arima arguitcen, erakartcen dute
urriquimendua eta hainitz Consolacione emaiten

Ezteçacula seculan hitzic iracur

iaquintsunago edo çuhurrago iduritcea gatic:
bainan ikazaçu vicioen hildumatcen, ceren handic
probetchu gueyago atheraco duçu, baceneaqui baino
hainitz puntu etagalde gaitzi ihardetsten
II Hainitz gauça iracurri eta ikasi duqueçunean
bethi behar da ithurburu batetara bihurtu
Ni naiz guiconari iaquintasuna irakartcen diodana
eta eçagutça clarago humilley emaiten derauedana
nihore bertcec irakaz deçaquen baino.
Nori ere mintço bainatçayo, hura laster
içanen daçuhur eta hainitz probetchu eguinendu
espirituan
Çori gaitza guiconetara dabiltcanentçat hainitz
sotilleciaren ikazten, eta niri seruitçu eguiteco
bideaz achola guti dutenentçat!
Etorrico da dembora non aguertuco baita Jesus
nausien nausia, Anguerven jauna, guciey bere
leccioneac erran eraitceco, erran nahi da
batbederaren conscienciaren miratceco.
Orduan Jerusalemeco soko-moco guciac miratuco
dira arguiac pitzturic, orduan cer ere estaliric
eta gorderic baitcegoen ilhunbetan, aguertuco da
eta hitzen arracoinac ichil duco dira.
III Ni naiz begui keinu batez adimendu humilla
elchatcen dudana, eta seculaco eguiaren gainean
arraçoin gueyago emaiten diot aditcera, nihore
hamar urthez escoletan ibilliz iaquin decaqueyen
baino

Nic irakazten dut hitz açanac gabe batari
eta bertceari cer iduri çayon behatu gabe
ohorezco buruperic gabe eta arraçoinamenduzco
ihardu quimenduric gabe

Nic baiz nic irakazten dut lurreco gaucen
mespreçatcen, presentecoez nardatcen, bethi=
erecoen bilhatcen eta saporatcen, ohoretaric
ihez eguiten, escandualen pairatcen, ene baitan
esperança guciaren eçartcen, nitaz Campoan
deus ez ere ez guthiciatcen, eta gucien gainetic
niri beroqui amorioz itchequiten

IV Urliac niri amorioz lotuz barrenalde
guciez Jaincoaren gauça gordeac ikasi cituen
eta hetaz miragarriz qui minço cen.

Probetchu gueyago eguin cuen gauça gucien
utsteaz sutillen estudiatceaz baino

Ordea batçuey mintço natçaye gauça arunterez
eta bertcey bereciez

Emequi aguertcen ~~ça~~ natçaye batçuey seinaletan
eta figuretan, eta bertcey mysterioac claratcen
derauztet arguidura handi batez

Liburuen hitzcuntça orobat da gucientçat,
eztitu ordea guciac berdinzqui dotrinatcen,

Ceren ni naiz barrenean eguia irakazten
dudana, bihotçat sondatcen, gogoac eçagutcen
obrac aitcinatcen ditudana, eta diren
guciey partitcen derauedana gayac iugeatcen
ditudan arauera.

Hogoy eta hamalaugarren Capitulua

Campoco gaucac ez bereganatceaz.

I Semea, hainitz gauçatan behar duçu iaquingabea egon, eta contu eguin hilla beçala çaudela lurraren gainean, eta mundu gucia çuretçat gurutçatua ric dela dagoela

Behar duçu halaber hainitz gauça iragan beharriac gorturic, eta lehenic gogoeta eguin çure bihotzeco baqueari dagozcanez.

Hobe da beguiac itcultcea desgogarazco gaucetaric, eta batbedera utstea bere sentimenduarequin, ecinez ihardu quitceco hitz etan iartcea.

Ongui baçaude Jainco arequin, eta behatcen baduçu haren iugeamendura, errazquiago pairatuco duçu garaitua içaitea

II O Jauna, nora gare? Huna demborazco calte baten gatic nigarrez iartcen gara, nekatcen gara irauasia appurra gatic nekatcen gara, eta laster gabiltça haren ondoan; bizquitartean calte espirituala ahantsten çaicu, eta nekez beranduan ere, bihurtcen gare gure gana.

Gogoa daducagu probetchu guti baicin, edo batere eztakazqueten gaucen gainean, eta den premiaz coena ansigabez iragaitendugu.

Cerenguicona bihotz guciaz largatcenda campocoetara, eta laster bihurtcen ez pada bere gana hetan gogotic etçaten da gathibaturic.

Berrogoy eta bortzgarren Capitulua

Etçayela guciey cinetste eman behar eta maiz huts eguiten dela hitzetan

I Jauna helçaquisquit ene tribulacionetan, ceren alferric beha nago norc libratu co nauen.

Cembatetan eztut federic edirenfederic uste nuen lecuan? eta cembatetan, adirendut fedea gutien uste nuenean?

Alferric bada esperança emaitenda guiçonetan baina iustuen Saluamendua, çure baitan da, ō ene Jaincoa

Çarela benedicatua, ene Jainco Jauna, guertacen çaisquigun gucietan.

Flaco gara eta ecin gaudezque, laster enganatcen gara eta gambiatcen.

II Non da bere burua: halaco artharequin eta çuhuriarequin beguira deçaqueyenic non eztadin batçutan eror Cembait enganamendutan eta garritan.?

Ordea çure baitan fidatcen dena eta bihotz Simpleaz çure bilha da billana eztu hainerrazqui behaztopatcen

Cembait tribulamendutan erortcen bada, nola ere içanen baita corapillatua, çuc hura laster bai laster atheraco duçu eta Consolatuco, berdin çure baitan esperançatua eztuçu bethicotz utsico.

Adisquide guti da leyalic bere adisquidearen herstura gucietan bethi leyal eta finco dagoenic.

Çu Jauna, çu choilqui çare guçiz leyala incontru gucietan, eta çutaz lekora ezta Çu beçalacoric.

III O cein çuhur cen arima Saindu hura erraiten çuenean: Ene bihotza ene gogoa fincatua eta Cimendatua dago Jesus baitan

Hura beçalacoa baninz, munduco beldurrac enençaque hain errazqui asalda, ez eta hitzen tragacec hala uki. enençaquete hala uki

Norc dacusquique guciac hel baino lehen? Nor beguira daite etorquiçuneco gaitzetaric?

Baldin aitcin jcusiec maiz ere Çaurtcen badute cer eguinen dute ustegabecoec garratzqui iasartciaz bertceric?

Ordea Cergatic nic miseriatsu horrec eztiot hobequi Neure buruari; aitcinetic behatu?

Cergatic ere horrein errazqui Cinetsi tut bertceac?

Baina guiçon gare, eta guiçon erorcorrac bertceric ez, hainitzec ustedutelaric Angueru garela, eta angueru deitcen gaitustelaric.

Nor cinetsico du Jauna? nor çu baicen? Çu çare nihor enganatcen eztuçun, eta ecin engana ditequeyen eguia, caitesqueyen eguia

Bertce alde, nahiz den guiçona gueçurtia da, flacoa, nihon ecin egona, leun eta erorcorra hitz etan behintçat gueyenic; hala non nekez berehala cinetsi behar baitira eguia diruditen gauçac

IV Cein çuhurqui aitcinetic auisatu gaitutçun beguiratu behar dela guiconetaric? Guiçonaren etsayac direla haren etchecoac, eta eztela cinetsi behar nihorc erraiten badu; huna hemen da edo horra non den!

Ene calteac eguin nau iaquinsun, eta Jaincoac ~~nahi dueta hala~~ ailiotsa çure ontasunac nahi hala guertatu licen nic neure buruari hobequi guardia, eta erhoqueriaric ez gueyago eguitea gatic.

Beguiraunçu, dio urliac, beguiraunçu, idukaçu çure baitan nic erran hitza. Eta ni jchil nagoenan, eta cinetsten dudanean haren errana gorderic dagoela, berac ecin estaldeçaque nahi çuen nic estal neçan gauça; aitcitic berehala salhatu nau eta bere burua ere salhatu eta ioan da

Beguiranaçaçu, Jauna, halaco elhetaric, eta çuhur gabeco, guiconetaric beldurrez hequin escuetan eror nadin, eta hec beçalaco hutsic daquidan.

Emadaçu ahoan eguiazco eta cinezco hitza eta eztiaçadaçula uts bi adetaraco mihiric eta bekoraçaçu ene ganic mihi

Bada eta ezpada beguiratu behar naiz pouratu nahi eztudanetic.

V O cein gauça ona eta baquegarria zcoa den bertceez ichil egoitea, guciac orobat ez Cinetitea, eta ençunac arinqui ez Camporatcea, gutiri bere burua aguertcea, çu bihotz jaquile bethi bilhatcea, eta huna horraco hitz haice guciez ez jtçultea; baina bai desiratcea barreneco eta Campoco guciac eguin ditecila çure borondate onaren arauera.

Cein gauça guerthua eta segura den Ceruco graciaren iduquitcecotçat munduco itchurapenari ihez eguitea, ez gulhiciatcea Campotic miragarri diruditen gaucez, baina devocionea berotcen, eta vicitcea oneratcen dutenez artha handiz iarraiquitcea.

VI Cembati Calte eguin dio deraue bere Vertute iaquinac eta lasteregui laudatuac! Cembati probetchu ekarri dio deraue bere gracia gorderic iduquiac vicitce hautscor hunetan, ceintaz erraiten baita, gucia dela tentacione eta guerla! dela!

Laur^h Ogoy eta Seigarren Capitulua

Jaincoa baitaco fidançaz hitzenezco tragaça aurtikien contra

I Semea çaude guiçon gaiça fenko, eta ducun esperança ene baitan

Ecen hitzac cer dira hitzac baicen? Airean dabiltça, bainan eztute harriric çautcen. eztiote ~~direan~~ harriari Calteric eguiten.

Hobenduri baçare, orhoitçaite oneratceco borondate hartceaz

Hobenic eçagutcen ezpaduçu çure baitan orhoitçaite çure Contraco hitztunqueria gogotic pairatu behar duçula Jaincoa gatic.

Guti da çuc hitzac batçutan pairatcea açote bortitzic ecin oraino pairadeçaque çunaz gueroztic

Cergatic hain gauça appurrac iragaiten derautçu bihotza ceren oraino haraguizcoa çaren, eta munduaz^co erranez. behar den baino Contu ~~eguiazco~~ gueyago ~~daducacun~~ ~~baicen~~, ~~mundura~~ eguiten duçun ~~baino~~ baicen.

Ecen nola beldur baitçare mespreça çaitecin eztuçu nahi nihore eracuz diatçatçun çure hutsac eta çure buruaren edegui atheratceco aitçaquien eta desencusen itçalpeac bilhatcen tutçu.

II Ordea mira çaite hobequi, eta eçagatuco
duçu oraino çure baitan vicidela mundua
eta guiçonen gogalguin içaiteco amudio erguela.

Ecen jhesi çoasionean beheitimenduari, eta
çure escasac gatic mereci duçun ahalkedurari,
segur agueri da etça~~udecila~~ rela oraino eguiazqui
~~hilla mundua rentçat~~ humilla, ~~ez~~ eta munduacotz
~~rentçat hi~~ ossoqui hilla, eta mundua çure
bihotzean eztela gurutçatua

Bainan adiçaçu ene hitza, eta eztuçu acholaric
içanen munduco ~~hitzez~~ errancz hamar milla batira ere.

Horra çure contra erran balitez ~~mahui~~
gaixtaqueriaric handienaz asma eta pensa
ditesqueyen guciac cer calte eguin liaçaquecuti
uts bacenetça iragaitera, eta fitzqueria bat baino
gueyago ezpacen edutça? Jlle izpi huts bat
athera othe liaçaqueçute burutic?

III Ala baina bere bihotzean barrena eztagoena
eta Jaincoa beguien aitcinean eztaducana
errazqui asaldatcen da bere hutsen contraco
hitzic erraiten çayonean.

Contrara ene baitan fidatcen dena, eta bere
buruco çuhurciaren gainean thematceco edo eta
nauaruentceco guthiciaric eztuena, ezta
munduaren beldur içanen.

Ceren ni naiz iugea eta sequeretu gucien
iaquitea eçagutlea: Nic daquit nola eguin den

equitecoa: nic eçagutcentut bidegabeguillea eta bidegabeztatua.

Hitz hori ilki da ene ganic, nic equitera utsiric hori guertatcen da hainitz bihotzetaco gogoeta aguer ditecin gatic.

Nic hobenduria eta hobengabea iugeatucoitut bainan arraçoin estali batez nahi içan dut bata eta bertcea lehenic frogatu.

IV Guiconen lecucotasunac hainitz etan enga=natcendu, bainan ene iugeamendua bethi da eguia, bethi iraunendu, eta nihore eztu hura gueçurtatuco

Hainitz etan gorderic dago, eta nihore gutic hura eçagutcen du bere parte gucietan: halaric ezta nihoiz errebelatcen, eta ecin errebela diteque, batçutan cuhurgabeen beguiey iduri çayelaric eztela chuchena.

Ni gana beraz etorri behar da iugeatuco diren gauça gucietan, eta ezta bere ustearen gainean permatu behar.

Ecen cer ere iustuari guertatuco baitçayo Jaincoa ganic, ezta hargatic aldaratuco, eta çucen ezten gauçaric haren contra errana gatic eztu ansia hainitz içanen.

Ezta ere loriatuco bertceac haren alde iarriac gatic haren arraçoinaren valia aracitceco: Ecen orhoitcen da nic miratcen ditudala bihotzac eta barrenaldeac sondatcen ditudala, eta eztudala iugeatcen nihoren beguitartearen edo munduco iduriaren arauera eredura

Ceren guiçonen iugeamendura laudatceco den gauça. hainitz etan ene beguietan da bayatcecoa

V Ene Jainco Jauna, Juge iustua betherez ~~tsua~~ eta pacienciaz bethea, guiconen erorcortasuna eta gaixtarasuna eçagutcen duçuna Çarela çu ene indarra eta fidança gucia, ceren ene Consciencia eztut etçait asqui.

Çuc daquiçu nic eztaquidana, eta hargatic ene hutsac eracusi içan Çaisquidancan behar içan dut humil iarri eta emequi pairatu.

Ene iuge emea arren barkadiaçadaçu humil eta manso egon enaicen ordu guciac gatic, eta indaçu berriz ere gracia bertce aldi batez gueyagoric pairatceco

Ceren çure neurrigabeco misericordia hobe çait barkamenduaren ardietsteco, ecen ez nic neure ustez dudan iustutasuna eta hobengabetasuna ene Consciencian estadiric

dauntçan hutsen defendatceco eder qui atheratceco.

Eta hobenic sentitcen eztudalaric neure baitan, guciarequin ere ecin derraquet iustu naicela; ceren çure misericordia Camporaric, ezta vicien artean iustu aurkituco denic Çure beguien aitcinean.

Berrogoy eta çazpigarren Capitulua

Gaitz guciac pairatu behar direla Seculaco Vicitcea gatic.

I Semea, ene gatic hartu ditut çun travailluac etçaitçatela hauts, eta tribulacioneac etçaitçatela alde guciz beherrera egoitz: bainan ene promeçac azcar, bortitz eta consola çaitçala heldu çaitsquitçun gucietan.

Asqui naiz Çure Saristatceco neurri mucuruz eta nahiz beçala baino gueyago.

Etçare dembora handiz hemen nekatuco, ez eta bethiere dolorez cargatuco.

Igurikaçu apput bat, eta Sarri icusico duçu ~~da~~çure gaitzen finamendua.

Etorrico da orena non travailluac eta auarrotsa gueldituco baitira

Appurra eta laburra da demborarequin iragaiten den gucia

II Eguiçu eguiten duçuna, hari çaste fidelqui ene mahaztian, ni içanen naiz çure saria

Esquiribaçaçu, iracur, canta çaude hatsberapenez, ichilic othoitzez, contraco guciac pairatçatçu guiçon guiza seculaco viciac valio itu gudu hec guciac eta handiagoric ere

Jaincoac daquien egunean etorrico da baquea eta egun hura ezta içanen mende hunetaco ez eguna, ez gaua, baina bai bethico eta fingabeco arguia, baque fermua eta sosegu segura.

Orduan eztuçu erranen; nori libratuco nau gorputz hil beharrezco hunetaric? Eztuçu oyuz erranen: Ha cerda nitaz, ene hemen egoiteco eppea luçatu basta.

Ceren herioa iraitsico da jlhunbetara saluamendua jcanen da ecin ahituzcoa, ~~saluam~~ ezta grinaric bat ere içanen baina bai allegriança doatsua, biltçarre arraya, compainia amolsua

III O ceruen icusi bacinitu sainduen koro ederrac, cein loria handiz orai goçatcen diren lehen munduco iduriz mespreçatcecoac eta casic vicitcea mereci etcuten hec berac!

Guerthuz humil eta apal cindesque lurreraino etalehen hauta ceneçaque gucien azpian iartcea, ecen ez baten ere gainean escu

içaitea, et cindesque guthicia vicitce hunetaco egun ederrez; aitcitic laket lequidiqueçu Jaincoa gatic pairatcea, eta irauasia ~~handia licaitqueçu~~ guciz handitan har ceneçaque guiçonen artean ez deustçat condatua icaitea.

IV O Baldin gauça horiocçure gustura balire eta Çure bihotzean barrena iragan balitez, nolatan ausart cindesque behin ere arrancuratcen

Nekagarri guciac ezothe dira pairatcecoac Seculaco vicia gatic?

Ezta gutia Jaincoaren erresumaren galtcea edo irauastea.

Alcha bada beguiac cerura. Huna ni eta ene Saindu guciac enequin: hainitz gudu eta handiac içantuste munduan, orai bozcariotcen dira eta Consolatcen, orai Segurean eta Soseguan daude, eta Seculacotz enequin egonen dira ene aitaren erresuman.

Berrogoyeta Çortcigarren Capitulua.

Seculaco egunaren edertasunaz eta vicitce hunetaco hersturez

I O gaineco hirico egoitzaren doatsua! O Seculaco egunaren arguia, gauac ilhuntcen eztuena, baina gucien gaineco eguiac bethi bere argui izpiez alde gucietaric inguratcen duena!

Egun bethi arraya, bethi segura, eta nihoiz ere bertcetara aldatcen gambiatcen eztena!

Ailitçaicu egun hura ilki! aitute hemengo gauça guciec fin hartu!

Eguia da argui eguiten derauela Sainduey arduraco distiagarridura batez; baina lurreco Sainduraleec eztute hura icusten urruititic eta miraillean baicen.

II Badaquite ceruco burgez ec cein alleguera den hango egoitza; bainan Euaren ume disterratuac hats beherapenez daude icusteaz Cein Kiratz çamin eta unhagarri den hemengoa

Vicitce hunetaco egunac laburrac dire eta gaitzac dolorez eta hersturez betheac: hemen hainitz bekatuc liçuntcen dute guiçona, hainitz passionec corapillatcen, hainitz beldurrec hersten, hainitz ansiac eta grinac barrayatcen, ~~hainitz falseriac eta enganamendu inguratcen~~, hainitz curios=tasunec erabiltcen, hainitz vanaloriac amarratcen, hainitz enganamenduc eta falseriac inguratcen hainitz neke-travailluc porrocatcen, tentamenduc cargatcen, placerec malgutcen eta flacatcen pobreciac tristetcen eta laceriatcen.

III O noiz etorrico da gaitz horien finamendua? Noiz libratuco Naiz vicioen gathibutasun ondicozco hunetaric? Noiz, Jauna, çutaz

choilqui orhoituco naiz? Noiz neure bethean
boztuco naiz çure baitan? Noiz içanen naiz
eguiazco libertatean traburic gabe, gorputzeco
eta arimaco garriric gabe?

Noiz içanen dut baque Compli hura, baque
Seguratua, eta ecin aldaratuzcoa hautsizcoa, barreneco eta
Campoco baquea, baque aldegucietaric fincatua?
Jesus ona! noiz aguertuco naiz çure aitcinera
çure icusteco? Noiz miratuco dut çure
erresumaco loria? Noiz içanen çaizquit gauça
guciac gauça gucietan?

O noiz Çurequin icanen naiz çure maitey
egundainoz guerostic preparatu deraueçun
erresuman!

Gueldita naiz pobreric eta desterraturic etsayen
lurrean, non ez paita egunorozco guerlaric
eta incontru gaixtoric baicen.

IV Arren Consolanaçaçu ene desterruan
emaçaçu ene dolorea, ceren ene bihotz gucia
hatsbeherapenez dagotçu, eta cer ere consolagarri
munduac hemen eskaintcen baiteraut, hura
gucia Carga çait.

Badut desira çutaz ene baitan barrena
goçatceco, bainan ecin lot naquidiqueçu.

Guthicia handia dut ceruco gaucey itchequitceco
baina munducoac eta hildu gabeco passioneec
beheiti egoitzten naute

Nahi dut gogoz eta arimaz ikan gauça
gucien gainera, bainan haraguiac bortchatcen
nau hequin azpian iartcen nahi eztudalarie
Hala ni ondicozco hori guduan ca hari naiz neure
burruarequin, eta neroni eguin naiz neure
unhagarri; nahi baitu espirituac ikan goiti
eta haraguiac behereanegon
V. O cer pairatcen dudan ene baitan noiz ere
ceruco gauçac gogoan darabiltçadanean, haraguizco
gogoetac berehala tropelaca heldu baitçaisquit
othoitz etan Nagoela!
Ene Jaincoa, etçaitecila urrun hastan eneganic
etçaitecila coleraturic itcul cure Seruitçaria ganic
Aurtikiçaçu çure cizmixtetaric bat ene bihotz era
eta hedoy goibel hec barrayatçatçu. Dardatçatçu
çure tragaçac, eta haiça bitez etsayaren gogoramendu
gogoragarri guciac.
Biletçatçu ene Sensuac gorputzeco eta arimaco
ahalac çure gana; ahants diatçaquidatçu munduan
diren guciac, indaçu indarra vicioen itchurapenen
orhoitçapenen egoitzteco eta mespreçatceco.
O egundainoco eguia helçaquisquit, beldurrez
vanitateac eraman naçan. Çatosquit, ceruco
eztitasuna, eta liçunqueria gucia bihoa jhesi
çure aitcinetic
Barkadiaçadaçu halaber çure misericordia

noiz ere oracionean çutaz bertceric baitarabillat gogoan: eguiaz aithortcen baitut haguitz ohitua naicela gogoz barrayatcen eta errebelatcen.

Hainitz etan ez nago ene gorputza chutic edo iarriric dagoen. lecuan: aitcitic noraneure gogoetec bainaramate, han naiz gueyenic Non baita ene gogoa, han naiz, eta ene gogoa maiz da maite dudan gauça den lecuan. Certan ere naturaleçaz edo usançaz laket baitut, huralaster heldu çait burura

VI. Hargatic Cuc, ô eguia bera çarena, agueri erran duçu; non ere baita Çure tresora, han da çure bihotza

Cerua maite badut, ceruco gauçac placer qui darabiltçat gogoan

Mundua maite badut allegueratcen naiz munduco çori onaz eta gaitzar tristetcen.

Haraguia maite badut, haraguizco placerac gogoratcen çaisquit

Espiritua maite badut, atsequin hartcen dut gauça espiritualetan pensatceaz.

Hitz batez, Cer ere maite baitut, hartaz gogotic minço naiz eta bozten ere minçatcen aditceaz, bai eta maite ditudan gaucen figurac eta iduriac enequin daramatçat etchera.

Ala baina ~~Jauna cur~~ doatsu da, Jauna çure gatic creatura guciac bere ganic igortcen dituen guiçona, eta naturaleçari borcha eguinic haraguiaren guthiciac espirituco beroduraz gurutçatcen dituena arren consciencia Calmaturic oracione ~~garbi~~ garbiric ofrenda diaçacun, eta lurreco gauçat campotic eta barrenetic etchaturic Anguerven biltçarrean Sartceco gay guertha dadintçat gatic.

Berrogoyeta bederatcigarren Capitulua

Seculaco viciaren desiraz, eta cein handi diren harengatic guduan hari direney aguinduricaco ontasunac

1 Semea, noiz ere Sentitcen baituçu Seculaco doatsutasunaren çure baitara gainetic isurtcen dela, eta gorputzeco hersteguitic ilkiteco guthicia baituçu ene arguia eta loria aitcin ondoco jtçalaic gabe icus deçaqueçuntçat çaualeçaçu bihotza eta hareçaçu inspiracione Saindu hura affeccione osso batez

Emoitçu gaineco ontasunari ahalic esquer handienoc, ceren horrela çurequin hari den beguitartetsuqui visitatcen, çaituen, beroqui atçartcen, botheretsuqui alchatcen, beldurrez çure pisuz lurreco gauceta ra eror çaitecin.

Ecen inspiracione Saindu hura etçaitçu
heldu çure burutic, asmutic edo enseyutic
baina choilqui gaineco graciatic eta Jaincoac
eguiten derautçun beguitartetic, vertutetan
aitcina çaitecin, humiltasun handiagoan
iar çaitecin, etorquicuneco guduetara
prepara çaitecin, niri çure behotz ossoz
itchequi diaçadacun, eta ene seruitcatcera
borondate bero batez enseya çaitecin gatic
II Semea, hainitz etan suac erretcen du
baina karra eztoa goitt kea gabe
Halaber batçuen desirac ceruco gaucetara
eramaiten dira, eta guciarequin ere eztira
libratuac haraguizco passionearen tentamendutic
Hargatic Jaincoari hain beroqui dagoscan
hura bera eztute hutsic eta garbiqui eguiten heren
ohoretan
Halacoa da hainitz etan çure desira, ceina
gatic erran baituçu hambat kechatuco nenduçula
Ecen ezta garbia eta complia, ni hore bere
beharrez eguiten duen seruitçua
III Escaçaite ez curi atseguin eta probetchu
ekartcen derautçuna, baina niri placer eta
ohore eguiten derautana: ceren çucenqui
iugeatcen baduçu, iarraiqui behar çaisco ene
ordenançari, eta hartaz contu gueyago.
eguin behar duçu çure desiraz eta.

~~cuc~~. desiratuez baino

Eçaguteen dut çure desira, eta çure hats beherapen uçuac encuntut.

Nahi cenduque iadanic Jaincoaren umeen ~~eguiazco~~ loriaco libertatean bacinunde iadanic Seculaco palacioac eta ceruco herri bozcarioz. betheac allegueratcen çaitu, ordea orenhura ezta oraino etorri: bertce dembora da oraino, erran nahi da, guerla dembora, travaillatceco, escuey eraguiteco eta frogatceco dembora da.

Baduçu desira gucien gaineco ontasunaz. bethequi goçatceco; bainan hura ecin orai ardiets deçaquecu

Ni naiz ontasun hura, dio Jaunac, iguriki diaçadaçu Jaincoaren erresuma datorren artean

IV Frogatu behar çare oraino lurrean eta hainitz gauçatan erabilli

Batçutan icanen duçu Consolacione, baina Satiamendu ossorie etçaitçu emanen.

Indarstaçaite beraz eta bortitz naturale çac ~~contraco gaucen~~ nahi estituen gaucen eguitera eta pairatcera ere.

Jauntsi behar duçu guiçon berria bat eta bertce batetara gambiatu aldatu behar çare

Hainitzetan eguin behar duçu nahi eztuçuna eta nahi ducuna utsi

Bertcec ~~on eta odor~~ placer dutena aitcinatuco da, eta çuc placer duçuna guibelatuco.

Bertceen erranac ençunen dira, çuc erraiten duçunaz ezta Conturic içanen.

Escatuco dire bertceac eta emanen çaye, çu escatuco çare, eta eztuçu deus ardietsico

V Bertceac içanen dira handi guiçonen ahotan, eta çutaz ezta hitzic erranen

Bertcey hainitz emplegu eta eguiteco fidatu çaye, eta çu etçare deusetara gay iduritue

Hargatic batçutan naturaleça tristatuco da eta hainitz eguinen duçu hitzic errangabe pairatcen baduçu

Jaincoaren seruitçari fidela frogatcen ohi da gauca hautan eta hauc beçala coetan icustea gatic nola eguin dioçoqueon bere buruari uko, eta nola bere borondatea hautsdeçaquen.

Nekez aurkituco da gauçaric Certan hambat premia duçun çure buruari hiltuco nola baita çure nahiaren contraco gauçac icustea eta pairatcea: beregainqui ordea mana çaitecinean arraçoin gabeco eta probetchu gutiagoco iduritcen çaitçun gauçaric eguitera

Eta ceren bertceren escuaren azpian iarriz guerostic ecin ausart baitçaitesque çure nausiari buru eguitera hargatic iduri dagotçu gogor dela bertceren borondateari iarraiquitcea çure buruco sentimendua utsiric

VI Ordea, maitea, gogoan idukaçu
hain bertce neke-trauailluren fruitua,
orhoitçaite laster ioaiten direla, eta haquin
saria neurri gabecoa dela, eta ezterautçutt
garriric emanen, aitcitic Consolacione
handi bat atheraco duçu çure pairutic.

Ecen orai hemen gogo onez utsten
duçun borondate appur hura gatic, ceruan
içanen duçu çure borondatea Seculacotz
Compliturric

Han ~~içanen~~ edirenen duçu nahi duçun eta desira
deçaqueçun gucia. Han icanen duçu
escuetan nahiz diren ontasunen franquia,
galtceco beldurric gabe

Han çure borondateac, enearequin bat
eguinic, eztu desiratuco Campoco gauçaric
ez eta deus ere beretçat bereciric.

Han ezta nihor çure Contraiarrico,
nihor çutaz arrancuratuco, nihore
etçaitu trauatuco, nihori ezterautçu
bidea hersico: baina desiratuco ditutçun
guciac batetan içanen tutçu beguien
aitcinean eta escuetan, eta çure gogoa
aseco dute eta gaineraino betheco

Han ohore emanen derautçut pairatu
duqueçun laidoa gatic, laudoriozco mantua
hartu duçun tristura gatic, eta Seculaco

cadira ene erresuman, Ceren hemen
azquen lecuan iarriçaren.

Han aguerico da obedienciaren fruitua
boztuco da penitenciaren tauaillua, eta
loriozqui Koroatuco da azpicotasun humilla
VII Orai beraz iarçaite humilqui gucien
meneco, eta eztuçula acholaric nore hori
erran edo manatu duen.

Baina Nausiac, edoçu baino gasteagoac
edoçure adinecoac Cerbait nahi badu
çure ganic edo manatcen baçaitu, duçun
artha handia den gucia onera hartceaz
eta eguiçu Çure ahala hare nahiaren
borondatt garbi batez Complitceco.

Bilha beça batac gauça bat, bertceac
bertcea, loria bedi bata hunetan bertcea
hortan, lauda bedi millatan eta millatan
Çuc hareçaçu atseguin ez batean, ez
bertcean, baina çure buruaren mesprecioan
ene borondatean eta ohorean.

Desiratceco duçun gucia da, dela vician
dela hillean, bethi çure baitan Jaincoari
loria eman daquion

Berrogoy eta hamargarren Capitulua

Nola guicon desconsolatuac behar duen bere burua Jaincoaren escuetara ofrendatu

I Ene Jainco Jauna, aita guciz Saindua çarela orai eta bethierecotz benedicatua, ceren enequin eguin den nahi duçun beçala, eta ceren eguiten duçun gucia ona den.

Alleguera bedi cure seruitçaria çure baitan, ez bere baitan, ez eta nihor bertceren baitan.

Ecen çu choilqui, Jauna eguiazco allegriança çare, çu ene esperança eta koroa, ene bozcarioa eta ohorea

Cer duçure seruitçariac çure ganic hartu duenaz bertceric, hala ere mercei gaberic?

Cureac dire eman eta eguin ditutçun guciac

Pobre beharra naiz eta neketan nago ene gaste danic: batçutan tristetcen ~~naiz~~ da ene arima nigarretaraino, batçutan ere nahasten da bere baitan hura acometatcen duten passioneac gatic.

II Nic desiratcen dut baquearen allegriança
Consolacioneco arguian bascatcen ditutçun
Çure umeen baquearen esque nago
Baquea emaiten ~~baderautaçu~~ eta allegriança
Saindua isurtcen baderautçu çure Seruitça=
riaren arima betheco da canta eztiz
eta Cure laudoriotan iarrico da.
Ordea apartatcen baçare haimitz etan
eguiten çaren beçala, ecin ibillico da lasterca
Çure manamenduen bidean: baina iarrico da
belhaunico bere bulharrari erautsteco
Ceren eztagoen atço eta herenegun beçala
non Çure arguiac arguitcen baitçuen haren
gainean, eta non Çure hegaten itçalaren
azpian beguiratcen baitcen oldartcen Çaiscon
tentamenduetaric
III Aita iustua eta ~~Saindua~~ bethi laudatcecoa
etorri da orena Çure Seruitçariaren frogatceco
Aita maitatcecoa, arraçoin da Çure
Seruitçariac, Cerbait orai paira deçan Çure
amorioa gatic
Aita Seculacotz ohoratcecoa, etorri da
~~orena~~ egundainotic etorteco cela ceneaquien
orena, non Çure Seruitçaria dembora
gutitaco Campotic Çapatuco baita, non ordea
barrenean bethi vicico baita
Çure beguietan
Appur bat mespreça bedi, humil, beheiti

eta flaca bedi guiçonen aitcinean,
porroca bedi ~~passionez~~ pairuz eta langui=
adurez, berriz ere çurequin argui
berriaren beguian pitz dadin eta ceruan
loriaz goça dadin gatic.

Aita Saindua hala ordenatu duçu, eta
hala nahi içan duçu, eta cer ere manatu
baituçu hura eguin da.

IV Ecen maite duçun ari eguiten dioçun
gracia, hau da, paira deçala mundu hunetan
çure amorioa gatic, noiz ere eta noren
ere ganic hura utsten baituçu pairatcera

Ezta lurrean deus eguiten çure conseillua
gabe, çuc aitcinetic icusi gabe, ez eta
arraçoin gabequi

Jauna, on da enetçat ceren humil du
nauçun jarren çure leguеac ikaz detçadan
bihotzeco burfidiadurac alchaourac eta Soberaniazco
burapeac egoits detçadan gatic.

Probetchu dut ceren ahalkeac estali
derautan becoquia, arren ene Consolatceco
lehençure bilha noan ecen ez guiconen

Handic ere ikasi dut çure ecin Sonda=
tuzco iugeamenduen beldur içaiten
beldurtcen, icusiric ~~iustua~~ gaixtoa
beçala iustua ere penatcen duçula ez
çucen ~~g~~ eta arraçoin gabe

V Esquerrac, Jauna, ceren ezterausqui=
datçun ene gaixtaqueriac barkatu, eta
sensatu nauçun açote garratz ez, dolore
colpeca iasarriz, eta hersturez inguratuz
campotic eta barrenetic.

Ezta ceruaren azpian consolaneçanic queyenic
çu baicen, ene Jainco Jauna, arimen ceruco
midicua: çuc çaurtcen baituçu eta sendatcen
Jfernuetaraino eramaiten eta atheratcen

Bego çure gastigamenduc ene gainean, eta
çure açoteac dotrinatuco eta çuhurtuco nau

VI Huna, aita maitea, cure escuetan naiz
kurtcen naiz çure cigorraren azpian,
eraunts diaçadaçu biscarretic eta lepotic
ene makurtasuna cure borondatearen ~~arauera~~ eredura
chuchen deçadantçat.

Eguin naçaçu discipulu humil eta devocionetsu
eguiten ohi duçun beçala, çure keinu
gucietara prestic ibil nadintçat.

Neure burua eta neure ditudan guciac
utsten derausquitçut chuchentcera, hobe da
mende hunetan sensa nadin, ecenez bertcean

Badaquisquitçu diren guciac batetan eta
cheheroqui, eta guiçonaren consciencian ezta
deus ere çure beguietaric estaliric.

Badacusquitçu etorquiçunecoac eguin
ditecin baino lehen eta eztuçu mengoaric
nihori irakaz diaçaçun edo ~~auiso~~ orhoit çaitçan
lurrean eguiten direnez

Badaçaguçu cer den hoberenic ene aitcimanenduco, eta Cembat valio duen tribulacioneac vicioen herdoil duraren garbitceco.

Eguiçu ene baitan çure placer onac desiratcen duen gucia, eta beguiac eztetçatçula itçul ene Vicitce bekatutfutic: ez paitu nihori hura çuc baino hobequi eta clarquiago eçagutcen.

VII Eguiçu Jauna, iaquin deçadan iaquin behar dena, onets deçadan onetsi behar dena, lauda deçadan cure go garenic dena presca decadan preçatceco çaitcuna, puxta deçadan çure beguien aitcinean licun eta itsusi dena

Enaçaçula uts campoco beguien icustearen arauera iugeatcera, ez eta sentencia emaitera guiçon frogatu gabeen aditcearen arauera aitcitic indaçu gracia eguiazco iugeamendu batez icusten diren gaucen ecagutceco eta beresteco espiritualen artetic, eta gucien gainetic çure placer onaren Corondatearen gauaz eta egunaz bilhatceco.

VIII Hainitz etan enganatcen dire guiçonen sensuac iugeamendu emaitean, enganatcen dire halaber mundu saleac, icusten direnac Choilqui maitatuz.

Certaz da guiçona hobe, bertceec hura handi iduquia gatic

Enganà~~tcaillac~~riac enganà~~tcaillca~~ria ~~vanoaz~~
erguelac erguela, itsuac itsua, eriac eria,
enganatcendu batac bertcea laudatuz,
eta eguiaz ahalke gueyago eguitendio.
hari ~~van~~ mereci eztuen laudorioric emaiteaz nez

Ceren San Franciz humillac dioen beçala
Çure beguien aitcinean garena gare eta
ez gueyago.

Berrogoy eta hameçagarren Capitulua

Obra humilletan iarri behar dela
ecinez handien etan ecinez

I Semea, ecin çaudesque bethi vertu=
tearen desir beroan, eta meditacioneco
graduric gorenean: bainan ethorquizco
bekatuaren cutsua gatic premia duçu
batçutan beherecoetara iautsteco, eta
vicitce galcor hunen cargaren iasaiteco
nahi eztuçularic eta hartaz unhatua
Çarelaric

Gorputz hilquiçuna darabillacuino, bihotzean
icanen duçu grina eta min.

Beharduçu beraz haraguian Çareino
haraguiaren pisuaz arrancuratu, Ceren
arduraqui ecin çaudesquen Ceruco gaucen
estudiatcen eta miratcen.

II On da lot çaquisten orduan obra humilley
eta compocoey, la onetan Çure burua
arin deçaçun, fidança fermu bategun.

beguira çaudecin noiz etorrico naicen
~~eta~~ gainetic çure visita eguitera paciencia
har deçaçun çure desterrua, eta gogoaren
idortasuna, nic berriz beha diaçaçudan
eta grina gucietaric libra çaitçadan
artean.

Ceren hala eguinen dut non ahantsico
baitcaisquitçu çurepenac, eta goçatuco
baitçare barreneco baque sail batez
goçatuco baitçare.

Çure aitcinean hedatuco itut Esquiritura
sainduen errepiradi ederrac, arren
bihotza çaualduric lasterca auia çaitecin
ene manamenduen bidean.

Orduan erranen duçu, vicitce hunitaco
pairuac eztirela Comparatcecoac gure
baitan aguertuco den ethorquiçuneco
loriarequin.

Berrogoy eta hamabigarren Capitulua

Guiçonac eztuela Uste behar mereci
duela Consolacioneric gastiguric
eta acoteric baicen

I Jauna, eztut Çure Consolacioneric
ez eta Ceruco visitaric mereci; hargatic
çucenqui enequin hari Çare utsten
nauçunean pobreric eta desterratuac

Ecen itsasoac ur chort ~~den~~ daducan Serratcen beçambat nigar isur ahal baneça, enuque nintçaque hala ere gay mereci Consola mençaçun

Hargatic eztut mereci açoteaz eta gastiguaz bertceric, Ceren hainitzetan ofensatu baitçaitut, eta hainitz moldez eta oldez eguin baitut bekatu; beraz Contuaceguinic eta eguiazco arraçoinac pisaturic, eztut den Consolacioneric arinena mereci.

Ordea çu, ô Jainco bihotz bera eta urricalsua Çure obretaric bat ere ~~galtera~~ galtcera nahi eztucuna Çure ontasunaren aberatstasunac eracuztea gatic misericordiaren beharra dutenen gainean, mereciric bat ere bere buruz eztutelaric, Consolatu nahi nauçu niçure Seruitçari hori nihori ecin eguin naçaqueyen maneraz

Ecen çure Consolacioneac eztira guiçonen elkarrequico solhasac beçalacoac

II Cer eguin dut, Jauna, çuc niri ceruco Consolacioneric emaitecotz.

Enaiz orhoit deus onic eguin dudala, baina baj bethi ~~viciactara~~ gaixtaqueriata lixturtua eta oneratcera naqui ican naicela.

Eguia da eta ecin uka deçaquet. Bertcela erran baneça, iar Cindesque ene Contra, eta eliçate ene alde minço litequeyenic

Cer mereci dut ene bekatuac ganic
Ifernuaz ~~suac~~ eta Seculaco Suaz bertceric?
Eguiaz aitortcendut den trufamenduric
laidoric eta mesprecioric handiena mereci
dudala eta ezta gotala Çure Seruitçari deuoten
Contutan Sartcea.
Eta hori damurequin ençuten dudalaric
badaric ere eguiaren amorioz, nahi naiz
~~nerorrec~~ nerori acusatu eguin ditudan
bekatuez, arren Çure misericordia erraz=
quiago ardiets deçaquedan.
III Cer erranen dut nic hobenduri eta
ahalke guciez bethehorrec?
Ahoric eztut hitzic erraiteco, hunen baicen
bekatu eguin dut, Jauna, bekatu eguin dut:
urrical naquiçula, barka diaçadaçu utsnaçaçu
appur bat ene dolorearen plainatcera, lur
ithunera, lur herioco ~~beltu~~ beltzturaz
estali hartara noan baino lehen.
Cer nahi duçu gueyago hobenduria eta
bekatore esteyarra ganic, lekat bere
bekatuac gatic bere bihotza urriquimenduz duraz
porroca deçan eta humil dadin baicen?
Eguiazco urriquimenduan, eta bihotzeco
humiltasunean iayotcen da barkaci noaren
esperança, Consciencia asaldatua.

Sosegatcen da, gracia galdua
bihurtcenda, guiçona beguiratcenda etorqui=
çuneco iugearen Coleraren Contra, eta ~~muçu~~
~~Saindu bateguin~~ elKarri ilKiltcen, çaisco muçu
Saindu bat emaitera Jaincoa eta arima penitenta
IV Jauna, bekatuez urriquitce humilla da
Çure gogaraco Sacrificioa, Cure aitcinean usain
hobeago emaiten duena incensuaren Keac baino.
Bai eta urriquimendua da unguento on hura
nahi içan duçuna isur ledin Çure oin Sacratuetara
Ceren bihotz damuz porrocatua eta humildua
eztuçu egundaino arbuiatu.
Handa ihes lecua etsayaren beguietaric: han
chuchentcen eta garbitcen da, Cerere bertcenaz.
eta nondic nahi makurtu eta liçundu baitcen.
Berrogoy eta hamahirurgarren Capitulua
Jaincoaren gracia eztela balsatcen
gogoa lurreco gaucetan daducatenequin

I Semea, ene gracia preciosa da, eztu nahi
balsatu Campoco gaucetan er eta lurreco Conso=
lacionetan.
Behan ditutçu beraz graciari bidea hersten
dioten guciac Kendu Çure ganic, nahi baduçu
isur dadin Çure ariman barrena
Bilhaçaçu lecu gorde bat çuretçat: laket
beguiçu Cure buruarequin bakar ric egoitea

Etçabiltçala nihorequin solhas eguiten;
bainan eguioçu Jaincoari othoitz devotu
çure bihotza urriquimendutsu eta Consci=
encia garbi iduquiteco.

Eztaguiçula munduaz Conturic Cembatere
handia baita.

Preçaçaçu Jaincoari behatcen dioten ~~gaucet~~
gaucetan estudiatcea eta egoitea Campoco ibilte
guciac baino.

Ceren ecinbat da niri itchequi diaçadaçun
eta bertan iragaiten diren placerey çairaisten.

Urrundu behar çare çure eçagunetaric
eta adisquidetaric, eta munduco Consolacione
guciac edequi behar diotçatçu çure espirituari.

Hau da Jondoni Petri Apostolu doatsuac
eguiten duen othoitza. ~~Guiristino~~ Jesusen
adisquide fidelac mundu hunetan egon ditecin
Campoco eta Saindurale beçala munduco
guthicietaric apartaturic.

II O Cein fidança handi jçanen duen hiltceracoan
nori ere mundu hunetan deusi ezpaitatcheco
afeccionez.

Baina espiritu eriac eztaqui oraino Cer den
bihotza horrela iduquitea gucietaric apartaturic
eta sensuetara emanicaco guiçonac eztu guiçon
barrenecoaren libertatea ~~eeg~~ eçagutcen.

Halaric ere nahi badu eguiazqui espiritual
içan, uko eguin behar deraue hala hurbil
nola urrun diren guciey; eta nihoren ere
ganic ezta gueyago beguiratu behar burua-
ganic baino.

Ceroni cure buruari ossoqui garaitcen baçaisco
bertce gaineracoac errazquiago azpiraco tutçu

Garaitiric handiena da bere buruaren jaun
eta erregue cartcea.

Ecen norc ere bere burua baitaduca bere azpico.
eta meneco, hala non guthiciac amor eguin
dioçon arraçoinari eta arraçoinac Jaincoa
gucietan obedi deçan, hura eguiazqui da bere
buruaren nausi eta munduco jaun

III Baldin perfeccioneco gradu hunetara heltceco
desiric baduçu, bihotz handiz hasi behar, çare
eta aizcora errora eman behar duçu, Cure
burua gana eta ontasun particular eta materiazco
gucietara ditutçun inclinacione gordeen estalien
eta desordenatuen euaquitceco eta atheratceco

Ceren guiçonac sobera desordenatuqui bere burua
maite baitu, handic sortcen da eta han dago
errotic athera behar den gucia hurren eta
halaco gaitzari garaituz guero, berehala baque
eta calma handia eguinen da.

Ordea Ceren gutiac ~~hari~~ enseyatcen bastira bere
buruari hiltcera eta ezpastire bere ganic

campora ~~auiatcen~~ ossoqui ilkiten, hargatic
bere baitan Corapillatuac daude, eta espirituz
arimaz ecin aleha ditesque berac baino gorago.

Baina norc ere desira baitu enequin
treuequi ibilteco behar ditu bere afeccione
gainto eta desordenatu guciac hildumatu
~~gainto~~ eta nahiz den Creaturari amudio particular
batez lotceco ahal luqueyen guthicia euaqui
behar du eta iraïtzi

Berrogoy eta hamalaugarren Capitulua

Naturaleça bertcela eta gracia
bertcela hari direla

I Semea behaçaçu ernequi nola hari diren
naturaleça eta gracia, ceren Choil Sotilqui
hari dira bata hunela eta bertcea horrela,
eta nekez nihorc eçagut, decaque bata
bertcetic, guciz espiritual eta bere baitan
arguitua ezpada

Eguiaz badute guciec onaren desira
eta hitzetan eta obretan eracuzten dute
Cerbait onic ~~naiz~~ nahiz hari direla
hargatic on-iduriaz hainitzac enganatcen
dire.

Naturaleça arteza da, hainitzac bere=
ganatcentu, Sareetan atcemaiten eta

enganatcen, eta bethi beretçat azkenic
hari da

Gracia ordea simplequi dabilla, gaixto
iduri gucietaric apartatcenda, eztu nihoren
aitcinean enganiozcoric hedatcen, gauça
guciac eguitentu ~~amorio hutsez~~. Jaincoaren
amorio hutsez, eta haren baitan pausatcenda
bere arken chedean beçala.

II Naturaleça nekez hil nahia da ecin
pairadeçaque nihore hura herts deçan
nihor garay daquion, nihore azpira eta
hez deçan.

Graciac gogoa daduca mortificacionera
etchatua, iarten da sensuetarasunaren contra
bilha dabilla nore hura azpiraco duen
desiratcen du norbait Jaun nausi daquion, eztu
bere libertateaz goçatu nahi, atsequin du
nausiaren governuaren azpian egoiteaz,
eztu desiric nihoren iaun içaiteco, bainabai
Jaincoaren azpico bethi viatceco, ibiltceco
eta egoiteco, eta Jaincoa gatic prestic dago
gucien meneco ahalic apalquiena iartcera

Naturaleça bere probetchuco hari da, eta
beha dago cer irauasia heldu çayon bertcetaric

Graciac eztu consideratcen cercayon berari
on, eta ceren premia duen, baina.

behatcenago du cere eguiten derauen
hainitz bertceri probetchu.

Naturaleçac gogotic hartcen du eguiten
Çayon ohorea eta erreuerencia

Graciac fidelqui emaitendio Jaincoari
den ohore eta loria gucia

III Naturaleça ahalkearen eta mespreciaaren
beldur da.

Graciac atseguin du Jesusen icena gatic
laidoac pairatceaz

Naturaleçari on çayo alfer egoitea, eta
maite du gorputzeco pausua.

Gracia ecin dagoque Cerbait eguingabe, eta
lanari lotcen çayo bessarca.

Naturaleçac nahitu gauça curiosac eta
edersalea da, arunterac eta lodiac
abuyatcentu.

Graciari laketcen çayo Simpletan eta
mendretan, latzac eztitu mespreçatcen
eta aldagarri jhetceric ~~aus~~ iauntsteaz
ezta nardatcen.

Naturaleçac behatcen du oraico gaucetara
bozcariotcen da lurreco irauasiez,
damutcen da galtceaz eta gaizqui erran
arin batez tarritatcen da

Graciac behatcen du Seculacoetara

eztatchete munducoey, deus galdua gatic
ezta aldaratcen, hitz gaitzez ezta haserretcen,
Ceren eman baitu ceruan bere trésora eta
borcarioa, non ezpaita deus ere galtcen.

IV Naturaleça guthiciosa da gogoticago
hartcen du emaitenduen baino bereciqui
bere dituenac maite itu.

Gracia bihotz bera da, ~~eta~~ treue eta largo
guciequin jhesi doaco beretacotasunari
beretçatasunari, gutiz Contentatcen da, eta
badaduca hobeago dela emaitea, ecen ez
hartcea

Naturaleça eramaiten da creaturetara, bere
haraguira, vanaloriara eta solhas querietara.

Graciac erakartcen gaitu Jaincoa gana eta
Vertutetara, uko eguiten deraue Creaturey
jhez eguiten dio munduari, gaitz daritste
haraguizco guthiciey, hora-haraco ibilteac
herstentu, ahalkatcen da gendeen artera an
aguertceaz

Naturaleçac desiratcen du Campoco Consolacionea
sensuen araueraco atseguinic hartceco.

Graciac bilhatcen du Jaincoa baitaco Consolacionea
Choilqui eta gucien gaineco ontasunean nahi
du bere placera hartu, icusten diren gauça
guciac largaturic

V Naturaleçac eguiten duen gucia eguiten du irauasia eta bere probetchu particulara gatic, deus eztaidique dohainic, bainan esperantçatcen da bere ongui eguinac gatic hain bertce edo gueyago, laudorio edo fauore ardietsico duela eta haren desira da handiro preça dadin eguiten edo emaiten duen gucia.

Gracia ordea eztabilla munduco gauçaric bilha, eztu Jainoaz bertceric nahi Saritçat eta Vicitceco beharrez beçambatean eztu gueyago desiratcen Seculaco ontasunen ardietsteco premia duen baino.

VI Naturaleça bozten da hainitz ahaide adisquide eta urko icaiteaz, loriatcen da bere nobleciaz eta etorquiaz, gogalquintcen da handiequin, aberatzac lausangatcentu, eta bera beçalacoac balacatcen.

Graciac bere etsayac bera maitectu, ezta burupetcen hainitz adisquide içana gatic eztaduca Conturic bere iaya-lecuaz eta aitcineco burasoez, hetan vertute gueyago edireiten ezpada bertce auantaillic baino; Fauoratcen ago du pobrea aberatza baino, urricariago da gende chehea, bothere dutenac baino: laketcen Çayo eguiatiequin eta ez enganariequin

aholcatcea gombidatcea

Prestuac bethi gombidatcentu hoberatceco ielosi ortasun Saindu batetara, eta bere vicitce taillvaren vertuteez moldatcera Jaincoaren Semearen gainean.

Naturaleça laster arrancuratcen da Cerbait escas duenean, edo Cerbaitec hura grinatcen duenean.

Graciac bihotz Sail batez iasaiten du pobrecia eta haren ondoreac.

VII Naturaleçac bereganatcentu gauça guciac, beretçat guducatcen hari da, beretçat minço da

Graciac bihurtcentu guciac Jaincoa gana, Ceina ganic heldu baitira bere Sortcetic; eztu erraiten badiela deus onic bere buruz, eztu urguilluzco. buruperic hartcen, eztu harduca, eztu bere ustea preçatcenago bertceenac baino, baina bere uste, Sentimendu eta eçagutça iaquintasun gucietan. iarten da egundainoco Çuhurciaren eta Jaincoaren iugeamenduaren az pian.

Naturaleçac nahi ditu Sequeretuac iaquin eta berriac ençun: nahi du Campoan Cerbait handi iduritu eta bere Sensuez hainitz gauca frogatu nahi du eçagutua içan, eztu eguin nahi laudoriozcoric eta miragarrizcoric baicen.

Graciac eztu ansiaric elheberriric eta curiosic encuteaz, Ceren hori gucia Sortcen baita. naturaleçaren Cutsu caharretic, iaquinic eztela lurrean deus berriric eta dirauqueyenic.

irakarten du Sensuen hersten, bere buruaren
ez ederetsten eta vantatcen, obra laudatcecoen
eta miretstecoen humilqui estaltcen, gauça eta
iaquintasun gucietaric arimaco probetchuaren
Jaincoaren laudorioaren eta ohorearen atheratcen
Eztu nahi nihori hura edo haren den
gauçaric lauda deçan, bainan harendesira da
gauça guciac bere charitate hutsez partitcen
dituen Jaincoa benedicadin bere dohainetan.
VIII Gracia hau naturaleça gaineco arguia da,
Jaincoaren dohain bereci bat, eta ongui minçatcen
hautatuen Siguillua, eta Seculaco Saluamen=
duaren Seinalea, bahia guiçona lurreco gaucetaric
cerucoen amudiora alchatcenduena, eta
haraguiaren arauera cebillana espiritual
eta devocionetsu eguitenduena.
Cembatenaz bada naturaleça çapatcenago baita
eta hezten, hambatenaz gracia handiagoric
isurtcen da ariman barrena, eta egunetic
egunera barreneco guiçona visita berriez
Jaincoaren imaginaren arauera co bihurtcen da.
Berrogoy eta hamabortzgarren Capitulua
Naturaleçaren gaixtaduraz eta Jaincoaren
graciaren indarraz
I Ene Jainco, Jauna, Çure imaginara eta

idurira creatu naucuna, indaçu gracia hura,
ceina eracusi baituçu hain handia eta premiazcoa
dela ene Saluamenduco, arren bekatutara eta
galtcera naraman ene naturaleça gaixtoari
garait ahal naquion

Ceren ene haraguian sentitcen dut bekatuaren
legueac ene espirituaren legueari guerla eguiten
dioela, eta gathibu naramala hainitz gaucetan
sensuen obeditcera, eta haren passioney ecin
eguin diecequet buru, çure gracia gueiz saindua
heltcen ezpaçait, eta ene bihotzean barrena
beroqui sartcen ezpada

II Çure graciaren eta are gracia handiaren
beharra da bethiere gaixtarasunera bere
gaste danic jsuria den naturaleçari garaitceco

Ecen hura erorioz guerortic Adam lehen
guiçonaren faltaz, eta bekatuac hura licundu
çuen beçain sarri, notha eta cutsu haren pena
iautsi cen guiçon gucien gainera.

Hala non çuc eder, on eta chuchen creatu cenduen
naturaleça hura bera orai hartcen baita naturaleça
nothatuaren viciotçat eta flacaduratçat, ceren
azkendu çayon inclinacioneac hura baitarama
gaixquira eta behereco gaucetara.

Ecen gueldetu çayon indar appurra hautsaren
azpian estaliric datçan su jnhar bat beçalacoa
da

Hura da arraçoin naturala bera haguitz elhundua eta lambohandiz inguratua, oraino onaren onguiaren eta gaixquiaren artean iugeamendu emaiteco bothere duena, eta eçagutceco cein urrun diren bata bertcetic eguia eta gueçurra, indarric eztuelaric on çayonaren Complitceco; eta goçatcen eztelaric argui betheaz, ez eta bere affeccioneen ossasunaz.

III Hargatic ene Jaincoa, neurre barreneco guiçonaz beçambatean laketcen çait çure leguean, daqui dala cure manamendua ona iustua eta saindua dela, eta irakazten derautala gaizquitic eta bekatutic ihez eguiten.

Bainan haraguiaz seruitcatcen du bekatuaren leguea, sensuac gueyago obeditcen ditudala arraçoina baino

Halacotz borondate ona datchet, bainan eztut edireiten haren Complitceco indarric

Hainitz etan diliberatcen dut naiz hainitz onguiren eguitera, baina ceren gracia escas baitrut ene ene flacotasunari hetceco, contraco appurra gatic guibelat itçulten naiz eta flacatcen.

Handic heldu da eçagutcen dudala perfeccioneco bidea eta clarqui asco icusten dudala, nola eguin behar dudan, bainan ene gaixtaduraren

pisuaz cargatic eta çapaturic enaiz
alchatcen hoberenetara.

IV O Jauna, cein premia handia dutan çure gracia hel daquidan, onqui eguiten hasteco aitcinatceco eta Complitceco.

Çure gracia gabe deusic eztaidiquet; bainan hura leguntcen baçait eta bortitzten bancuc, badaidiquet den gucia çure baitan.

O gracia eguiazqui cerucoa! ceina gabe ezpaituquegu merecimenduric, eta ezpaita Casuric eguin behar naturaleçaco dohain eta auantail guciez.

Officieec, aberatstasunec, edertasunac indarrac, espirituac, ederqui minçatceac eztutt deus valio çure aitcinean, Jauna, çure gracia gabe

Ecen naturaleçaco donuacorobat dire prestuentçat eta gaixtoentçat, baina gracia edo charitatea da hautatuen auantail eta dohain berecia, estimatcen baitira seculaco viciaz goçatceco gay eta merecient hartaz seinalatuac direnean.

Gracia hura hain da beroainecoa, non hura gabedeus ere ezpaita preçatcen, ez profeciaco donua, ez miracuilluac eguitea, ez eta cer ere contemplacione handi eta gora nahi den.

Are gueyago, eztira çure gogaracoac, ez

fedea, ez esperança, ez eta bertce vertute guciac charitatea eta gracia gabe

V O gracia guciz doatsua, gogoz pobre dena vertuteez aberatsten duçuna, eta hainitz ontasunez aberatstua bihotz ez humil eguiten duçuna.

Çato, iautsçaite nigana, bethenaçaçu goicean çure consolacioneaz, beldurrez gogoa unhaturic eta idorturic flaca dadin ene arima

Othoitzez nagotçu ~~Jain~~ Jauna, ediren deçadan gracia çure aitcinean, ceren asqui dut çure gracia, içaiten ez padut ere natura=leçac desiratcen duen bertce gaineraco gauçaric

Hainitz tribulacionec tentatcen eta penatcen banaute ere enaiz gaitzen beldur içanen çure gracia enequin badago

Hura da ene indarra, hare Conseillu emaiten deraut, hura heltcen çait eta laguntcen

Hura etçay guciac baino botheretsuago da eta çuhur guciac baino çuhurrago.

VI Hare eguia eracusten du, dotrina irakazten, bihotza arguitcen, hersturetan Consolatcen, tristecia kentcen beldurra Camporatcen, devocionea azten eta nigar Sainduac erakartcen.

Cer naiz ni hura gabe, „egur ihar, tronco sokil ez deusetaco eta etchatceco bat baicen?

Beraz, Jauna, aitcen bequit çure gracia, iarraiqui baquit, eta bethi iduquinçala obra onetan erneric Jesu christo çure Seme maitearen amorez. Biz hala.

Berrogoy eta hamaseigarren Capitulua

Behar diogula gure buruari ukoequin eta gure Saluatçaillari iarraiqui gurutceco bidetic

I Semea, cembatenaz gueyago ilkito ahal baitcaitesque, çureganic hambatenaz barrenago ene baitara iraganen ahal çare.

Nola deus ere campotic ez desiratceac eguiten baitu barreneco baquea, hala barrenetic bere buruaz bellusteac juntatcen du arima Jaincoarequin

Nahi dut ikas deçacun Cure buruaren ossoqui utsten ene borondatearen escuetan, deusic contra erran eta arrancuratu gabe.

Çarraizquit: Ni naiz bidea, eguia eta vicia

Bidea gabe ezta ibilteric, eguia gabe ezta eçagutceric, vicia gabe ezta vicitceric

Ni naiz iarraiqui bihar çaiscon bidea cinetsi behar duçun eguia esperançatu behar çaituen vicia

Ni naiz ecin errebela ditequen bidea, ecin engana deçaquen eta ecin engana

ditequen eguia nugarri gabeco vicia.

Ni naiz bide chuchenena, gucien gaineco eguia, eguiazco vicia vici doatsua hasterie gabeco vicia.

Ene bidean baçaude, eçagutuco duçu eguia eta eguiac libratuco çaitu, eta Seculaco vicia ardietsico duçu.

II Nahi baduçu vician Sartu, begiratçatçu ene manamenduac.

Nahi baduçu eguia eçagutu, anets naçaçu.

Nahi baduçu perfet içan, sal etçatcu dituçun guziac.

Nahi baduçu ene discipulu izarri, ukoeguiçu çure burua.

Nahi baçaisco vicitze doatsuari iabetu mespreçaçaçu presenteco vicia.

Nahi baduçu, ceruan gradu handirie, humilçaite munduan.

Nahi baduçu eneguin erregui izarri, iasan=eçaçu gurutzea eneguin.

Ecen gurutzearen Seruitçarie choilqui causitzen dute doatsutasunaren eta eguiazco arguiaren bidea.

III Ene Jesus Jauna, cerençure vicia hersia baita eta munduac mespreçatua indaçu gracia çuri iarraiqui naguiçun mundua mespreçatzerie.

Ecen ezta seruitçaria bere Jauna, baino handiago, ez eta discipulua nausiaren gaineco

Manaya bodi çure seruitçaria çure vicitcean ceren han dago ene Saluamendua eta eguiazco Saindutasuna.

Cer ere hartaz campoan iracurtcen edo ençuten baitut, ez teraut bihotza alchatcen ez eta placer ossoric emaiten.

IV Semea, gauça hauc guciac eçagutcen eta iracurri ditutçunaz guero doatsu içanen care complitcen baditutçu

Norc ere baitaquisqui ene manamenduac eta beguiratcen baititu, harc maite nau, eta nichura içanen dut maite, hari aguertuco natçayo eta iar arasico dut enequin ene aitaren erresuman.

Jesus jauna erran eta prometatu duçun beçala eguin ere bedi hala, eta ainadin merecidun guertha.

Hartu dut, hartu gurutcea çure escutic, hura jasanen dut eta jasanen heriotceraino soinean eman derautaçun beçala

Eguiazqui ~~fraide~~ guiristino prestuaren vicitcea da gurutcea, baina parabisura guidatcen duen gurutcea.

Hasi naiz, enaiz cilhegui guibelat itcultera ezta gurutceco bidea utsi behar.

V Ea anayac, goacen elKarrequin, Jesus
içanen da gurequin: Jesusen amorioz gurutce
hau hartu dugu, gaudecin gurutcean Jesusen
amorioz

Hura da gure Capitaina eta aitcin guidaria
helduco eta lagunduco Çaiçu

Horra gure erreguea aitcin dabilcu hura guretçat
guducatuco du
alde iarrico da gure etsayen Contra

Garraiscon guiçon guiza, eztela nihor beldur
icialdurac gatic: gaudecin prestic guerlan
behotz dun hiltcera, eta eztaguiogula gure loriari
desohore eta laido hura eztaguiogula, gurutceari
ihez eguiteaz.

Berrogoy eta hamaçaz pigarren Capitulua

Eztuela guiconac behotza galdu behar
Cembait hutsetan erortcen denean.

I Semea placerago dut nihore incontru gaitzetan
hartcen duen Consolacioneaz, ecen ez çori
onean duen Consolacioneaz eta devocioneaz.

Cergatic tristatcen Çare cerbait makur eguin
duçulaco erançuteaz?

Handiagoric baliz ere, etcinen hargatic
higuitu beharço.

Bainan orai utsaçu iragaitera: ezta lehena
ez berria, ez azquena ere jçanen, hainitz
vici bacare.

Guiçon asqui çare deus contracoric bidera etçaitçunean ilkiten

Emaiten duçu ere conseillu onic, eta badaquiçu bertcey bihotzaren alchatcen hitz ederrez baina ustegabeco tribulacioneric ~~helatu~~ hurbiltcen denean çure athetara escasten çara Conseilluz eta indarrez.

Consideraçaçu gauça chipietan maiz frogatcen duçun çure erorcortasun handia.

Badaric ere hori gucia eguiten ohi da çure Saluamenduco, horrelacoric eta bertceric guertatcen denean.

II ~~Athal beçala~~ Atheraçaçu hori gucia bihotzetic ~~ahalq~~ ahalic hobequiena, eta ukitu batçaitu ezteçaçula hargatic bihotza gal, eta etçaitçala hainitz demboraz iduqui nahasiric eta corapillaturic

Ezpere pairaçaçu ernequi ecin badeçaqueçu allegueraqui.

Halacoric ecin ençun badeçaqueçu gogotic eta çure baitan tarritatcen baçare, itchecoçu çure buruari eta ezteçaçula çure ahotic ilkitera uts flacoey escandaluric eman diecequen hitz desordenaturic

Buelta alchatu den hura laster Calmatuco da, eta gracia bihur dadinean barreneco dolorea eztituco da

Vici naiz oraino, dio Jaunac, prestic çuri heltcera, eta ohi danic gueyago consolatcera,

ene baitan fidatcen baçara, eta devotqui deitcen banauçu çure gana

III Çarela bihotz dun, eta paraçaite guehiagori pairatcera

Ezta gucia galdu, maiz sentitcen baduçu ere tribulatua eta garratzqui tentatua çarela

Guiçon çara eta ez Jaincoharaguiz çara ez Angueru

Nolatan ahal cinundesque vertuteco estatu ber-batetan, hori Angueruari ceruan eta lehen guiçonari lur parabisuan faltatu çayenaz guerostic?

Ni naiz tristeric nigarrez daudenac libratcen eta sendatcen ditudana, eta bere flacotasuna eçagutcen dutenac ene Jaincotasunera goititcen ditudana.

IV Jauna, benedicatua dela çure hitza, hitz eztia, ene ahoan ezti beresia eta eztia baino eztiagoa.

Cer neidique hain bertce tribulacionetan eta hersturetan borthitzten ez panen duçu çure hitz sainduez?

Baldin noiz pait finean heltcen banaiz saluamenduco portura, cer ansia dut cer eta cembait pairatu duquedan?

Jauna indaçu fin ona, indaçu gracia munda hunetaric doatsuqui ilkitceco.

Carela nitaz orhoit, ene Jaincoa, eta bide chuchenaz guida naçaçu çure erresumara Biz hala.

Berrogoy eta hemeçortcigarren Capitulua

Gaineco gauçac eta Jaincoaren iugeamendu gordeac eztirela Sondatu behar

I Semea, beguirauçu gaineco gaucez eta Jaincoaren iugeamendu gordeez minçatcetic eta chardu quitcetic Cergatic hau hunela utstenden, eta hura halaco gradura alchatcenden?

Cergatic bata horreinbat ondicatcenden, eta bertcea hain beragain goititcen den auantaillatcen den.

Horrelacoac iragaiten dute guiconaren indar gucia, eta ezta arraçoinic, edo escolaco disputaric Jaincoaren iugeamendua Sonda decaquenic.

Noiz ere bada etsayac halacoric ekartcen baiterautçu gogora, edo are iaquin nahi lilibiri batçu galdez baitagoquitçu, chardets dieceçu profetaren hitz hunez.

Justua çare, Jauna, eta çure iugeamendua çucena da edo bertce hunez: Jaunaren iugeamenduac eguiac dira eta orobat iustuac bata bertcearequin.

Ene iugeamenduen beldur behar da, eta eztira Sondatu behar, ecen guiçonaren adimendua ecin Sar diteque hetan barrena.

II Ez eguin ere galderic, eta ez Solhasta Sainduen auantaillez, cein den bertcea

Sainduago, edo cein den handiago ceruetaco erresuman.

Halaco solhasec maiz pitstentuste liscarrac, eta probetchu gabeco hitz mitz queriac: ~~Azten dute~~ ~~ere~~ Superbiotasuna, ere eta vanaloriaemendatcen dute.

Handic heldu dira jnbidiac eta elkarren arteco guduac, batac Saindu bat eta bertceac, bertcea Superbioqui auantaillatu nahi duenean.

Horrelacoric iaqui eta sondatu nahiac eztakarque probetchuric, aitcitic Sainduey desplacer eguiten derauc.

Ceren énaiz ni guduco Jaincoa, baina baquearen Jaincoa naiz, eta ene baquea gueyago datça eguiazco humiltasunean, buru handi nahitasunean baino.

III Batçu amoriaren beroz eramaiten ago dire Saindu bat gana bertcea gana baino: ordea afeccione hura guiçonaren buruticacoago da Jaincoa ganic baino.

Ni naiz Saindu guciac eguin ditudana, nic eman derauet gracia: nic eçarri tut lorian.

Nic eçagutcentut bataren eta bertcearen merituac: ni aitcitu aitcindu natçaye neure dulçuraren benedicinoez.

Nic iaquin dut cein diren ene maiteac, menderic cen baino lehen, nic hec hautatu itut munduaren artetic, eta hec enaute ni lehenic. hautatu

Nic deitu itut ene graciaz, erakarri ene

misericordiaz, eta hainitz tentacione suertez erabilli

Nic Consolacione beregaineco consolacioneac isuritut hequin baitara, onean irauteco indarra eman derauet, eta hequin paciencia koroatu dut.

IV Nic lehena eta azkena eçagutcen dut: nic bessarcatcentut guciac ecin estimatuzco amorioz

Ni naiz laudatcecoa ene saindu gucietan, ni naiz gucien gainetic benedicatcecoa eta ohoratcecoa hetaric batbedera baitan, ceren hain loriosqui handitu eta aitcinetic hautatu ditudan, bere buruz etcutelaric aitcinetico merituric bat ere

Nor ere beraz mespreçatcen baitu ene sainduetaric chipiena, eztu handiena ere ohoratcen, ceren nic chipia eta handia eguin baitut

Eta nor ere minço baita cembait saindurencontra ene contra ere eta ceruco erresuman diren gucien contra minço da

Guciac dire bat charitatearen amarraz, guciec gogo bat, guciec nahi bat, eta guciec orobat elkar maite dute.

V Bai eta cein baita hainitzez gueyago maiteago naute bere burua eta bere merituac baino.

Ceren bere gainera eramanic eta bere burua ganaco amudiotic campora erautsiric, guciac

atheraric

bere indarguciez auiatcen dira ene amoriora
etahartan goçoqui pausatcen dute.

Eztadeus ere hec ene ganic itçul ~~datça~~
~~gueyenic~~ edo behera detçaqueyenic, ceren
nola egundainoco eguiaz betheac baitira ecin
iraunguizco charitatearen suaz erretcen dire
Beraz haraguiaren eta sensuen
araueraco guiçonac, nola ez paitaquite bere
atseguin particularez bertceric onetsten, beudez ichilic
ene sainduen estatuaz eta graduaz minçatu
gabe

Batari edequiten diote eta bertceari gueyago
emaiten bere buruco nahiaren arauera, ez
ordea seculaco eguiari laket çayon beçala
VI Hainitz baitan hori eguiten du iaquin=
gabeac, beregainqui ordia nihore guti
arguitua içanez nekez daquienean
amudio ossoqui espiritualaz oneritsten
norbaiten oneritsten.

Horrelacoac bere gogo naturalaz eta
munduco maitura sunaz oraino haguitz
eramaiten dira saindu baten edo
bertcearen amoriora, eta beheraco
gaucetan iarriac diren arauera
iduri dagote orobat dela ~~cerucoa~~
cerucoez

Bainan ecin erranezco tartea eta
diferencia da ~~guicon~~ vertute eta
perfeccione

appuretaco guiçonec pensatcen tusten eta arguituec gaineco arguiac eracusiric miratcen eta Consideratcen ditusten gaucen artean.

VII Beguirauçu bada, Semea, çure iaquinari garaitcen çaiscon gaucez ~~mintcatcetic~~ Curiosqui minçatcetic; baina duçun artha eta hala eguiçu, non den chipiena ediren ahal Çaitecin Jaincoaren erresuman.

Nihorc baleaqui ere cein licén bertceac baino Sainduago eta handiago ceruetaco erresuman cer probetchu luque eçagutça hartaric, hura gatic humil ez paledi barrenago ene aitanean eta atçartcen ez paliz ene icenari laudorio gueyago emaitera?

Jaincoaren gogarago eguiten du, norc ere bere bekatuen handitasuna eta vertuteen appurtasuna gogoan baitaduca, eta cein urrun den Sainduen perfeccionetic gogoan baitaduca, ecen ez darasanac eta diharducanac cein den hequin artean handiena edo chipiena.

Hobe da Othoitz eta nigar beroz Sainduey gomendatcea eta hequin helçaquitça gogo humillaz escatcea, ecen ez hequin Sequeretuac galde alferrez iaquin nahiz ibiltea eta Sondatcea

VIII Sainduac bereaz bere baitan contentic eta ~~choil~~ ederqui Choil contentic daude, baldin guiçonec ere baleaquite Contentic egoiten eta bere vanaloriazco Solhasetatic eta elhetaric ichiltcen.

Eztira loriatcen bere merituez, ceren eztaducate deus onic dutela bere buruz; bainan aitortcen dute ontasun gucia ene gatu dela, ceren ~~den~~ duten gucia nic eman baiterauet ene neurrigabeco Charitatez.

Hain bethe dira ere Jaincota suneraco amudioz eta gaindirainoco bozcarioz non ezpaitute eta ezpaituquete loriaren eta doatsutasunaren escasic

Saindu guciac cembatenaz gorago baitire lorian, hambatenaz bere baitan humillago, enequin hurbillago eta nic onetsiago dire.

Halacotz badio esquiriturac, bere Koroac erauntsten, eta Jaincoaren aitcinean pausatcen citustela, ahoxpez iarri cirela bildotzaren aitcinean, eta secula seculacoronecotz vici dena adoratu Çutela.

IX Hainitzec galdeguiten dute cein den Jaincoaren erresuman handiena, eta eztaquite ea gayac edirenen direnz chipienan artean condatuac içaiteco.

Gauça handia da Ceruan chipiena ere içaitea non guciac baitira handi, ceren guciac deitcen eta jçanen ere baitira Jaincoaren ume.

Chipiena helduco da milletara, eta ehun urthetaco bekatorea hillen da.

Ceren discipuluec galdeguin Çutenean

cein içanen cen handiena ceruetaco erresuman
hunelaco ihardetspena ençun çuten.

Itçulten ezpaçarete onera, eta haur chume
beçalacoac eguiten ezpaçarete, etçarete.
Sartuco Ceruetaco erresuman.

Nor ere bada bera humilduco baita haurcho
hau beçala, hura da ceruetaco erresuman
handiena.

X Çori gaitza bere burua chumeequin
gogotic beheititu nahi eztutenentçat, ceren
ceruco erresumaco athe chumeac hee eztitu
utsico Sartcera.

Çori gaitza halaber hemen bere consolacioneac
ditusten aberatzentçat, ceren pobreac Sar
ditecinean Jaincoaren erresuman hee campoan
egonen dira marrascaz.

Alleguera çaiteste humillac, bozcario çaiteste
pobreac, ceren Jaincoaren erresuma çuena da
baldin ordea eguian leyalqui baçabiltçate.

Berrogoy eta hemeretcigarren Capitulua
Jaincoa baitan choilqui fincatu behar dela
esperança eta fidança gucia.

I Jauna, cer da vicitce hunetan dudan fidança?
edo cein da ene consolacioneric handiena ceruaren
azpian agueri diren gucietaric?

Ez othe çu ene Jainco Jauna, nola çure
misericordiac ezpaitu neurriric?

Non ongui causitu naiz çu gabe? Non gaizqui

causitu ahal naiz çu presentean Cinela?

Nahiago dut Çure gatic errumaz egon, ecen aberatz çu gabe

Lehen hautatcen dut lurrean çurequin Saindurale ibiltea, ecen ez çu gabe ceruco Jaun eta iabe iartcea

Non ere baitçara han da cerua; non ere ezpaitçara, han da herioa eta ifernua

Çuçare ene desira, eta halacotz premia eta beharra dut Çure gana hatsbeherapen, nigar oyu eta othoitz eguiteco.

Finean ecen ossoqui fida naitteque nihor behar orduco helduco çaitala ene beharquietan çu baicen ene Jaincoa.

Çu çare esperança eta fidança; çu çare ene Consolatçaillea eta fidelena gauça gucietan.

II Guciac dabiltça bere probetchuaren ondoan çuc ene Saluamendua eta aitcinamendua choilqui gogoan daducaçu eta gauça guciac itçulten derausquidatçu onera.

Utsten ~~çarten~~ hargatcen nauçularic hainitz moldezco tentacionetara eta gaitzetara, hura gucia ordenatcen duçu ene probetchuco, daquidala Çure maiteac milla moldez frogatcen ohi tutçula.

Horrela frogatcen nauçunean etçaitut gutiago onetsi eta laudatu behar, ceruco consolacioneez bethe banençaçu baino,

III Beraz çure baitan, ene Jainco Jauna,
emaitendut ene esperança eta ihez lecua;
çure baitan eçarten dut ena tribulamendu
eta herstura gucia, Ceren nora ere
beguiac heldatcen baititut, eztut aurkitcen
çure ganic Campoan gauça flacoric eta
eztagoqueyenic baicen.

Ecen hainitz adisquide içanac ezteraut
probetchuric ekarrico, defensari valentac ecin
helduco çaizquit, conseillari, cuhurrec ecin
emanen derautate valio duen jhardetsteric
Dotoren liburuac ecin Consolatuco naute, ezta
gauça preciosic libra naçaqueyenic, ezta
lecu gorderic, azcarric eta placer suric beguira
naçaqueyenic; ceroni heltcen, aldeiartcen
eta laguntcen ezpaçaisquit çue bortitzten
Consolatcen, guidatcen eta beguiratcen ezpanauçu

IV Ecen cerc ere baitirudi on dela baquearen
eta doatsutasunaren ardietsteco, hura ~~gaci~~
çu campoan çarenean ezta deus ere, eta
eguiazqui ecin demaque doatsutasunic bat ere

Çu çare bada ontasun gucien chedea eta fina
Çu çare viciaren punturic gorena
mincotasunen ondoric barrenena, eta çure baitan
~~esperança~~ ~~ecaitea~~ gucien gainetic esperança,
içaitea da çure seruitçarien Consolacioneric
handiena.

Çure gana daude ene beguiac alchaturic çure baitan fidatcen naiz, ene Jaincoa misericordien aita

Benedica eta Santificaçaçu ene arima ceruco benedicinoaz, eguin dadintçat çure egoitza saindua, Çure seculaco loriaren iar lecua, eta Cure handitasunaren templuan Causi eztadintçat çure maiestatearen beguiac ofensa detçan gauçaric

Behadiaçadaçu çure ontasun handia eta neurrigabeco misericordia gatic, eta ençun=eçaçu herioco itçalaren herrian urrun desterraturic dabillan çure seruitçari gaiçorren othoitza.

Beguira eta saluaçaçu çure mutilcoaren arima hil beharrezco vicitce hunetaco perillen artean, eta çure gracia lagunduric hura guidaçaçu baquearen bidetic bethiereco arguiaren herrira. Biz hala.

Jesusen Imitacioneaz

Laugarren Liburua

Aldareco Sacramendu guciz adoratacoaz, eta hartara behar beçala preparatceco anteeaz.

Jesusen amoriozco deïa

Çatoste ene gana ne Katuric eta cargaturic çaudeten guciac, eta nic pausu eta indar berri emanen derautçuet, dio Jaincoaren Semeac. Matt 11. 28

Nic emanen dudan oguia, da ene haraguia munduaren vicitceco. Jo 6. 51

Hareçaçue eta ianeçaçue: hau da ene gorputza, çuen gatic eta Çuentçat Salduren eta emanen dena. Hori eguiçue ene orthoitça-penetan. Matt. 6 1 Cor. 11.

Norc ere iaten baitu ene haraguia, eta ene odola edaten, hura ene baitan dago, eta ni ere haren baitan nago. Jo 6. 56.

Erran eta erraiten derausquitçuedan hitzac, espiritu eta vicia dire. Jo. 6. 63

Lehen Capitulua

Cer erreuerenciarequin Jesusen gorputz preciosa errecebitu behar den.

Arima deuotaren chardetspena

I Hauc dire çure hitzac, ô ene Jesus, egundainoco eguia çarena; hec behingo aldian berean erran eztituçularic, eta lecu ber-batetan esquiribatuac eztirelaric

Ceren bada çureac, eta eguiac baitire beharditut guciac hartu, curi esquerrac emanic, eta cinetste ekarriric.

Çureac dire eta çuc erranac; eta eneac era dira, ceren hec athera baititutçu ene Saluamenduco.

Gogo onez hartcentut çure ahotic arran barrenago sar ditecin ene bihotzean, eta hersiquiago itchequi diaçoten gatic.

Bihotzten naute horrelaco bihotz berata=sunezco hitz ~~eztiec~~ eztiec eta amoriozcoec ordea ene bekatuec icitcen naute, eta ene consciencia liçunac guibelatcen nau Çure Sacramendu handi hartara hurbiltcetic.

Çure hitzen amolsurac erakartcen nau, ordea ene gaixtaqueriec çapatcen naute bere hainitz içanez.

II Manatcen nauçu fidancarequin hurbil naquiçula, nahi badut çurequin ican patteric, eta hardeçadala hiltcearen contraco ianharia, nahi badut seculaco vicia eta loria ardietsi.

Çatoste, dioçu, ni gana nekatuac eta cargatuac çareten guciac, eta nic arinduco çaitustet. Matt. 11.

O hitzaren eztia eta amolsua bekatorearen beharrian! Cuc ene Jainco Jauna, pobrea eta errumeza gombidatcen baituçu çure gorputz guciz Sainduaren mahainera eta partaletasunera!

Ordea, nor naiz ni, Jauna, Çure gana ausartceco hurbiltcera?

3. rig. 8. 27 Huna ceru guciac eztire asqui Çure iduquitceco eta badioçu, Catoste ni gana guciac.

III Cer erran nahi du ohore begaitartitsu
et a gombidatce amolsu horrec?

Nolatan ausartuco naiz çure gana ethortcera;
ezpaitut ene baitan deus onic icusten,
halaco buruperic hartceco?

Nolatan sararacico çaitut ene etchera,
dacusadala maiz eta maiz Çure begui=
tarte beguitartetsua offensatu dudala?

Anguerua et Arcangeluac ikara
dire, beldur dira Sainduac eta justuac
etaçuc dioscuçu. Catoste ene gana guciac.

Çuc, Jauna, hori erran ezpaceneça,
norc cinetsliro eguia licela? Çuc manatcen
ezpacendu, nor liçate ausart hurbiltcera?

Huna, Noë guiçon iustuac ehun urthetaco
trauaillua eman du legue çaharreco arca arca
Ceritzon untci famatu haren eguiten
bere buruaren Saluatceco gende gutirequin
eta ni nolatan oren batiz prepara naiteque
munduco Creatçaillearen ene baitara
deuocionerequin hartcera?

IV Moyses Çure Seruitçari, çure adisquide
handi eta bereci harc arcabat eguin
çuen ecin bustelezco curez, hura ere
urreztatu çuen urreric garbienaz, hartan
barrena Leguearen taulac eçartceco;
eta ni Créatura bustela ausartuco othe
naiz çu legue eguille, eta Vicia emaille
horren hain errazqui errecebitcera?

3. rig. 6. Salomon Israeleco erreguetaric çuhurrenac
çazpi urthe eman itu templu miragarri
baten eguiten çure icenaren laudoriotan;
Çortci egunez eguin du haren Consecratceco.

bista, nulla baquezco hostia ofrendatu itu, eta legue, çaharreco untcia baquetiarra trompeta soinuz, eta alleluyequin eçarri du preparatu cioen lecuan.

Eta nic munduan direnetaric ondicozcoen eta dohacabeen horrec nolatan sar aracico çaitut ene etchean; nekez bastaquet oren erdi baten iragaiten devocionean? hala ere aineça oren erditsu hura bedore behar beçala iragan.

V O ene Jaincoa, cembat artha ceducaten aitcineco hec çuri çure gogaraco seruitçuric eguiteaz!

Hé! cein guti den nic eguiten dudana! Cein demboralabar emaiten dudan, preparatcen naicenean Çure sacramendu sainduaz othurunsatcera!

Gutitan guertatcen naiz ossoqui ene bastan bilduric, are gutitanago fuineco errebelamendu gucietaric libraturic.

Eta eguiaz Çure Jaincota sunaren saluagarrizco presencian eliçaitquet ethorri behar eder ezten gauçaric, enenduque deusac ere travatu behar, orduan ostatatu behar dudanaz guero, ez Angueru bat, baina bai Anguerven Jauna.

VI Badaric ere haguitz bertce eta bertce dira Baquezco untcia bere erreliquiequin, eta Çure gorputz guciz garbia bere ecin erranezco vertutequin

Choil bertce eta bertce dira Legue çaharreco sacrificioac, Ceinac bastciren guerocoen aitcin-seinaleac, eta Çure ~~gor~~

gorputz preciosaren sacrificioa, ceina
baita Sacrificio çahar gucien Complimendua.

Cergatic bada enaiz gueyago iracequitcen
çure ohorezco presenciaren aitcinean?

Cergatic enaiz artha handi agozequin
preparatcen çure Sacramendu Sainduaren
hartcera; halaz eta Patriarca, Profeta,
Erregue are eta lehenecо Prince Saindu
hec bere azpico gende guiciarequin halaco
devocionezco Seinaleric çure Maiestate
Sainduaren Seruitçuan eracusi dutenaz.
gueroztic?

VII David Erregue devocionez bethea
bere indar guciez dansan hari içanda
Jaincoaren Arcaren aitcinean bere.
~~Buraco~~ lehenagoco Burhasoey eguin
citçaisten ontasunen orhoitçapenetan:
hainitz moldezco organoac eguintu, Salmoac
esquiribatu itu, eta ordenatu du Canta
ditecin alegriançarequin, berac ere naiz
Cantatu itu guitarraren gainean, Espiritu
Sainduaren graciac hura ceraman arauera:
irakasi dio Israelico gendeari bihotz
guciaz Jaincoaren laudoriotcen, aho.
batez egun oroz handi etsten, benedicatcen
eta ozpatcen.

Orduan halaco devocioneric eta Jaincoaren
laudoriozco orhoitçapenic eguiten bacen.
Legue çaharreco Arcaren ~~aitcinean~~ presencian:
nolaco erreuerencia eta devocione orai
nic, eta guiristino guciac behardugu:
Sacramendu Sainduaren aitcinean gure
Jesus maitearen gorputz adoratcecoa
hartcendugunean?

VIII Hainitzec laster eguiten dute hainitz lecu urrunetara Sainduen erreliquiac visitatcea gatic.

Espantuz iarten dira hequin miracuilluzco obrac ençuteaz, Elicetaco obradura handiac miratcen tuste, hequin heçur Sainduac muçuztatcen tuste, siricuz eta urrez estaliac direlaric

Eta huna, çu hemen presentean enequin çare aldarean, ô ene Jaincoa Sainduen Saindua gucien Creatçaillea eta Anguerven Jauna.

Hainitz etan curiostasunac, eta lehen ez icusiac icusi nahiac daramatça guiçonac halacoric icustera, eta handic probetchu eta oneramendu guti dakarquete, noiz ere behintçat horra hara baitabiltça eguiazco urriquimenduric gabe.

Hemen ordea Aldareco Sacramenduan ossoric eta Viciric çaude, ene Jesus Jauna, eguiazco Jaincoa, eta guiçon eguiazcoa: eta nor nahic Seculacotz Saluatua içaiteco probetchu hainitz atheratcen du noiz, ere behar beçalaco devocionerequin errecebitcen baitçaitu.

Baina çure gana ez tu nihor ekartcen edocein arintasunac, ez curiostasunac, ez eta sensuetarasunac, baina bai fede fermuac, esperança devotac, eta charitate garbiac.

IX O Jaincoa, munduco ecin icusizco Creatçaillea, cein mirragarriqui hari çaren gurequin cein eztiqui eta graciozqui ordenatcen duçun çure hautatuequin! Ceroni presentatcen baitçaiste Sacramendu hunetan, harçaitçaten gatic!

Hori Segur garaitcen çaye adimendu guciey, horrec manera bereguin batez arima devoten.

gogoac eta bihotzac bereganatcen tu eta iracequitcen.

Ecen bere vicitce gucia oneramendura ordenatcen duten çure eguiazco fidelac, hainitzetan devocionezco gracia, eta vertuteraco amudio handi bat ardietsten eta ekartcen dute Sacramendu saindu hunetarii.

X O Sacramenduaren gracia miretstecoa estalia eta gordea, Guiristino fidelec choilqui eçagutcen dutena, fedegabecoec eta bekatuaren sehiec ecin froga deçaquetena!

Sacramendu hunetan emaiten da gracia espirituala, arimara bihurtcen da vertute galdua, eta bokatuac itsustu çuen edertasuna berritcen da eta berreguintcen.

Gracia hura batçutan hain da handia, non, emaiten duen devocionea bethe içanez, ez choilqui arimac, bainan eta gorputz flacoac sentitcen baitu indarrac emendatcen çaiscola.

XI Halacotz damugarri eta urricalquiçun gare gure espiltasuna eta ansigabetasuna gatic, ceren ezgoacen gogo handiagorequin, gure Jesusen errecebitcera, daquigula haren baitan datçala saluatceco diren gucien esperança eta meritua.

Ceren hura da gure saindugarria, librança eta libratce saria: hura da mundu hunetan dabiltçanen consolacionea, eta sainduen seculaco goçamena.

Beraz haguitz damutceco gauça da, ceren gueyenec hain contu guti daducaten cerua arraitcen eta mundu gucia mantenatcen duen mysterio saluagarrizco hunetaz.

O Gure bihotzaren itsua eta gogorra!
ezpaitugu hain ecin erranezco dohaina
preçatcen, eta egunorozco usança dela Causa,
erori eta isuri baigare hari ez behatceco.
ere Contura.

XII Ceren Sacramendu guciz saindu hau
lecu baletan choilqui eguiten baliz, eta
Apez bakoitz batec hura munduan consecra
baleça, Cein desir handiz uste duçu
gendeac lioasqueyela lecu hartara halaco
Apezaren icusteco eta meça Sainduaren
ençuteco?

Bainan Orai hainitz Apez eguin da eta
gure Saluatçaillea hainitz lecutan ofrendatcen
da, eracuztea gatic Jaincoaren guiçona
ganaco Amorioa eta gracia hambatenaz
dela handiagoa, cembatenaz Sacramendu
Saindua lecu gueya gotan barrayatua baita.

Esquerrac derausquitçut, ô ene Jesus
maitea, arimen egundainoco Arçaina, ceren
gu pobre eta disterratu hauc nahi içan
gaitutçun çure gorputz eta odol preciosaz
othurunçatu, eta çure aho bereco hitzez
çure mysterioen hartcera gombidatu
erraiten derauçuçunean: Catoste ene gana
nekaturic eta Cargaturic, çaudeten guciac,
eta nic pensu eta indar berri emanen
derautçuet Matt. 11.

Bigarren Capitulua

Jaincoaren ontasun eta charitate handia eracuzten cayola guiçonari Sacramendu Sainduan

Arimaren hitzac

I Jauna, çure ontasun eta misericordia handiaren gainean fidaturic eta permaturic, hurbiltcen natçaitçu, ni eria naicela ene Sendatçailleari, gose eta egarria, viciaren ithurriari, erumeza Ceruco erregueari, Seruitçaria gucien Jaunari, çure Creatura ene creatçailleari, desconsolatua ene Consolatçaille urricalsuari.

Ordea nondic heldu çait ontasun hura, çu Çatocin ene gana?

Nor naiz ni, çu ceroni eman çaquisquidan?

Nolatan ausartcen da bekatorea çure aitcinean aguertcera? Eta çuc nolatan nahi duçu bekatorea gana etorri?

Badaçaguçu Cure Seruitçaria, eta badaquiçu eztuela bere baitan Deus merecidu enic çuc ontasun hura daguioçun.

Aitortcen dut beraz neure deus gutitasuna, eçagutcen dut Çure ontasuna, laudatcen dut çure bihotz beratasuna, eta esquerrac derausquitçut Çure Charitate handieguia gatic

Ecen çure loria gatic hori eguitenduçu ez ene mereciac gatic, artencure ontasuna eçagutago deçadan, charitate handiagoa sar daquidan, eta humiltasunari iarraiquitceaz Contu gueyago eguin deçadan gatic

Ceren bada halacoa baita Cure borondatea,

eta manatcen baituçu hala eguin dadin placer duçuna placer dut nic ere, eta nahi nuque ene gaixtotasunac traburic ekar ezpaleça.

II O Jesus guciz eztia, guciz amolsua cein erreuerencia eta esquer handiac bethi-ereco laudoriorequin çor çaisquitçun Cure gorputz Sacratuaren hartcecotzat! Ezpaita guiconic aurkitcen haren handirisunac declara detçaqueyenic

Ordea cer gogoraco dut Comunione hunetan ene Jaunari hurbil naquionean: hura behar beçala ecin ohora baiteçaquet eta halaric ere desira baitut haren errecebiltceco devocionerequin.?

Cer pensa decaquet hoberenic eta Saluagarrienic, neure burua çure aitcinean ossoqui humildu, eta çure neurri gabeco ontasuna laudorioz ene gainera alchatu behar dudela baicen?

Laudatcen çaitut, ene Jaincoa, eta gauça gucien gainetic Seculacotz handietsten.

Neure burua mesprecatcen dut, eta ene deus gutitasunean barrena çure azpian hondatcen.

III Huna çu Sainduen Saindua, eta ni ere bekatuen istilla.

Huna çu ~~Sainduen~~ makurtcen çare ni gana, nic mereci eztudalaric çuri behatcea.

Huna çu heldu Cara ene gana nahi duçu enequin egon, gombidatcen nauçu çure barascaritara.

Eman nahi derautaçu ceruco ianharia,
eta Anqueruen oguia iatera, Ceina, eguia ps 77.
erraitera, ez paita bertceric çu ceroni baicen;
çu baitçare ogui vicia, cerutic iautsi carena
eta munduari; Vicitcea emaiten dioçuna. 10. 6.

IV Huna nondic sortcen den Çure amudioa
nondic agueri den cer contu eguiten duçun
gutaz, cein esquer eta laudorio handioc
Çor Çaisquitçun gracia hauquin ordain.

O Cein Salua eta probetchagarri içan
den çure Conseillua, Sacramendu hori
ordenatu ducunean! Cein othurunça goço
eta aleguera, çu ceroni ianharitçat eman
Çaisquiguneau!

Jauna Cein miragarri den cuc obratcen duçuna
Cein botheretsu den Cure vertutea
Cein ecin erranezco den çure eguia!

Ecen hitz bat erranduçu, eta gauça guciac Gen 1
eguin dira, eta manatu duçuna berehala ps. 148.
complitu da

V Gauça miretstecoa, gurecinetstea
mereci duena, eta guiconaren adimenduari
garaitcen çayona, çu ene Jainco Jauna
eguiazco Jaincoa, eta guiçon eguiazcoa oguiaren
eta arnoaren iduri eta itchura mehebatçuen
azpian ossoric egoitea hartcen çaitustenec
ehotcen edo ahitcen etçaitustela!

Çuc, Ô Gucien Jauna, nihoren beharric
eztuçuna, Çure Sacramendua dela bide
gure baitan ostatatu nahi içan Çarena
beguiraçaçu ene bihotza eta gorputza
Cutsu gucietaric; arren Consciencia aleguera
eta garbi batez maizago çure mysterioac
eguin uki eta erabil ahal detça dan, eta beregainqui

Çure ohoretan, eta çure Passionaren betiereco orhoitçapenetan ordenatu eta fermatu duçun Sacramendua ene Seculaco Saluamendutan hardeçadan gatic.

VI Bozcario çaite, ene arima, eta esquerrac emoitçu Jaincoari, Curi nigarrezco haran hunetan utsiderautçun hain donu noblea eta Consolacione berecia gatic.

Ceren noiz ere mysterio hura gogoan baitarabillaçu, eta Jesusen Gorputz preciosa hartcen baituçu, orduan Çure Saluamenduco obra eguiten duçu, eta partale eguitençara Cure Saluatçail=learen merecimendu gucietan.

Ecen Jesusen Charitatea ezta nihoiz ere gutitcen, eta haren misericordia handia ezta Seculan ahituco.

Hargatic bethi behar çare bihotz berri batez hartara preparatu, eta çure Saluamenduco mysterio handi hura Consideracione erne eta finco batez pisatu behar duçu.

Noiz ere meça erraiten edoençuten baituçu, iduritu behar Çaitçu hain gauça handi, berri eta aleguera maitatcecoa garri dela nola bailiçate Jesu Christo. egun hartan berean lehenic Virgina Sainduaren Sabelera cautsiric guiçon eguin baliz, edo gurutcean iosiric paira baleça eta hil baledi munduco Saluamendua gatic

Hirurgarren Capitulua

On dela maiz Comuniatcea

Arima deuotaren hitzac.

I Huna ni Jauna çure gana heldu naiz; arren çure dohainetic ongui guerta daquidan, eta pobreari çure ontasunaz, ô Jaincoa, appaindu dioçun barascari Sainduan aliguera nadintçat.

Huna, çure bartan da desira deçaquedan, eta desiratu ire behar dudan gucia, Çu çare ene Saluamendua, eta libeança ene esperança eta indarra, ene ohoria eta loria.

Alegueraçaçu bada egun çure Seruitçariaren bihotza, ceren çure gana, ene Jesus maitea, alchatu dut ene arima.

Baldut desira orai çure errecebitceco ahalic devocione eta erreverencia handi-~~enaq~~ enarequin. Nahi Çaitut ene etchean Sar araci, ni ere Zacheo beçala benedica naçaçun, eta Abrahamen, umeen artean Conda nadin gatic.

Ene arima guthiciatcen da Çure gorputz Sainduaz, eta ene bihotzac desiratcen du Çurequico bat içaiten.

II Eman çaquiscut, Jauna eta asqui dut, berdin Çutaz campoan ezta valio duen Consolacionerie.

Çu gabe ecin naiteque eta ~~visitatcen~~ ene gana heldu ezpa~~naiçu~~ çare, ecin nagoque vicirie.

Halacotz behar natçaitça maiz hurbildu, eta behar Çaitut maiz errecebitu ene Saluamenduco erreme diotçat, beldurrez

munduco bide hunetan flaca nadin,
guertatcen banaiz ceruco iaquiaz gabeturic.

Ceren ceronec, ô ene Jesus guciz misericordiosa, gendey predicatcen cenerauenean, eta hainitz moldezco eritasunac sendatcen cinituenean, hunela noiz pait erran duçu; Eztitut igorri nahi bere etchetata bururic, bidean flaca ditecin beldurrez.

Hori bada eguiçu orai enequin, çure burua Sacramendu Sainduan utsi duçunaz guero fidelen Consolamenduco.

Ecençu Çare arimaren ethurunça goçoa, eta norcere behar beçala ianen baitçaitu, hura içanen da Seculaco lorian partale eta primu.

Eguiaz nola hunein uçu erorten bainaiz, eta eguiten baitut bekatu, nola hunein laster naguitcen eta flacatcen bainaiz, behar naiz ere maizco oracionez confessionez, eta çure gorputz Sacratua maiz erreceibituz berriztatu garbitu eta iracequi beldurrez, sobera banago erremedio saindu hura hartu gabe, eror nadin neure beheneco borondate Saindutic.

III Ecen guiçonaren gogoa gaizquira isuria da beregazte danic, eta Jaincozco miritcina heltcen ezpaçayo, berehala gaixqui agotan erortenda.

Beraz comunione Sainduac guibelatcen du gaizquitic, eta onguian borthitzten du

Ceren orai huneinbat naguitcen eta epeltcen banaiz comuniatcen edo meça

erraiten dudanean, cer licateque erremedioric harteen ezpanu, eta horrelaco indargarri bilha ezpanaça?

Eta enaicelaric ongui preparatua eta iarria egun oroz meça Sainduaren erraiteco, badaric ene ahal gucia eguinen dut egun iaquinetan Jaincozco mysterioen erreci bitceco.

Ecen arima fidelaren consolacione principalitaric bat hauda, gorputz helcorrean çu icusi gabe dabillano bere Jaincoaz orhoituric bere maitea bihotz devotaz errecibi tcea deçala

IV O cure gure ganaco bihotz beratasunaren obra miragarria! Çuc, ô Jainco Jauna, espiritu gucien creatçaillia eta vicitçaillea, nahi baituçu arima gaiçoa gana etorri, eta harengosea Çure Jaincotasun eta guiçontasun ossoaz guicendu!

O Çori onezco espiritua, ô arima doatsua ceinic ere mereci baitu, çu bere Jainco iauna devocionerequin errecibitcea, eta errecibitcen çaituenean bozcario espiritualaz bethetcea!

O cein Jaun handi errecibitcen duen, cein arrotz maite etcheratcen duen, Cein lagun arroy hartcen, cein adisquide fidel bereganatcen, cein espos eder, Cein noble, cein gucien artean eta gucien gainetic maitatceco bessarcatcen duen!

O ene maiteric maiterna! Cerua, lurra,

eta hequin edergaillu guciac beudez ichilic çure aitcinean ~~Ecen~~

Ecen cer ere baitute ederric eta laudat=cecoric, hura dute çure ontasuneren biçartasunetic, eta Seculan eztira helduco çure icenaren edertasunera, Ceinaren çuhurciac ez paitu neurriric

Laugarren Capitulua

Hainitz ontasun emaiten çayola devocionerequin errecibitcen duenari

Arimaren hitzac.

I Ene Jainco jauna, aitcen Çaquisco çure Seruitçariari çure eztitasuneco benedicinoez arren gay eguin ~~nah~~ nadin çure beregaineco Sacramendura behar beçalaco devocionerequin hurbiltceco.

Iratçar eçaçu ene bihotza çure gana eta bellus naçaçu ene naguitasun toldiaz.

Visita naçaçu çure Saluagarriaz, espiritualqui dasta deçadantçat Sacramendu hunetan bere bethez ithurburuan beçala gorderic daducaçun eztitasuna.

Argui diacatdatçu ere beguiac hain mysterio handiaren icusteco, eta indaçu indarric asqui haren cinetsteco fede du dagabeco batez.

Ceren obra hori çure ganic da eta ez guiconaren indarretaric: Cuc Sainduqui ordenatua da, ez guiconec persatua.

Eta eguiaz nihor eta gay edireiten mysterio horien bere indarriz endellegatceco Anguerven Sutilleciari ere garaitcen baitçaisco

Cer bada nic bekatore, lur eta hauts
baicen enaicen horrec pinsa eta endellega
deçaquet hain sequeretu barrena eta
Sacratu hunetaz?

II Jauna, ene bihotzeco simplecian fide
on eta finco bategun, Çuc ere manaturic,
hurbiltcen natçaitçu esperançaz eta erre=
verenciaz betheric, eta cin cinez daducat
çu Jainco eta guiçon hemen presentean
Çarela Sacramendu hunetan

Nahi duçu bada harçaitçadan, eta
çuregun bat eguin nadin amorioz

Halacotz banagoça çure ontasunari
othoitzez, arren indaçu gracia beregain
bat, ni naicen gucia çure baitora charitatez
urt eta isur nadin, eta nahiz diren
Consolacionez gueyago achola eznadin.

Ceren Jaincozco Sacramendu hau da
arimaren eta, gorputzaren ossasuna,
gogoco languiadura gucien miritcina:
hortan ene gaiz guiac erremediatcen dire
passioneac estecatcen, tentacioneac azpiratcen
eta gutitcen: hortan gracia gueyago
emaiten da, vertute sortu berria handitcen,
fidea bortitzen, esperança fincatcen,
charitatea sutcen, iracequitcen, heldatcen
eta Çaualtcen.

III Eguiaz, ene Jaincoa, ene arimaren
bessarcatçaillea, guiçona bere flacotasunetic
alchatcen duçuna, barreneco Consolacione
guciac emaiten ditutçuna, Sacramendu
Sainduan hainitz ontasun eman diraueçu

cure maitey, eta gueyago ere eta maizago emaiten devocione onbatez errecebitcen çaitustenean.

Hainitz moldezco consolacione esurtcen duçu hequin baitara, hainitz moldezco tribulacioneen contra;

Cure maiteac bere bihotz gabetasuneco putçutic çure gomendioco esperançara alchatcen tutçu, graci berri batez bethetcen eta barranean arguitcen; hala non errecebitu baino lehen gogoetatsu eta affecciona gabe çeudenac, guero ceruco ianhariaz eta eduriaz aseric haguitz hobequi eta sendoago causitcen baitira.

Horrela hargatic hari çare çure hautatuequin, arren segurqui eçagut, eta darqui froga deçaten, cein flaco diren bere buruz eta cer ontasun eta gracia içaiten duten çure ganic.

Ceren bere buruz hotz, gogor, eta devocione gabeco dira, çure ganic ordea mereci dute bero, agudo eta devocionetsu içaitea.

Ecen nore ~~ez~~ eztitasuneco ithurrira humilqui hurbilduric ~~ez~~ eztu hartaric eztitasun guti bat bederen ekartcen?

Edo nore su handi baten aldean egonic eztu hartaric ~~ez~~ bero appur bat hartcen?

Etá çu çare bethi betheric dagoen, eta gainez eguiten duen ithurria, çu çare arduraqui iracequiric dirauen eta nihoiz ere iraunguitcen ezten sua.

IV Halacotz cilhegui ezpanaiz ithurri bethetic erautstera, eta asse arteraino

edatera, guciarequin ere ahoa paratuco diot
ceruco ithaiçur haren cilhoari, arren handic
chortacho bat bederen har deçadan ene egar=
suaren hiltceco gucia ihar ez nadintçat.

Eta baldin gucia ecin bainaiteque oraino
cerucoa eta suakartua cherubinac eta
serafinac beçala; badarie equin ahala
equinen dut devocioneari itchequitceco
eta ene bihotzaren preparatceco; arren
sacramendu vicigarria ahalic humilquiena
hartcendudala, Jaincozco su handi hartaric
inhar bat ezpere bildeçadan gatic.

Cer ere baitut escas, ene Jesusona, saluat=
caille guciz saindua, çuc ene orde hura
complicaçu cure ohico beguitartearen ezte=
tasunaz, guciac çure gana deitu ~~netz~~
nahiiçan ditutçunaz guero, dioscuçula.
Çatoste ni gana nekatcen eta cargatuac
çareten guciac, eta nic arinduco çaitustet.

V. Ni segur trauaillatcen naiz ene copetaren
icerditan, bihotzetic minez nago, bekatuz
cargatua nabilla, tentacioneec narabillate,
hainitz passione gaixtoc corapillatcen eta
çapatcen naute; bizquitartean ezta hel
daquidanic, ezta libra eta salua naçanic
çubaicen, ene Jaincoa, ene jauna eta saluatçaillea

Çure escuetan utsten dut neure burua
neure ditudan guciequin, çuc beguira eta
seculaco vicitcera guida naçaçun gatic.

O niri çure gorputza ianharitçat eta
odola idaritçat appaindu derautaçuna
harnaçaçu cure icenaren laudoriotan eta
loriatan

Othoy, ene Jaincо jauna, eta Saluatçaillea
indaçu graciaemendа daquidan devocioneco
affeccionea, noiz ere çure mysterio Sacratua
hartcen baitut.

Bortzgarren Capitulua

Sacramentu Sainduaren handiretsunez eta Aprezen auantaillaz.

Jaunaren hitzac

I Anguerucn garbitasuna eta Jondone Joannis Batistaren Saindutasuna bacendu ere etcinateque gay Sacramendu hunen hartceco edo urkitceco.

Ceren ez tagoca nihoren merecimenduari Jesusen Sacramendua consecratcea, bertcey emaitea, eta Anguerucn oguia iatia.

Mysterioaren handia! eta cein gradu handitan iarriac diren Azpiac: hey eman baitcaye Anguerucy eman etçayen Chorea!

Ecen Apizec choilqui, Eliçan behar leguez ordenatuac direnean, escu dute meça erraiteco eta Jesusen gorputzaren Consecratceco.

Eguia da Apiza dela Jaincoaren ordea eta languidea Jaincо ~~ber~~aren hutrez Seruitçatcen denean, Jaincoac berac ordenaturic eta manaturic; ala bainan hortan Jaincoa da eguille nausia eta ecin icusizco obratçaillea; nahi duen guciа haren borondatearen azpian baitago, eta manatcen duen guciaz obeditcen baita.

II Gueyago beraz cinetsi behar diogu Jaincо guiz cotheretsuari Sacramendu beregaineco hunetan, ecen ez çure gustuari,

edo Cembait icusten duçun Seinaleri eta iduriri

Halacotz beldurrarequin eta erreuerenciaz betheric obra huni hurbeldu beharçaisco..

Çagotça cure buruari beha, eta miraçaçu neren obraren eguiteco botherea eman Çaitçun Apiz picuac çure gainean escuac pausatu dituenean

Huna, Apiz eguin çare eta consecratua çara meça erraiteco: duçun bada orai artha fidelqui eta devocionerequin behar den orduan Jaincoari Sacrificio ofrecitceaz, eta behaçaçu nola gendartean ibillico çaren nihore çuri tilleric eman gabe

Çure carga eztuçu arindu, aitcitic amarra hersiago batez loturic çaude Çure eguinbideari itchequitceco, eta Saindutasun handiago batetara obligatua çare.

Behar da vertute guciec argui deçaten Apiza baitan, eta bertcey vicitce prestu baten moldea eta miraillа eracuz diecen.

Apizac ibilli behardu, ez gende Comunaren erremanguetan, ez munducoen ohicotracen arauera, bainan edo Anguerueguin Ceruan, edo guiçon Jaincotiarrequin lurrean.

III Apiza, tresna Sacratuac iauntsiz guero da Jesusen ordea Jaincoari othoitz humillac eguiteco beretçat eta gucientçat

Badu aitcinetic eta guibeletic gure Salnatçaillearen gurutzearen Seinalea, haren Passione Sainduaz arduraqui orhoitcea gatic cotzat

Gurutcea aitcinetic darabilla Casulam Jesusen urratsey ernequi behatceco, eta agudoqui iarraiquiteco.

Gurutceaz seinalatua da gui beletic bertceec eguiten diotçaten gaitz guciac emero paira detçantçat Jaincoaren amorioa gatic.

Aitcinetic du gurutcea, bere bekatuz nigar eguin deçantçat

Finean gurutcea darabilla gui beletic bertceen ene gaixtaqueriez urricarizco. damu har deçan gatic eta iaquin decan ordenatua dela ararteco Jaincoaren eta bekatorearen artean, eta eztuela naguitu behar othoitz eguitera, eta Sacrificio Sainduaren ofrendatcen, Jaincoa ganic gracia eta misericordia ardiets deçan artean.

Noiz ere Apizac erraiten baitu meça Jaincoari ohore, Anguerney bozcario, fidel guciey exemplu, vici direney indar, arima ioaney Sosegu emaiten deraue, eta bera eguiten da Eliçaco gracia eta Ontasun gucietan partale.

Seigarren Capitulua

Galdea, Cer eguin behar den errecebitu baino lehen

Arima devotaren hitzac.

I. Jarten naicenean, Jauna çure handi=resunaren, eta neure deus gutitasunaren Consideratcen, choil ikaratcen naiz, eta ene baitan ahalketcen

Ceren hurbiltcen ezpanatçaitçu, ihesi noaco viciari, eta iarten banaiz Çure mahainean Cutsaturic, huts eguiten dut Cure Contra

Cer eguinen dut beraz, ene Jaincoa, ene laguntçaillea eta conseillaria neure behar=quietan?

II Çuc irakaz diaçadaçu bide çucena
emadaçu cembait antce labur, behar
beçala errecibitceco

Ceren on da iaquitia nolaco devoci-
onerequin eta erreuerenciarequin behar
derautçaistan ene bihotza preparatu çure
Sacramenduaren hartceco, eta hain sacrificio
handiaren eta Jaincozcoaren eguiteco.
ene arimaren Saluamendutan.

Çazpigarren Capitulua.

Bere Conscienciaren examinatciaz, eta oneratceco deliberacioneaz.

Jesusen Hitzac

I Bertceguciac baino lehen bihotzeco
humiltasun eta erreuerencia handi,
fede osso eta jaincoaren ohoratceco.
intencione devocionetsu batequin Jaincoaren
apiza hurbildu bihar da Sacramendu
huner eguitera, erabiltera eta hartcera.

Miraçaçu ernequi Cure Consciencia,
eta çure ahalaren arauan hura garbi
eta arguiçaçu eguiazco urriquimendu
eta confessione humil batez, hala non
çure baitan eztaducaçun, edo eçagut
ezteçaçun ausiqui çaitçan, eta cilheguiqui
hurbiltcetic guibela çaitça quen narriorie

Higoin beguizquitçu çure bekatu guciac
generalqui, duçun ere damu particular.
bat eta urriqui gueyago. Çure egunorozco
Soberaniez: eta demborac aguintcen
badu çure arimaco miseria guciac
Confessa diotçotçu Jaincoari çure bihotzeco
gordalecuan.

II Çaude hatsbeherapenez, eta duçun
dolore, Ceren oraino hain çarin haraguizcoa.

eta munducoa ceren passioniac ditutçun
hain hildumatu gabiac, ceren çure guthicia
hala çarabiltçaten, ceren çure campoco sensuac
hain guti beguiratcen tutçun, ceren gogoita
alferric hain maiz nahasten çaitusten

Ceren hain çaren campoco gaucetara
isuria, hain naguia barreneco etara, hain
arina irri eguitera eta erguelteera, hain
gogorra nigarretara eta urriquimendura.

Ceren hain agudo çaren gauça largoitara
eta haraguiaren placeretara; hain nagui
herts cailluetan, eta beroqui hari behar denean

Hain erne berriac ençuteco eta gauca
iderric icusteco; hain flaco gauça communen
arunteren eta humilgarrien bissarcatceco

Hain guthicios hainitz, biltceco, hain
ceken emaiteco, hain hersi itchequitceco.

Hain nauaruen hitzguitean, hain ichil=
gaitz Compainietan.

Hain desordenatua çure azturetan, hain
erguti çure erremanguetan.

Hain emana iatira ian idanera; hain
gor Jaincoaren hitzetara

Hain lastercatsu pausatcera, hain berantcor
trauaillatcera.

Hain erne elhetara, hain logale viella
sainduetara.

Hain Kechatua acauatcera; hain airatua
cinetan hari behar bidean

Hain tonto çure orenen iracurtceen, hain
epel meça erraitean, hain idor eta agor
errecebitcean, hain laster errebelatua
hain gutitan çure baitan ossoqui bildua

Ceren hain iççu colerac çaramatçan, hain errazqui bertceac higointcen çaisquitçun, hain arinqui iugeatcen tutçun, eta hain çorrotzqui erancuten deraueçun.

Ceren hain ~~careta~~ çaren aleguera ongui doatçunean ~~çorrotzqui~~, hain flaco gaizqui guertatcen çaitcunean.

Finean ceren hain bertcetan deliberatcen duçun hainitz ontasun eguiteco eta hain guti eguiten ducun

III Çure escas-makur horrioc, eta bertce horrelacoac confessaturic, damu handibat harturic Ceren hain flaco çaren, hareçaçu gogo eta borondate sail bat beti Çure vicitcearen oneratceco, eta hoberenetic hoberenera ekartceco.

Guero obediencia bethe, eta bihotz osso batez ceroni ene icenaren ohoretan ofrenda çaquisquit bethiereco sacrificiotçat Çure bihotzeco aldarearen gainean, Çure gorputza eta arima fidelqui utsten ditutçula ene gomendioan; arren manera eta bide hartaz merecimendurequin hurbil ahal çaitesquen Jaincoari, sacrificio eguitera, eta ene gorputzaren sacramendua Çure saluamendutan hartcera.

IV Ecen ezta ofrenda hobeagoric, ez eta bekatuac gatic satifacione handiagoric bere burua garbiqui eta ossoqui Jesusen gorputz preciosarequin batean Jaincoari ofrendatcea baino meça erraitean, edo errecabitcean.

Nihore eguiten badu bere baitan dena eta eguiazco urriquimendutan badago, noizere

hurbilduco baitcait barkamen duaren eta graciaren ardietsteco, vici ~~naiz~~ naiz, dio Jaunac, nola ezpaitut nahi bekatoria hil dadin, aitcitic nahiago baitut bihur dadin ene gana, eta vici dadin, enaiz gueyago orhoituco haren bekatuez, baina guciac barkaturen çaisco.

Çortcigarren Capitulua

Nola gure Saluatçailleac bere burua ofrendatu duen gurutcean, eta nola behargaren iarri haren borondatearen azpian.

Jesusen hitzac

I Nola neroni, escuac gurutcean hedaturic, eta gorputza billusgorrituric, borondate onez çure bekatuac ~~gatt~~ gatic ofrendatu bainatçayo ene aitari, hala non ezpaita deus ere ene baitan arkendu eman eztudanic sacrificiotçat haren baquetceco: mol de bereançu ere egun ~~guciez~~ oroz borondatezqui ofrendatu behar çaisquit meça sainduan, çure bihotzeco ahal eta afeccione ofrenda garbetçat eta saindutçat.

Cer nahiago dut Cure ganic, ene borondatearen azpian ossoqui iartera enseya çaitecin baino?

Cer ere emaiten baiterautaçu ceroni emaiten ez paçaisquit, eztaducat deus; ceren enabilla çure emaitçaren, baina bai çu cerorren bilha.

II Ecen, nola gauça guciac içana gatic ezpaitcen duque asqui, ni neroni ezpanauçu

orobat eman diaçaquedaçun gucia eztuquet
on, Çu Ceroni emaiten ezpaçaisquit

Çaren gucia ofreci eta eman Çaquisquit
Jaincoa gatic, eta Çure ofrenda içanenda
ene gogaracoa.

Huna ni naicen gucia ofrendatu natçayo
ene aitari, eman der autçut ere ene gorputza
ianharitçat, eta ene odela edaritçat, arren
ni gucia naicen çure, eta Çu gucia queldi
Çaitecin neure.

Ordea Çure baitan egoiten baçara, eta
çure burua gogotic ekartcen ezpaduçu ene
borondatera, ofrenda ezta bethea içanen,
eta gure artean ezta batasun ossoric eguinen.

Beraz deusic daguiçun baino lehen,
aitcinetic behar duçu Çure burua borondate
ossoz Jaincoaren escuetan eçarri, nahi baduçu.
libertatiric eta graciaric ardietsi.

Ecenhargatic hain gutiac arguitcendira
eta bere baitan libro eguiten, Ceren bere
burua ecin ossoqui uts deçaqueten

Nic eman sentencia tink eta fermudago:
baldin nihore uko eguiten ezpaderaue — bere
dituen
gauça guciey, hura ecin daitesque ene
discipulu.

Bada nahi baduçu ene discipuluetaric
batiarri, ofrenda Çaquisquit Ceroni Çure
afeccione guciequin.

Bederatcigarren Capitulua

Gure Curuac eta ditugun guciac behar diotçagula Jaincoari ofrendatu eta gucientçat othoitz eguin.

Arima prestuaren hitzac.

I Jauna, Cureac dire ceruan eta Currean diren guciac.

Badut desira Çuri neure Curuaren emaiteco Corondatezco ofrendetçat, eta ~~Seculacotz~~ bethiere egoiteco Çure.

Jauna ene bihotzaren simpletasunean eguniartcen naiz Çure Seculaco Seruitçari cure oloditceco, eta bethi neure Curuaren sacrificiatceco Çure laudoriotan.

Harnaçaçu othoy Çure odol preciosaz egoiten derautçudan ofrenda hunequin batean: hura egun presentatcen derautçut hemen daudecin Anqueruen aitcinean icusten eztitudalaric, ene eta fidel gucien Saluamendutan guerta ~~dite~~ dadin gatic.

II Jauna Çure baquezco aldare hunen gainera ekartcen derausquitçut bekatu eguiten hasi nintcen lehenbicico egunetic oren hunetaraino Çure eta Angueru Sainduen beguietan eguin ditudan huts eta bekatu guciac; arren çuc çure charitatearen Suaz erne deçatçun, ene gaizquiac borra eta hil detçatçun, ene consciencia bere cutsu gucietaric garbi deçaçun, eta bekatu eguinez galdu dudan gracia bihur diaçadacun gatic; guciac oro barkatcen derausqui datcula, eta misericordiozqui hartcen Nauçula Çuri baquezco muçu emaitera.

III Cer daidiquet humiltceaz bertceric ene bekatuac gatic, hec confessatcen eta nigar uçuz hiltcen ditudala, eta ichil gabeco othoitzez nagotçula misericordia esque?

Othoy, ene Jaincoa, ençun naçaçu, eta urrical naquiçula çure aiteinean nagoen beçala.

Han diro higointcen, çaisquit neure bekatuac, ez tut bat ere gueyago seculan eguin nahi: hetaz dut damu eta içanen ere vici naiceino, prestic nagoela penitencia, eta ahal beçambat satifacione eguitera.

Barka diatçadatçu, ene Jaincoa, barka diatçadatçu eguin ditudan bekatuac çure icenaren amorioa gatic: salua diaçadaçu çure odol preciosaz berrerosi duçun arima

Huna, nigomendatcen natçayo çure misericordiari, çure escuetan iarten naiz

Eguiçu enequin çure ontasunaren arautra, ez ene gaixtotasunaren eta esquer gabetasunen eredura.

IV Ofrendatcen derausquitçut halaber nic ongui eguin guciac, choil appurrac eta iscasac derelaric, arren cuc beguitarte onez har detçatcun, çure gogara chuchen, santifica eta bethi hoberenera ekar detçatcun, eta azkenean ni alfer eta ez deusetaco hori fin doatsu eta laudatceco batetara guida naçaçun gatic

V Ofrendatcen derausquitçut oraino gende deuoten desir on guciac, ene bura soon, ahaideen urkoin, adisquideen, haurrideen minduri gucien, niri edo bertceriçure amorioz ontasunic eguin deraucutenen, beretçat edo bertcientçat

othoitzic edo meçaric ene ganic desiratu duten, edo escatu çaisquidan gucien beharrac, orraiño vici edo iadanic hil badire; arren guciec senti deçaten çu heltcen çaiscotila çure graciaz, favoratcen tutçula çure consolacionaz, perilletaric beguiratcen, eta penetaric libratcen ditutçula, eta finean ~~gue~~ gaitz gucietaric atheraric atheraz guero hainitz esquer on eta eder borcarioreguin eman diaçaçuten amorioa gatic

VI Ofrendatcen deraus gutçut ere baquezco othoitzac eta sacrificioac, beregaingui cerbaitetan offrensatu, tristetu, gaizqui aippatu, dainatu eta bidegabeztatu nautenac gatic: bai eta nic batçutan hitzez, eguintz neaquiela, edo eneaquiela, haserretu, asaldatu, damuztatu, edo edo escandolisatu ditudan guciac gatic: guciey orobat gure bekatuaz eta elkarren arteco offensac barka diatçat gutçun amoria gatic

Atheraçaçu, Jauna, gure bihotzetaric iduripen gaixto gucia, bekaitsteria, beltçuria, muturtasuna, haserridura, gudua, liscarra eta cerc ere charitatea eta anayen arteco baquea çaurt, herts, guti, eta guibela baiteçaque

Misericordia, Jauna, misericordia eguioçu misericordia esque dagotçuteney emeçu beharrey gracia; eta eguin galtatçu halacoac, non guerta gaitecin gay çure graciaz goçatceco, eta seculaco viciaren ardietsteco. Bizhala.

Hamargarren Capitulua

Eztela errazqui guibelatu behar errecibitcetic

Jesus maitearen hitzac.

I Maiz eta laster behurtu behar çare graciaren eta Jaincozco misericordiaren ithurburura, ontasun eta bihotz bihatasun gucico ithurriea çure passione eta vicio gucietaric senda ahal çaitesquen, eta deabruaren tentacione eta enganio gucien contrabortzago eta erneago eguin çaitecin gatic.

Etsaya, iaquinic probetchu eta erremedio guciz handia ~~bat~~ dagoela sacramendu sainduan, manera eta ocasione ahal guciez enseyatcen da fidelen eta Jaincotiarren guibelatcera eta trauatcera haren errecibitcetic.

II Ecen batçut, iarten direnean bere bihotzaren preparatcen comunione sacratuaren hartcera, orduan Satanen acometamendu gaitzenac pairatcen tuste.

Espiritu gaixto hura (Joben liburuan datçan becala) sartcen da jaincoaren umeen artean, hequin nahasteco bere gaixtaqueria usatuaz.

Hec eguitentu beldurtiegui eta dudatsu, hequin affeccione saindua gutitu, edo duten cenetstia gal araci nahi bere guerlateaz; ea aldiz edo moldiz ossoqui utsico dut comunione saindua, edo ea epelduric ~~bah~~ hurbilduco çais conz

Ordea eztu nihore ansiaric behar haren artezia edo gogoetagarri, guciez cembat dire

itsusiac eta higointcecoac baitire: aitcitic
burutara bihurtu eta aurtiki behar çaisco
pitsten dituen faineraqueriac.

Dohacabe hura mespreçatcecoa da eta
trufatcecoa: alchatcen dituen bueltac eta
eraguintçac gatic eztu nihoiz ere guel ditu
behar gure Jesus maitearen gorputz preciosaren
hartcetic.

III Hainitz etan ere devocioneru itçaiteco
artha soberac, eta grina dudagarri iaquin
batec nola confessatu behar den trabu
emaitendute.

Eguiçu çuhurren constelluaren arauera, eta
egoitzaçu dudaqueria eta narrio gucia,
ceren Jaincoaren gracia trauatcendu, eta
bihotzeco devocionea ithotcen.

Etçaitecila guibela comunione sacratutic
edocein tribulamendu, edo atsecabe appur
gatic: aitcitic çoaz ahalic lasterrena confes-
satcera, eta bertcey barka dieceçu gogotic
. Baina çuc nihor offensatu baduçu, escaçaite
humilqui barkacino, eta Jaincoac ere gogotic
barkatuco derautçu.

IV Cer probetchu dueu berant confessatceaz,
edo Comunione Sainduaren guibelatceaz?

Garbi çaite lehen bai lehen, laster etchaçaçu
poçoina, lehia çaite erremedioaren hartcera,
eta hobequi causituco çare dembora handiz
luça baceneça baino

Egun guelditcen baçare aitçaquia baten
gatic, bihar nasqui estacuru handiago bat
etorrico çaitçu, eta horrela egonez

luçaro traua cindesque errecebitcetic,
eta hartara gutiago gay eguin cindesque.

Ahalic lasterrena iraitzaçu presentico
pisutasuna eta naguitasuna; berdinezta
probetchuric lucequi egoiteaz narriotan
eta garritan, eta egunorozco pacheluac
gatic Jaincoaren mysterio etaric apartatceaz

Aitcitic hainitz luçatceac errecebitu gabe
calte handia eguitendu, Ceren loakartasun
pisubat ekartcen ohi baitu.

Ah dolorea! Epel eta largo batçuc confes=
satceco luçamenduac gogotic hartcen tuste,
eta nahi dute comunione saindua guerotic
guerora guibelatu, beldurrez obligaditecin
bere buruen hobequi beguiratcera.

V Hé! Cein charitate appurra, eta devocione
erbala duten hain erraz qui comunione sacratua
utsten dutenec!

Cein doatsu eta Jaincoaren gogaracoestimatcen
den, nor ere hala vici baita, eta halaco
garbitasunean bere consciencia baita duca,
non prestic bailigoque egunoroz errecebitcera,
eta gogotic ere errecebi baileçaque, cilhequi
baliz, eta ahal baleidi nihon deusic contra
erraiten ez luela!

Batçutan nihor guelditcen bada errecibitcetic
humiltasunaz, edo cembait leguezco traburen
gatic, hura da laudatcecoa sacramenduari
ekartcen diven ohoriaz.

Ordea naguitasuna sartcen baçayo, berac
atçartu behar du bere bihotza, ~~eta~~ bere baitan
dena eguinez, eta Jaincoa helduco çayo
haren desirari daducan borondate ona

gatic, ceintara bere gaingui behatcen baitu

VI Baina noiz ere ~~bihahar~~ beharriz trauatua baita, bethi iduqui beçagogo ona eta intencione Saindua errecibitceco, eta horrela eguinic ezta Sacramenduaren fruituaz gabetuco

Ecen nahiz den arima deuota egun eta oren guciez hurbil diteque bere Saluatçailleareu espiritualqui hartcera probetchurequin eta nihore trauatu pachelatu gaberu

Guciarequin ere egun iaquinetan, eta manatuetan bere Jaunaren gorputz maitca behar du bihotzerco erreuerencia batequin Sacramenduan errecebitu, eta gueyago behatu behardu Jaincoaren laudoriora eta ohorena bere Consolacionera baino

Ceren arima ~~espiritualac~~ devotac espiritualqui errecebitcen du, eta icusten ezten maneraz othurunçatcen da Sacramendu Sainduaz, noiz ere bere Saluatçaillearen Incarnacioneo mysterioa eta Passionea gogoan baitarabilla devocionerequin, eta haren amudioan iracequitcen baita

VII Nor ere ezpaita preparatcen Besta etorri denean, edo costumac erchatcen duenean baicen, hura gueyeneen preparatu gabea icanenda.

Doatsua, norc ere jaincoari bere burua Sacrificio, ossotçat ekartcen baitio, meça erraiten, edo errecibitcen duen ordu gucietan!

Etçarela luce edo Kechuegui meça erraiten duçunean, baina Çarraisco vici çarenequicoec daducaten ohico antceonarj.

Eztitutçu bertceac unhatu edo Kechatu behar: aitcitic iarraiqui behar Çaisco. bide arunterari, aitcinecoec ordenatu duten beçala, etalehen behatu behar dioçu bertceen probetchuari, ecenez Çure devocionearj eta gogoari.

Hamaccazarren Capitulua

Aldarico Sacramendua, eta esquiritura Saindua Choil direla premiazcoac arima fedel arentçat

Jesustiarraren hitzac.

I O Jesus ene Jaun guciz eztia, ccin handi den Çurequin Çure barascaritan othuruncatcen den arima devotaren eztitasuna, non ezpatçayo bertceric emaiten iatera çu baicen, ô haren maite bakoitza, gucien gainetic maitatcecoa!

Niri ere Segur consolacione litçaiquet Çure presencian barreneco affeccionez nigar isurtcea, eta Madelena devoterequin Çure oinac nigarrez arregatcea.

Ordea nonda halaco devocioneric? nonda nigar urite Saindu hura?

Guerthuz Çure beguien, eta Angueru Sainduen aitcinean ene bihotz gucia behar liteque erre eta urtu bozcarioz

Ecençu ceroni Çaitut eguiazqui presentean hemen Çure Sacramenduan, iduri arrotz ez estalia Çaudelaric.

II Berdin ene beguiec ecin paira beçaquete Çuri Çure Jaincotasuneco.

arguitasunean behatcea mundu gucia
bera elegoque Çure maisestariaren loriazco
distiaduraren aitcinean.

Hortan bada bihatcen dioçu ene flaco=
tasunari, ceren gueriçatcen çaren Sacra=
menduaren azpian.

Badut eguiazqui, eta adoratcen ere dut
Anguerucc ceruari adoratcen dutena bera,
nic ordea fedeaz oraino, eta hec hura
den beçala icusten dute beguitartez beguitarte, eta
istalqui~~zic~~ gaberic

Huneraino Contentic egon behar naiz
eguiazco fedearen çuciaz, eta hare guidaturic
ibilli behar dut Seculaco arguiaren eguna
ilki dadin, eta figuren itçalac ioan
ditecin artean.

Baina doatsutasuneco estatu Complia
datorrenean, gueldituco da Sacramendura
usança eta beharra

Ceren doatsuec ceruco lorian eztute
Sacramenduzco erremedioren ~~beharric~~
mengoaric: Fingabequi bozten dira Jain=
coaren presencian, haren loria beguiz begui
icustendute; hondogabeco Jaincotasunaren
arguitic arguira aldaturic dastatcen
dute Jaincoaren Semea haragui eguina
haste danic içan den, eta Seculacotz
dagoen beçala.

III Miragarri hautaz orhoituric, nahiz
den consolacione espirituala pisu eta unhagarri
eguitençait, Ceren Cembat ere bainago ene
Jauna bere lorian icusi gabe ez deustçat daducat
munduan icusten eta ençuten dudan gucia.

Çu çaitut lecuco, ene Jaincoa, eztela nihon ere consola eta sosega naçaqueyen gauçarie çu baicen, ō Seculacotz miratcera desiratcen dudan Jaincoa: hori ordia ecin daiteque gorputz hilcor hunetan nabillano.

Halacotz paciencia handitan, eta Çure borondate Sainduaren azpian iarri behar naiz ene desir gucietan.

Ecen, Jauna, Ceruetaco erresuman Çurequin orai bozten diren Sainduec ere, vici errenean fide eta paciencia handirequin baguira ceudecin noiz etorrico cen Çure loria.

Hic cinetsi dutena, nic cinetstendut, hec içan duten esperança nic badut, eta fidança ere bai hec ardietsi duten lecura, nic Çure graciarequin batean ardietsico dudala.

Bizquitartean ibillico naiz fedeac arguiturie eta Sainduen exempluez bihotz turic.

Baditut oraino liburu Sainduac Consolacionetçat eta vicitceco mirailtcat, eta gucien gainetic badut Çure gorputz Sacratua erremedio eta ihis-lecu beregainecotzat.

IV Ceren eçagutcen dut bi gauçaz premia handi dudala mundu hunetan, eta hec gabe ondiozco vicitce hau ecin neramaqueyela.

Gorputzeco preson deguiac naducaino aitortcen dut behar dudala iatecoa eta arguia

Niri bada eri horri eman derautçaçu Çure gorputz Sacratua ene arimaren eta

gorputzaren bascatceco, eta çure hitz
Saindua ene oiney arguitceco.

Bi gauça hauc espanitu ecin ongui vici
nindeque; ceren çure hitza da arimaco
oguia, eta çure Sacramendua da vicitceco
oguia.

Erran debeque halaber bi mahainac direla
Eliça Sainduaren tresordeguien alde batetic
eta bertcetic eçarriac

Bata da aldare Sainduco mahaina, ogui
Sacretu, erran nahi da, Jesusen gorputz
preciosa daducana.

Bertcea da legue Sainduaren mahalma,
dotrina Saindua daducana, fide çucena
irakazten deraucuna, eta Seguraturic
guidatcen gaituena beloaren barreneraino,
ceinetan baitago Sainduen Saindua.

Esquerrac derausquitçut, ene Jesus Jauna,
egundainoco arguiaren argui Çarena
ceren Profeta, Apostolu, eta bertce Dotor Çure
Seruitçari leyalen escuez çure dotrina Sain=
duaren mahaina hedatu eta partitu derauçuçun

V Esquerrac derausquitçut guiçonen cre=
atçaillea eta libratçaillea, ceren çure chari=
tatea guciey eracuztea gatic, afari handi
hura appaindu duçun, Ceinetan emaiten
baituçu, ez figurazco bildotza, baina bai
çure gorputz eta odol Sacratua,

Alegueratcen tutçu, Jauna, fidel guciac
banquecia Saindu hartaz, eta horditcen
tutçu Sindagarrizco Çalitçaz, ceinetan.

barrena baitaude parabisuco placer guciac, eta non gurequin batean Angueru Sainduec iaten eta edaten baitute, baina gue baino goço doatsungo batez.

VI O cein handi eta ohorezco den Apezen officioa! Hey eman batçaye escu gucien gaineco Jaunaren hitz Sacratuez consecratceco, espainez benedicatceco, escuez era biltero ahoz hartceco, eta bertcey ere partitceco.

O cein chahu behar diren Apezaren escuac, ahoa cein garbi, gorputza cein aratz, bihotza cein argui, hartan barrena garbitasun gucico ithurria hain maiz Sartcen denaz guero.

Jesusen Sacramendua hain bertcetan hartcen duen Apezaren ahotic eztailki behar hitz ederric eta onic baicen.

VII Jesusen gorputzari bihatcen ohi dioten beguiac behar dira garbi, cuhur, eta ohorezco egon. Ceruaren eta lurraren Creatçaillea maiz ukitcen duten escuac behar dire chahuac eta Cerura alehatuac içan.

Apezey beregainqui erraiten Çayelegue Sainduan. Çaretela Saindu, ceren ni Çuen Jainco jauna bainaiz Saindu.

VIII Hel bequigu Çure gracia, ene Jainco guciz botheretsua, arren ~~azpi~~ apezta=suneco officioa hartu dugunoc behar beçalaco devocionez, garbitasun osso eta Consciencia on batequin Seruitçu eguin diaçaçugun.

Eta ecin ibil bagaitezque behar dugun

beçain viciter garbirequin, guciarequin ere iguçu gracia mereci beçale nigar eguitceco eguin ditugun bekatuac gatic, eta hemendic hara Cure seruitçatceco humilquiago, beroquiago eta borondate hobeagorequin.

Hamabigarren Capitulua

artha handirequin preparatu behar dela Sacramendu Sainduaren hartcera.

Jesus Maitearen hitzac

I ni naiz garbetasunaren maitaria eta Saindutasun guciaren emaillea.

Ni nabilla bihotz garbiaren bilha, eta hartan da ene pausagunea.

Prepara diaçadaçu afal lecu handi bat hedaturic, eta çure baitan eguitendut ene Bascoco afaria ene discipulutquin

Nahi baduçu cure gana natorren, eta çure baitan nagoen, Keneçaçu lemami çaharra çure arimatic, eta garbiçaçu çure bihotreco ostata lecua.

Camporaçaçu mundu gucia eta Vicioen auarrotza: iar çaite çure guelan, Eliça choria · llatuan bakarric dagoen beçala eta han gogoratçatçu çure iscasiac eta Soberaniac çure arimaren damutan.

Ecen nori ere maite baitu, ahalic lecuric hoberena eta edirrena preparatcen dio. bere maiteari eta hortan eçagutcen da bere maitea etchera hartcen duenaren eguiazco amorioa.

II Badaric ere iaquineçaçu ecin asco prepara caitesqueyela çure obren vertutez urthe ossobat ema baceneça ere çure preparatcen, eta bertceric gogoan ez pacendu ere

Bainan orhoitcait ene bihotz beratasun eta gracia hutsiz cilheguitcen: çarela ene mahainera hurbiltcera, escale bat irakar baledi beçala aberatzaren barascaritara deusic duela hari ordain emaiteco, haren aitcinean humiltcea eta esquer emaitea baicen.

Eguiçu çure baitan dena, ordea eguiçu gogotic eta ernequi, ez costumaz edo beharrez, baina beldurtasun, erreuerencia, eta gogo pitstu batequin hareçaçu çure gana bere ontasunaz etorri nahi duen çure Jainco jaun maitearen gorputza.

Ni naiz deitu çaitudana, nic manatu dut horrela eguin dadin, nic asquituco dut escas çarena çato eta harnaçaçu.

III Devocioneco gracia emaiten derautçu danean emoitçu esquerrac, çure Jaincoari, ez Ceren hura mereci ducun, baina Ceren niri urrical du çaisquidan.

Devocioneric ez paduçu, aitcetic sentitcen baduçu idorra çarela, iar çaite othoitz etan; çaude hats beherapenez, bulcaçaçu athea eta etcaitecila ichil cembait chort edo papor Jaincozco mahain hartaric ardiets deçaqueçun artean

Ene beharra duçu, eta nic eztut çure beharric

Etçara heldu niri saindutasun berriric emaitera, bai ordea ni heldu naiz çure hobetcera eta saindutcera.

Heldu çara ene ganic Sain dutasunaren ardietstera, çure buruaren enequin bat equitera, gracia berri baten hartcera, eta berrirozqui oneratceco gogoaren petsteren

Eztiçaçula hunelaco gracia mespreça; aitcitic preparaçaçu çure bihotza artha ahal guciaz, eta eraKarçu çure maitea çure baitara

IV Ordea ~~estuca~~ otcara errecebitu baino lehen choilqui devocionean iarri behar, bainan hartan egon beharduçu errecebitu ondoan ere.

Ezta guardia gutiago eman behar guerocotz, lehen ongui preparatceco behar cen baino

Ecen errecebitu ondoco guardia ona da preparacionerie hoberena gracia handiago baten berriz ardietsteco.

Ceren haguitz barrayatcen da nihor berehala jsurtcen egui bada campoco Consolacionetara

Beguira Çaite hitz sobera equitetic, Çaude lecu ichilean, eta goça çaitu Çure Jaincoaz.

Berdin cure baitan duçu mundu guciac ecin edequi edo eraman diaçaqueçuna.

Horrelacoa ni naiz, non çaren gucia eman behar baitçaisquit, hala non etçaitecin gueyago vici çure baitan, baina bai ene baitan deusiz ere grinatu edo acholatu gabe.

Hamahirurgarren Capitulua
arima deuotac bihotz guciaz desiratu
behar dutla Jesus maitearequin
bat içaitea Sacramendu Sainduan.

Arimaren hitzac

I Ene Jauna, norc eguinen deraut gracia çure aurkitceco bakarric, çuri neure bihotz guciaren çaualtceco, eta çutaz goçatceco ene arimac desira duen beçala?

Hala non gaur guero nihorc enaçan mespreça gueyago enaçan uki gueyago edoicus, bainà çu choilqui minça çaquisquidan, eta ni ere minça naquiçun, maitea maitearequin solhasetan, eta adisquidea adisqui diarequin barascaritan hari diren beçala

^ creaturetarie batec ere

Horren esque nago, hortaz dut desira ene nahia da çurequin ossoqui bat jcaitea neure bihotzaren apartatcea Creatura gucietaric, eta maiz errecebituz, edo meça erranez ikastea ceruco eta seculaco gaucen dastatcen

Ah! ene Jainco jauna, noiz içanen naiz gucia çurequin bat eguina, cure baitan hondatua, eta neure buruaz ossoqui ahantsia?

~~Eguiçu arren çu ene baitan ni cure çure baitan, naiz eta horrela gu batitan orobat egun gaitecin~~

Çu ene baitan Care, ni ere çure baitan naiz. Eguiçu arren horrela batitan egon gaitecin

II Guertuz çu çare ene maitea, milletarii hautatua; ene arimaren guthicia eta atseguina da Curequin egoitea vicico den egun guciez.

Eguiaz çu çare ene baqueguillea, çure

baitan da baquerie handiena eta eguiazco
sosegua, çure ganic campoan den gucia
da neke trauaillu, eta fincabeco laceria.

Eguiazqui çu çare Jainco estalia; Çure
conseillua ezta gaixtoequin, bainan humil=
lequin eta simplequin da çure solhasa.

O Jauna, cein ezte den çure espiritua!
placer baititutçu çure umeac othurun çatu.
cerutic iautsiricaco ogui miragarriqui goçoz
çure hequin ganaco eztitasunaren eracuzteco.

Guertuz ezta nihon bertcetan hain gende
handirir; non duen hurbil daquion Jaincorie,
çu gure Jaincoa çure fidel guciey heltcen
eta laguntcen çaiscoten beçala; Ceroni emaiten
baitçaiscot iatera eta goçatcera, hequin
bihotz aren consolatceco eta urura goititceco

egun oroz.

III Ceren cein da munduco gendeen artean
guiristinoa beçain noblerie!

Edo cein da ceruaren azpico creatura
gucietarie arima deuota beçain maiterie?
harengana heldu baita jaincoa, haren
bascatceco bere haragui loriosez.

O ecin erranezco gracia! ô miragarrizco
ontasuna eta ohorea! O neurrigabeco
amorioa guiconari bereciqui emaiten cayona!

Ordea cer bihurtuco diot nic Jaincoari
hain gracia eta Charitate handi hunen Ordain?

Ecin demoquiot haren gogorago den gauçarie
ene bihotza baino, hura ossoqui emaiten
diodela eta harequin ahalic barrenena
iuntatcen dudala

Orduan neure barren alde guciac iausico
dire bozcarioz ene arima Jaincoarequin
alde gucietarie iunta dadinean.

Orduan eranen deraut nahi baduçu
içan enequin, nic ere nahi dut içan çurequin
Eta ~~nic~~ jhardetsico diot: placer duçula,
jauna, enequin egon, nic gogotic nahi
dat içan çurequin. Hau da ene desir gucia
ene bihotza dagoen çurequin bat eguina.

Hamalaugarren Capitulua

Arima deuot batçuen guthicia iraquinaz
Jesusen gorputz Sainduaren aldera.

Arimaren hitzac

I Cembait eta cein handi diren, Jauna,
çure beldur direnentçat gorderic dadutçatçun
eztitasunac!

Çure sacramenduari devocione eta affeccione
handirequin hurbiltcen çaiscon batçu gogora
heldu çaisquidanean maiz enic tontoturic nago.

Ahakez gorritcen bainaiz icusteaz
hain epelic eta hotzic haldu naicela çure
aldarera eta gorputz Sainduaren mahainera:
hain agorturic eta bihotzeco affeccione
gaberic nagoela, enaicela ossoqui iracequia
eta suakartua çure aitcinean, ene Jaincoa,
eta enaicela gogo guciaz hainitz arima
prestu beçain borthitzqui çure gana eramana

Orhoit naicenean hec çure errecibitceco
guthicia handi eguiz, eta bihotzeco amorio
senticor batez ecin gueldi atesqueyela
nigar miruc eguitetic; baina çure gana, ō
ithurri vicia, bihotzeco eta are gorputzeco
ahoa çaualduric ceudecila, bere gosea
eta egarsua bertcela ecin apaiegatuz eta
asez çure gorputz preciosa ahalic
alegriança eta gosete espiritualenaz
errecebituz baicen.

II O cein eguiazco, cein vicia, eta iracequia den horrelcoen fidea! Seinale agueria da çu, Jauna, bere hihotzaren erdian çaitustela.

Ecen eguiazqui eçagutcen dute bere Jauna ogui hautstean, ceinen era bihotza hain viciro suakartcen baita, Jesus, maitea hequin artean bidean ibilliz.

Horrelaco affeccionea eta devocionea, hain amorio vicia eta iracequia hainitz etan urrun dira ene ganic.

Urrical naquicula, ene Jesus ona bihotz bera eta amolsua: emoçu çure escale gaiçoari ambait aldiz bedere çure bihotzeco amoriotic guti bat dastatcera çure mahain Sacratuan; arren çure baitan daducadan fedea gueyago bortitz dadin, ene esperança çure ontasunaren gainean, aitcina eta finca dadin ene charitatea alde guztiz iracequiric eta ceruco ianharia goçaturic nihoiz ere iraungui eztadin.

III Bada çure misericordiac emandiaçaquit hambat desiratcen dudan gracia eta çure placer oneco eguna datorrenean beguitarte amolsuaz visita naçaque bere amorioaren berodaran.

Ecen eztiraqui dalaric çure Seruitçari bereciec diraquiten beçain desir handiz badaric ere çure gracia lagunduric, hec duten desir iracequiaz guthicia dut nic ere othoitzez nagotçula eta desiratcen dudala gay eguin naçaçun cure horrelaco maitari bero guciequin partale guertatceco, eta hequin Compainia Sainduan Sartceco.

Hamabortzgarren Capitulua

Devocioneco gracia ardietsten dela humiltasunaz, eta bere buruari uko eguinez

Jesusen hitzac

I Behar duçu devocioneco gracia arduraqui bilhatu, beroqui escatu, haren beguira egon pacienciarequin eta fidançarequin.

Gracia behar duçu esquerrequin errecebitu humilta sunarequin beguiratu.

Graciarequin batean hari behar duçu artha handirequin, eta Jaincoa utsi behar duçu eguitera noiz eta nola visitatuco çaituen gainetic, bera datorren artean.

Gucien gainetic humildu behar çare eta apaldu, noiz ere baitacusaçu devocione guti duçula edo bat ere eztuçula; bainan etçare sobera bihotz flacatu behar, ez eta neurrigabequi tristetu.

Hainitz etan Jaincoac begui idequi batean emaitendu, dembora handiz ukatu çuena:

Batçutan ere othoitzaren ondoan emaitendu othoitz hastean eman nahi etçuena

II Gracia bethi berehala emaiten baliz, eta noiz nahi hel baledi, nekez hura iasan leçaque guiçonaren flacotasunac.

Hargatic esperança on, eta paciencia humil batequin egon behar duçu devocioneco graciaren beguira.

Bizquitartean emaçu falta cerorren, eta çure bekatuen gainean noiz ere gracia ezpaitçaitçu emaiten, edo cergatic eztaquiçula edequeten baitçaitçu.

Batçutan gauça appurra da gracia trauatcen, eta gorditcen duena; erran behar bada appurra dela, aitcitic erran behar ezpada handia dela cenere hain ontasun handia Kentcen eta Camporatcen baitu.

Baldin ordea çure ganic Kentcen baduçu trabu hura, dela appurra, dela handia, eta ossoqui guelditcen baçare nausi, ardietseco duçu ceren ere esque baitcinunde.

III Ecen noiz ere bihotz guciaz emanen baitçaisco Jaincoari, eta horrelacoric edo halacoric ezpaituçu bilhatuco çure placeraren eta nahiaren arauera; bainan ossoqui iarrico baitçare haren baitan, berehala edirenen çare harequin bat eguinic eta baqueturic.

Berdin eztuçu nihon ere halaco goçoric eta placeric aurkituco, nolacoa hartuco baituçu Jaincoaren borondatea placer duen beçala compli dadinean

Nore ere bada bihotz simple batiz bere desira goiti Jaincoa gana alchatuco baitu, eta hutstuco baita naiz den gauça creatuaren alderoco amudio edo egoin dura desordenatuaz, hura choil içanen da gay eta basso graciaren eta devocioneco ~~graci~~ dohainaren ardietsteco.

Ecen gure Jaunac emaiten du bere benedicinoa, non ere causitcen baita untci hutsturic.

Eta Cembatenaz cinquiago nihore eguinen baiteraue behereco gaucey ucko, eta bere baitan hiltcenago baita bere burua mesprecatuz hambatenaz lasterago heldu da gracia,

~~franquiago~~ uçuago Sartcen da, eta bihotza gorago alchatcen du libroric.

IV Orduan icusico, Franquia içanen du, miretsico, du, bere baitan çaualduco çayo bihotza, ceren Jaincoaren escua berequin duen, eta bera den gucia Seculacotz iarri den Jaincoaren escuetan.

Horra nola benedicatuco den bihotz guciaz Jaincoaren bilha dabillana, eta bere arima eztaducana ez deusetaco.

Hunelaco batic Sacramendu Saindua hartcen duenean gay eta basso eguiten da gracia bereci batez bat içaiteco Jaincoarequin, ceren ezpaitu conturic eguiten bere oldizco devocioneaz eta Consolacioneaz, baina behatcen baitu Jaincoaren loriara eta ohorera devocione eta Consolacione gucien gainetic.

Hamaseygarren Capitulua.

Gure beharrac behar diotçagula aguertu eta bere gracia escatu behar gaiscola Arima devotaren hitzac

I Oene Jauna, guciz eztia, guciz maitatcecoa, orai devocionerequin desiratcen dudana hartcera badaçaguçu ene flacotasuna, eta pairatcen dudan beharquia, cembat ~~bir~~ gaitzetan eta bekatutan ~~erorria~~ natcan erorirric, cembatetan çapatcen, tentatcen, aldaratcen eta liçuntcen naicen; çure gana heldu naiz erremedio bilha Consolacione eta arintça esque nagotçu.

Mintço natçayo diren guciac ~~daqui~~ daquisqui enari, ene bihotz barreneco guciac dacusquienari, eta bera choilqui bere Consolacionez hel da quidiquedanari.

Badaquiçu cer ontasunen beharra dudan gucien gainetic, eta cein pobre naicen vertuteez

II Huna ni çure aitcinean nago pobre bellusiric gracia eta misericordia esque.

Bascaçaçu çure escale gosea, iraciquiçaçu ene hotztasuna cure amorioaren suaz, arguiçaçu ene itsutasuna çure presenciaren arguiaz

Kirats diatçadatçu lurreco atseguin guciac, indaçu paciencia vicitce hunetaco gaitz eta contraco gucietan, eguiçu beherico gauça creatu guciac mespreça detçaden eta ahants daquisquidan.

Goiti diaçadaçu bihotza çure gana cerura, eta enaçaçula uts horra hara lurrean errebelatcera.

Çu choilqui orai danic eztiçaquisquit seculacotz; berdinçu choilqui çara ene jatecoa eta edatcecoa, ene amorioa eta bozcarioa, ene dulcedura eta ontasun gucia.

III Ainaçaçun gutia cure presenciaz iraciqui erre; eta çu baitara itcul çurequin espiritu bat eguin nadintçat barreneco batasunaren graciaz, eta amorio beroz urturic

Enaçaçula uts cure ganic ioaitera baruric eta charturic, bainan hari çaite enequin misericordiosqui, maiz eta maiz çure saindu equin miragarrizqui hari içan çaren becala

Cer miretsteco liçate gucia sutcen baninz çuc eguinic, eta ene baitan iscas banendi, daquidala çu çarela bethi vici den, eta behen ere iraunguitcen ezten sua, çu çarela bihotzac garbitcen dituen, eta adimendua arguitcen duen amorioa.

Hamaçazpigarren Capitulua.

Jesusen errecebitceco amorio iraquinaz eta affeccione bortitzaz.

Jesustiarraren hitzac.

I O Jauna, ~~devocione~~ beregaineco devocione, eta erretcen nauen amorio batez, ene bihotzeco affeccione eta indar guciez desiratcen dut çure errecebitcera, hainitz arima. Sainduc eta devocionetsuc errecebitcen cinitustenean desiratu çaitusten beçala, ceinac bere vicitce sainduaz gatic çure gogoracoac ican baitira, eta choil devocione beroa ekarri baiterautçute.

O ene Jaincoa, egundainoco amorioa, ene ontasun gucia, mugarrigabeco ~~ontasuna~~ doatsutasuna, badut guthicia çure errecebitceco egundaino, çure Sainduetaric nihorc içan duen eta huneraino sentitu eta frogatu ahal duen desir handienaz eta erreuerencia humillenaz.

II Eta devocionezco sentimendu hec guciac mereci eztitudalaric, badaric ere presentatcen derausquitçut ene bihotzeco affeccione ac ~~ott~~ ~~cure~~ ~~Sainduen~~ arima prestuen desir suakartu çure gogaraco hec guciac neronec banitu beçala

Bai eta cer ere bihotz deuot batec gogora endellego, eta desira baiteçaque, hura gucia erreuerencia guciz handi, eta berodura choil barreneco batez ekartcen derautçut eta ofrendatcen.

Eztut deus ere enetçat lekatu ez soberatu nahi, ~~bainan~~ aitcitic nahi derausquitçut, bai neure burua, bai neure diren guciac gogotic eta borondatez sacrificiatu.

Ene Jainco Jauna, ere creatçaillea eta Saluatçaillea desiratcen dut egun Çure errecebitcera Andre dana Maria Virgina loriosa, çure ama guciz Sainduac desiratu eta errecebitu Çaituen beçalaco affectione erreuerencia, laudorio, ohore esquer merecimendu, amorio, fide, esperança eta garbitasun. guciequin, Çu guiçon eguinen cenelaco mysterioaren berria eKarri cioen Angueruari humilqui eta deuotqui ihardetsi cioenean: Huna ni Jaunaren nescatoa eguin bequit çure hitzaren arrauera.

III Eta nola Jondone Joanni Batista; Çure aitcindari doatsua, Sainduen beregainecoa çure presencian bozcarioturic jausica hari içan baitcen Espiritu Sainduac emanicaco graciaz, oraino bere amaren Sabelean. Cegoelaric; eta guero icusi cuenean bere Jesus, ~~handiro~~ haguitz humildurie gogo deuotaz erraiten baitçuen: Esposaren adisquidea, chutic dagoena, eta hura ençuten duena, bozcarioz bozten da esposaren mintçoa eta hitzac aditurie hala nic ere guthicia, Saindua eta desir handia dut amoriozco Kar viciez erretceco, eta çuri bihotz ossoz neure buruaren presen=tatceco.

Halacotz ofrendatcen derausquitçutarima deuot gucien alegriançac, affeccione pitstuac, espirituzco eramaitçac, gaineticaco arguidurac, cerutic aguertcen eta heldu çaisten eçagutça guciac, bai eta ceruan edo lurrean egundainoco Creatura

gucien partez cantatu eta cantatuco
çaisquitçun vertute eta laudorio guciac
ene Saluamendua gatic, eta ene othoitzetan
gomendatu diren guciac gatu, arren gucioc
bide beçalaco laudorio eta loria eman
emandiaçaçugun Secula Seculoronecotz.

IV Ene Jainco jauna, haretçatcu ene
votuac, eta çure ecin erranezco handitasuna
gatic çucen onez çor çaisquitçun fingabequi
çure laudatceco eta neurrigabequi benedicatceco
desirac.

Ene votu horioc bihurtcen derausquitçut.
eta bai egun, bai puntu oroz çuri hequin bihurtceco
desira dut, othoitzez nagotela hitzez eta
bihotzez ceruco espiritu eta munduco fidel
guciey enequin batean çuri esquer eta
laudorio emaiteaz.

V Lauda Çaitcatela cantoin, Conarca,
gende hitzaintza eta erdara guciez.

Barraya beçate laudorioz çure icen Saindua
eta eztia dariona ahalic boztasun, eta
devocione beroenaz.

Bai eta Ceinec ere çure Sacramendu
handia erreuerenciarequin eta devocionerequin
ukitcen ~~baituta~~, edo fede osso batequin
errecebitcen baitute, arren eguin bitez
bire gay çure aitcinean graciaren eta
misericordiaren edireiteco, eta beguite othoitz
ni bekatore horren gatic.

Finean devocione desiratu bataçun goço=
gazziarequin ardiets deçatenean, ongui
consolaturic eta miragarriqui othurunçaturic
ceruco mahain Saindutic ilki diticinean
placer dutela ni pobre eta gaiço horrez orhoitu.

Hemeçortçigarren Capitulua

Ertuela nihorc Sacramendu Saindua curiosqui Sondatu behar, baina iarri behar dela Jesusen imitatçaille humil bere Sentimendua fide Sacruatuaren azpian emanic.

Jesus maitearen hitzac.

I Beguiratu behar çare sacramendu hondargabeco hunen curiosqui Sondatcetic, eta hartaz galde alferric eguititic, nahi ezpaçare guria dudetan ihorsi.

Norc ere Sondatcen baitu Jaincoaren ~~loria~~ maiestatea, hura lilluratuco du haren loriac.

Jaincoac gueyago daidique, guiçonac endellega deçaqueyen baino.

Paira ditegue nihorc eguiten duen galde deuota eta humilla, ceinden eguia iaquin nahiz, bethi pristic dagoenean ikastera, eta Dotor Sainduen Sentimendu garbien ondoan ibilli nahi duenean

II Doatsua da simpletasuna galdeen bide gaitzac utsten dituen Simpletasuna, eta Jaincoaren manamenduen bide chidor ordoquian, cilhayan, eta fermuan dabillana

Hainitzec galdu dute devocionea, gauça goraiguiac Sondatu nahi içan ditustenean.

Galdeguiten çaitçu ea fedea duçun, eta vicitce garbia daramaçun, ez ordea eta Jaincoaren mysterio gorac eta barrenac endellegatcen ~~tutac~~ tutçun.

Baldin çu baino ~~gorago~~ beherago diren gauçac endellegatcen ezpaditutçu, nolatan iaquinen tutçu çu baino gorago direnac?

Jar çaite Jaincoaren azpian, eta humil
dioçoçu fedeari çure sentimendua, orduan
emanen çaitçu iaquintasuneco arguia, on
eta behar içanen duçun azauera.

III Batcuec testamendu gaitzac içaiten
tuste fedeari eta sacramendu sainduari
ukitcen çaiscon gaucen gainean, bainan
ezta hequin, bai ordea etsayaren falta
eguin behar

Eztuçula ansiarie, ez ihardu qui çure
gogoetequin, ez ihardets deabruac igortcen
derausquitçun duden gainean, bainan emeçu
cinetste Jaincoaren hitzey, haren sainduey,
eta Profetey, guero etsay gaixtoa ioanen da
çure ganic ihesi.

Hainitz etan haguitz on da Jaincoaren
seruitçariac halaco tentacionerie paira dicen.

Ecen deabruac eztitu tentatcen fedegabecoac
eta bekatoreac, daquiela hec bere escuetan
dadutçala, baina fidelac eta devotac
hainitz moldez tentatcen tu eta penatcen

IV Çabiltça beraz fede simple eta dudagabeco
batequin, hurbil caquisco sacramenduari
erreuerencia humillarequin, eta cer ere
ecin endellega baiteçaqueçu, hura utsaçu
fidançarequin Jainco guciz botheretsuaren
escuetan.

Jaincoac etçaitu enganatcen, bere buruaz
sobera fida dena enganatcen ohi da

Jaincoa dabilla humillequin, bere burua
eracuzten deraue humilley ~~endellig~~ adimendua
emaiten deraue chipiey, endellegua, eguia,
barreneco mamia aguertcen deraue arima
garbiey, baina gracia estaltcen deraue curiosey eta urguilluey.

Guiconaren arracoina flacoa da, eta
errebela diteque, ordea eguiazco fedea
ecin engana diteque
V Arraçoin gucia, bilhatce edo galdeguiten
naturala behar cayo fedeari iarraiqui,
ez aitcindu, ez eta Contra iarri.

Ecen fideac eta amorioac hemen dute garaya
eta bide estali batcuez obratcen hari dire Sacra=
=mendu Saindu eta gucien gaineco hunetan.

Seculaco Jaincoac, murri gabecoac, eta
fingabequi botheretsuac eguitentu gauça
handiac eta ecin Sondatuzcoac ceruan
eta lurrean, eta haren obra miragarrien
Causitceco bideric ezta.

Halacoac balire jaincoaren obrac, non
guiçonaren arraçoinac erraz qui endellega
bailetça, elicate erran behar miragarriac
eta ecin erranezcoac direla.

JESUS. MARIA. JOSEPH.